Hogeita zazpigarrena. Norberaren Konturako Langile edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziaren aplikazio-esparrua. . . . .	423
Hogeita zortzigarrena . . . . .	425
Hogeita bederatzigarrena. Banana erabili, paketatu, ontziratatu eta merkaturatzeko lanetan aritzen diren langileak Araubide Orokorrean sartzea . . . . .	427
Hogeita hamargarrena. Gizarte Segurantzako eta batera biltzeko ekarpenen hobariak izaera bereziko zenbait lan-harremanetan, eta zenbait esparru geografikotako langileentzako murrizketak. . . . .	427
Hogeita hamaikagarrena. Enplegu-erregulazioko espediente batzuetan izenpetu beharreko hitzarmen bereziaren araubide juridikoa. . . . .	431
Hogeita hamabigarrena. Norberaren konturako langileei dagozkien kuotak kentzea hirurogeita bost urterekin edo gehiagorekin . . . . .	433
Hogeita hamahirugarrena . . . . .	435
Hogeita hamalauugarrena. Gertagarri profesionalengatiko babes-jarduna hedatzea Norberaren Konturako Langile edo Autonomoen Araubide Berezian sartutako langilei . . . . .	435
Hogeita hamabosgarrena. Norberaren Konturako Langile edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian sarturiko langile berriei aplikatzekoa zaien Gizarte Segurantzako kotizazioaren hobaria . . . . .	437
Hogeita hamaseigarrena. [Derogatua]. . . . .	439

Trigésima séptima. Ampliación de la protección por incapacidad temporal para los trabajadores por cuenta propia o autónomos . . . . .	438
Trigésima octava. Efecto de las cotizaciones superpuestas en varios regímenes en orden a las pensiones de la Seguridad Social . . . . .	438
Trigésima novena. Requisito de estar al corriente en el pago de las cuotas a efecto de las prestaciones. . . . .	438
Cuadragésima. Remisión de datos médicos necesarios para el reconocimiento de las prestaciones económicas de la Seguridad Social . . . . .	440
Cuadragésima primera. Régimen de la asistencia sanitaria de los funcionarios procedentes del extinguido Régimen Especial de Funcionarios de la Administración Local . . . . .	440
Cuadragésima segunda. Acreditación de situaciones legales de desempleo . . . . .	442
Cuadragésima tercera. Del régimen de Seguridad Social del personal licenciado sanitario emérito. El personal licenciado . . . . .	442
Cuadragésima cuarta. Períodos de cotización asimilados por parto . . . . .	442
Cuadragésima quinta. Coeficientes reductores de la edad de jubilación . . . . .	444
Cuadragésima sexta. Tramitación electrónica de procedimientos en materia de protección por desempleo . . . . .	444
Cuadragésima séptima. Coeficientes reductores de la edad de jubilación de los miembros del Cuerpo de la Ertzaintza . . . . .	446
Cuadragésima octava. Prestación económica de pago único por nacimiento o adopción de hijo producido en 2010 . . . . .	448
Cuadragésima novena. Cotización por desempleo en el contrato para la formación y cuantía de la prestación . . . . .	448
Quincuagésima. Notificaciones de actos administrativos por medios electrónicos, informáticos o telemáticos. . . . .	448
Quincuagésima primera. Gastos por la anticipación de la readaptación de los trabajadores en incapacidad temporal por contingencias comunes . . . . .	452
Quincuagésima segunda. Competencias sobre los procesos de Incapacidad Temporal . . . . .	452
<b>Disposiciones transitorias . . . . .</b>	<b>454</b>
Primera. Derechos transitorios derivados de la legislación anterior a 1967 . . . . .	454
Segunda. Cotizaciones efectuadas en anteriores regímenes . . . . .	454
Tercera. Aplicación de legislaciones anteriores para causar derecho a pensión de jubilación . . . . .	456

Hogeita hamazazpigarrena. Norberaren konturako langile edo autonomozko aldi baterako ezintasunagatik babesa hedatzea . . . . .	439
Hogeita hemezortzigarrena. Araubide batean baino gehiagotan aldi berean kotizatu izanaren eragina Gizarte Segurantzako pentsioei dagokienez. . . . .	439
Hogeita hemeretzigarrena. Prestazioen ondorioetarako, kuotak ordaintzeari dagokionez egunean egoteko betekizuna. . . . .	439
Berrogeigarrena. Gizarte Segurantzako diru-prestazioak aitortzeko beharrezko diren datu medikoak bidaltzea. . . . .	441
Berrogeita batgarrena. Toki Administrazioen Funtzionarioen Araubide Berri zenekotik datozen funtzionarioen osasun-asistentziaren araubidea . . . . .	441
Berrogeita bigarrena. Legezko langabezia-egoerak egiaztatzea . . . . .	443
Berrogeita hirugarrena. Osasun-arloko enplegatu lizentziadun emeritua- ren Gizarte Segurantzako araubidea. Enplegatu lizentziadunak. . . . .	443
Berrogeita laugarrena. Erditzea dela-eta parekaturiko kotizazio-aldiak . . . . .	443
Berrogeita bosgarrena. Erretiro-adina murrizteko koefizienteak . . . . .	445
Berrogeita seigarrena. Langabezia-babeseko prozeduren izapideak bitarteko elektronikoz egitea . . . . .	445
Berrogeita zazpigarrena. Ertzaintzako kideen erretiro-adina gutxitzeko koefizienteak . . . . .	447
Berrogeita zortzigarrena. 2010ean jaio edo adoptaturiko seme-alabagatik ordainaldi bakarreko diru-prestazioa . . . . .	449
Berrogeita bederatzigarrena. Langabezia-kotizazioa prestakuntza-kontratuan eta prestazioaren zenbatekoa. . . . .	449
Berrogeita hamargarrena. Administrazio-egintzak bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikoz jakinaraztea . . . . .	449
Berrogeita hamaikagarrena. Gertagarri arrunten ondorioz aldi baterako ezintasunean dauden langileen berregokitzea aurreratzeagatik gastuak. . . . .	453
Berrogeita hamabigarrena. Aldi baterako ezintasuneko prozesuei buruzko eskumenak . . . . .	453
<b>Xedapen iragankorrak. . . . .</b>	<b>455</b>
Lehena. 1967 baino lehenagoko legeriatik eratorritako eskubide iragankorrak . . . . .	455
Bigarrena. Aurreko araubideetan egindako kotizazioak . . . . .	455
Hirugarrena. Erretiro-pentsiorako eskubidea sorrarazteko aurreko legeriak aplikatzea . . . . .	457

Cuarta. Aplicación paulatina del periodo mínimo de cotización para el acceso a la pensión de jubilación . . . . .	460
Quinta. Normas transitorias sobre base reguladora de la pensión de jubilación . . . . .	462
Quinta bis. Calificación de la incapacidad permanente . . . . .	464
Sexta. Incompatibilidades de las prestaciones no contributivas. . . . .	464
Sexta bis. Aplicación paulatina del límite de edad a efectos de las pensiones de orfandad. . . . .	464
Séptima. Prestaciones del extinguido Seguro Obligatorio de Vejez e Invalidez. . . . .	464
Octava. Integración de entidades sustitutorias . . . . .	466
Novena [Derogada] . . . . .	466
Décima. Situación asimilada a la de alta en los procesos de reconversión . . . . .	466
Undécima. Pervivencia de subsidios económicos de la Ley de Integración Social de los Minusválidos . . . . .	468
Duodécima. Deudas con la Seguridad Social de los Clubes de Fútbol . . . . .	468
Decimotercera. Conciertos para la recaudación . . . . .	470
Decimocuarta. Aplicación paulatina de la financiación de los complementos a mínimos de las pensiones contributivas de la Seguridad Social . . . . .	472
Decimoquinta. Tope máximo de cotización. . . . .	472
Decimosexta. Base reguladora de la pensión de incapacidad permanente que provenga de incapacidad temporal . . . . .	472
Decimoséptima. Normas transitorias sobre jubilación parcial . . . . .	472
Decimooctava. Norma transitoria sobre pensión de viudedad en supuestos de separación judicial o divorcio anteriores al 1 de enero de 2008 . . . . .	476
Decimonovena. Actas de liquidación de la Seguridad Social . . . . .	478
<b>Disposición derogatoria única . . . . .</b>	<b>478</b>
Derogación normativa. . . . .	478
<b>Disposiciones finales. . . . .</b>	<b>484</b>
Primera. Aplicación de la Ley . . . . .	484
Segunda. Competencias de otros Departamentos ministeriales. . . . .	484
Tercera. Aportación de datos a las Entidades gestoras . . . . .	486
Cuarta. Acomodación de las normas sobre pensión de jubilación por disminución de la edad. . . . .	486

Laugarrena. Erretiro-pentsiorako irispidea izateko gutxieneko kotizazio-aldia gutxika aplikatzea. . . . .	461
Bosgarrena. Erretiro-pentsioaren oinarriari buruzko arau iragankor- rak. . . . .	463
Bost bis. Ezintasun iraunkorren kalifikazioa . . . . .	465
Seigarrena. Ekarpenezko ez diren prestazioen bateraezintasunak. . . . .	465
Sei bis. Adin-muga gutxika aplikatzea umezurtz-pentsioen ondorioeta- rako . . . . .	465
Zazpigarrena. Zahartasun eta Baliaezintasun Aseguru Nahitaezko zene- koaren prestazioak . . . . .	465
Zortzigarrena. Entitate ordezaileak integratzea . . . . .	467
Bederatzigarrena [Derogatua] . . . . .	467
Hamargarrena. Birmoldaketa-prozesuetan altarekin parekatzen den egoera	467
Hamaikagarrena. Minusbaliatuen Gizarte Integrazioarako Legearen diru- subsidioen iraupena . . . . .	469
Hamabigarrena. Futbol-klubek Gizarte Segurantzarekin dituzten zorrak	469
Hamahirugarrena. Diru-bilketarako itunak . . . . .	471
Hamalauargarrena. Gizarte Segurantzako ekarpenezko pentsioen gutxie- nekorako osagarrien finantzaketa gutxika aplikatzea. . . . .	473
Hamabosgarrena. Gehieneko kotizazioa . . . . .	473
Hamaseigarrena. Aldi baterako ezintasunetik eratorritako ezintasun iraunkorreko pentsioaren oinarria. . . . .	473
Hamazazpigarrena. Erretiro partzialari buruzko xedapen iragankor- rak. . . . .	473
Hemezortzigarrena. Arau iragankorra, 2008ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko bereizketa judizialen edo dibortzioen kasuetako alargun- pentsioari buruzkoa . . . . .	477
Hemeretzigarrena. Gizarte Segurantzako likidazio-aktak. . . . .	479
<b>Xedapen derogatzaile bakarra . . . . .</b>	<b>479</b>
Arau-derogazioa . . . . .	479
<b>Amaierako xedapenak. . . . .</b>	<b>485</b>
Lehena. Legea aplikatzea . . . . .	485
Bigarrena. Beste ministerio batzuen eskumenak . . . . .	485
Hirugarrena. Entitate kudeatzaileei datuak ematea . . . . .	487
Laugarrena. Erretiro-pentsioari buruzko arauak adina jaisteagatik egoki- tzea . . . . .	487

Quinta. Habilitaciones al Gobierno en materia de protección por desempleo .....	486
Sexta. Efectos de las modificaciones en materia de protección por desempleo .....	488
Séptima. Desarrollo reglamentario .....	488
LÉXICO.....	503



Bosgarrena. Langabezia-babesaren arloan Gobernuari ahalmenak ematea .....	487
Seigarrena. Langabezia-babesaren arloko aldaketen efektuak.....	489
Zazpigarrena. Erregelamenduz garatzea .....	489
LEXIKOA.....	493

# Prólogo

El Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, cuya traducción al euskera hoy prologo, supone otro hito más en la tarea que como Administración Pública Vasca, como Administración de Justicia y como Universidad Pública del País Vasco realizamos a diario en la normalización del euskera, para conseguir convertirla en lengua de uso efectivo y real de la Justicia en nuestro País.

Vuelvo a prologar un texto como Consejera de Justicia y Administración Pública. Lo hago enormemente orgullosa de ello, como en ocasiones anteriores. Pero lo hago más orgullosa aún por saber que uno de los grandes impulsores de esa tarea, José Manuel Fínez, Viceconsejero de Justicia recientemente fallecido, era especialmente sensible en esta tarea que tenemos.

Como amante de la Justicia entendía que la misma debía ser accesible a todos los ciudadanos. Facilitar la edición de textos jurídicos en euskera era una parte ineludible de esa labor en la que no ahorra esfuerzos. Sirva esta breve mención de sentido homenaje y reconocimiento a él y a cuantos le precedieron en esta tarea, extensible a todos los que la siguen realizando a diario.

La norma escrita regula prácticamente todos los aspectos de nuestras vidas. Por ese motivo es difícil decidir que normas son más importantes que otras. Desde un punto de vista académico nuestra mente jurídica nos dibuja una pirámide normativa de mayor a menor «importancia» a medida que descendemos desde su cúspide hasta su base. Si nos quedásemos con esa visión, simplista me permito adelantar, la Ley General de Seguridad Social tendría un papel importante pero no especialmente elevado en ese esquema tradicional de pensamiento.

# Hitzaurrea

Gizarte Segurantzako Lege Orokorren Testu Bateratua, euskarazko itzulpenaren hitzaurrea egiten ari natzaiona, beste mugarri bat da euskal Administrazio Publikoak, Justizia Administrazioak eta Euskal Herriko Unibertsitate Publikoak euskararen normalizazioan egunero egiten duen lanean, euskara gure herrialdeko Justizian modu eraginkor eta errealean erabiltzen den hizkuntza bilakatzeko.

Testu baten hitzaurrea idaztea egokitu zait berriro ere Justizia eta Herri Administrazioiko sailburu gisa. Aurreko aldietan bezala, oso harro nago horretaz. Baina, are harroago sentitzen naiz lan horren bultzatzaile handienetako batek, hil berri den José Manuel Fínez Justiziako sailburuordeak, arreta berezia jarri zuelako zeregin horretan.

Justizia zale amorratua zenez, bazekien herritar guztientzat eskura egon behar zuela. Testu juridikoak euskaraz argitaratzea lan horren ezinbesteko zatia zen, eta ez zuen nekerik izaten zeregin hori gauzatzeko orduan. Aipamen labur hau bihotz-bihotzeko omenaldia eta aitorea izatea nahi nuke bai beretzat, bai aurretik lan hori egin zutenentzat, baita egunero horretan aritzen direnentzat ere.

Gure bizitzako ia-ia alderdi guztiak idatzizko arauak erregulatzen ditu. Hori dela-eta, zaila da erabakitzea zer arau diren beste batzuk baino garrantzitsuagoak. Ikuspuntu akademikotik, gure adimen juridikoak piramide arauemaile bat marrazten digu, goitik hasi eta oinarrira jaitsi ahala «garrantzi» gehienetik gutxienera antolatuta dagoena. Ikuspegi horrekin geratuko bagina, nire ustez sinplista dena, Gizarte Segurantzako Lege Orokorra garrantzitsua izango litzateke, baina pentsamendu tradizional horretan ez litzateke oso goian egongo.

Sin embargo, cuando vemos el contenido que se ha refundido en la misma, los preceptos en ella regulados, la complejidad de las relaciones que enuncia —muchas de ellas necesitadas de ulterior desarrollo normativo que las concrete aún más— y, sobre todo, cuando somos conscientes de que tiene como destinatario directo a todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas desde que nacen hasta que fallecen, a lo largo de su vida, y que tiene consecuencias incluso después para sus descendientes, es en ese momento cuando comprendemos que quizás debería estar situada en lo alto de esa pirámide tradicional que nos inculcaron en las Facultades de Derecho.

Desarrolla el derecho básico de todos los españoles a la Seguridad Social, derecho que en un mundo globalizado y en una sociedad multicultural como la nuestra se extiende a los que vinieron a trabajar y se quedaron entre nosotros. Y lo hace partiendo de la irrenunciabilidad de los derechos de la Seguridad Social, parte esencial de nuestra concepción del Estado Social y Democrático de Derecho que nuestro sistema garantiza.

El Estado se configura como Estado Social y vela por sus ciudadanos. De ahí la importancia de regular con claridad no solo las aportaciones que estos realizan al mismo por su vinculación al sistema de Seguridad Social, sino también las coberturas y protección que dicho sistema les prestará cuando las necesiten, bien por circunstancias sobrevenidas e imprevistas, bien por haber llegado al fin de la vida laboral.

Regular los conceptos por los que se recaudará, como se hará esa labor, que infracciones frente a su no cumplimiento existen y que sanciones se impondrán por las mismas, parece imprescindible en una sociedad como la nuestra. El esfuerzo que como ciudadanos realizamos a diario debe redundar en el conjunto de la sociedad e individualmente en aquellas personas que lo necesiten.

No podemos olvidar que lo que en nuestro ordenamiento parece asentado y pacífico es todavía impensable en sociedades no tan alejadas de la nuestra, ni siquiera geográficamente. La regulación de situaciones como la muerte, la invalidez o la propia incapacidad temporal son aspiraciones prácticamente inalcanzables en muchos países. El riesgo durante el embarazo, la maternidad y la más reciente inclusión y extensión de la paternidad son conceptos que ni siquiera se plantean en muchas sociedades de nuestro entorno más próximo.

Por ello debemos ser conscientes de que nuestra sociedad, que ha luchado por conseguir estos derechos y una regulación extensa y detallada de los mismos, es afortunada pero a la vez debe ser exigente con los poderes públicos en su cumplimiento. Y nosotros, como Administración, debemos hacer el mayor esfuerzo

Hala ere, testu horretan bateratutako edukia, erregulatutako arauak eta adierazten diren harremanen konplexutasuna ikusita —horietako askok gehiago zehaztuko dituen araudia garatzea behar dute—, eta, batez ere, testuaren hartzaile zuzenak herritar guztiak direla, jaiotzen direnetik hiltzen direnera arte, haien bizitzan zehar, eta haien ondorengoei ere eragin diezaiekeela konturatzaren garenean, une horretan ulertuko dugu, beharbada, testu horrek Zuzenbide Fakultatean irakatsi ziguten piramide tradizional horren goi-goian egon beharko lukeela.

Espainiar guztiak Gizarte Segurantzaren izateko duten oinarrizko eskubidea garatzen du testuak, eta eskubide hori lanera etorri eta gurekin geratu zirenei zabaltzen zaie, mundu globalizatu eta kultura anitzeko gure gizartean. Bide hori Gizarte Segurantzako eskubideen ukaezintasunetik abiatuta egiten du; hain zuzen, gure sistemak bermatzen duen Zuzenbideko Estatu Sozial eta Demokratikoaren ikusmoldearen funtsezko zati denetik.

Estatua Estatu Sozial gisa osatzen da, eta bere herritarrez arduratzen da. Horregatik dira hain garrantzitsuak herritarrek Gizarte Segurantzaren sistemari lotuta egoteagatik estatuari egiten dizkieten ekarpenak, eta Gizarte Segurantzak herritarrei, hala bat-bateko eta ezusteko egoerengatik, nola lan-bizitza amaitzeagatik, behar dutenean emango dien babesa eta laguntza.

Gure gizartean nahitaezkoa ematen du dirua biltzearen kontzeptuak, zeregin hori egiteko modua, hori bete ezean dauden arau-hausteak eta horiengatik ezarriko den zigorra erregulatzea. Herritarrak garen aldetik, egunero egiten dugun ahaleginak eragin egin behar du gizarte osoan eta hura behar duten pertsona guztietan, banan-banan.

Ezin dugu ahaztu, gure antolamenduan finkatua eta baketsua ematen duena pentsaezina dela gure gizartetik hain urrun ez dauden beste batzuetan, ezta geografikoki hain urrun daudeneran ere. Zenbait egoera erregulatzea, heriotza, elbarritasuna edo aldi baterako ezintasuna, esaterako, xede eskurazina da hainbat herrialdetan. Haurdunaldiko arriskua, amatasuna eta berriagoa eta gero eta hedatua dagoen aitatasuna ez dira planteatu ere egiten gugandik hurbil dauden gizarte askotan.

Hori dela-eta, kontuan izan behar dugu eskubide horiek eta horien erregulazio zabal eta zehatza lortzeko borrokatu den gure gizartea zorionekoa dela, baina, aldi berean, horiek betetzeko zorrotza izan behar duela botere publikoekin. Eta guk, Administrazioa osatzen dugunez, ahaleginik handiena egiten behar

posible en la búsqueda de entendimientos y en la mejor coordinación posible entre quienes son competentes para hacer efectiva la regulación hoy refundida.

Suelo recalcar que nunca es mi intención suplantar al propio texto legal para explicar su filosofía, los motivos que llevaron a su adopción o los aspectos más relevantes o significativos del mismo. En este caso he dado un paso más allá de lo que la prudencia me aconsejaría, pero sin duda lo hago movida por la firme convicción de que este Texto Refundido es reflejo de lo que como sociedad justa e igualitaria somos.

Gracias de nuevo por el trabajo, dedicación y esfuerzo de quienes contribuyen a que textos como el actual estén a disposición de todos en Euskara. Gracias por su trabajo, por su esfuerzo y sacrificio. Contribuís a diario a la encomiable labor normalizadora de nuestra querida lengua, el euskara.

Idoia MENDIA  
Consejera de Justicia y Administración Pública

dugu gaur bateratutako erregulazioa betetzeko eskumena dutenen arteko akordioak eta koordinazioa lortzeko.

Azpimarratu nahi dut nire asmoa ez dela lege-testua bera ordezkatzea, haren filosofia, hura egiteko arrazoiak edo haren alderdi garrantzitsu edo aipagarrienak azaltzeko. Kasu honetan, nire zuhurtziak aholkatu didanetik pauso bat harago joan naiz, baina, hala egin dut erabat sinetsita nagoelako testu bateratu hori justua eta berdintasun zalea den gure gizarte honen isla dela.

Eskerrik asko, berriz ere, honelako testuak guztien eskura euskaraz egon dadin lan egiten duzuen guztioi, arduratzen eta saiatzen zareten guztioi. Eskerrik asko zuen lan, ahalegin eta nekeagatik. Egunero ekarpena egiten diozue gure hizkuntza maitea, euskara, normalizatzeko lan goraiagarriari.

Idoia MENDIA  
Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua





# Aurkezpena

Gizarte Segurantzaren Legearen euskarazko itzulpena aurkezten dugun honetan, komeni da azpimarratzea gaia ez dela nolana hiko. Gizartean, ekonomian, politikan eta, horren guztiaren ondorioz, zuzenbidean ere, gai korapilatsu eta mamitsua dugu, zinez.

Oraindik ere sarritan gizarte-segurantza osasun-asistentziarekin identifikatzeko joera baldin badago ere, gaur egun osasun-sistema autonomoa da, eta Gizarte Segurantzako sistemaren helburua herritarren segurtasun ekonomikoa bermatzea da.

Izan ere, Gizarte Segurantzak, denboran eta espazioan salbuespenik izan gabe, arrisku etengabe bati erantzuten dio: gizarte-arriskuari. Guztiok baitugu arriskua, zoritxarrez, enplegua galtzeko, istripu edo gaixotasunen bat jasateko, zahartzaroaren eraginez lanerako gaitasuna galtzeko, eta beste hainbat gertaeraren ondorioz beharrian ekonomikoan gertatzeko. Gure gastuak igo direlako, edo sarrerak jaitsi (soldata galdu), edo, are okerrago, biak batera.

Ezbairik gabe, gizarte-arriskua ekidinezina da. Horregatik, planteamendua ezin da izan arriskua erabat saihestea (ahal den neurrian, bai), baizik eta arriskua gauzatzeko dakarren beharrian ekonomikoari erantzutea. Horixe da gizarte-segurantzako sistemen zeregina: herritarrei segurtasun ekonomikoa bermatzea alde aurretik, eta arriskuarekin bizitzea jasangarri egitea.

Gizarte-segurantzaren lehen urratsetan, Otto Von Bismarck kantziler prusiarrak, XIX. mendearen bukaera aldean, langile-mugimendu iraultzailea bartzeko sistema gisa aurkeztu zuen, langileen gizarte-arriskuei aurre eginez, gizarte-aseguruen sistemaren bitartez. XX. mendearen erdialdean, Sir William

Beveridgek jauzia eragin zuen, sistema bat proposatu zuenean herritar guztioi segurtasun ekonomikoa emateko, sehaskatik hasi eta hilobiraino.

Hortik aurrera, gizarte-segurantzako sistemen aldeko apustua egin zuten zuzenbidezko gizarte-estatuaren ereduko estatuek. Apustu handia, inondik ere. Gaur egun, esan ohi da gizarte-estatuaren izarra eta herritarron aurrean legitimazioa lortzeko gakoa gizarte-segurantza dela. Ez baita nolana hikoia jendeari segurtasun ekonomikoa eskainiz arriskuekin bizitzea jasangarri egitearen garrantzia.

Dena den, oztopoak ez dira falta. Gizarte-segurantzako sistema klasikoan, elkartasuna da gakoa. Banaketa-sisteman, lanean ari direnen izerdien kontuko kotizazioek finantzatzen dituzte beharra dutenen prestazio ekonomikoak (erretiratuak, langabetuak, guraso izan berri direnak, istripu edo gaixotasunen bat izan dutenak). Baina, berez, langileek beren soldataren zati bat kotizatu behar badute ere (% 6.4 inguru), kotizazioen zati handiena enpresei dagokie (soldaten % 33 inguru).

Hor topo egiten dugu gako batekin: gizarte-segurantzak betetzen duen funtzio sozial horren finantziazioa. Aipatu berri den bezala, kotizazioen zati handi bat enpresei dagokie; beraz, ekoizpeneko kostu sozialetan, soldatei kotizazioak gehitu behar zaizkie. Horrek enpresaburuen aldarrikapena eragin du, kotizazio-zama jaistearen alde, kostu horrek enpresen lehiakortasunari kalte egiten diolako.

Lan-harremanetako betiko tentsioa da, ekoizpenaren etekin ekonomikoren banaketaren ingurukoa. Kotizazioa jaisteak lehiakortasuna hobetzea baina langileen gizarte-eskubideak murriztea eragingo luke. Kotizazioak igotzeak, berri, kontrako eragina izango luke. Etekin ekonomikoa vs gizarte-etekina.

Populazioaren zahartzea dela eta, gehienbat, ugariak dira gizarte-segurantzak jasaten dituen erasoak, gehiegizko kostu ekonomikoa delakoan, pasiboak aktiboen eta enpresen kontura aritzea jasangarria ez delakoan. Egia da gastu gehiena erretiro-pentsioek eragiten dutela, eta erretiratuen proportzioa asko igoz gero, langileen kopurua jaitsiz, sistema teknikoki jasangaitez izatera hel daitekeela.

Baina komeni da elementu teknikoak eta ideologikoak bereiztea. Egia da populazioa zahartzen ari dela, eta teknikoki arazo erabakigarria izan litekeen arren, arazo horri irtenbidea bilatzea posible da, aldagetak garaiz aurreikusiz. Pentsiodunen eta kotizatzaileen arteko *ratio*en bilakaera aurreikusiz, neurriak har daitezke, sistemaren osasunari eusteko: kotizazioak berrikusi eta kopurua

igo, prestazioen baldintzak berraztertu eta jaitea lortu, edo diru publikoa bideratu Gizarte Segurantzara.

Sarritan, Gizarte Segurantzak jasaten dituen kritikak ez dira tekniko-objektiboak, ideologiko-ekonomikoak baizik. Gizarte Segurantzaren logikan dagoen elkartasunari gehiegizkoa deritzote batzuek, eta indibidualismoa bultzatzea nahiago dute, horrek dakarren grina indibidual eta lehiakortasunarekin. Estatuak babesa eskaini beharrean, norbera borroka dadila bere interesen alde, aldamenekoaren aurka bada ere. Sistema publikoaren ordez, aseguru-sistema pribatuak. Pribatizazioa.

Gizarte-segurantza pribatizatzekeo saioek Hego Amerikan izan dute beren antzetzoki nagusia. Pinocheten diktadurapeko Txilen gertatu zen saio nagusia, 1980ko hamarkadaren hasieran. Legez, estatuak kudeaturiko eta elkartasunean oinarrituriko banaketa-sistematik, kapitalizazio-sistemara pasatu zen. Ez dago aktibo/pasibo elkartasunik, eta nor bere segurtasuna finantzatzen du, kontu indibidualetan. Kotizazioak ez doaz kutxa publiko batera, finantza-entitate pribatuetara baizik.

Eztabaida horiek zilegi diren arren, gizarte-estatu izena merezi ahal izateko, gizarte-estatu izan behar da. Eta, ahal duen neurrian, sistema akastun baten bitartez bada ere, herritarren segurtasun ekonomikoaren ardura bere gain hartzen ez duen estatuak merezi al du gizarte-estatu izena?

Azkenik, esan hemen aurkezten dugun bertsoia 2011ko urtarrilaren 1ean indarrean egongo dela.

2010eko urrian

Aitor BONGOETXEA ALKORTA  
EHU/UPVko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko  
irakasle agregatua



1/1994 LEGEGINTZAKO  
ERREGE DEKRETUA, 1994KO  
EKAINAREN 20KOA,  
GIZARTE SEGURANTZAREN LEGE  
OROKORRAREN TESTU BATEGINA  
ONESTEN DUENA

---

REAL DECRETO LEGISLATIVO 1/1994,  
DE 20 DE JUNIO,  
POR EL QUE SE APRUEBA  
EL TEXTO REFUNDIDO  
DE LA LEY GENERAL  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

La Ley 26/1990, de 20 de diciembre, por la que se establecen en la Seguridad Social Prestaciones no Contributivas, en su disposición final primera, autoriza al Gobierno para elaborar, en el plazo de dos años a partir de su entrada en vigor, un texto refundido en el que se integren, debidamente regularizados, aclarados y armonizados, los textos legales específicos de Seguridad Social enumerados en su apartado primero, y las disposiciones en materia de Seguridad Social contenidas en normas con rango de Ley de otras ramas del ordenamiento jurídico, y expresamente las listadas en su apartado segundo en el que, asimismo, se hace referencia a las disposiciones con vigencia permanente contenidas en las Leyes anuales de Presupuestos Generales del Estado.

Con posterioridad, la Ley 22/1992, de 30 de julio, de medidas urgentes sobre fomento del empleo y protección por desempleo, a través de su disposición final segunda, otorga una doble autorización al Gobierno: por una parte, para regularizar, sistematizar y armonizar las disposiciones que en materia de protección por desempleo se contienen en ella, con las de los textos legales que expresamente se mencionan; y, por otra parte, para que el producto así obtenido se integre en el texto refundido previsto en la citada Ley 26/1990, de 20 de diciembre, prorrogando, a tal efecto, el plazo que ésta había otorgado para la aludida labor refundidora.

Finalmente, en la Ley 22/1993, de 29 de diciembre, de medidas fiscales, de reforma del régimen jurídico de la función pública y de la protección por desempleo, se autoriza al Gobierno, en su disposición adicional decimocuarta, para que la aludida refundición se extienda también a las disposiciones que sobre la materia de Seguridad Social y protección por desempleo se contienen en la misma, procediéndose a ampliar nuevamente el plazo disponible para tal refundición.

En su virtud, a propuesta del Ministro de Trabajo y Seguridad Social, previo dictamen del Consejo Económico y Social e informe del Consejo General del Poder Judicial, de acuerdo con el Consejo de Estado y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 17 de junio de 1994,

DISPONGO:

### **Artículo único**

Se aprueba el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social que se inserta a continuación.

1990eko abenduaren 20ko 26/1990 Legeak, Gizarte Segurantzaren ekarpe-  
nezko ez diren prestazioak ezarri zituenak, baimena eman zion Gobernuari,  
amaierako lehen xedapenean, hura indarrean sartu eta bi urteren epean testu  
bategin bat prestatzeko honako hauek integratuko zituenak —denak ere behar  
bezala erregularizaturik, argiturik eta harmonizaturik—: lege haren beraren  
lehen atalean zerrendaturiko Gizarte Segurantzari buruzko lege-testu berariaz-  
koak; ordenamendu juridikoaren beste adar batzuetako lege-mailako arau ba-  
tzuetan Gizarte Segurantzari buruz emandako xedapenak, eta berariaz bigarren  
atalean zerrendatzen dituenak; bigarren atal horretan aipatzen dira, gainera, ur-  
tean urteko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan sartzen direnetatik iraunkor-  
tasunez indarrean egotekoak diren xedapenak.

Geroago, 1992ko uztailaren 30eko 22/1992 Legeak, enplegua sustatu  
eta langabezia babesa emateko presazko neurriei buruzkoak, amaierako biga-  
rren xedapenen bitartez, baimen bikoitza eman zion Gobernuari. Alde bate-  
tik, langabezia-babesari buruz lege hartan dauden xedapenak hartan aipaturiko  
lege-testuetan daudenekin erregularizatu, sistematizatu eta harmonizatzekoa.  
Eta, bestetik, hala lorturiko emaitza 1990eko abenduaren 20ko 26/1990 Le-  
gean aurreikusiriko testu bateginean integratzekoa; horretarako, luzatu egin zen  
lege hark bategite-lanerako emandako epea.

Azkenik, 1993ko abenduaren 29ko 22/1993 Legeak, neurri fiskalei, fun-  
tzio publikoaren araubide juridikoaren erreformari eta langabeziagatiko ba-  
besari buruzkoak, ahalmena eman zion Gobernuari, hamalagarren xedapen  
gehigarrian, aipaturiko bategitera biltzeko hartan Gizarte Segurantzako eta lan-  
gabeziagatiko babeseko gaii buruz emaniko xedapenak ere; horretarako, berriz  
zabaldu zen bategiterako epea.

Horrenbestez, Lan eta Gizarte Segurantzako ministroak proposaturik, au-  
rrez Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak irizpena emanik eta Botere Judiziala-  
ren Kontseilu Nagusiak txostena eginik, Estatu Kontseiluarekin ados, eta Mi-  
nistro Kontseiluak 1994ko uztailaren 17an aztertu ondoren,

## XEDATZEN DUT:

### **Artikulu bakarra**

Jarraian txertaturiko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bate-  
gina onesten da.

## DISPOSICIÓN FINAL

### Única

El presente texto refundido entrará en vigor el 1 de septiembre de 1994.

Dado en Madrid, a veinte de junio de 1994

## TÍTULO I

### NORMAS GENERALES DEL SISTEMA DE LA SEGURIDAD SOCIAL

#### CAPÍTULO I

##### Normas preliminares

#### **Artículo 1. Derecho de los españoles a la Seguridad Social**

El derecho de los españoles a la Seguridad Social, establecido en el artículo 41 de la Constitución, se ajustará a lo dispuesto en la presente Ley.

#### **Artículo 2. Principios y fines de la Seguridad Social**

1. El sistema de la Seguridad Social, configurado por la acción protectora en sus modalidades contributiva y no contributiva, se fundamenta en los principios de universalidad, unidad, solidaridad e igualdad.

2. El Estado, por medio de la Seguridad Social, garantiza a las personas comprendidas en el campo de aplicación de ésta, por cumplir los requisitos exigidos en las modalidades contributiva o no contributiva, así como a los familiares o asimilados que tuvieran a su cargo, la protección adecuada frente a las contingencias y en las situaciones que se contemplan en esta Ley.

#### **Artículo 3. Irrenunciabilidad de los derechos de la Seguridad Social**

Será nulo todo pacto, individual o colectivo, por el cual el trabajador renuncie a los derechos que le confiere la presente Ley.



## AMAIERAKO XEDAPEN

### Bakarra

Testu bategin hau 1994ko irailaren 1ean sartuko da indarrean.

Madrilen emana, 1994ko ekainaren 20an

### I. TITULUA

## GIZARTE SEGURANTZAKO SISTEMAREN ARAU OROKORRAK

### I. KAPITULUA

#### Aurretiazko arauak

#### 1. artikulua. Espainiarren Gizarte Segurantzarako eskubidea

Lege honetan xedatu bezala izango dute espainiarrek Gizarte Segurantzarako eskubidea, Konstituzioaren 41. artikuluan ezarria.

#### 2. artikulua. Gizarte Segurantzaren printzipioak eta xedeak

1. Gizarte Segurantzako sistemak bi aldaera ditu babes-jardunerako —ekarpenezko aldaera eta ekarpenezko ez dena—, eta unibertsaltasun, batasun, elkartasun eta berdintasun printzipioetan funtsatzen da.

2. Estatuak, Gizarte Segurantzaren bitartez, lege honetan aurreikusiriko gertagarri eta egoerei aurre egiteko babes egokia bermatzen die sistemaren aplikazio-esparruan diren pertsonei, eta orobat haiek beren kargu dituzten ahaide edo parekatuei, ekarpenezko aldaeran nahiz ekarpenezko ez denean galdatzen diren betekizunak betetzen badituzte.

#### 3. artikulua. Gizarte Segurantzako eskubideei uko egin ezina

Deusez izango da langileak lege honetan aitorturiko eskubideei uko egiten dien itun oro, bakarkakoa izan nahiz kolektiboa izan.

#### **Artículo 4. Delimitación de funciones**

1. Corresponde al Estado la ordenación, jurisdicción e inspección de la Seguridad Social.

2. Los trabajadores y empresarios colaborarán en la gestión de la Seguridad Social en los términos previstos en la presente Ley, sin perjuicio de otras formas de participación de los interesados establecidas por las Leyes, de acuerdo con el artículo 129.1 de la Constitución.

3. En ningún caso, la ordenación de la Seguridad Social podrá servir de fundamento a operaciones de lucro mercantil.

#### **Artículo 5. Competencias del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales y de otros Departamentos ministeriales**

1. Las funciones no jurisdiccionales del Estado en materia de Seguridad Social que no sean propias del Gobierno se ejercerán por el Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, sin perjuicio de las que puedan corresponder, en el ámbito específico de sus respectivas áreas, a otros Departamentos ministeriales.

2. Dentro de las competencias del Estado, corresponden al Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, en relación con las materias reguladas en la presente Ley, las siguientes facultades:

a) Proponer al Gobierno los Reglamentos generales para su aplicación.

b) El ejercicio de la potestad reglamentaria no comprendida en el apartado anterior.

c) El desarrollo de las funciones económico-financieras de la Seguridad Social, a excepción de las encomendadas en la Ley General Presupuestaria y disposiciones concordantes al Ministerio de Hacienda o, en su caso, a otros órganos a los que dicha Ley otorgue competencias específicas en la materia, y de dirección y tutela de las entidades gestoras y servicios comunes de la Seguridad Social, así como de las entidades que colaboren en la gestión de la misma, pudiendo suspender o modificar los poderes y facultades de los mismos en los casos y con las formalidades y requisitos que se determinen reglamentariamente.

d) La inspección de la Seguridad Social a través de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.

#### 4. artikulua. Eginkizunen zedarritzea

1. Estatuari dagokio Gizarte Segurantzaren antolamendua, jurisdikzioa eta ikuskaritza.

2. Langileek eta enpresaburuek lagundu egingo dute Gizarte Segurantza kudeatzen, lege honetan aurreikusitako moduan, hargatik eragotzi gabe interesdunek parte hartzeko bestelako modu batzuk, legetan ezarriak, Konstituzioaren 129.1 artikuluekin ados.

3. Ezein kasutan ezin baliatuko da Gizarte Segurantzaren antolamendua irabazasmoko merkataritza-eragiketetarako.

#### 5. artikulua. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren eta beste ministerio batzuen eskumenak

1. Gizarte Segurantzako gaietan Estatuak dituen jurisdikzioz besteko eginkizunetatik Gobernuari ez dagozkionak Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak beteko ditu, hargatik eragotzi gabe beste ministerio batzuei beren berariazko esparruan dagozkienak.

2. Estatuaren eskumenen barruan, lege honetan arauturiko gaietan, honako ahalmen hauek dagozkio Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioari:

a) Lege hau aplikatzeko erregelamendu orokorrak proposatzea Gobernuari.

b) Aurreko letran xedatutakoaren barruan sartzen ez den erregelamendua ahala baliatzea.

c) Gizarte Segurantzaren eginkizun ekonomiko-finantzarioak garatzea, alde batera utzita Aurrekontu Lege Orokorrean edo xedapen konkordanteetan Ogasun Ministerioari emandakoak edo, hala badagokio, lege horrek gaian berariazko eskumena esleitzen dien beste organo batzuei emandakoak; Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaile eta zerbitzu erkideen eta orobat haren kudeaketan laguntzen duten entitateen zuzendaritza- eta babes-eginkizunak garatzea, haien botere eta ahalmenak geldieran utz edo alda ditzakeelarik erregelamenduz zehazten diren kasuetan, han ezarritako formaltasun eta bete-kizunekin.

d) Gizarte Segurantza ikuskatzea, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza bitartez.

e) Establecer los supuestos y condiciones en que los sujetos responsables en el ámbito de la Seguridad Social, de acuerdo con lo previsto en el artículo 27.6 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de Acceso Electrónico de los Ciudadanos a los Servicios Públicos, quedarán obligados a recibir las notificaciones por medios informáticos o telemáticos.

3. Por el Ministerio de Trabajo y Seguridad Social se organizarán en forma adecuada los Servicios e Instituciones que hayan de llevar a cabo los oportunos estudios jurídicos, sociológicos, económicos y estadísticos de la Seguridad Social, así como los de simplificación y racionalización de las operaciones y trámites administrativos que exijan su desarrollo y aplicación.

4. El ejercicio de las competencias atribuidas al Ministerio de Trabajo y Seguridad Social en relación con la Seguridad Social corresponderá a los órganos y servicios determinados en esta Ley, en sus disposiciones de aplicación y desarrollo o en las orgánicas del Ministerio.

## **Artículo 6. Coordinación de funciones afines**

Corresponde al Gobierno dictar las disposiciones necesarias para coordinar la acción de los Organismos, Servicios y Entidades gestoras del sistema de la Seguridad Social con la de los que cumplen funciones afines de Previsión Social, Sanidad, Educación y Asistencia Social.

## **CAPÍTULO II**

### **Campo de aplicación y estructura del Sistema de la Seguridad Social**

#### **Artículo 7. Extensión del campo de aplicación**

1. Estarán comprendidos en el Sistema de la Seguridad Social, a efectos de las prestaciones de modalidad contributiva, cualquiera que sea su sexo, estado civil y profesión, los españoles que residan en España y los extranjeros que residan o se encuentren legalmente en España, siempre que, en ambos supuestos, ejerzan su actividad en territorio nacional y estén incluidos en alguno de los apartados siguientes:

a) Trabajadores por cuenta ajena que presten sus servicios en las condiciones establecidas por el artículo 1.1 del Estatuto de los Trabajadores en las distintas ramas de la actividad económica o asimilados a ellos, bien sean

e) Ezartzea zer kasu eta baldintzatan Gizarte Segurantzaren eremuan erantzule diren subjektuak behartuta geldituko diren jakinarazpenak bitarteko informatiko edo telematikoz jasotzera, herritarrek zerbitzu publikoetara irispide elektronikoa izateari buruzko 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 27.6 artikulua dioenaren arabera.

3. Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak egoki antolatuko ditu Gizarte Segurantzaren ikerketa juridiko, soziologiko, ekonomiko eta estatistikoak egiteko eta orobat ikerketa horiek garatu eta aplikatzeak eskatzen dituen eragiketa eta izapide administratiboak errazteko eta arrazionalizatzeko behar diren zerbitzu eta entitateak.

4. Lege honetan, lege hau aplikatu eta garatzeko xedapenetan edo Ministerioaren xedapen organikoetan zehazturiko organo eta zerbitzuei egokituko zaie Gizarte Segurantzarekin loturiko Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioari esleituriko eskumenak baliatzea.

## **6. artikulua. Antzeko eginkizunen koordinazioa**

Gobernuari dagokio behar diren xedapenak ematea Gizarte Segurantzako sistema kudeatzen duten organismo, zerbitzu eta entitate kudeatzaileen jardura Gizarte Aurreikuspenean, Osasunean, Hezkuntzan eta Gizarte Laguntzan antzeko eginkizunak betetzen dituztenekin koordinatzeko.

## **II. KAPITULUA**

### **Gizarte Segurantzako Sistemaren aplikazio-esparrua eta egitura**

#### **7. artikulua. Aplikazio-esparrua**

1. Gizarte Segurantzako sisteman sarturik egongo dira, ekarpenezko alderan prestazioak jasotzearen ondorioetarako, Espainian bizi diren espainiarrak eta egoitza Espainian duten edo legez han dauden atzerritarrak, edozein dela ere haien sexua, egoera zibila eta lanbidea, baldin eta nazio-lurraldean badute jardura eta atal hauetakoren batean sartzen badira:

a) Besteren konturako langileak, Langileen Estatutuari buruzko Legearen 1.1 artikuluan ezarritako baldintzetan ekonomia-jardueraren adarretako batean lanean ari direnak edo haiekin parekatuak, izan aldi baterakoak,

eventuales, de temporada o fijos, aun de trabajo discontinuo, e incluidos los trabajadores a domicilio, y con independencia, en todos los casos, de la categoría profesional del trabajador, de la forma y cuantía de la remuneración que perciba y de la naturaleza común o especial de su relación laboral.

b) Trabajadores por cuenta propia o autónomos, sean o no titulares de empresas individuales o familiares, mayores de dieciocho años, que reúnan los requisitos que de modo expreso se determinen reglamentariamente.

c) Socios trabajadores de Cooperativas de Trabajo Asociado.

d) Estudiantes.

e) Funcionarios públicos, civiles y militares.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior no tendrán la consideración de trabajadores por cuenta ajena, salvo prueba en contrario: el cónyuge, los descendientes, ascendientes y demás parientes del empresario, por consanguinidad o afinidad hasta el segundo grado inclusive y, en su caso, por adopción, ocupados en su centro o centros de trabajo, cuando convivan en su hogar y estén a su cargo.

3. Asimismo, estarán comprendidos en el campo de aplicación del sistema de la Seguridad Social, a efectos de las prestaciones de modalidad no contributiva, todos los españoles residentes en territorio nacional.

4. El Gobierno, en el marco de los sistemas de protección social pública, podrá establecer medidas de protección social en favor de los españoles no residentes en España, de acuerdo con las características de los países de residencia.

5. Los hispanoamericanos, portugueses, brasileños, andorranos y filipinos que residan en territorio español se equiparan a los españoles a efectos de lo dispuesto en el número 3 de este artículo. Con respecto a los nacionales de otros países se estará a lo que se disponga en los Tratados, Convenios, Acuerdos o instrumentos ratificados, suscritos o aprobados al efecto, o cuanto les fuera aplicable en virtud de reciprocidad tácita o expresamente reconocida.

6. No obstante lo dispuesto en los apartados anteriores del presente artículo, el Gobierno, a propuesta del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social y oídos los Sindicatos más representativos o el Colegio Oficial competente, podrá, a instancia de los interesados, excluir del campo de aplicación del Régimen de la Seguridad Social correspondiente, a las personas cuyo trabajo por cuenta ajena, en atención a su jornada o a su retribución, pueda considerarse marginal y no constitutivo de medio fundamental de vida.

sasoikakoak edo finkoak, are etenkako finkoak ere, etxe-langileak barne, eta edozein delarik ere, kasu guztietan, langilearen lanbide-kategoria, jasotzen duen ordainaren forma eta zenbatekoa, eta lan-harremanaren izaera, arrunta edo berezia.

b) Beren konturako langile edo autonomoak, enpresa indibidual edo familiar baten titular izan edo ez, hemezortzi urtetik gorakoak, erregelamenduz be-  
rriaz ezartzen diren betekizunak betetzen dituztenak.

c) Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak.

d) Ikasleak.

e) Funtzionario publikoak, zibilak eta militarrek.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira besteren konturako langilezat hartuko, kontrakoaren frogarik ezean: enpresaburuaren ezkontidea eta bigarren gradurainoko odolkidetasunez edo kidadetasunez eta hala bada adopzioz haren ondorengo, aurreko eta gainerako ahaide direnak, enpresaburuaren lantokian edo lantokietan badihardute ere, berarekin bizi direnean eta bere kargu dituenen.

3. Orobat, Gizarte Segurantzako sistemaren aplikazio-esparruan sarturik egongo dira, ekarpenezko ez den aldaerako prestazioak jasotzearen ondorioetarako, nazio-lurraldean bizi diren espainiar guztiak.

4. Gobernuak, gizarte-babes publikorako sistemen esparruan, gizarte-babese-  
ko neurriak ezarri ahal izango ditu Espainian bizi ez diren espainiarren alde, bizi diren herrialdeen ezaugarriekin ados.

5. Espainiarren egoera berean egongo dira, artikuluko honen 3. zenbakian xedaturikoaren ondorioetarako, Espainiako lurraldean bizi diren hispanoamerikarrak, portugaldarrak, brasildarrak, andorratarrak eta filipinarrak. Beste nazionalitateetako kasuan, berriz, horretarako berretsi, egin edo onartu diren tratatu, hitzarmen, akordio edo agirien arabera jokatu da, edo elkarrekikotasun tazi-  
tuki edo espresuki aitortuaren bidez aplikatu daitezkeen arabera.

6. Artikulu honen aurreko zenbakietan xedaturikoa gorabehera, Gobernuak, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak proposaturik eta ordezkagaitasun nagusiko sindikatuei edo elkargo ofizial eskudunari entzunik, Gizarte Segurantzaren dagokien araubidearen aplikazio-esparrutik kanpo utzi ahal izango ditu zenbait pertsona, beren eskariz, besteren kontura egiten duten lanaldia edo lan horretan jasotzen duten ordainsaria marjinalizat jo daitezkeen eta bi-  
zibide nagusi izatera iristen ez denean.

## **Artículo 8. Prohibición de inclusión múltiple obligatoria**

1. Las personas comprendidas en el campo de aplicación del sistema de la Seguridad Social no podrán estar incluidas por el mismo trabajo, con carácter obligatorio, en otros regímenes de previsión distintos de los que integran dicho sistema.

2. Los sistemas de previsión obligatoria distintos de los regulados en esta Ley, que pudieran tener constituidos determinados grupos profesionales, se integrarán en el Régimen General o en los Regímenes Especiales, según proceda, siempre que resulte obligatoria la inclusión de los grupos mencionados en el campo de aplicación de dichos Regímenes.

## **Artículo 9. Estructura del sistema de la Seguridad Social**

1. El sistema de la Seguridad Social viene integrado por los siguientes Regímenes:

- a) El Régimen General, que se regula en el Título II de la presente Ley.
- b) Los Regímenes Especiales a que se refiere el artículo siguiente.

2. A medida que los Regímenes que integran el sistema de la Seguridad Social se regulen de conformidad con lo previsto en los apartados 3 y 4 del artículo 10, se dictarán las normas reglamentarias relativas al tiempo, alcance y condiciones para la conservación de los derechos en curso de adquisición de las personas que pasen de unos a otros Regímenes, mediante la totalización de los períodos de permanencia en cada uno de dichos Regímenes, siempre que no se superpongan. Dichas normas se ajustarán a lo dispuesto en el presente apartado, cualquiera que sea el Régimen a que hayan de afectar, y tendrán en cuenta la extensión y contenido alcanzado por la acción protectora de cada uno de ellos.

## **Artículo 10. Regímenes Especiales**

1. Se establecerán Regímenes Especiales en aquellas actividades profesionales en las que, por su naturaleza, sus peculiares condiciones de tiempo y lugar o por la índole de sus procesos productivos, se hiciere preciso tal establecimiento para la adecuada aplicación de los beneficios de la Seguridad Social.

2. Se considerarán Regímenes Especiales los que encuadren a los grupos siguientes:



## **8. artikulua. Nahitaez araubide batean baino gehiagotan sarturik egoteko debekua**

1. Gizarte Segurantzako sistemaren aplikazio-esparruan diren pertsonak ezin egongo dira nahitaez sarturik, lan beragatik, sistema osatzen dutenez bestelako aurreikuspen-araubideren batzuetan.

2. Lege honetan araututakoaz gainerako nahitaezko aurreikuspen-sistemak, lanbide-talde batzuek halakorik eratzten duten kasuan, araubide orokorrean edo araubide berezietan integratuko dira, zer dagokion, betiere nahitaezkoa baldin bada aipaturiko lanbide-taldeak araubide horien aplikazio-esparruan sartzea.

## **9. artikulua. Gizarte Segurantzako sistemaren egitura**

1. Honako araubide hauek osatzen dute Gizarte Segurantzako sistema:

- a) Araubide Orokorra, lege honen II. tituluari arautua.
- b) Araubide bereziak, ondorengo artikuluan azalduak.

2. Gizarte Segurantzako sistema osatzen duten araubideak garatuz doazen neurrian —10. artikulua 3. eta 4. zenbakiek aurreikusitakoaren arabera—, erregelamenduzko arauak emango dira araubide batetik bestera pasatzen diren pertsonak eskuratzeko bidean dituzten eskubideak gordetzeko denborari, irismenari eta baldintzei buruz, batu egingo baita araubide batean eta bestean egondako denbora, betiere bata besteari gainjartzen ez bazaizkio. Arau horiek zenbaki honetan xedatutakoari atxikiko zaizkio, edozein dela ere eragin behar dioten araubidea, eta kontuan izango dute araubide bakoitzaren babes-jardurak iritsitako hedadura eta edukia.

## **10. artikulua. Araubide Bereziak**

d) Zuzenean beren gain hartuz, beren kontura, gaixotasun arrunten edo lanez kanpoko istripuen ondoriozko aldi baterako ezintasunaren diru-prestazioak ordaintzea, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak ezartzen dituen baldintzetan.

Lankidetzamodu hori aukeratzen duten enpresek eskubidea izango dute Gizarte Segurantzako kuota murrizteko, hartarako Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak ezartzen duen koefizientea aplikatuz.

2. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak nahitaezkoztat ezarri ahal izango du, enpresa guztientzat edo ezaugarri jakin batzuetako enpresentzat, aurreko c) letrako prestazioen ordainketan laguntzea.

3. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak erabakiko du zer baldintzetan eraendu behar den artikulua honetako aurreko zenbakietan azaldutako lankidetzatza.

4. Artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen den lankidetzamodua, enpresek Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntzekoa, baimendu ahal izango

a agrupaciones de empresas, constituidas a este único efecto, siempre que reúnan las condiciones que determine el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

5. En la regulación de las modalidades de colaboración establecidas en los apartados 1, a), b) y d) del apartado 1 y en el apartado 4 del presente artículo se armonizará el interés particular por la mejora de prestaciones y medios de asistencia con las exigencias de la solidaridad nacional.

## SECCIÓN QUINTA

### *Inspección*

#### **Artículo 78. Competencias de la Inspección**

1. La inspección en materia de Seguridad Social se ejercerá a través de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social, desarrollando las funciones y competencias que tiene atribuidas por la Ley 42/1997, de 14 de noviembre, la presente Ley y normas concordantes.

2. Específicamente corresponderá a la Inspección de Trabajo y Seguridad Social:

La vigilancia en el cumplimiento de las obligaciones que derivan de la presente Ley y, en especial, de los fraudes y morosidad en el ingreso y recaudación de cuotas de la Seguridad Social.

La inspección de la gestión, funcionamiento y cumplimiento de la legislación que les sea de aplicación a las entidades colaboradoras en la gestión.

La asistencia técnica a entidades y organismos de la Seguridad Social, cuando les sea solicitada.

3. Las competencias transcritas serán ejercidas de acuerdo con las facultades y procedimientos establecidos en las disposiciones aplicables.

#### **Artículo 79. Colaboración con la Inspección**

Los servicios de la Seguridad Social prestarán su colaboración a la Inspección de Trabajo y Seguridad Social en orden a la vigilancia que ésta tiene atribuida respecto al cumplimiento de las obligaciones de empresarios y trabajadores establecidas en la presente Ley.



da enpresa-taldeentzat, ondorio horietarako eta ez bestetarako eratu badira eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak erabakitako baldintzak betetzen badi-tuzte.

5. Artikulu honetako 1.a, 1.b eta 1.d letretan eta 4. zenbakian ezarritako lankidetzak-moduak erregulatzean, nazio-elkartasunak galdatzen duenarekin harmonizatu beharko da prestazio eta asistentzia-bideak hobetzeko interes par-tikularra.

## BOSGARREN ATALA

### *Ikuskaritza*

#### **78. artikulua. Ikuskaritzaren eskumenak**

1. Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak egingo du Gizarte Seguran-tzaren arloko ikuskaritza, 1997ko azaroaren 14ko 42/1997 Legearen, lege ho-nexen beraren eta arau konkordanteen bitartez esleituak dituen funtzio eta es-kumenak garatuz.

2. Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari dagokio, berariaz:

Lege honetatik datozen betebeharrak betetzen direla zaintzea, eta, bereziki, Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeari eta biltzeari dagokionez gertatzen di-ren iruzurrak eta berankortasuna zaintzea.

Kudeaketan laguntzen duten entitateen kudeaketa, funtzionamendua eta aplikatzekoa zaien legeria betetzeari dagokiona ikuskatzea.

Gizarte Segurantzako entitate eta organismoen asistentzia teknikoa ematea, eskatzen dutenean.

3. Aplikatzekoak diren xedapenetan ezarritako ahalmenen eta prozeduren arabera baliatuko dira adierazitako eskumenak.

#### **79. artikulua. Ikuskaritzarekiko lankidetzak**

Gizarte Segurantzako zerbitzuek laguntza emango diote Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari, lege honetan enpresaburu eta langileentzat ezarri-tako betebeharrak betetzeari dagokionez esleitu duen zaintza-lanean.

## CAPÍTULO VIII

### Régimen económico

#### SECCIÓN PRIMERA

#### *Patrimonio de la Seguridad Social*

#### **Artículo 80. Patrimonio**

1. Las cuotas, bienes, derechos, acciones y recursos de cualquier otro género de la Seguridad Social constituyen un patrimonio único afecto a sus fines, distinto del Patrimonio del Estado.

2. La regulación del patrimonio de la Seguridad Social se regirá por las disposiciones específicas contenidas en la presente Ley, en sus normas de aplicación y desarrollo y, en lo no previsto en las mismas, por lo establecido en la Ley del Patrimonio del Estado. Las referencias que en la Ley del Patrimonio del Estado se efectúan a las Delegaciones de Hacienda, a la Dirección General del Patrimonio del Estado y al Ministerio de Economía y Hacienda se entenderán hechas, respectivamente, a las Direcciones Provinciales de la Tesorería de la Seguridad Social, a la Dirección General de la Tesorería General de la Seguridad Social y al Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

#### **Artículo 81. Titularidad, adscripción, administración y custodia**

1. La titularidad del patrimonio único de la Seguridad Social corresponde a la Tesorería General de la Seguridad Social. Dicha titularidad, así como la adscripción, administración y custodia del referido patrimonio, se regirá por lo establecido en esta Ley y demás disposiciones reglamentarias.

En todo caso, en relación con los bienes inmuebles del patrimonio de la Seguridad Social que figuren adscritos o transferidos a otras Administraciones públicas o a entidades de derecho público con personalidad jurídica propia o vinculadas o dependientes de las mismas, corresponden a éstas las siguientes funciones, salvo que en el acuerdo de traspaso o en base al mismo se haya previsto otra cosa:

- a) Realizar las reparaciones necesarias en orden a su conservación.
- b) Efectuar las obras de mejora que estimen convenientes.

## VIII. KAPITULUA

### Araubide ekonomikoa

#### LEHEN ATALA

#### *Gizarte Segurantzaren ondarea*

#### **80. artikulua. Ondarea**

1. Gizarte Segurantzaren kuota, ondasun, eskubide, akzio eta beste era guztietako baliabideek haren xedeei loturiko ondare bakar bat osatzen dute, Estatuaren Ondareaz bestekoa.

2. Gizarte Segurantzaren ondarea lege honetan eta berau aplikatu eta garatzeko arauetan bilduriko berariazko xedapenen arabera eraenduko da, eta, xedapen horietan aurreikusi ez den guztirako, Estatuaren Ondarearen Legean ezarritakoaren arabera. Estatuaren Ondarearen Legean ogasun-ordezkaritzak, Estatuaren Ondarearen Zuzendaritza Nagusia eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa aipatzen direnean, hurrenez hurren, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko probintzia-zuzendaritzei, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzako Zuzendaritza Nagusiaz eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaz ari dela ulertuko da.

#### **81. artikulua. Titulartasuna, adskripzioa, administrazioa eta zaintza**

1. Gizarte Segurantzaren ondare bakarraren titulartasuna Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari dagokio. Titulartasun hori, eta orobat aipaturiko ondarearen adskripzioa, administrazioa eta zaintza, lege honetan eta gainerako erregelamenduzko xedapenetan ezarritakoaren arabera eraenduko da.

Kasu guztietan, beste administrazio publiko batzuei edo nortasun juridiko propioa duten zuzenbide publikoko entitateei edo haiekin loturik daudenei edo haien mendeko direnei adskribaturik edo transferiturik dauden Gizarte Segurantzaren ondareko ondasun higieziinei dagokienez, eginkizun hauek izango dituzte administrazio eta entitateok, ez bada besterik aurreikusi eskualdatze-akordioan edo haren ondorioz:

- a) Kontserbatzeko behar dituzten konponketak egitea.
- b) Egoki deritzoten hobekuntza-lanak egitea.

c) Ejercitar las acciones posesorias que, en defensa de dichos bienes, procedan en Derecho.

d) Asumir, por subrogación, el pago de las obligaciones tributarias que afecten a dichos bienes.

Los bienes inmuebles del patrimonio de la Seguridad Social adscritos a otras Administraciones o entidades de derecho público, salvo que otra cosa se establezca en el acuerdo de traspaso o en base al mismo, revertirán a la Tesorería General de la Seguridad Social en el caso de no uso o cambio de destino para el que se adscribieron, conforme a lo dispuesto en la legislación reguladora del Patrimonio del Estado, siendo a cargo de la Administración o entidad a la que fueron adscritos los gastos derivados de su conservación y mantenimiento, así como la subrogación en el pago de las obligaciones tributarias que afecten a los mismos, hasta la finalización del ejercicio económico en el que se produzca dicho cambio o falta de uso.

2. Los certificados que se libren con relación a los inventarios y documentos oficiales que se conserven en la Administración de la Seguridad Social serán suficientes para su titulación e inscripción en los Registros oficiales correspondientes.

## **Artículo 82. Adquisición de bienes inmuebles**

1. La adquisición a título oneroso de bienes inmuebles de la Seguridad Social, para el cumplimiento de sus fines, se efectuará por la Tesorería General de la Seguridad Social mediante concurso público, salvo que, en atención a las peculiaridades de la necesidad a satisfacer o a la urgencia de la adquisición a efectuar, el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales autorice la adquisición directa.

2. Corresponde al Director general del Instituto Nacional de Gestión Sanitaria autorizar los contratos de adquisición de bienes inmuebles que dicho Instituto precise para el cumplimiento de sus fines, previo informe de la Tesorería General de la Seguridad Social. Será necesaria la autorización del Ministro de Sanidad y Consumo, según la cuantía que se fije en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado.

3. Por el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales se determinará el procedimiento aplicable para la adquisición de los bienes afectos al cumplimiento de los fines de colaboración en la gestión de las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social.

c) Ondasun horien defentsan, zuzenbidean dagozkion edukitza-akzioak baliatzea.

d) Berek ordaintzea, subrogazioz, ondasun horiei dagozkien tributu-betebeharrak.

Beste administrazio batzuei edo zuzenbide publikoko entitate batzuei adskribaturik dauden Gizarte Segurantzaren ondasun higiezinak, ez bada besterik ezartzen eskualdaketa-hitzarmenean edo haren ondorioz, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusira itzuliko dira erabiltzen ez diren kasuan edo adskripzioa egin zeneko erabileratik beste batera aldatzen direnean, Estatuaren Ondarea arautzen duen legeriaren arabera, eta adskripzioa egin zuen administrazioaren edo entitatearen kontura joango dira haiek kontserbatzearen eta mantentzearen gastuak, eta orobat dagozkien tributu-betebeharrak ordaintzeko subrogazioa, erabileraldaketa edo erabiltzeari uztea gertatzen den ekitaldi ekonomikoa amaitu arte.

2. Gizarte Segurantzaren Administrazioan gordetzen diren inbentario eta agiri ofizialei buruz ematen diren egiaztagiriak nahikoa izango dira dagozkien erregistro ofizialetan titulatzeke eta inskribatzeke.

## **82. artikulua. Ondasun higiezinak eskuratzea**

1. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, bere xedeak betetzeko helburuz Gizarte Segurantzaren ondasun higiezinak kostu bidez eskuratu behar dituenean, lehiaketa publiko bidez eskuratuko ditu, non eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak ez duen haiek zuzenean eskuratzeko baimena ematen, beharraren berezitasunagatik edo eskuratzeko premiagatik.

2. Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren zuzendariari dagokio institutu horrek bere xedeetarako behar dituen ondasun higiezinak eskuratzeko kontratuak baimentzea, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak aurrez txostena emanik. Beharrezko izango da Osasun eta Kontsumoko ministroak baimena ematea, Estatuaren Aurrekontuen Legean ezartzen den kopuruaren arabera.

3. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak erabakiko du zer prozedura den aplikatzekoa Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuen kudeaketan laguntzeko xedeari atxikitako ondasunak eskuratzen diren kasuan.

## **Artículo 83. Enajenación de bienes inmuebles y de títulos valores**

1. La enajenación de los bienes inmuebles integrados en el patrimonio de la Seguridad Social requerirá la oportuna autorización del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales cuando su valor, según tasación pericial, no exceda de las cuantías fijadas por la Ley del Patrimonio del Estado, o del Gobierno en los restantes casos.

La enajenación de los bienes señalados en el párrafo anterior se realizará mediante subasta pública, salvo cuando el Consejo de Ministros, a propuesta del Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales, autorice la enajenación directa. Esta podrá ser autorizada por el Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales cuando se trate de bienes que no superen el valor fijado en la Ley del Patrimonio del Estado.

2. La enajenación de títulos valores, ya sean éstos de renta variable o fija, se efectuará previa autorización en los términos establecidos en el número anterior del presente artículo. Por excepción, los títulos de cotización oficial en Bolsa se enajenarán necesariamente en esta institución, según la legislación vigente reguladora del mercado de valores, sin que se requiera autorización previa para su venta cuando ésta venga exigida para atender al pago de prestaciones reglamentariamente reconocidas y el importe bruto de la venta no exceda el montante fijado por la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado. De las enajenaciones de tales títulos se dará cuenta inmediata al Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

## **Artículo 84. Arrendamiento y cesión de bienes inmuebles**

1. Los arrendamientos de bienes inmuebles que deba efectuar la Seguridad Social se concertarán mediante concurso público, salvo en aquellos casos en que, a juicio del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, sea necesario o conveniente concertarlos de modo directo.

2. Corresponde al Director general del Instituto Nacional de Gestión Sanitaria autorizar los contratos de arrendamiento de bienes inmuebles que dicho Instituto precise para el cumplimiento de sus fines. Será necesaria la autorización del Ministro de Sanidad y Consumo cuando su importe supere la cuantía de renta anual establecida en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado.

3. Por el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales se determinará el procedimiento aplicable para el arrendamiento de los bienes afectos al cumplimiento

### **83. artikulua. Ondasun higiezinak eta balore-tituluak besterentzea**

1. Gizarte Segurantzaren ondarekoak diren ondasun higiezinak besterentzeko, dagokion baimena eman beharko du Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak, baldin eta ondasunon balioak ez badu gainditzen, peritu-tasazioaren arabera, Estatuaren Aurrekontuen Legean ezarritako kopurua; gainditzen badu, Gobernuak eman beharko du baimena.

Aurreko paragrafoan adierazitako ondasunen besterentzea enkante publikoaren bitartez egingo da, non eta Ministro Kontseiluak ez duen baimentzen, Lan eta Gizarte Gaietako ministroak proposatuta, zuzenean besterentzea. Zuzenean besterentzeko baimena eman ahal izango du Lan eta Gizarte Gaietako ministroak, ondasunek ez badute gainditzen Estatuaren Ondarearen Legean ezarritako kopurua.

2. Balore-tituluak besterentzeko, izan errenta finkoko tituluak edo izan errenta aldakorrekoak, beharrezko izango da artikulua honetako aurreko zenbakian ezarritako baimena. Salbuespen gisa, Burtsan ofizialki kotizatzen duten tituluak erakunde horretan besterendu beharko dira nahitaez, balore-merkatua arautzen duen legeriaren arabera, eta ez da aurretiazko baimenik beharko haiek saltzeko, salmenta horren xedea erregelamenduz aitortutako prestazioak ordaintzea bada eta salmentaren zenbateko gordinak ez badu gainditzen Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako kopurua. Halako tituluak besterentzen direnean, horren kontu emango zaio berehala Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari.

### **84. artikulua. Ondasun higiezinaren errentamendua eta lagapena**

1. Gizarte Segurantzak ondasun higiezinak errentan hartu behar dituenean, lehiaketa publikoa egin beharko da, non eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak ez duen erabakitzen beharrezko edo komenigarri dela zuzenean hitzartzea errentamendua.

2. Osasun Kudeaketako Institutu Nazionalaren zuzendariari dagokio institutu horrek bere xedeetarako behar dituen ondasun higiezinak errentan hartzeko kontratuak baimentzea. Errentaren zenbatekoa handiagoa bada Estatuaren Aurrekontuen Legean urteko errentarako ezarritakoa baino, Osasun eta Kontsumoko ministroaren baimena beharko da.

3. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak erabakiko du zer prozedura den aplikatzekoa Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mu-

de los fines de colaboración en la gestión de las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social.

4. Los bienes inmuebles del patrimonio de la Seguridad Social que no resulten necesarios para el cumplimiento de sus fines, y respecto de los cuales no se considere conveniente su enajenación o explotación, podrán ser cedidos gratuitamente para fines de utilidad pública o de interés de la Seguridad Social por el Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales, a propuesta de la Tesorería General de la Seguridad Social previa comunicación a la Dirección General de Patrimonio del Estado.

### **Artículo 85. Inembargabilidad**

Los bienes y derechos que integran el patrimonio de la Seguridad Social son inembargables. Ningún Tribunal ni autoridad administrativa podrá dictar providencia de embargo ni despachar mandamiento de ejecución contra los bienes y derechos del patrimonio de la Seguridad Social, ni contra sus rentas, frutos o productos del mismo, siendo de aplicación, en su caso, lo dispuesto sobre esta materia en los artículos 44, 45 y 46 del Real Decreto Legislativo 1091/1988, de 23 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General Presupuestaria.

## SECCIÓN SEGUNDA

### *Recursos y sistemas financieros de la Seguridad Social*

### **Artículo 86. Recursos generales**

1. Los recursos para la financiación de la Seguridad Social estarán constituidos por:

a) Las aportaciones progresivas del Estado, que se consignarán con carácter permanente en sus Presupuestos Generales, y las que se acuerden para atenciones especiales o resulten precisas por exigencia de la coyuntura.

b) Las cuotas de las personas obligadas.

c) Las cantidades recaudadas en concepto de recargos, sanciones u otras de naturaleza análoga.

d) Los frutos, rentas o intereses y cualquier otro producto de sus recursos patrimoniales.

e) Cualesquiera otros ingresos, sin perjuicio de lo previsto en la disposición adicional vigésima segunda de esta Ley.



tuen kudeaketan laguntzeko xedeari atxikitako ondasunak errentan hartzen diren kasuan.

4. Gizarte Segurantzaren ondarekoak diren baina haren xedeak betetzeko beharrezko gertatzen ez diren ondasun higiezinak, ez bada komenigarri ikusten haiek besterentzea edo ustiatzea, doan laga ahal izango ditu, onura publikoko edo Gizarte Segurantzaren intereseko xedeetarako, Lan eta Gizarte Gaietako ministroak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak proposaturik eta aurrez Estatuaren Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazita.

## 85. artikulua. Enbargaezintasuna

Gizarte Segurantzaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak enbargaezinak dira. Ezein epaimahai edo agintari administratibok ezin emango du enbargo-probidentziarik ez exekuzio-agindurik Gizarte Segurantzaren ondareko ondasun eta eskubideen kontra, ez haren errenta, fruitu edo produktuen kontra. Gai horri dagokionez, aplikatzekoa izango da, hala badagokio, Aurrekontuen Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen 1988ko irailaren 23ko 1091/1988 Legegintzako Errege Dekretuaren 44., 45. eta 46. artikuluetan xedaturikoa.

## BIGARREN ATALA

### *Gizarte Segurantzaren finantza-baliabideak eta -sistemak*

## 86. artikulua. Baliabide orokorrak

1. Gizarte Segurantza finantzatzeko baliabideak ondorengo hauetaz osaturik egongo dira:

a) Estatuaren Aurrekontu Orokorretan izaera iraunkorrez jasoko diren Estatuaren ekarpen progresiboak, eta kasu berezietarako erabakitzen diren edo egoeraren arabera beharrezko gertatzen direnak.

b) Ordaintzeko betebeharra duten pertsonen kuotak.

c) Errekargu, zehapen eta antzekoetan jasotako diru kopuruak.

d) Bere ondare-baliabideen fruituak, errenta edo interesak eta beste edozein produktu.

e) Beste zeinahi diru-sarrera, hargatik eragotzi gabe lege honen hogeita bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa.

2. La acción protectora de la Seguridad Social, en su modalidad no contributiva y universal, se financiará mediante aportaciones del Estado al Presupuesto de la Seguridad Social, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 10.3, primer inciso, de esta Ley, con excepción de las prestaciones y servicios de asistencia sanitaria de la Seguridad Social y servicios sociales cuya gestión se halle transferida a las Comunidades Autónomas, en cuyo caso, la financiación se efectuará de conformidad con el sistema de financiación autonómica vigente en cada momento. Las prestaciones contributivas, los gastos derivados de su gestión y los de funcionamiento de los servicios correspondientes a las funciones de afiliación, recaudación y gestión económico-financiera y patrimonial serán financiadas básicamente con los recursos a que se refieren las letras b), c), d) y e) del apartado anterior, así como, en su caso, por las aportaciones del Estado que se acuerden para atenciones específicas.

A los efectos previstos en el párrafo anterior, la naturaleza de las prestaciones de la Seguridad Social será la siguiente:

a) Tienen naturaleza contributiva:

Las prestaciones económicas de la Seguridad Social, con excepción de las señaladas en la letra b) siguiente.

La totalidad de las prestaciones derivadas de las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales.

b) Tienen naturaleza no contributiva:

Las prestaciones y servicios de asistencia sanitaria incluidas en la acción protectora de la Seguridad Social y los correspondientes a los servicios sociales, salvo que se deriven de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales.

Las pensiones no contributivas por invalidez y jubilación.

Los complementos a mínimos de las pensiones de la Seguridad Social.

Las prestaciones familiares reguladas en la sección segunda del capítulo IX del título II de esta Ley.

## **Artículo 87. Sistema financiero**

1. El sistema financiero de todos los Regímenes que integran el sistema de la Seguridad Social será el de reparto, para todas las contingencias y situaciones

2. Gizarte Segurantzaren babes-jarduna, haren aldaera ekarpenezko ez den eta unibertsalean, Estatuak Gizarte Segurantzaren Aurrekontura egindako ekarpenen bidez finantzatuko da, hargatik eragotzi gabe lege honen 10.3 artikulua lehena aipuan ezarritakoa; salbuespen dira autonomia-erkidegoei eskualdaturik dauden Gizarte Segurantzaren osasun-asistentziako prestazio eta zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak, unean-unean erkidegoetarako indarrean den finantzaketa-sistemaren arabera finantzatuko baitira horiek. Ekarpenezko prestazioak, eta orobat haien kudeaketak dakartzan gastuak eta afiliarioari, diru-bilketari eta kudeaketa ekonomiko-finantzario eta ondarezkoari dagozkien funtzioetarako zerbitzuen funtzionamenduak dakartzan gastuak, aurreko zenbakiko b), c), d) eta e) letratan adierazitako baliabideetatik finantzatuko dira nagusiki, eta, hala badagokio, arta berezietarako erabakitzen diren Estatuaren ekarpenetatik.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, hau izango da Gizarte Segurantzako prestazioen izaera:

a) Ekarpenezkoak dira:

Gizarte Segurantzaren diru-prestazioak, ondorengo b) letratan adierazitakoak salbu.

Lan-istripuen eta laneko gaixotasunen gertagarrien ondoriozko prestazio guztiak.

b) Ekarpenezko ez direnak hauek dira:

Gizarte Segurantzaren babes-jardunean sartutako osasun-asistentziako prestazioak eta zerbitzuak eta gizarte zerbitzuei dagozkienak, ez badira lan-istripuen eta laneko gaixotasunen ondoriozkoak.

Ekarpenezko ez diren baliaezintasun- eta erretiro-pentsioak.

Gizarte Segurantzako gutxieneko pentsiorako osagarriak.

Lege honen II. tituluko IX. kapituluko bigarren atalean arauturiko familia-prestazioak.

## **87. artikulua. Finantza-sistema**

1. Gizarte Segurantza osatzen duten araubide guztien finantza-sistema banaketa bidezkoa izango da, haietako bakoitzak babestutako gertagarri eta

amparadas por cada uno de ellos, sin perjuicio de la excepción prevista en el apartado 3 de este artículo.

2. En la Tesorería General se constituirá un fondo de estabilización único para todo el sistema de la Seguridad Social, que tendrá por finalidad atender las necesidades originadas por desviaciones entre ingresos y gastos.

3. En materia de pensiones causadas por incapacidad permanente o muerte derivadas de accidente de trabajo o enfermedad profesional cuya responsabilidad corresponda asumir a las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social o, en su caso, a las empresas declaradas responsables, se procederá a la capitalización del importe de dichas pensiones, debiendo las entidades señaladas constituir en la Tesorería General de la Seguridad Social, hasta el límite de su respectiva responsabilidad, los capitales coste correspondientes.

Por capital coste se entenderá el valor actual de dichas prestaciones, que se determinará en función de las características de cada pensión y aplicando los criterios técnicos-actuariales más apropiados, de forma que los importes que se obtengan garanticen la cobertura de las prestaciones con el grado de aproximación más adecuado y a cuyo efecto el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales aprobará las tablas de mortalidad y la tasa de interés aplicables.

Asimismo, el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales podrá establecer la obligación de las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales de la Seguridad Social de reasegurar los riesgos asumidos que se determinen, a través de un régimen de reaseguro proporcional obligatorio y no proporcional facultativo o mediante cualquier otro sistema de compensación de resultados.

4. Las materias a que se refiere el presente artículo serán reguladas por los Reglamentos a que alude el apartado 2. a) del artículo 5 de la presente Ley.

## **Artículo 88. Inversiones**

Las reservas de estabilización que no hayan de destinarse de modo inmediato al cumplimiento de las obligaciones reglamentarias serán invertidas de forma que se coordinen las finalidades de carácter social con la obtención del grado de liquidez, rentabilidad y seguridad técnicamente preciso.

egoera bakoitzerako, hargatik eragotzi gabe artikuluko honen 3. zenbakian aurreikusitako salbuespena.

2. Diruzaintza Nagusian egonkortze-funts bakar bat eratuko da Gizarte Segurantzako sistema guztirako, sarrera eta gastuen arteko aldeak sortzen dituen beharrei erantzuteko.

3. Lan-istripuen edo laneko gaixotasunen ondoriozko ezintasun iraunkorragatik edo heriotzagatik sortutako pentsioen kontuan, erantzukizuna lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuei edo erantzule deklaraturako enpresei dagokienean, pentsio horien zenbatekoa kapitalizatu egingo da, eta aipaturiko entitateek dagozkien kostu-kapitalak eratu beharko dituzte Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, bakoitzaren erantzukizunaren mugaraino.

Kostu-kapitalizat hartuko da: prestazio horien uneko balioa, pentsio bakoitzaren ezaugarrien arabera eta irizpide tekniko-aktuarialik egokienak aplikatuz kalkulatua, lortzen diren kopuruekin prestazioak hurbilketa-gradurik egokienarekin estaliko direla bermatzeko moduan; ondorio horietarako, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak onetsiko ditu aplikatu beharreko hilkortasun-etautasunak eta interes-tasa.

Era berean, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak betebehartzat ezarri ahal izango die lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuei beren gain harturiko arrisku batzuk berraseguratzeko —Ministerioak erabakitzen dituenak—, berraseguru proportzional nahitaezkoen eta ez-proportzional auke-rakoen bitartez edo emaitzak konpentsatzeko beste edozein sistemaren bitartez.

4. Artikuluko honetako gaiak lege honen 5. artikuluko 2. zenbakiko a) letran aipatzen diren erregelamenduen bitartez arautuko dira.

## **88. artikulua. Inbertsioak**

Erregelamenduz ezarritako betebeharrak betetzera berehala bideratu behar ez diren egonkortze-erreserbak inbertitu egingo dira, egoki uztartuz gizarte-helburuak eta teknikoki behar den likidezia, errentagarritasuna eta segurtasun-gradua.

## SECCIÓN TERCERA

### *Presupuesto, intervención y contabilidad de la Seguridad Social*

#### **Artículo 89. Disposición general y normas reguladoras de la intervención**

1. El Presupuesto de la Seguridad Social, integrado en los Presupuestos Generales del Estado, así como la intervención y contabilidad de la Seguridad Social, se regirán por lo previsto en el título VIII del texto refundido de la Ley General Presupuestaria y por las normas de la presente sección.

2. A efectos de procurar una mejor y más eficaz ejecución y control presupuestario, el Gobierno, a propuesta conjunta de los Ministros de Trabajo y Asuntos Sociales y de Economía y Hacienda, aprobará las normas para el ejercicio de la función interventora en las entidades gestoras de la Seguridad Social.

En los hospitales y demás centros sanitarios del Instituto Nacional de Gestión Sanitaria, la función interventora podrá ser sustituida por el control financiero de carácter permanente a cargo de la Intervención General de la Seguridad Social. La entrada en vigor se producirá de forma gradual a propuesta del Ministro de Economía y Hacienda.

La Intervención General de la Administración del Estado podrá delegar en los interventores de la Seguridad Social el ejercicio de la función interventora respecto de todos los actos que realice el Instituto Nacional de Gestión Sanitaria en nombre y por cuenta de la Administración del Estado.

#### **Artículo 90. Modificación de créditos en el Instituto Nacional de la Salud**

No obstante lo establecido en el artículo 150.3 del texto refundido de la Ley General Presupuestaria, todo incremento del gasto del Instituto Nacional de Gestión Sanitaria, con excepción del que pueda resultar de las generaciones de crédito, que no pueda financiarse con redistribución interna de sus créditos ni con cargo al remanente afecto a la entidad, se financiará durante el ejercicio por aportación del Estado.

#### **Artículo 91. Remanentes e insuficiencias presupuestarias**

1. En la Tesorería General de la Seguridad Social se constituirá un Fondo de Reserva de la Seguridad Social con la finalidad de atender a las necesidades futu-

*Gizarte Segurantzaren aurrekontua, kontu-hartzailetza eta kontabilitatea*

**89. artikulua. Xedapen orokorra eta kontu-hartzailetzaren arauak**

1. Gizarte Segurantzaren Aurrekontua, Estatuaren Aurrekontu Orokorrean integratua, eta orobat Gizarte Segurantzaren kontu-hartzailetza eta kontabilitatea, Aurrekontu Lege Orokorraren testu bateginaren VIII. tituluan eta atal honetan aurreikusitakoaren arabera eraenduko dira.

2. Aurrekontuak hobeki eta modu eraginkorragoan gauzatzeko eta kontrolatzeko, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileetan kontu-hartzaile funtzioa betetzeko arauak onetsiko ditu Gobernuak, Lan eta Gizarte Gaietako eta Ekonomia eta Ogasuneko ministroek batera proposaturik.

Osasun Kudeaketako Institutu Nazionalaren ospitaleetan eta gainerako osasun-zentroetan, kontu-hartzailetzaren ordezkari finantza-kontrol iraunkorra egin ahal izango da, Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailetza Orokorraren bitartez. Modu gradualean sartuko da indarrean, Ekonomia eta Ogasuneko ministroak proposaturik.

Estatuaren Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiak Gizarte Segurantzako kontu-hartzaileei eskuordetu ahal izango die kontu-hartzaile funtzioa, Osasun Kudeaketarako Institutu nazionalak Estatuaren Administrazioaren izenean eta kontura egiten dituen egintza guztiei dagokienez.

**90. artikulua. Osasunaren Institutu Nazionalen kredituak aldatzea**

Aurrekontu Lege Orokorraren testu bateginaren 150.3 artikuluan ezarritakoa gorabehera, Estatuaren ekarpenez finantzatu da, ekitaldiaren barruan, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren gastu-gehitze oro, salbu eta kredituak sortzetik erator litekeena, ez kredituen barne-birbanatzearen bidez ez entitateari atxikitako geldikinen kontura ezin finantzatu dena.

**91. artikulua. Aurrekontuetako geldikin eta eskasiak**

1. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian funts bat eratuko da, Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsa, etorkizunean Gizarte Segurantzak ekar-

ras del sistema de la Seguridad Social en materia de prestaciones contributivas, en la forma y demás condiciones que determine la ley reguladora del mismo.

2. Los remanentes derivados de una menor realización en el Presupuesto de dotaciones del Instituto Nacional de Gestión Sanitaria y los producidos por un incremento en los ingresos previstos por asistencia sanitaria serán utilizados para la financiación de los gastos de la citada entidad.

3. Se autoriza al Ministerio de Economía y Hacienda a reflejar, mediante ampliaciones de crédito en el Presupuesto del Instituto Nacional de Gestión Sanitaria, las repercusiones que en el mismo tengan las variaciones que experimente la aportación del Estado. Corresponde asimismo al Ministro de Economía y Hacienda la autorización de las modificaciones de crédito que se financien con cargo al remanente de dicha entidad.

#### **Artículo 92. Amortizaciones del inmovilizado**

El inmovilizado de la Seguridad Social deberá ser objeto de la amortización anual, dentro de los límites que fije el Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales, con arreglo a los principios y procedimientos establecidos en el Plan General de la Contabilidad Pública.

#### **Artículo 93. Plan anual de auditorías**

1. El Plan anual de auditorías de la Intervención General de la Administración del Estado incluirá el elaborado por la Intervención General de la Seguridad Social, en el que progresivamente se irán incluyendo las entidades gestoras, servicios comunes, así como las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social, de acuerdo con lo previsto en el artículo 71 de la presente Ley.

Para la ejecución del Plan de auditorías de la Seguridad Social se podrá recabar la colaboración de empresas privadas, en caso de insuficiencia de los servicios de la Intervención General de la Seguridad Social, que deberán ajustarse a las normas e instrucciones que determine el centro directivo mencionado, el cual podrá efectuar las revisiones y controles de calidad que considere oportunos.

2. Para recabar la colaboración de las empresas privadas, será necesaria la inclusión de la autorización correspondiente en la Orden a que se refiere la disposición adicional segunda del Real Decreto Legislativo 1091/1988, de 23 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General Presupuestaria.



penezko prestazioen aldetik izan litzakeen beharrei erantzuteko. Funts hori arautzeko legean ezarriko dira eratzeko modua eta baldintzak.

2. Geldikinik sortzen bada Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren aurrekontuan zuzkitutakoa baino gutxiago erabiltzeagatik edo osasun-asistentzian aurreikusitako sarrerak gehitzeagatik, entitate horren gastuak finantzatzeko erabiliko dira geldikinak.

3. Ekonomia eta Ogasun Ministerioari baimena ematen zaio Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren aurrekontuan kredituak handitzeko, Estatuaren ekarpenean izandako aldaketek hartan eragina duten neurrian. Ekonomia eta Ogasuneko ministroak baimenduko ditu, orobat, entitate horren geldikinaren kontura finantzatzen diren kreditu-aldaketak.

## **92. artikulua. Ibilgetuaren amortizazioak**

Gizarte Segurantzaren ibilgetua urtez urte amortizatuko da, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak ezartzen dituen mugen barruan, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako printzipioen eta prozeduren arabera.

## **93. artikulua. Urteko auditoretza-plana**

1. Estatuaren Administrazioiko Kontu-hartzailletza Orokorren urteko auditoretza-planaren barruan egongo da Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailletza Orokorrek prestaturiko plana, eta gutxika hartara bilduz joango dira entitate kudeatzaileak, zerbitzu erkideak eta Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuak, lege honen 71. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Gizarte Segurantzaren auditoretza-plana gauzatzeko, laguntza eskatu ahal izango zaie enpresa pribatuei, baldin eta Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailletza Orokorreko zerbitzuak horretarako aski ez badira. Kontu-hartzailletza Orokorrek erabakitako arau eta jarraibideak bete beharko dituzte enpresa pribatuek, eta hark egoki deritzon berrikuspen eta kalitate-kontrolen mende egongo dira.

2. Enpresa pribatuen laguntza eskatzeko, beharrezko da dagokion baimena txertatzea Aginduan; hain zuzen, Aurrekontu Lege Orokorren testu bategina onesten duen 1988ko irailaren 23ko 1091/1988 Legegintzako Errege Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian aipatzen den Aginduan.

Será necesaria una Orden del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales o del Ministerio de Sanidad y Consumo cuando la financiación de la indicada colaboración se realice con cargo a créditos de los presupuestos de las entidades y servicios de la Seguridad Social adscritos a uno u otro Departamento.

#### **Artículo 94. Cuentas de la Seguridad Social**

1. La cuentas de las Entidades que integran el sistema de la Seguridad Social se formarán y rendirán de acuerdo con los principios y normas establecidos en el capítulo I del Título VI del texto refundido de la Ley General Presupuestaria, aprobado por Real Decreto legislativo 1091/1988, de 23 de septiembre, según la redacción dada al mismo por el artículo 52 de la Ley 50/1998, de 30 de diciembre, de Medidas fiscales, administrativas y del orden social.

2. Se autoriza al Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales para que pueda disponer la no liquidación o, en su caso, la anulación y baja en contabilidad de todas aquellas liquidaciones de las que resulten deudas inferiores a la cuantía que se estime y fije como insuficiente para la cobertura del coste que su exacción y recaudación representen.

#### SECCIÓN CUARTA

#### *Contratación en la Seguridad Social*

#### **Artículo 95. Contratación**

El régimen de contratación de las entidades gestoras y servicios comunes de la Seguridad Social se ajustará a lo dispuesto en el texto articulado de la Ley de Contratos del Estado, en el Reglamento General de Contratación del Estado y en sus normas complementarias, con las especialidades siguientes:

a) La facultad de celebrar contratos corresponde a los Directores de las distintas entidades gestoras y servicios comunes, pero necesitarán autorización para aquellos cuya cuantía sea superior al límite fijado en la respectiva Ley de Presupuestos Generales del Estado. La autorización será adoptada, a propuesta de dichas entidades y servicios, por los titulares de los Departamentos ministeriales a que se hallen adscritos o por el Consejo de Ministros, según las competencias definidas en la Ley de Contratos del Estado.

Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren agindua edo Osasun eta Kontsumo Ministerioaren agindua beharko da baldin eta ministerio bati edo beste atxikitako Gizarte Segurantzaren entitate eta zerbitzuen kredituen kontura finantzatzen bada aipaturiko lankidetzaz.

#### **94. artikulua. Gizarte Segurantzaren kontuak**

1. Gizarte Segurantzako sistema osatzen duten entitateen kontuak Aurrekontu Lege Orokorraren testu bategineko VI. tituluko I. kapituluan ezarritako printzipio eta arauen arabera eratu eta emango dira. Testu hori 1988ko irailaren 23ko 1091/1988 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsi zen, eta Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Arlokoei buruzko 1998ko abenduaren 30eko 50/1998 Legearen 52. artikulua emandako idazketaren arabera hartu behar da.

2. Likidazio baten zorra ez bada iristen hura ordainaraztearen eta biltzearen kostatua berdintzeko nahikotzat ezartzen den kopurura, Gizarte Gaietako ministroak badu baimena halakoak likida ez daitezela edo hala badagokio likidazioa deuseztatu eta kontabilitatean baja eman dakiola xedatzeko.

#### LAUGARREN ATALA

#### *Gizarte Segurantzako kontratazioa*

#### **95. artikulua. Kontratatzea**

Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen kontratazio-araubidea Estatuaren Kontratuen Legearen testu artikulatuan, Estatuaren Kontratazio Erregelamendu Orokorrean eta haren arau osagarrietan xedatutakoari atxikiko zaio, honako berezitasun hauekin:

a) Kontratuak burutzeko ahalmena entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen zuzendariari dagokie, baina hartarako baimena beharko dute kontratuaren zenbatekoa handiagoa bada Estatuaren Aurrekontu Orokorrean ezarritako gehienezkoa baino. Baimena, entitate eta zerbitzu horiek proposaturik, haiek atxikita dauden ministerioen titularrek emango dute, edo Ministro Kontseiluak, Estatuaren Kontratuen Legean zehazturiko eskumenera arabera.

b) Los Directores de las entidades gestoras y servicios comunes no podrán delegar o desconcentrar la facultad de celebrar contratos, sin previa autorización del titular del Ministerio al que se hallen adscritos.

c) Los proyectos de obras que elaboren las entidades gestoras y servicios comunes de la Seguridad Social deberán ser supervisados por la oficina de supervisión de proyectos del Departamento ministerial del que dependan, salvo que ya tuvieran establecidas oficinas propias, en cuyo caso serán éstas las supervisoras de los mismos.

d) Los informes jurídicos o técnicos que preceptivamente se exijan en la legislación del Estado se podrán emitir por los órganos competentes en el ámbito de la Seguridad Social o de los Ministerios respectivos.

## CAPÍTULO IX

### **Infracciones y sanciones en materia de Seguridad Social**

#### **Artículo 96. Infracciones y sanciones**

1. En materia de infracciones y sanciones se estará a lo dispuesto en la presente Ley y en la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, texto refundido aprobado por Real Decreto legislativo 5/2000, de 4 de agosto.

2. Las resoluciones relativas a las sanciones que las Entidades de las prestaciones impongan a los trabajadores y beneficiarios de prestaciones, conforme a lo establecido en el artículo 47 de la Ley de Infracciones y Sanciones del Orden Social, Texto Refundido aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, serán recurribles ante los órganos jurisdiccionales del orden social, previa reclamación ante la Entidad Gestora competente en la forma prevista en el artículo 71 del Texto Refundido de la Ley de Procedimiento Laboral, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/1995, de 7 de abril.

b) Entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen zuzendariek ezin eskuordetuko edo deskontzentratuko dute kontratuak burutzeko ahalmena, ez badie hartarako baimenik ematen atxikita dauden ministerioaren titularrak.

c) Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaile eta zerbitzu erkideek prestatzen dituzten obra-proiektuak gainbegiratu egin beharko ditu dagokion ministerioko proiektuak gainbegiratzeko bulegoak; entitate edo zerbitzuek beren bulegoa jarrita badute, hura izango da gainbegiratzaile.

d) Estatuaren legerian nahitaez eskatzen diren txosten juridiko edo teknikoak eman ahal izango dituzte Gizarte Segurantzaren edo dagokion ministerioan eskudun diren organoek.

## IX. KAPITULUA

### Gizarte Segurantzaren arloko arau-hausteak eta zehapenak

#### 96. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak

1. Arau-hauste eta zehapenen kontuan, lege honetan eta Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legean xedatutakoari jarraituko zaio —2000ko abuztuaren 4ko testu bategina, 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia—.

2. Prestazioak ematen dituzten entitateek langileei eta prestazioen onuradunei ezartzen dizkieten zehapenei buruzko ebazpenak, Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legean —2004ko abuztuaren 5eko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako testu bategina— 47. artikuluan xedatutakoaren arabera, gizarte-arloko jurisdikzio-organoen aurrean errekurritu ahal izango dira, dagokion entitate kudeatzailean erreklamazioa egin ondoren, Lan Arloko Prozeduraren Legearen Testu Bateginaren 71. artikuluan aurreikusitako moduan —1995eko apirilaren 7ko 2/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen lege hori—.

## TÍTULO II

### RÉGIMEN GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL

#### CAPÍTULO I

##### Campo de aplicación

##### Artículo 97. Extensión

1. Estarán obligatoriamente incluidos en el Régimen General de la Seguridad Social los trabajadores por cuenta ajena o asimilados comprendidos en el apartado 1. a) del artículo 7 de la presente Ley.

2. A los efectos de esta Ley se declaran expresamente comprendidos en el apartado anterior:

Los trabajadores por cuenta ajena y los socios trabajadores de sociedades mercantiles capitalistas, aún cuando sean miembros de su órgano de administración, si el desempeño de este cargo no conlleva la realización de las funciones de dirección y gerencia de la sociedad, ni poseen su control en los términos establecidos en el apartado 1 en la disposición adicional vigésimo séptima de la presente Ley.

Excepto que por razón de su actividad marítimo-pesquera corresponda su inclusión como trabajadores por cuenta ajena en el campo de aplicación del Régimen Especial de Trabajadores del Mar.

b) Los conductores de vehículos de turismo al servicio de particulares.

c) El personal civil no funcionario dependiente de organismos, servicios o entidades del Estado.

d) El personal civil no funcionario al servicio de organismos y entidades de la Administración Local, siempre que no estén incluidos en virtud de una Ley especial en otro régimen obligatorio de previsión social.

e) Los laicos o seculares que presten servicios retribuidos en los establecimientos o dependencias de las entidades o instituciones eclesiásticas. Por acuerdo especial con la jerarquía eclesiástica competente se regulará la situación de los trabajadores laicos y seculares que presten sus servicios retribuidos a organismos o dependencias de la Iglesia y cuya misión primordial consista en ayudar directamente en la práctica del culto.

## II. TITULUA

### GIZARTE-SEGURANTZAREN ARAUBIDE OROKORRA

#### I. KAPITULUA

##### Aplikazio-esparrua

#### 97. artikulua. Hedadura

1. Nahitaez Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuta egongo dira lege honen 7. artikuluko a) letran ageri diren besteren konturako langileak edo haiekin parekatutakoak.

2. Lege honen ondorioetarako, aurreko zenbakian sartutakotzat hartzen dira, berariaz:

a) Besteren konturako langileak eta merkataritza-sozietate kapitalistetako bazkide langileak, nahiz haien administrazio-organoko kide izan, kargu hori betetzeak ez badakar sozietateko zuzendaritza- eta kudeaketa-lanetan aritzea, eta ez badute sozietatearen gaineko kontrolik, lege honen hogeita zazpigarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian ezarritako moduan.

Baldin eta ez badira, itsas arrantza izanik beren jarduera, Itsasoko Langileen Araubide Bereziaren aplikazio-esparruko besteren konturako langile gisa sartzekoak.

b) Partikularren zerbitzuko turismo-ibilgailuen gidariak.

c) Estatuaren organismo, zerbitzu edo entitateen mendeko enplegatu zibil ez funtzionarioak.

d) Toki-administrazioeko organismo eta entitateen zerbitzuko enplegatu zibil ez funtzionarioak, baldin eta ez badago lege berezi baten ondorioz gizarte-aurreikuspeneko beste nahitaezko araubide batean sartua.

e) Eliza-entitate edo -erakundeen establezimendu edo egoitzetan lan ordaindua egiten duten laiko edo sekularrak. Elizako hierarkia eskudunarekin akordio berezi bat eginda arautuko da Elizaren organismo edo egoitzendako lan ordaindua egiten duten eta eginkizun nagusitzat kultuaren praktikan zuzenean laguntzea duten langile laiko eta sekularren egoera.

f) Las personas que presten servicios retribuidos en las entidades o instituciones de carácter benéfico-social.

g) El personal contratado al servicio de Notarías, Registros de la Propiedad y demás oficinas o centros similares.

h) Los funcionarios en prácticas que aspiren a incorporarse a Cuerpos o Escalas de funcionarios que no estén sujetos al Régimen de Clases Pasivas y los altos cargos de las Administraciones Públicas que no sean funcionarios públicos, así como los funcionarios de nuevo ingreso de las Comunidades Autónomas.

i) Los funcionarios del Estado transferidos a las Comunidades Autónomas que hayan ingresado o ingresen voluntariamente en Cuerpos o Escalas propios de la Comunidad Autónoma de destino, cualquiera que sea el sistema de acceso.

j) Los miembros de las corporaciones locales y los miembros de las Juntas Generales de los Territorios Históricos Forales, Cabildos Insulares Canarios y Consejos Insulares Baleares que desempeñen sus cargos con dedicación exclusiva o parcial, a salvo de lo previsto en los artículos 74 y 75, de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

k) Como asimilados a trabajadores por cuenta ajena, con exclusión de la protección por desempleo y del Fondo de Garantía Salarial, los consejeros y administradores de sociedades mercantiles capitalistas, siempre que no posean el control de éstas en los términos establecidos en el apartado uno de la disposición adicional vigésimo séptima de la presente Ley, cuando el desempeño de su cargo conlleve la realización de las funciones de dirección y gerencia de la sociedad, siendo retribuidos por ello o por su condición de trabajadores por cuenta de la misma.

Excepto que por razón de su actividad marítimo-pesquera corresponda su inclusión como trabajadores asimilados por cuenta ajena en el campo de aplicación del Régimen especial de Trabajadores del Mar.

l) Los cargos representativos de los Sindicatos constituidos al amparo de la Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical que ejerzan funciones sindicales de dirección con dedicación exclusiva o parcial y percibiendo una retribución.

m) Cualesquiera otras personas que, en lo sucesivo y por razón de su actividad, sean objeto, por Real Decreto a propuesta del Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales, de la asimilación prevista en el apartado 1 de este artículo.



f) Gizarte-ongintzarako entitate edo erakundeetan lan ordaindua egiten duten pertsonak.

g) Notarioria, jabetzaren erregistro eta era horretako gainerako bulego edo zentroetan kontrataturiko enplegatuak.

h) Klase Pasiboen Araubideari atxikita ez dauden funtzionario-kidego edo -eskaletara bildu nahi duten praktiketako funtzionarioak, funtzionario publiko ez diren administrazio publikoetako goi-karguak eta autonomia-erkidegoetako funtzionario sartu berriak.

i) Estatuko funtzionario autonomia-erkidegoetara eskualdatuak, iritsitako autonomia-erkidegoko kidego edo eskaletan beren borondatez sartuta daude-nak eta aurrerantzean sartzen direnak, edozein dela ere sartzeko bidea.

j) Toki-korporazioetako kideak eta foru-lurralde historikoetako, Kanarietako uharte-kabildoetako eta Balearretako uharte-kontseiluetako batzar nagusietako kideak, beren karguak arduraldi osoz edo partzialerik betetzen dituztenak, hargatik eragotzi gabe Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 74. eta 75. artikuluetan aurreikusitakoa.

k) Besteren konturako langileekin parekatuak —langabezia-babesean eta Soldatak Bermatzeko Funtzaren babesean izan ezik—, merkataritza-sozietate kapitalistetako kontseilari eta administratzaileak, non eta ez duten lege honen hogeita zazpigarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian ezarritako moduan sozietatea kontrolatzen, beren kargua betetzeak sozietatearen zuzendaritza- eta kudeaketa-funtzioak betetzea badakar, horregatik edo sozietatearen konturako langile izateagatik ordaina jasoz.

Baldin eta ez badira, itsasoko arrantza izanik beren jarduera, Itsasoko Langileen Araubide Bereziaren aplikazio-esparruko besteren konturako langile gisa sartzekoak.

l) 1985eko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren babesean eratutako sindikatu etako ordezkari-karguak, arduraldi oso edo partzialerik eta ordaina jasoz sindikatu etan zuzendaritza-funtzioak betetzen dituztenak.

m) Beste zeinahi pertsona, aurrerantzean bere jarduera dela-eta Lan eta Gizarte Gaietako ministroaren proposamenez eta errege-dekretuz artikuluko honetako 1. zenbakian aurreikusitako parekotasun-egoeran aurkitzen bada.

## **Artículo 98. Exclusiones**

No darán lugar a inclusión en este Régimen General los siguientes trabajos:

- a) Los que se ejecuten ocasionalmente mediante los llamados servicios amistosos, benévolos o de buena vecindad.
- b) Los que den lugar a la inclusión en alguno de los Regímenes Especiales de la Seguridad Social.

## **CAPÍTULO II**

### **Inscripción de empresas y normas sobre afiliación, cotización y recaudación**

#### **SECCIÓN PRIMERA**

#### *Inscripción de empresas y afiliación de trabajadores*

## **Artículo 99. Inscripción de empresas**

1. Los empresarios, como requisito previo e indispensable a la iniciación de sus actividades, solicitarán su inscripción en el Régimen General de la Seguridad Social, haciendo constar la entidad gestora o, en su caso, la Mutua de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social que haya de asumir la protección por estas contingencias del personal a su servicio, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70.

Los empresarios deberán comunicar las variaciones que se produzcan de los datos facilitados al solicitar su inscripción, y en especial la referente al cambio de la entidad que deba asumir la protección por las contingencias antes mencionadas.

2. La inscripción se efectuará ante el correspondiente organismo de la Administración de la Seguridad Social, a nombre de la persona natural o jurídica titular de la empresa.

3. A los efectos de la presente Ley se considerará empresario, aunque su actividad no esté motivada por ánimo de lucro, a toda persona natural o jurídica, pública o privada, por cuya cuenta trabajen las personas incluidas en el artículo 97.

## 98. artikulua. Sartzen ez direnak

Ez dira Araubide Orokorrean sartuko honako lan hauetan aritzen direnak:

- a) Aldian behingo lanak, adiskidantzazko, mesedezko edo auzotasun onezko deritzen zerbitzu gisa eginak.
- b) Gizarte Segurantzaren araubide berezietakoren batean sartzea eskatzen dutenak.

## II. KAPITULUA

### Enpresen inskripzioa, eta afiliazioari, kotizazioari eta diru-bilketari buruzko arauak

#### LEHEN ATALA

#### *Enpresen inskripzioa eta langileen afiliazioa*

## 99. artikulua. Enpresen inskripzioa

1. Enpresaburuek, beren jarduera hasteko aurretiazko eta ezinbesteko betekizun gisa, enpresa Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean inskribatzeko eskatuko dute, hartarako adieraziz zein entitate kudeatzailek edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuak hartu behar duen bere gain haren zerbitzuko langileen gertagarri horietarako babesa, 70. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Inskripzioa eskatzean emandako datuak aldatzen badira gerora, aldaketa horien berri eman beharko dute enpresaburuek; batez ere, aipaturiko gertagarriengatik babesa bere gain hartu behar duen entitatea aldatzen bada.

2. Gizarte Segurantzaren Administrazioan dagokion organismoan egingo da inskripzioa, enpresaren titular den pertsona fisiko edo juridikoaren izenean.

3. Lege honen ondorioetarako, enpresaburutzat hartuko da, nahiz haren jarduera ez irabazasmokoa izan, edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu, 97. artikuluan aipaturikoetarikoko pertsonak bere konturako lanean dituenak.

## **Artículo 100. Afiliación, altas y bajas**

1. Los empresarios estarán obligados a solicitar la afiliación al sistema de la Seguridad Social de los trabajadores que ingresen a su servicio, así como a comunicar dicho ingreso y, en su caso, el cese en la empresa de tales trabajadores para que sean dados, respectivamente, de alta y de baja en el Régimen General.

2. En el caso de que el empresario incumpla las obligaciones que le impone el apartado anterior, el trabajador podrá instar su afiliación, alta o baja, directamente al organismo competente de la Administración de la Seguridad Social. Dicho organismo podrá, también, efectuar tales actos de oficio en los supuestos a que se refiere el apartado 4 del artículo 13 de esta Ley.

3. El reconocimiento del derecho al alta y a la baja en el Régimen General corresponderá al organismo de la Administración de la Seguridad Social que reglamentariamente se establezca.

4. Salvo disposición legal expresa en contrario, la situación de alta del trabajador en este Régimen General condicionará la aplicación al mismo de las normas del presente título.

## **Artículo 101. [Derogado]**

## **Artículo 102. Procedimiento y plazos**

1. El cumplimiento de las obligaciones que se establecen en los artículos anteriores se ajustará, en cuanto a la forma, plazos y procedimiento, a las normas reglamentarias.

2. La afiliación y altas sucesivas solicitadas fuera de plazo por el empresario o el trabajador no tendrán efecto retroactivo alguno. Cuando tales actos se practiquen de oficio, su eficacia temporal e imputación de responsabilidades resultantes serán las que se determinan en la presente Ley y sus disposiciones de aplicación y desarrollo.

## SECCIÓN SEGUNDA

### *Cotización*

## **Artículo 103. Sujetos obligados**

1. Estarán sujetos a la obligación de cotizar a este Régimen General los trabajadores y asimilados comprendidos en su campo de aplicación y los empresarios por cuya cuenta trabajen.

## **100. artikulua. Afiliazioa, altak eta bajak**

1. Enpresaburuak beharturik daude haien zerbitzuan hasten diren langileak Gizarte Segurantzako sisteman afiliatzeko eskatzera, sarrera hori jakinaraztera eta, hala gertatzen denean, langileok enpresa utzi dutela jakinaraztera, alta edo baja emateko, hurrenez hurren, Araubide Orokorrean.

2. Enpresaburuak ez baditu betetzen aurreko zenbakian ezarritako betebeharrak, langileak berak zuzenean eskatu ahal izango du afiliazioa, alta edo baja Gizarte Segurantzaren Administrazioan dagokion organismo eskudunean. Organismo horrek, orobat, ofizioz egin ahal izango ditu egintza horiek, lege honen 13. artikuluko 4. zenbakian adierazitako kasuetan.

3. Gizarte Segurantzaren alta eta baja emateko eskubidea aitortzea Gizarte Segurantzaren Administrazioan erregelamenduz ezartzen den organismoari dagokio.

4. Legez berariaz kontrakoa xedatu ezean, langilea Araubide Orokorrean alta emanda egotearen mende geldituko da titulu honetako arauak aplikatzea.

## **101. artikulua [Derogaturia]**

## **102. artikulua. Prozedura eta epeak**

1. Aurreko artikuluetan ezartzen diren betebeharrak betetzea erregelamenduzko arauetara atxikiko zaie, hala formari dagokionez nola epeei eta prozedurari dagokienez.

2. Enpresaburuak edo langileak epez kanpo eskatutako afiliazioek edo georogoko altek ez dute atzeraeraginik izango. Egintza horiek ofizioz egiten direnean, denboraren aldetik dituzten efektuak eta dagozkien erantzukizunak lege honetan eta hau aplikatzeko eta garatzeko xedapenetan ezarritakoak izango dira.

## **BIGARREN ATALA**

### *Kotizazioa*

## **103. artikulua. Behartuta dauden subjektuak**

1. Araubide Orokor honetan kotizatzen beharturik egongo dira honen aplikazio-esparruan sartzen diren langile eta parekoak eta halakoak beren kontura hartzen dituzten enpresaburuak.

2. La cotización comprenderá dos aportaciones:

- a) De los empresarios, y
- b) De los trabajadores.

3. No obstante lo dispuesto en los números anteriores, por las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales la cotización completa correrá a cargo exclusivamente de los empresarios.

#### **Artículo 104. Sujeto responsable**

1. El empresario es sujeto responsable del cumplimiento de la obligación de cotización e ingresará las aportaciones propias y las de sus trabajadores, en su totalidad.

Responderán, asimismo, solidaria, subsidiariamente o mortis causa las personas o entidades sin personalidad a que se refieren los artículos 15 y 127.1 y 2 de esta Ley.

La responsabilidad solidaria por sucesión en la titularidad de la explotación, industria o negocio que se establece en el citado artículo 127 se extiende a la totalidad de las deudas generadas con anterioridad al hecho de la sucesión. Se entenderá que existe dicha sucesión aun cuando sea una sociedad laboral la que continúe la explotación, industria o negocio, esté o no constituida por trabajadores que prestaran servicios por cuenta del empresario anterior.

En caso de que el empresario sea una sociedad o entidad disuelta y liquidada, sus obligaciones de cotización a la Seguridad Social pendientes se transmitirán a los socios o partícipes en el capital, que responderán de ellas solidariamente y hasta el límite del valor de la cuota de liquidación que se les hubiere adjudicado.

2. El empresario descontará a sus trabajadores, en el momento de hacerles efectivas sus retribuciones, la aportación que corresponda a cada uno de ellos. Si no efectuase el descuento en dicho momento no podrá realizarlo con posterioridad, quedando obligado a ingresar la totalidad de las cuotas a su exclusivo cargo.

3. El empresario que habiendo efectuado tal descuento no ingrese dentro de plazo la parte de cuota correspondiente a sus trabajadores, incurrirá en responsabilidad ante ellos y ante los organismos de la Administración de la Seguridad Social afectados, sin perjuicio de las responsabilidades penal y administrativa que procedan.

2. Kotizazioaren barruan bi ekarpen izango dira:

a) Enpresaburuena, eta

b) Langileena.

3. Aurreko zenbakietan xedaturikoa gorabehera, lan-istripu eta laneko gaixotasunen gertagarrien ziozko kotizazio osoa enpresaburuari bakarrik dagokie.

#### 104. artikulua. Erantzule den subjektua

1. Enpresaburuak da kotizatzenko betebeharra betetzearen erantzule, eta bere ekarpenak eta langileen ekarpenak sartu behar ditu, osotara.

Orobat izango dira erantzule —solidario, subsidiario edo «mortis causa»— lege honen 15. eta 127.1 eta 127.2 artikuluetan aipaturiko pertsonak edo nor-tasun juridikorik gabeko entitateak.

Ustiakuntza, industria edo negozioaren titulartasuna ondoretasunez pasatzean gertatzen den erantzukizun solidarioa, 127. artikuluko horretan ezarria, ondoretasuna gertatu aurreko zor guztietara hedatzen da. Ondoretasun hori gertatu dela joko da lan-sozietate bat izanik ere ustiakuntza, industria edo negozioarekin jarraitzen duena, aurreko enpresaburuaren kontura lan egiten zuten langilez osatua izan ala ez.

Enpresaburuak sozietate desegin eta likidatu bat baldin bada, Gizarte Segurantzarekiko betebeharretatik ordaintzeke dituenak haren kapitalean bazkide edo partaide zirenei eskualdatuko zaizkie, eta haiek erantzule solidario izango dira, esleitu zitzaizen likidazio-kuotaren balioaren mugaraino.

2. Enpresaburuak, langileei ordaintzen dienean, deskontatu egingo du bakoitzari dagokion ekarpena. Deskontua ez badu une horretan egiten, ezin izango du geroago egin, eta beharturik geldituko da kuota guztiak erabat bere kontutik ordaintzera.

3. Deskontu hori egin bai baina epearen barruan bere langileei dagokien kuota-partea ordaindu ez duen enpresaburuak erantzule gertatuko da langileen aurrean eta Gizarte Segurantzaren dagokien organismoen aurrean, bestelako erantzukizun penal eta administratiboak izateaz gainera.

## **Artículo 105. Nulidad de pactos**

Será nulo todo pacto, individual o colectivo, por el cual el trabajador asuma la obligación de pagar total o parcialmente la prima o parte de cuota a cargo del empresario.

Igualmente, será nulo todo pacto que pretenda alterar las bases de cotización que se fijan en el artículo 109 de la presente Ley.

## **Artículo 106. Duración de la obligación de cotizar**

1. La obligación de cotizar, nacerá con el mismo comienzo de la prestación del trabajo, incluido el período de prueba. La mera solicitud de la afiliación o alta del trabajador al organismo competente de la Administración de la Seguridad Social surtirá en todo caso idéntico efecto.

2. La obligación de cotizar se mantendrá por todo el período en que el trabajador esté en alta en el Régimen General o preste sus servicios, aunque éstos revistan carácter discontinuo. Dicha obligación subsistirá asimismo respecto a los trabajadores que se encuentren cumpliendo deberes de carácter público o desempeñando cargos de representación sindical, siempre que ello no dé lugar a la excedencia en el trabajo.

3. Dicha obligación sólo se extinguirá con la solicitud en regla de la baja en el Régimen General al organismo competente de la Administración de la Seguridad Social. Sin embargo, dicha comunicación no extinguirá la obligación de cotizar si continuase la prestación de trabajo.

4. La obligación de cotizar continuará en la situación de incapacidad temporal, cualquiera que sea su causa, en la de maternidad, en la de paternidad, en la de riesgo durante el embarazo y en la de riesgo durante la lactancia natural, así como en las demás situaciones previstas en el artículo 125 en que así se establezca reglamentariamente.

5. La obligación de cotizar se suspenderá durante las situaciones de huelga y cierre patronal.

6. La obligación de cotizar por las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales existirá aunque la empresa, con infracción de lo dispuesto en la presente Ley, no tuviera establecida la protección de su personal, o de parte de él, respecto a dichas contingencias. En tal caso, las primas debidas se devengarán a favor de la Tesorería General de la Seguridad Social.



## 105. artikulua. Itunen deuseztasuna

Zeinahi itun indibidual edo kolektiboren bitartez langileak bere gain harzen badu enpresaburuari dagokion prima edo kuota-zatia guztiz edo partez ordaintzeko betebeharra, deusez izango da itun hori.

Orobat izango da deusez lege honen 109. artikuluan ezarritako kotizazio-oinarriak aldatzeko xedea duen zeinahi itun.

## 106. artikulua. Kotizatzeko betebeharraren iraupena

1. Lan-prestazioa hastearekin batera —probaldia barne— sortuko da kotizatzeko betebeharra. Efektu bera sortuko du, kasu guztietan, Gizarte Segurantzaren Administraziooko organismo eskudunari langileak afiliatzeko edo alta emateko eskatze hutsak.

2. Kotizatzeko betebeharrak langilea Araubide Orokorrean alta emanda dagoen denbora guztian iraungo du, edo lanean ari den denbora guztian, lana etenkakoa izanik ere. Betebehar hori indarrean izango da betebehar publikoak edo ordezkaritza sindikaleko karguak betetzen ari diren langileen kasuan ere, egoera horien ondorioz lanean eszedentzia hartzen ez bada.

3. Betebehar hori ez da azkenduko harik eta Gizarte Segurantzako organismo eskudunari Araubide Orokorrean arauz eskatzen zaion arte baja emateko. Hala ere, jakinarazpen horrek ez du kotizatzeko betebeharra azkenduko lan-prestazioak jarraitzen badu.

4. Kotizatzeko betebeharrak jarraitu egingo du aldi baterako ezintasuna gertatzen denean —edozein dela ere horren kausa—, amatasunean, aitatasunean, haurdunaldiko arriskua gertatzen denean eta eradoskitze-garaiko arriskua gertatzen denean, eta orobat 125. artikuluan aurreikusitako egoeretatik errege-lamenduz hala ezarrita dauden kasuetan.

5. Kotizatzeko betebeharra geldieran utziko da greba eta ugazaben itxiera gertatzen denean.

6. Lan-arriskuen eta laneko gaixotasunen gertagarriengatik kotizatzeko betebeharra izango da nahiz eta enpresak, lege honetan xedatutakoa urratuz, bere enplegatuen edo haien parte baten babesa ezarri gabea izan gertagarri horietarako. Kasu horretan, zor diren primak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren alde sorraraziko dira.

## **Artículo 107. Tipo de cotización**

1. El tipo de cotización tendrá carácter único para todo el ámbito de protección de este Régimen General. Su establecimiento y su distribución, para determinar las aportaciones respectivas del empresario y trabajador obligados a cotizar, se efectuarán en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado.

2. El tipo de cotización se reducirá en el porcentaje o porcentajes correspondientes a aquellas situaciones y contingencias que no queden comprendidas en la acción protectora que se determine de acuerdo con lo previsto en el apartado 2 del artículo 114 de esta Ley, para quienes sean asimilados a trabajadores por cuenta ajena, así como para otros supuestos establecidos legal o reglamentariamente.

## **Artículo 108. Cotización por accidentes de trabajo y enfermedades profesionales**

1. No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, la cotización por las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales se efectuará con sujeción a primas, que podrán ser diferentes para las distintas actividades, industrias y tareas. A tal efecto, legalmente se fijará la correspondiente tarifa de porcentajes aplicables para determinar las primas. Para el cálculo de las mencionadas tarifas se computará el coste de las prestaciones y las exigencias de los servicios preventivos y rehabilitadores.

2. De igual forma se podrán establecer, para las empresas que ofrezcan riesgos de enfermedades profesionales, primas adicionales a la cotización de accidentes de trabajo, en relación a la peligrosidad de la industria o clase de trabajo y a la eficacia de los medios de prevención empleados.

3. La cuantía de las primas a que se refieren los números anteriores podrá reducirse en el supuesto de empresas que se distingan por el empleo de medios eficaces de prevención; asimismo, dicha cuantía podrá aumentarse en el caso de empresas que incumplan sus obligaciones en materia de higiene y seguridad en el trabajo. La reducción y el aumento previstos en este número no podrán exceder del 10 por 100 de la cuantía de las primas, si bien el aumento podrá llegar hasta un 20 por 100 en caso de reiterado incumplimiento de las aludidas obligaciones.

## **Artículo 109. Base de cotización**

1. La base de cotización para todas las contingencias y situaciones amparadas por la acción protectora del Régimen General, incluidas las de accidente de

### **107. artikulua. Kotizazio-tasa**

1. Kotizazio-tasa bakarra izango da Araubide Orokor honen babes-esparru guztirako. Dagokion Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean finkatuko da zenbat izango den tasa hori eta nola banatuko den, kotizatzeraren beharrik dauden enpresaburuak eta langileak hurrenez hurren zenbat jarri behar duten zehaztuz.

2. Kotizazio-tasa murriztu egingo da, lege honen 114. artikuluko 2. zentzuan aurreikusitakoaren arabera ezartzen den babes-jardunean sarturik ez dauden egoera eta gertagarri dagokien ehunekoan, besteren konturako langileekin parekatu daudenez, eta orobat lege edo erregelamenduz ezarritako beste kasu batzuetarako.

### **108. artikulua. Lan-istripu eta laneko gaixotasunengatiko kotizazioa**

1. Aurreko artikuluan xedaturikoa gorabehera, lan-istripuen eta laneko gaixotasunen gertagarriengatiko kotizazioa primei atxikirik egongo da, eta prima horiek desberdinak izan daitezke jarduera, industria eta lanen arabera. Horretarako, lege ezarriko da primak finkatzeko aplikatu behar diren ehunekoaren tarifa. Tarifa horiek kalkulatzeko, kontuan hartuko dira prestazioen kostua eta prebentzio- eta birgaikuntza-zerbitzuen eskakizunak.

2. Orobat ezarri ahal izango dira, laneko gaixotasunetarako arriskua duten enpresentzat, lan-istripuengatiko kotizazioaren gehigarri diren primak, industriaren edo lan-motaren arriskugarritasuna eta erabilitako prebentzio-bideen eraginkortasuna aintzat hartuta.

3. Aurreko zenbakian aipatzen diren primen zenbatekoa murriztu ahal izango da enpresa arduratsua bada prebentzio-bide eraginkorren erabilera; gehitu ere egin ahal izango da, laneko higienari eta segurtasunari dagozkien betebeharrak betetzen ez dituzten enpresen kasuan. Zenbaki honetan aurreikusitako murrizketa eta gehikuntza ezin izango dira primen ehuneko 10 baino gehiagokoak; betebeharrak behin eta berriz ez betetzea gertatuz gero, hala ere, ehuneko 20raino iritsi ahal izango da gehikuntza.

### **109. artikulua. Kotizazio-oinarria**

1. Araubide Orokorren babes-jardunak babesten dituen gertagarri eta egoera guztietarako, lan-istripuak eta laneko gaixotasunak barne, hau

trabajo y enfermedad profesional, estará constituida por la remuneración total, cualquiera que sea su forma o denominación, que con carácter mensual tenga derecho a percibir el trabajador o asimilado, o la que efectivamente perciba de ser ésta superior, por razón del trabajo que realice por cuenta ajena.

Las percepciones de vencimiento superior al mensual se prorratearán a lo largo de los doce meses del año.

Las percepciones correspondientes a vacaciones anuales devengadas y no disfrutadas y que sean retribuidas a la finalización de la relación laboral serán objeto de liquidación y cotización complementaria a la del mes de la extinción del contrato. La liquidación y cotización complementaria comprenderán los días de duración de las vacaciones, aun cuando alcancen también el siguiente mes natural o se inicie una nueva relación laboral durante los mismos, sin prorrateo alguno y con aplicación, en su caso, del tope máximo de cotización correspondiente al mes o meses que resulten afectados.

No obstante lo establecido en el párrafo anterior, serán aplicables las normas generales de cotización en los términos que reglamentariamente se determinen cuando, mediante ley o en ejecución de la misma, se establezca que la remuneración del trabajador debe incluir, conjuntamente con el salario, la parte proporcional correspondiente a las vacaciones devengadas.

2. No se computarán en la base de cotización los siguientes conceptos:

a) Las dietas y asignaciones para gastos de viaje, gastos de locomoción, cuando correspondan a desplazamientos del trabajador fuera de su centro habitual de trabajo para realizar el mismo en lugar distinto, así como los pluses de transporte urbano y de distancia por desplazamiento del trabajador desde su domicilio al centro de trabajo habitual, con la cuantía y alcance que reglamentariamente se establezcan.

b) Las indemnizaciones por fallecimiento y las correspondientes a traslados, suspensiones y despidos.

c) Las cantidades que se abonen en concepto de quebranto de moneda y las indemnizaciones por desgaste de útiles o herramientas y adquisición de prendas de trabajo, cuando tales gastos sean efectivamente realizados por el trabajador y sean los normales de tales útiles o prendas en los términos que reglamentariamente se establezca.

d) Los productos en especie concedidos voluntariamente por las empresas en los términos que reglamentariamente se establezcan.

izango da kotizazio-oinarria: besteren kontura egindako lanagatik langileak edo parekoak hileru jasotzeko eskubidea duen guztizko lansaria, edozein izen ematen zaiola ere, edo egiazki jasotzen duena, bigarren hori handiagoa bada.

Muga-eguna hilabetetik haragokoa duten hartukizunak hainbanatu egingo dira urteko hamabi hilan artean.

Sorrarazi diren eta gozatu ez diren urteko oporrei dagozkien eta lan-harremaren amaieran ordaintzen diren hartukizunak kontratua azkentzen den hileko kotizazioaren osagarri likidatuko eta kotizatuko dira. Likidazio eta kotizazio osagarri horretan sartuko dira oporrek irauten duten egunak, nahiz egun horiek hurrengo hil naturala ere hartu edo egun horien barruan beste lan-harrematan bat hasi; ez da inolako hainbanapenik egingo, eta, hala badagokio, eraginpean gertatzen diren hilari edo hilei dagokien gehienezko kotizazioa aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, kotizazio-arau orokorrak aplikatuko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan, baldin eta, lege birtatez edo lege bat betearaziz, ezartzen bada langilearen lansariaren barruan behar duela sorrarazitako oporrei dagokien parte proportzionalak, soldatarekin batera.

2. Ez dira kotizazio-oinarrian konputatuko honako kontzeptu hauek:

a) Bidaia-gastuetarako eta lokomozio-gastuetarako dietak eta diru-esleipenak, langileak bere ohiko lantokitik mugitu eta beste leku batean lan bera egiteko joan-etorriari dagozkienean, eta berdin hiri-garraioari dagozkion plusak eta langileak bere bizilekutik ohiko lantokira mugitzeko distantziari dagozkionak, erregelamenduz ezartzen diren zenbatekoarekin eta irismenarekin.

b) Heriotzagatiko kalte-ordainak eta lekualdatze, geldiera eta kaleratzei dagozkienak.

c) Dirua erabiltzeagatiko kalte-ordainaren kontzeptuan eta tresna- edo lanabes-higaduraren eta laneko arropak eskuratzearen kalte-ordain gisa ordaintzen diren kopuruak, halako gastuak egiazki langileak egin baditu eta tresna edo lanabes horientzat erregelamenduz normaltzat ezarritakoak bada.

d) Enpresek borondatez gauzakitan emandako produktuak, erregelamenduz ezarritako moduan.

e) Las percepciones por matrimonio.

f) Las prestaciones de la Seguridad Social, así como sus mejoras y las asignaciones asistenciales concedidas por las empresas, éstas dos últimas en los términos que reglamentariamente se establezcan.

g) Las horas extraordinarias, salvo para la cotización por accidentes de trabajo y enfermedades profesionales de la Seguridad Social.

En el desarrollo reglamentario de los apartados a), c), d) y f) anteriores se procurará la mayor homogeneidad posible con lo establecido al efecto en materia de rendimientos de trabajo personal por el ordenamiento tributario.

3. No obstante lo dispuesto en el apartado g) anterior, el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales podrá establecer el cómputo de las horas extraordinarias, ya sea con carácter general, ya sea por sectores laborales en los que la prolongación de la jornada sea característica de su actividad.

#### **Artículo 110. Topes máximo y mínimo de la base de cotización**

1. El tope máximo de la base de cotización, único para todas las actividades, categorías profesionales y contingencias incluidas en este Régimen, será el establecido, para cada año, en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado.

2. El tope máximo de la base de cotización así establecido será aplicable igualmente en los casos de pluriempleo. A los efectos de la presente Ley se entenderá por pluriempleo la situación de quien trabaje en dos o más empresas distintas, en actividades que den lugar a su inclusión en el campo de aplicación de este Régimen General.

3. La base de cotización tendrá como tope mínimo la cuantía establecida en el apartado 2 del artículo 16 de la presente Ley.

4. El Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales adecuará, en función de los días y horas trabajados, los topes mínimos y las bases mínimas fijados para cada grupo de categorías profesionales, en relación con los supuestos en que, por disposición legal, se establezca expresamente la cotización por días o por horas.

#### **Artículo 111. Cotización adicional por horas extraordinarias**

La remuneración que obtengan los trabajadores por el concepto de horas extraordinarias, con independencia de su cotización a efectos de accidentes de

e) Ezkontzagatiko hartukizunak.

f) Gizarte Segurantzako prestazioak, eta orobat haren hobekuntzak eta enpresek emandako asistentziatzko esleipenak; azken bi horiek, erregelamenduz ezartzen den moduan.

g) Aparteko orduak, Gizarte Segurantzako lan-istripu eta laneko gaixotasu-nengatiko kotizaziorako izan ezik.

Aurreko a), c), d) eta f) letrak erregelamenduz garatzean, ahalik eta homogeneotasun handiena gordeko da tributu-araudian norberaren lanaren errendimenduari dagokionez ezarritakoarekin.

3. Aurreko g) letran xedaturikoa gorabehera, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak aparteko orduen konputua ezarri ahal izango du, bai orokorrean, bai sektoreka, lanaldia luzatzea jardueraren berezko ezaugarri den lan-sektoreetarako.

## **110. artikulua. Kotizazio-oinarriaren gehienezko eta gutxieneko mugak**

1. Kotizazio-oinarriaren gehienezkoa, araubide honetan sartutako jarduera, lanbide-kategoria eta gertagarri guztietarako bakarra, urte bakoitzerako dago-kion Estatuaren Aurrekontuaren Legean ezarritakoa izango da.

2. Horrela ezarritako kotizazio-oinarriaren gehienezkoa berdin aplikatuko da enplegu-aniztasun kasuetan ere. Lege honen ondorioetarako, enplegu-aniztasuna da: bi enpresatan edo gehiagotan lanean aritzea, Araubide Orokorren aplikazio-esparruan sartzekoak diren jardueretan.

3. Kotizazio-oinarriaren gutxienekoa lege honen 16. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa izango da.

4. Lege-xedapenez egunka edo orduka kotizatzea ezarrita dagoen kasuetarako, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak egokituko ditu lanbide-kategorien multzo bakoitzerako zehaztutako gutxieneko zenbatekoak eta gutxieneko oinarriak, lan egindako egunen eta orduen arabera.

## **111. artikulua. Aparteko orduengatiko kotizazio gehigarria**

Langileek aparteko orduen kontzeptuan lortzen duten lansaria, edozein dutela ere langileok lan-istripu eta laneko gaixotasunetarako kotizazioa, enpre-

trabajo y enfermedades profesionales, estará sujeta a una cotización adicional por parte de empresarios y trabajadores, con arreglo a los tipos que se establezcan en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado.

La cotización adicional por horas extraordinarias estructurales que superen el tope máximo de ochenta horas establecido en el artículo 35.2 del Estatuto de los Trabajadores se efectuará mediante la aplicación del tipo general de cotización establecido para las horas extraordinarias en la Ley de Presupuestos Generales del Estado.

### **Artículo 112. Normalización**

El Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales establecerá la normalización de las bases de cotización que resulten con arreglo a lo establecido en la presente sección.

### **Artículo 112 bis. Cotización con sesenta y cinco o más años**

1. Los empresarios y trabajadores quedarán exentos de cotizar a la Seguridad Social por contingencias comunes, salvo por incapacidad temporal derivada de las mismas, respecto de aquellos trabajadores por cuenta ajena con contratos de trabajo de carácter indefinido, así como de los socios trabajadores o de trabajo de las cooperativas, en los que concurren las circunstancias de tener cumplidos sesenta y cinco o más años de edad y acreditar treinta y cinco o más años de cotización efectiva a la Seguridad Social, sin que se compute a estos efectos las partes proporcionales de pagas extraordinarias.

2. Si al cumplir sesenta y cinco años de edad el trabajador no tuviere cotizados treinta y cinco años, la exención a que se refiere el apartado anterior será aplicable a partir de la fecha en que se acrediten los treinta y cinco años de cotización efectiva.

3. Las exenciones establecidas en este artículo no serán aplicables a las cotizaciones relativas a trabajadores que presten sus servicios en las Administraciones públicas o en los Organismos públicos regulados en el Título III de la Ley 6/1997, de 14 de abril, de Organización y Funcionamiento de la Administración General del Estado.



saburu eta langileen kotizazio gehigarri baten mende egongo da, dagokion Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean ezartzen diren tasekin ados.

Egiturazko aparteko orduak gehiago baldin badira Langileen Estatuari buruzko Legearen 35.2 artikuluan gehienezko kopurutzat ezarritako 80 orduak baino, haiei dagokien kotizazio gehigarria Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean aparteko orduentzat ezarritako kotizazio-tasa orokorra izango da.

## **112. artikulua. Normalizazioa**

Lan eta Gizarte Gaietako ministroari dagokio atal honetan ezarritakoaren arabera ateratzen diren kotizazio-oinarriak normalizatzea.

### **112 bis artikulua. Hirurogeita bost urterekin edo gehiagorekin kotizatzea**

1. Enpresaburua eta langilea salbuetsita geldituko dira Gizarte Segurantzaz gertagarri arruntengatik kotizatzetik, halako gertagarrietatik eratorritako aldi baterako ezintasuna izan ezean, langilea besteren kontura lan-kontratu mugagabearekin ari denean edo kooperatiba bateko bazkide langilea edo lan-bazkidea denean eta bi betekizun hauek betetzen dituzten: hirurogeita bost urte edo gehiago beteak izatea, eta Gizarte Segurantzaz hogeita hamabost urtez edo gehiagoz kotizatu izana egiaztatzea. Ondorio horietarako, ez dira konputatuko aparteko pagei dagozkien parte proportzionalak.

2. Hirurogeita bost urte betetzean langilea ez bada iritsia hogeita hamabost urtez kotizatzeraz, egiazki hogeita hamabost urtez kotizatu izana egiaztatzen den datatik aurrera aplikatuko da aurreko zenbakian aipatzen den salbuespena.

3. Artikulu honetan ezarritako salbuespenak ez dira aplikatuko administrazio publikoetan lan egin duten langileen kotizazioetan, ez eta Estatuaren Administrazio Orokorren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko 1997ko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen III. tituluaren araututako organismo publikoetan lan egiten dutenen kotizazioetan ere.

## SECCIÓN TERCERA

### *Recaudación*

#### **Artículo 113. Normas generales**

1. A efectos de lo dispuesto en el capítulo III del título I de la presente Ley, los empresarios y, en su caso, las personas señaladas en los apartados 1 y 2 del artículo 127, serán los obligados a ingresar la totalidad de las cuotas de este Régimen General en el plazo, lugar y forma establecidos en la presente Ley y en sus normas de aplicación y desarrollo.

2. Serán imputables a los responsables del cumplimiento de la obligación de cotizar los recargos y el interés de demora establecidos en el artículo 27 y 28 de esta Ley.

3. El ingreso de las cuotas fuera de plazo reglamentario se efectuará con arreglo al tipo de cotización vigente en la fecha en que las cuotas se devengaron.

## CAPÍTULO III

### **Acción protectora**

#### SECCIÓN PRIMERA

### *Contingencias protegibles*

#### **Artículo 114. Alcance de la acción protectora**

1. La acción protectora de este Régimen General será, con excepción de las modalidades de prestaciones no contributivas, la establecida en el artículo 38 de la presente Ley. Las prestaciones y beneficios de aquélla se facilitarán en las condiciones que se determinan en el presente título y en sus disposiciones reglamentarias.

2. En el supuesto a que se refiere el apartado 2. l) del artículo 97, la propia norma en la que se disponga la asimilación a trabajadores por cuenta ajena determinará el alcance de la protección otorgada.

#### **Artículo 115. Concepto del accidente de trabajo**

1. Se entiende por accidente de trabajo toda lesión corporal que el trabajador sufra con ocasión o por consecuencia del trabajo que ejecute por cuenta ajena.

## HIRUGARREN ATALA

### *Diru-bilketa*

#### **113. artikulua. Arau orokorrak**

1. Lege honen I. tituluko III. kapituluan xedaturikoaren ondorioetarako, enpresaburuen betebeharra da, eta, hala badagokio, 127. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan adierazitako pertsonen betebeharra, Araubide Orokor hone-tako kuota guztiak ordaintzea, lege honetan eta berau aplikatzeko eta garatzeko arauetan ezarritako epean, tokian eta forman.

2. Lege honen 27. eta 28. artikuluetan ezarritako errekargu eta berandutza- interesak egotzi ahal izango zaizkie kotizatzeke betebeharra betetzearen eran- tzule direnei.

3. Kuotak, erregelamenduzko epetik kanpo ordainduz gero, sorrarazi ziren garaian indarrean zen kotizazio-tipoaren arabera ordainduko dira.

## III. KAPITULUA

### **Babes-jarduna**

#### LEHEN ATALA

### *Babestu daitezkeen gertagarriak*

#### **114. artikulua. Babes-jardunaren irismena**

1. Araubide Orokorraren babes-jarduna lege honen 38. artikuluan ezarrita- koa izango da, ekarpenezko ez diren prestazioetarako izan ezik. Titulu honetan eta erregelamenduzko xedapenetan zehazturiko moduan emango dira babes- jardun horri dagozkion prestazioak eta onurak.

2. Lege honen 97. artikuluko 2.l) zenbakian adierazitako kasuan, beste- ren konturako langileekin parekatzea xedatzen den arauak berak zehaztuko du emandako babesaren irismena.

#### **115. artikulua. Lan-istripuaren kontzeptua**

1. Lan-istripuztat hartzen da langileak besteren kontura egiten duen lanean edo lanaren ondorioz izandako zeinahi gorputz-kalte.

2. Tendrán la consideración de accidentes de trabajo:

a) Los que sufra el trabajador al ir o al volver del lugar de trabajo.

b) Los que sufra el trabajador con ocasión o como consecuencia del desempeño de cargos electivos de carácter sindical, así como los ocurridos al ir o al volver del lugar en que se ejerciten las funciones propias de dichos cargos.

c) Los ocurridos con ocasión o por consecuencia de las tareas que, aun siendo distintas a las de su categoría profesional, ejecute el trabajador en cumplimiento de las órdenes del empresario o espontáneamente en interés del buen funcionamiento de la empresa.

d) Los acaecidos en actos de salvamento y en otros de naturaleza análoga, cuando unos y otros tengan conexión con el trabajo.

e) Las enfermedades, no incluidas en el artículo siguiente, que contraiga el trabajador con motivo de la realización de su trabajo, siempre que se pruebe que la enfermedad tuvo por causa exclusiva la ejecución del mismo.

f) Las enfermedades o defectos, padecidos con anterioridad por el trabajador, que se agraven como consecuencia de la lesión constitutiva del accidente.

g) Las consecuencias del accidente que resulten modificadas en su naturaleza, duración, gravedad o terminación, por enfermedades intercurrentes, que constituyan complicaciones derivadas del proceso patológico determinado por el accidente mismo o tengan su origen en afecciones adquiridas en el nuevo medio en que se haya situado el paciente para su curación.

3. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que son constitutivas de accidente de trabajo las lesiones que sufra el trabajador durante el tiempo y en el lugar del trabajo.

4. No obstante lo establecido en los apartados anteriores, no tendrán la consideración de accidente de trabajo:

a) Los que sean debidos a fuerza mayor extraña al trabajo, entendiéndose por ésta la que sea de tal naturaleza que ninguna relación guarde con el trabajo que se ejecutaba al ocurrir el accidente.

En ningún caso se considerará fuerza mayor extraña al trabajo la insolación, el rayo y otros fenómenos análogos de la naturaleza.

b) Los que sean debidos a dolo o a imprudencia temeraria del trabajador accidentado.

2. Lan-istripuztat hartuko dira:

a) Langileak lantokira bidean edo lanetik itzultzean izandakoa.

b) Langileak izaera sindikaleko hautetsi-karguak betetzean edo horren ondorioz jasandakoak, eta orobat kargu horiei dagozkien eginkizunak egiten dituen tokira joatean edo handik itzultzean gertatutakoak.

c) Bere lanbide-kategoriari dagozkionak ez izanik ere langileak enpresaburuaren aginduz edo bere borondatez enpresaren jardun onaren mesederako egindako lanetan edo haien ondorioz jasandakoak.

d) Salbamendu-ekintzetan eta antzekoetan gertatutakoak, lanarekin lotura dutenean.

e) Langileak bere lana egitearen ondorioz hartzen dituen eta ondorengo artikuluan sartu ez diren gaixotasunak, frogatzen bada lan hori egitea dela gaixotasunaren kausa bakarra.

f) Langileak lehendik dituen eta istripuan izandako kaltearen ondorioz larritzen diren gaixotasun edo akatsak.

g) Gaixotasun tartekatuen ondorioz izaera, iraupena, larritasuna edo amaiera aldatzen zaien istripu-ondorioak; tartekatutakoak izan daitezke istripuak berak ekarritako prozesu patologikotik eratorritako konplikazioak, edo gaixoa sendatzeko jarri den ingurune berrian hartutako afekzioetatik sortu diren ondorioak.

3. Kontrakoa frogatu ezean, langileak laneko denboran eta lantokian jasandako kalteak lan-istripu direla joko da.

4. Aurreko zenbakietan ezarritakoa gorabehera, ez dira lan-istripuztat hartuko:

a) Lanaz aparteko ezinbestekak ekarritakoak; istripua gertatzean egiten ari zen lanarekin zerikusirik ez dutenak hartuko dira halakotzat.

Ezein kasutan ez dira lanaz aparteko ezinbestetzat hartuko intsolazioa, tximista eta gisako natura-fenomenoak.

b) Istripua izan duen langilearen doloak edo zuhurtziagabekeria larriak ekarritakoak.

5. No impedirán la calificación de un accidente como de trabajo:

a) La imprudencia profesional que es consecuencia del ejercicio habitual de un trabajo y se deriva de la confianza que éste inspira.

b) La concurrencia de culpabilidad civil o criminal del empresario, de un compañero de trabajo del accidentado o de un tercero, salvo que no guarde relación alguna con el trabajo.

### **Artículo 116. Concepto de la enfermedad profesional**

Se entenderá por enfermedad profesional la contraída a consecuencia del trabajo ejecutado por cuenta ajena en las actividades que se especifiquen en el cuadro que se apruebe por las disposiciones de aplicación y desarrollo de esta Ley, y que esté provocada por la acción de los elementos o sustancias que en dicho cuadro se indiquen para cada enfermedad profesional.

En tales disposiciones se establecerá el procedimiento que haya de observarse para la inclusión en dicho cuadro de nuevas enfermedades profesionales que se estime deban ser incorporadas al mismo. Dicho procedimiento comprenderá, en todo caso, como trámite preceptivo, el informe del Ministerio de Sanidad y Consumo.

### **Artículo 117. Concepto de los accidentes no laborales y de las enfermedades comunes**

1. Se considerará accidente no laboral el que, conforme a lo establecido en el artículo 115, no tenga el carácter de accidente de trabajo.

2. Se considerará que constituyen enfermedad común las alteraciones de la salud que no tengan la condición de accidentes de trabajo ni de enfermedades profesionales, conforme a lo dispuesto, respectivamente, en los apartados 2. e), f) y g) del artículo 115 y en el artículo 116.

### **Artículo 118. Concepto de las restantes contingencias**

El concepto legal de las restantes contingencias será el que resulte de las condiciones exigidas para el reconocimiento del derecho a las prestaciones otorgadas en consideración a cada una de ellas.

5. Ez dira istripu bat lan-istripuztat hartzeko eragozgarri izango:

a) Lan bat egiteko ohituraren eta horrek sortzen duen konfiantzaren ondorio den zuhurtziagabekeria profesionala.

b) Enpresaburuaren, istripua izan duenaren lankide baten edo hirugarren baten erantzukizun zibil edo kriminala, non eta ez den lanarekin inolako zerikusirik ez duena.

#### **116. artikulua. Laneko gaixotasunaren kontzeptua**

Laneko gaixotasuntzat hartuko da besteren konturako lanaren ondorioz hartzen dena, lege hau aplikatzeko eta garatzeko xedapenek onetsiko duten koadroan zehazten diren jardueretariko batean, eta koadro horretan laneko gaixotasun bakoitzarentzat adierazten diren elementu edo substantzien eraginez gertatzen dena.

Xedapen horietan ezarriko da zer prozedurari jarraitu behar zaion koadro horretan gehitu beharrekotzat jotzen diren laneko gaixotasun berriak sartzeko. Prozedura horretan, kasu guztietan, nahitaezko izapidea izango da Osasun eta Kontsumo Ministerioak txostena ematea.

#### **117. artikulua. Lanekoak ez diren istripuen eta gaixotasun arrunten kontzeptua**

1. Lanekoa ez den istripuztat hartuko da 115. artikuluan xedatutakoaren arabera lan-istripu ez dena.

2. Gaixotasun arrunt direla joko da lege honen 115. artikuluko 2.e), 2.f) eta 2.g) letretan eta 116. artikuluan xedaturikoaren arabera, hurrenez hurren, lan-istripuen edo laneko gaixotasunen izaera ez dutenak.

#### **118. artikulua. Gainerako gertagarrien kontzeptuak**

Gainerako gertagarrien kontzeptua haietako bakoitzaren prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzeko galdatzen diren baldintzen arabera taxutuko da.

## **Artículo 119. Riesgos catastróficos**

En ningún caso serán objeto de protección por el Régimen General los riesgos declarados catastróficos al amparo de su legislación especial.

### SECCIÓN SEGUNDA

#### *Régimen General de las prestaciones*

## **Artículo 120. Cuantía de las prestaciones**

1. La cuantía de las prestaciones económicas no determinada en la presente Ley será fijada en los Reglamentos Generales para su desarrollo.

2. La cuantía de las pensiones se determinará en función de la totalidad de las bases por las que se haya efectuado la cotización durante los períodos que se señalen. Tales bases serán de aplicación asimismo a las demás prestaciones económicas cuya cuantía se calcule en función de bases reguladoras.

La cotización adicional por horas extraordinarias a que se refiere el artículo 111 de esta Ley no será computable a efectos de determinar la base reguladora de las prestaciones.

En todo caso, la base reguladora de cada prestación no podrá rebasar el tope máximo que, a efectos de bases de cotización, se prevé en el artículo 110.

3. En los casos de pluriempleo, la base reguladora de las prestaciones se determina en función de la suma de las bases por las que se haya cotizado en las diversas empresas, siendo de aplicación a la base reguladora así determinada el tope máximo previsto en el apartado anterior.

## **Artículo 121. Caracteres de las prestaciones**

1. Las prestaciones del Régimen General de la Seguridad Social tendrán los caracteres atribuidos genéricamente a las mismas en el artículo 40 de la presente Ley.

2. Las prestaciones que deben satisfacer los empresarios a su cargo, conforme a lo establecido en el apartado 2 del artículo 126 y en el párrafo segundo del apartado 1 del artículo 131 de esta Ley, o por su colaboración en la gestión y, en su caso, las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social en régimen de liquidación, tendrán el carácter de cré-



## 119. artikulua. Hondamendi-arriskuak

Ezein kasutan ez dira Araubide Orokorrean babestuko dagokien legeria be-  
reziaren arabera hondamendi-arriskutzat deklaratuakoak.

### BIGARREN ATALA

#### *Prestazioen araubide orokorra*

## 120. artikulua. Prestazioen zenbatekoa

1. Lege honetan zehaztu ez den kasuetan, lege hau garatzeko erregela-  
mendu orokorretan ezarriko da diru-prestazio bakoitzaren zenbatekoa.

2. Pentsioen zenbatekoa zehazteko, adierazitako epeetan guztira zer oina-  
rriren arabera kotizatu den hartuko da kontuan. Oinarri horiek aplikatzekoak  
izango dira zenbatekoa oinarrien arabera kalkulatzeko den gainerako diru-pres-  
tazioen kasuan ere.

Aparteko orduengatiko kotizazio gehigarria, lege honen 111. artikuluan  
azaldua, ez da konputatuko prestazio-oinarria zehazteko orduan.

Kasu guztietan, prestazio bakoitzaren oinarriak ezin gaindituko du kotiza-  
zio-oinarriei dagokienez 110. artikulua ezartzen duen gehienezko zenbatekoa.

3. Enplegu-aniztasunaren kasuan, enpresa guztietako kotizazio-oina-  
rrien baturaren arabera zehazten da prestazio-oinarria, eta hala ateratzen  
den oinarriari aurreko zenbakian aurreikusitako gehienezko kopurua apli-  
katuko zaio.

## 121. artikulua. Prestazioen izaerak

1. Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko prestazioek lege honen  
40. artikuluan generikoki ematen zaizkien izaerak izango dituzte.

2. Lege honen 126. artikuluko 2. zenbakian eta 131. artikuluko 1. zenba-  
kiko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera enpresaburuek beren kargura  
ordaintzen dituzten prestazioak edo kudeaketan laguntzeagatik ordaintzen di-  
tuztenak, eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta laneko  
2. En el supuesto de parto, y con aplicación exclusiva a la madre biológica, la edad señalada en el apartado anterior será la que tenga cumplida la interesada en el momento de inicio del descanso, tomándose como referente el momento del parto a efectos de verificar la acreditación del período mínimo de cotización que, en su caso, corresponda.

3. En los supuestos previstos en el penúltimo párrafo del artículo 48.4 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, y en el párrafo octavo del artículo 30.3 de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública, la edad señalada en el apartado 1 será la que tengan cumplida los interesados en el momento de inicio del descanso, tomándose como referente el momento de la resolución a efectos de verificar la acreditación del período mínimo de cotización que, en su caso, corresponda.

### **Artículo 133 quater. Prestación económica**

La prestación económica por maternidad consistirá en un subsidio equivalente al 100 por 100 de la base reguladora correspondiente. A tales efectos, la base reguladora será equivalente a la que esté establecida para la prestación de incapacidad temporal, derivada de contingencias comunes.

No obstante lo anterior, el subsidio podrá reconocerse mediante resolución provisional por el Instituto Nacional de la Seguridad Social con la última base de cotización que conste en las bases de datos corporativas del sistema.

Si la base de cotización del mes inmediatamente anterior al inicio del descanso fuese diferente a la utilizada en la resolución provisional, se recalculará la presta-



zatu izatea, gutxienez, atsedenaldiaren aurreko zazpi urteen barruan. Betekizun hori betetzat joko da baldin eta, adierazitakoaren ordeztan, langileak egiaztatzen badu 180 egunez kotizatu duela bere lan-bizitzan, atsedentaldia hasi baino lehen.

c) Langileak 26 urte beteak baditu erditze-datan edo familia-harrerako erabaki administratibo edo judiziala hartzen den edo adopzioa eratzen duen ebazpen judiziala ematen den egunean, galdatuko da 180 egunez kotizatu izatea, gutxienez, atsedenaldiaren aurreko zazpi urteen barruan. Betekizun hori betetzat joko da baldin eta, adierazitakoaren ordeztan, langileak egiaztatzen badu 360 egunez kotizatu duela bere lan-bizitzan, atsedentaldia baino lehen.

2. Erditzearen kasuan —ama biologikoari eta ez beste inori dagokio hau—, interesdunak atsedenaldiaren hasieran beterik duena izango da aurreko zenbakian adierazitako adina, erditze-unea harturik dagokion gutxieneko kotizazioaldia egiaztatzeko erreferentziatzen.

3. Langileen Estatutuari buruzko Legearen —1995eko martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartua— 48.4 artikuluko azkenarrereko paragrafoan eta Funtzio Publikoaren Erreformatzeko Neurriei buruzko 1984ko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 30.3 artikuluan aurreikusitako kasuetan, 1. zenbakian adierazitako adina interesdunek atsedentaldia hasteko unean dutena izango da, ebazpenaren unea harturik dagokion gutxieneko kotizazioaldia egiaztatzeko erreferentziatzen.

### **133 quater artikulua. Diru-prestazioa**

Amatasunagatiko diru-prestazioa dagokion oinarriaren 100eko 100en baliokidea den subsidio bat izango da. Oinarria, ondorio horietarako, gertagarri arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunaren prestaziorako ezarritako dagoenaren baliokidea izango da.

Aurrekoa gorabehera, sistemaren datu-base korporatiboetan jasota dagoen azkeneko kotizazio-oinarriekin aitortu ahal izango da subsidioa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren behin-behineko ebazpen baten bitartez.

Atsedena hasi aurreko hileko kotizazio-oinarria ez bada behin-behineko ebazpenean erabilitakoa bera, berriz kalkulatu da prestazioa, eta behin betiko

ción y se emitirá resolución definitiva. Si la base no hubiese variado, la resolución provisional devendrá en definitiva en un plazo de tres meses desde su emisión.

### **Artículo 133 quinquies. Pérdida o suspensión del derecho al subsidio por maternidad**

El derecho al subsidio por maternidad podrá ser denegado, anulado o suspendido, cuando el beneficiario hubiera actuado fraudulentamente para obtener o conservar dicha prestación, así como cuando trabajara por cuenta propia o ajena durante los correspondientes períodos de descanso.

## SECCIÓN SEGUNDA

### *Supuesto especial*

### **Artículo 133 sexies. Beneficiarias**

Serán beneficiarias del subsidio por maternidad previsto en esta Sección las trabajadoras por cuenta ajena que, en caso de parto, reúnan todos los requisitos establecidos para acceder a la prestación por maternidad regulada en la Sección anterior, salvo el período mínimo de cotización establecido en el artículo 133 ter.

### **Artículo 133 septies. Prestación económica**

La cuantía de la prestación será igual al 100 por 100 del indicador público de renta de efectos múltiples (IPREM) vigente en cada momento, salvo que la base reguladora calculada conforme al artículo 133 quater o a la disposición adicional séptima fuese de cuantía inferior, en cuyo caso se estará a ésta.

La duración de la prestación, que tendrá la consideración de no contributiva a los efectos del artículo 86, será de 42 días naturales a contar desde el parto, pudiendo denegarse, anularse o suspenderse el derecho por la mismas causas establecidas en el artículo 133 quinquies.

Dicha duración se incrementará en 14 días naturales en los casos de nacimiento de hijo en una familia numerosa o en la que, con tal motivo, adquiera dicha condición, o en una familia monoparental, o en los supuestos de parto múltiple, o cuando la madre o el hijo estén afectados de discapacidad en un grado igual o superior al 65 por 100. El incremento de la duración es único, sin que proceda su acumulación cuando concurren dos o más circunstancias de las señaladas.

ebazpena emango da. Oinarria aldatu ez bada, behin-behineko ebazpena behin-betiko bihurtuko da eman zenetik hiru hilabete igarotzean.

### **133 quinquies artikulua. Amatasun-subsidiorako eskubidea galtzea edo geldieran uztea**

Amatasun-subsidiorako eskubidea ukatu, deuseztatu edo geldieran utzi ahal izango da onuradunak iruzurrez jokatu badu prestazioa lortzeko edo hari eusteko, eta orobat bere konturako edo besteren konturako lanean aritu bada dagozkion atsedeen-aldietan.

## BIGARREN ATALA

### *Kasu berezia*

### **133 sexies artikulua. Onuradunak**

Atal honetan aurreikusiriko amatasun-subsidioaren onuradun izango dira besteren konturako emakumezko langileak baldin eta, erditzen direnean, aurreko atalean arauturiko amatasun-prestazioa jasotzeko betekizun guztiak betetzen badituzte, salbu 133 ter artikuluan ezarritako gutxieneko kotizazio-aldia.

### **133 septies artikulua. Diru-prestazioa**

Prestazioaren zenbatekoa unean-unean indarrean dagoen ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) 100eko 100 izango da, non eta oinarria —133 quater artikulua edo zazpigarren xedapen gehigarriaren arabera kalkulatu— ez den txikiagoa; txikiagoa bada, zenbateko hori hartuko da kontuan.

Prestazioa ekarpenezko ez dela joko da 86. artikulua onorioetarako, eta haren iraupena 42 egun naturalekoa izango da, erditzetik aurrera. Eskubidea ukatu, deuseztatu edo geldieran utzi ahal izango da 133 quinquies artikuluan ezarritako kausa berengatik.

Iraupen hori 14 egun naturalez luzatuko da: jaiotza familia ugari batean gertatzen bada edo jaiotza horrekin familia ugari bihurtzen bada; guraso bakarreko familia bada; erditze anizkoitzen kasuan, eta amak edo umeak desgaitasun bat dutenean, 100eko 65 edo gehiagoko gradukoa. Iraupena luzatzeko aukera bakarra izango da, eta ez dago luzapenak metatzerik aipatutako inguruabarretatik bi edo gehiago batera gertaturik ere.

A los efectos de la consideración de la familia numerosa, se estará a lo dispuesto en la Ley 40/2003, de 18 de noviembre, de Protección a las Familias Numerosas.

Se entenderá por familia monoparental la constituida por un solo progenitor con el que convive el hijo nacido y que constituye el sustentador único de la familia.

Asimismo, se entenderá que existe parto múltiple cuando el número de nacidos sea igual o superior a dos.

## CAPÍTULO IV TER

### Paternidad

#### **Artículo 133 octies. Situación protegida**

A efectos de la prestación por paternidad, se considerarán situaciones protegidas el nacimiento de hijo, la adopción y el acogimiento, tanto preadoptivo como permanente o simple, de conformidad con el Código Civil o las leyes civiles de las Comunidades Autónomas que lo regulen, siempre que, en este último caso, su duración no sea inferior a un año, y aunque dichos acogimientos sean provisionales, durante el período de suspensión que, por tales situaciones, se disfrute de acuerdo con lo previsto en el artículo 48. bis del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, o durante el período de permiso que se disfrute, en los mismos supuestos, de acuerdo con lo dispuesto en la letra a) del artículo 30.1 de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública.

#### **Artículo 133 nonies. Beneficiarios**

Serán beneficiarios del subsidio por paternidad los trabajadores por cuenta ajena que disfruten de la suspensión referida en el artículo anterior, siempre que, reuniendo la condición general exigida en el artículo 124.1, acrediten un período mínimo de cotización de 180 días, dentro de los siete años inmediatamente anteriores a la fecha de inicio de dicha suspensión, o, alternativamente, 360 días a lo largo de su vida laboral con anterioridad a la mencionada fecha, y reúnan las demás condiciones que reglamentariamente se determinen.

Familia ugaria izateari edo ez izateari dagokionez, Familia Ugariak Babesteari buruzko 2003ko azaroaren 18ko 40/2003 Legeak xedaturikoari jarraituko zaio.

Familia gurasobakartzat hartuko da guraso batek osatutakoa, jaiotako umea harekin bizi bada eta bera bada familiari eusten dion bakarra.

Erditze anizkoitza da bi ume edo gehiago jaiotzen direnekoa.

## IV TER KAPITULUA

### Aitatasuna

#### **133 octies artikulua. Babesturiko egoera**

Aitatasun-prestazioaren ondorioetarako, egoera babestutzat hartuko dira: ume baten jaiotza, adopzioa eta familia-harrera, hala adopzio-aurrekoa nola iraunkorra edo sinplea, Kode Zibilaren arabera edo hura arautzen duten autonomia-erkidegoetako lege zibilen arabera, baldin eta, azken kasu horretan, ez badu urtebete baino gutxiagoko iraupena, eta familia-harrerak behin-behinekoak izanda ere, Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 48 artikuluan aurreikusitakoaren arabera —1995eko martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartua— eta Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko 1984ko abuztuaren 2ko 30,1/1984 Legearen 30.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera halako egoeretan gozaten den geldiera edo baimenak irauten duen bitartean.

#### **133 nonies artikulua. Onuradunak**

Aitatasun-subsidioaren onuradun izango dira aurreko artikuluan azal dutako geldieraz gozaten ari diren besteren konturako langileak, baldin eta, 124.1 artikuluan galdaturiko baldintza orokorra betetzen dutelarik, geldiera hasi aurreko zazpi urteen barruan 180 eguneko epe batean kotizatu izana egiaztatzen badute, edo, bestela, beren lan-bizitzan 360 eguneko kotizatu izana geldiera baino lehen, eta erregelamenduz erabakitzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

## **Artículo 133 decies. Prestación económica**

La prestación económica por paternidad consistirá en un subsidio que se determinará en la forma establecida por el artículo 133 quater para la prestación por maternidad, y podrá ser denegada, anulada o suspendida por las mismas causas establecidas para esta última.

## **CAPÍTULO IV QUATER**

### **Riesgo durante el embarazo**

#### **Artículo 134. Situación protegida**

A los efectos de la prestación económica por riesgo durante el embarazo, se considera situación protegida el período de suspensión del contrato de trabajo en los supuestos en que, debiendo la mujer trabajadora cambiar de puesto de trabajo por otro compatible con su estado, en los términos previstos en el artículo 26, apartado 3, de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, dicho cambio de puesto no resulte técnica u objetivamente posible, o no pueda razonablemente exigirse por motivos justificados.

La prestación correspondiente a la situación de riesgo durante el embarazo tendrá la naturaleza de prestación derivada de contingencias profesionales.

#### **Artículo 135. Prestación económica**

1. La prestación económica por riesgo durante el embarazo se concederá a la mujer trabajadora en los términos y condiciones previstos en esta Ley para la prestación económica de incapacidad temporal derivada de contingencias profesionales, con las particularidades establecidas en los apartados siguientes.

2. La prestación económica nacerá el día en que se inicie la suspensión del contrato de trabajo y finalizará el día anterior a aquél en que se inicie la suspensión del contrato de trabajo por maternidad o el de reincorporación de la mujer trabajadora a su puesto de trabajo anterior o a otro compatible con su estado.

3. La prestación económica consistirá en subsidio equivalente al 100 por 100 de la base reguladora correspondiente. A tales efectos, la base reguladora será equivalente a la que esté establecida para la prestación de incapacidad temporal, derivada de contingencias profesionales.

### 133 decies artikulua. Diru-prestazioa

Aitatasunagatiko diru-prestazioa 133 quater artikuluan amatasun-prestaziorako ezartzen den moduan erabakiko den subsidio bat izango da, eta amatasun-prestaziorako ezarritako kausa berengatik ukatu, deuseztatu edo geldieran utzi ahal izango da.

## IV QUATER KAPITULUA

### Haurdunaldiko arriskua

#### 134. artikulua. Babesturiko egoera

Haurdunaldiko arriskuagatiko diru-prestazioaren ondorioetarako, egoera babestutzat jotzen da lan-kontratua geldieran uzten den aldi bat, zeinetan, emakumezko langileak bere egoerarekin bateragarria den beste lanpostu batera aldatu beharra daukalarik, Laneko Arriskuen Prebentziorako 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 26. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitako moduan, lanpostu-aldaketa hori ez baita posible teknikoki edo objektiboki, edo arrazoiz ezin bada galdatu arrazoi justifikatuengatik.

Haurdunaldiko arrisku-egoerari dagokion prestazioak lanbide-gertagarrien ondoriozko prestazioaren izaera du.

#### 135. artikulua. Diru-prestazioa

1. Emakumezko langileari haurdunaldiko arriskuagatiko diru-prestazioa emateko, lanbide-gertagarrien ondoriozko aldi baterako ezintasunaren diru-prestaziorako lege honetan ezarritako modua eta baldintzak bete behar dira, ondorengo zenbakietan ezarritako berezitasunekin.

2. Lan-kontratuaren geldiera hasten den egunean sortuko da diru-prestazioa, eta amaitu, berriz, amatasunagatik lan-kontratuaren geldiera hasten den egunaren bezperan, edo emakumezko langilea aurreko lanpostura edo bere egoerarekin bateragarria den beste batera itzultzen den egunaren bezperan.

3. Diru-prestazioa dagokion oinarriaren 100eko 100en baliokidea den subsidio bat izango da. Ondorio horietarako, lanbide-gertagarrien ondoriozko aldi baterako ezintasunaren prestaziorako ezarrita dagoenaren baliokidea izango da oinarria.

4. La gestión y el pago de la prestación económica por riesgo durante el embarazo corresponderá a la Entidad Gestora o a la Mutua de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social en función de la entidad con la que la empresa tenga concertada la cobertura de los riesgos profesionales.

## CAPÍTULO IV QUINQUIES

### Riesgo durante la lactancia natural

#### Artículo 135 bis. Situación protegida

A los efectos de la prestación económica por riesgo durante la lactancia natural, se considera situación protegida el período de suspensión del contrato de trabajo en los supuestos en que, debiendo la mujer trabajadora cambiar de puesto de trabajo por otro compatible con su situación, en los términos previstos en el artículo 26.4 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, dicho cambio de puesto no resulte técnica u objetivamente posible, o no pueda razonablemente exigirse por motivos justificados.

#### Artículo 135 ter. Prestación económica

La prestación económica por riesgo durante la lactancia natural se concederá a la mujer trabajadora en los términos y condiciones previstos en esta ley para la prestación económica por riesgo durante el embarazo, y se extinguirá en el momento en que el hijo cumpla nueve meses, salvo que la beneficiaria se haya reincorporado con anterioridad a su puesto de trabajo anterior o a otro compatible con su situación.

## CAPÍTULO V

### Invalidez

#### SECCIÓN PRIMERA

##### *Disposición general*

#### Artículo 136. Conceptos y clases

1. En la modalidad contributiva, es invalidez permanente la situación del trabajador que, después de haber estado sometido al tratamiento prescrito y



4. Haurdunaldiko arriskuagatiko diru-prestazioa kudeatzea eta ordaintzea entitate kudeatzaileari edo Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuari dagokio; enpresak zein entitaterekin duen hitzartua lanbide-arriskuen estaldura, hari.

## IV QUINQUIES KAPITULUA

### Eradoskitze-aldiko arriskua

#### 135 bis artikulua. Babesturiko egoera

Eradoskitze-aldiko arriskuagatiko diru-prestazioaren ondorioetarako, egoera babestutzat jotzen da lan-kontratua geldieran uzten den aldi bat, zeinetan, emakumezko langileak bere egoerarekin bateragarria den beste lanpostu batera aldatu beharra daukalarik, Laneko Arriskuen Prebentziorako 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 26.4. artikuluan aurreikusitako moduan, lanpostu-aldaketa hori ez baita posible teknikoki edo objektiboki, edo ezin bada galdatu arrazoi justifikatuengatik.

#### 135 ter artikulua. Diru-prestazioa

Eradoskitze-aldiko arriskuagatiko diru-prestazioa, eman, haurdunaldiko arriskuagatiko diru-prestaziorako aurreikusitako moduan eta baldintzetan emango zaio emakumezko langileari, eta amaitu, berriz, umeak bederatzi hilabete betetzean amaituko da, non eta onuraduna ez den lehenago itzuli bere lanpostura edo bere egoerarekin bateragarri den beste batera.

## V. KAPITULUA

### Baliaezintasuna

#### LEHEN ATALA

#### *Xedapen orokorra*

#### 136. artikulua. Kontzeptuak eta motak

1. Ekarpenezko aldaeran, langilea baliaezintasun iraunkorreko egoeran dela jotzen da baldin eta, jarritako tratamendua segitu eta alta medikoa eman on-

de haber sido dado de alta médicamente, presenta reducciones anatómicas o funcionales graves, susceptibles de determinación objetiva y previsiblemente definitivas, que disminuyan o anulen su capacidad laboral. No obstará a tal calificación la posibilidad de recuperación de la capacidad laboral del inválido, si dicha posibilidad se estima médicamente como incierta o a largo plazo.

Las reducciones anatómicas o funcionales existentes en la fecha de la afiliación del interesado en la Seguridad Social no impedirán la calificación de la situación de incapacidad permanente, cuando se trate de personas minusválidas y con posterioridad a la afiliación tales reducciones se hayan agravado, provocando por sí mismas o por concurrencia con nuevas lesiones o patologías una disminución o anulación de la capacidad laboral que tenía el interesado en el momento de su afiliación.

No obstante lo establecido en el párrafo anterior, no será necesaria el alta médica para la valoración de la invalidez permanente en los casos en que concurren secuelas definitivas.

También tendrá la consideración de invalidez permanente, en el grado que se califique, la situación de incapacidad que subsista después de extinguida la incapacidad temporal por el transcurso del plazo máximo de duración señalado para la misma en el apartado a) del número 1 del artículo 128, salvo en el supuesto previsto en el segundo párrafo del número 2 del artículo 131 bis, en el cual no se accederá a la situación de invalidez permanente hasta tanto no se proceda a la correspondiente calificación.

2. En la modalidad no contributiva, podrán ser constitutivas de invalidez las deficiencias, previsiblemente permanentes, de carácter físico o psíquico, congénitas o no, que anulen o modifiquen la capacidad física, psíquica o sensorial de quienes las padecen.

3. La invalidez permanente habrá de derivarse de la situación de incapacidad temporal, salvo que afecte a quienes carezcan de protección en cuanto a dicha incapacidad temporal, bien por encontrarse en una situación asimilada a la de alta, de conformidad con lo previsto en el artículo 125, que no la comprenda, bien en los supuestos de asimilación a trabajadores por cuenta ajena, en los que se dé la misma circunstancia, de acuerdo con lo previsto en el número 2 del artículo 114 de esta Ley, bien en los casos de acceso a la invalidez permanente desde la situación de no alta, a tenor de lo previsto en el número 3 del artículo 138.

doren, lan-gaitasuna gutxitzen edo deuseztatzen dioten murrizketa anatomiko edo funtzional larriak ageri baditu, objektiboki neurtu daitezkeenak eta zantzuen arabera behin betikoak. Ez du kalifikazio hori eragotziko baliaezinaren lan-gaitasuna berreskuratzeko aukera izateak, medikuntzaren aldetik zalantzako edo epe luzerako irizten bazaio aukera horri.

Interesdunak Gizarte Segurantzian afiliatu zenean murrizketa anatomiko edo funtzionalak izateak ez du eragotziko ezintasun iraunkorreko egoeraren kalifikazioa, pertsona baliaezinen kasuan, afiliatu ondoren murrizketa horiek larritu badira, eta, berez edo beste lesio edo patologia batzuekin batera gertatuz, interesdunak afiliatzeko garaian zuen lan-gaitasuna gutxitu edo deuseztatu badute.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, bizitza guztirako ondorenak gertatzen diren kasuetan ez da alta medikoaren beharrik izango baliaezintasun iraunkorra balioesteko.

Orobat hartuko da baliaezintasun iraunkortzat, dagokion kalifikazio-gradua emanik, 128. artikuluko 1. zenbakiko a) letran hartarako ezarritako gehieneko epea amaitzeagatik aldi baterako ezintasuna azkendutakoan ere irauten duen ezintasun-egoera, salbu 131 bis artikuluko 2. zenbakiko bigarren paragrafoan aurreikusitako kasuan, orduan ez baita baliaezintasun iraunkorreko egoera aitortuko dagokion kalifikazioa eman arte.

2. Ekarpenezko ez den aldaeran, baliaezintasun-arrazoitzat hartu ahal izango dira jasaten dituztenen gaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa deuseztatzen edo aldatzen duten urritasun fisiko edo psikiko ustez iraunkorrak, sortzetikoak izan zein ez.

3. Baliaezintasun iraunkorra aldi baterako ezintasun-egoeratik eratorriko da, non eta jasaten duen pertsona ez den aldi baterako ezintasun horretarako babesik gabea, arrazoi hauetakoren batengatik: 125. artikuluan aurreikusitakoaren arabera altarekin parekatzen den eta babes hori barne hartzen ez duen egoera batean dagoelako; besteren konturako langileak parekatzen diren kasuetan egoera hori bera gertatzen delako, lege honen 114. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitakoaren arabera; edo alta eman gabeko egoeratik baliaezintasun iraunkorreko egoerara iritsi delako, 138. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitakoaren arabera.

## SECCIÓN SEGUNDA

### *Invalidez permanente en su modalidad contributiva*

#### **Artículo 137. Grados de incapacidad**

1. La incapacidad permanente, cualquiera que sea su causa determinante, se clasificará, en función del porcentaje de reducción de la capacidad de trabajo del interesado, valorado de acuerdo con la lista de enfermedades, que se apruebe reglamentariamente, en los siguientes grados:

- a) Incapacidad permanente parcial.
- b) Incapacidad permanente total.
- c) Incapacidad permanente absoluta.
- d) Gran invalidez.

2. La calificación de la incapacidad permanente en sus distintos grados se determinará en función del porcentaje de reducción de la capacidad de trabajo que reglamentariamente se establezca.

A efectos de la determinación del grado de la incapacidad, se tendrá en cuenta la incidencia de la reducción de la capacidad de trabajo en el desarrollo de la profesión que ejercía el interesado o del grupo profesional, en que aquélla estaba encuadrada, antes de producirse el hecho causante de la incapacidad permanente.

3. La lista de enfermedades, la valoración de las mismas, a efectos de la reducción de la capacidad de trabajo, y la determinación de los distintos grados de incapacidad, así como el régimen de incompatibilidades de los mismos, serán objeto de desarrollo reglamentario por el Gobierno, previo informe del Consejo General del Instituto Nacional de la Seguridad Social.

#### **Artículo 138. Beneficiarios**

1. Tendrán derecho a las prestaciones por invalidez permanente las personas incluidas en el Régimen General que sean declaradas en tal situación y que, además de reunir la condición general exigida en el apartado 1 del artículo 124, hubieran cubierto el período mínimo de cotización que se determina en el apartado 2 de este artículo, salvo que aquélla sea debida a accidente, sea o no laboral, o a enfermedad profesional, en cuyo caso no será exigido ningún período previo de cotización.

### 137. artikulua. Ezintasun-graduak

1. Ezintasun iraunkorra, edozein dela ere hura eragiten duen kausa, honako gradu hauetan sailkatuko da, lan-gaitasunaren murrizketa ehuneko zenbatekoa den kontuan hartuz, erregelamenduz erabakitzen den gaixotasun-zerrendaren arabera balioetsirik hori:

- a) Ezintasun iraunkor partziala.
- b) Ezintasun iraunkor erabatekoa.
- c) Ezintasun iraunkor absolutua.
- d) Baliaezintasun handia.

2. Ezintasun iraunkorraren kalifikazioa, dagokion gradukoa, erregelamenduz ezartzen den lan-gaitasunaren murrizketa-ehunekoaren arabera erabakiko da.

Ezintasun-gradua zehaztearen ondorioetarako, kontuan hartuko da lan-gaitasunaren murrizketak zenbateko eragina duen interesdunak ezintasun iraunkorra eragin zuen egitatea gertatu baino lehen egiten zuen lanbidean edo hura sartuta zegoen lanbide-taldean jarduteko.

3. Gobernuak erregelamenduz garatuko ditu, aurrez Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak txostena eginik: gaixotasun-zerrenda, lan-gaitasunaren murrizketaren aldetik bakoitzari dagokion balioespena, eta ezintasun-gradu desberdinak, bai eta graduon bateraezintasunen araubidea ere.

### 138. artikulua. Onuradunak

1. Baliaezintasun iraunkorragatiko prestaziorako eskubidea izango dute Araubide Orokorrean sarturik egonik halako egoeran deklaritzen direnak eta, horretaz gainera, 124. artikuluko 1. zenbakian galdaturiko betekizun orokorra betetzeaz gainera, artikuluko honetako 2. zenbakian zehazturiko gutxieneko kotizazio-aldia bete dutenak, non eta ezintasuna ez den istripu baten ondorio, lanekoa izan zein ez, edo laneko gaixotasunaren ondorio, orduan ez baita aurretiazko kotizazio-aldirik galdatuko.

No se reconocerá el derecho a las prestaciones de incapacidad permanente derivada de contingencias comunes cuando el beneficiario, en la fecha del hecho causante, tenga la edad prevista en el apartado 1. a) del artículo 161 de esta Ley y reúna los requisitos para acceder a la pensión de jubilación en el sistema de la Seguridad Social.

2. En el caso de pensiones por incapacidad permanente, el período mínimo de cotización exigible será:

a) Si el sujeto causante tiene menos de treinta y un años de edad, la tercera parte del tiempo transcurrido entre la fecha en que cumplió los dieciséis años y la del hecho causante de la pensión.

b) Si el causante tiene cumplidos treinta y un años de edad, la cuarta parte del tiempo transcurrido entre la fecha en que se haya cumplido los veinte años y el día en que se hubiese producido el hecho causante, con un mínimo, en todo caso, de cinco años. En este supuesto, al menos la quinta parte del período de cotización exigible deberá estar comprendida dentro de los diez años inmediatamente anteriores al hecho causante.

En los supuestos en que se acceda a la pensión de incapacidad permanente desde una situación de alta o asimilada al alta, sin obligación de cotizar, el período de los diez años, dentro de los cuales deba estar comprendido, al menos, la quinta parte del período de cotización exigible, se computará, hacia atrás, desde la fecha en que cesó la obligación de cotizar.

En los casos a que se refiere el párrafo anterior, y respecto de la determinación de la base reguladora de la pensión, se aplicará lo establecido, respectivamente, en los apartados 1, 2 y 4 del artículo 140.

En el caso de incapacidad permanente parcial para la profesión habitual, el período mínimo de cotización exigible será de mil ochocientos días, que han de estar comprendidos en los diez años inmediatamente anteriores a la fecha en la que se haya extinguido la incapacidad temporal de la que se derive la incapacidad permanente.

3. No obstante lo establecido en el apartado 1 de este artículo, las pensiones de incapacidad permanente en los grados de incapacidad permanente absoluta para todo trabajo o gran invalidez derivadas de contingencias comunes podrán causarse aunque los interesados no se encuentren en el momento del hecho causante en alta o situación asimilada a la de alta.

Et da aitortuko gertagarri arrunten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko prestaziorako eskubidea baldin eta onuradunak, egitate sorrarazlearen datan, lege honen 161. artikuluko 1.a) letran adierazitako adina badu eta Gizarte Segurantzako sisteman erretiro-pentsiorako irispidea izateko betekizunak betetzen baditu.

2. Ezintasun iraunkorragatiko pentsioen kasuan, gutxienerako kotizazio-aldi hauek galdatuko dira:

a) Subjektu eskubide-sorrarazleak hogeita hamaika urte bete gabeak baditu, hamasei urte bete zituen datatik pentsioa sorrarazi duen egitatera bitarteko denboraren herena.

b) Sorrarazleak hogeita hamaika urte beteak baditu, hogeitau urte bete dituen datatik egitate sorrarazlera bitarteko denboraren laurdena; betiere, bost urte izan beharko dute gutxienez. Kasu horretan, galda daitekeen kotizazio-aldiaren bosten batek, gutxienez, egitate sorrarazlearen aurreko hamar urteen barrukoa izan beharko du.

Alta-egoera batetik edo altarekin parekatutako egoera batetik iristen bada ezintasun iraunkorragatiko pentsioa jasotzera, kotizatzeko betebeharririk izan gabe, kotizatzeko betebeharra izateari utzi zitzaion datatik atzera kontatuko da aurreko paragrafoan aipaturiko hamar urteko epea.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasu horietan, pentsio-oinarria zehazteari dagokionez, 140. artikuluko 1., 2. eta 4. zenbakietan xedaturikoari jarraituko zaio, hurrenez hurren.

Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partzialaren kasuan, mila eta zortziehun egunekoa izango da galdatu beharreko gutxienerako kotizazio-aldia, eta egun horiek ezintasun iraunkorraren aurretiko aldi baterako ezintasuna azkendu den dataren aurreko hamar urteen barrukoak izan beharko dute.

3. Artikulu honen 1. zenbakian ezarritakoa gorabehera, ezintasun iraunkorragatiko pentsioak sorrarazi ahal izango dira interesduna egitate sorrarazlea gertatu den unean alta-egoeran edo harekin parekatutako egoera batean ez egonik ere, gertagarri arrunten ondoriozko edozein lanetarako ezintasun iraunkor absolutuaren graduari edo baliaezintasun handiaren graduari bada-  
gozkio.

En tales supuestos, el período mínimo de cotización exigible será, en todo caso, de quince años, distribuidos en la forma prevista en el último inciso del apartado 2. b), del número 2 de este artículo.

4. Para causar pensión en el Régimen General y en otro u otros del sistema de la Seguridad Social, en los casos a que se refiere el apartado anterior, será necesario que las cotizaciones acreditadas en cada uno de ellos se superpongan, al menos, durante quince años.

5. El Gobierno, mediante Real Decreto, a propuesta del Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales, podrá modificar el período de cotización que, para las prestaciones por incapacidad permanente parcial para la profesión habitual se exige en el apartado 2 de este artículo.

### **Artículo 139. Prestaciones**

1. La prestación económica correspondiente a la incapacidad permanente parcial para la profesión habitual, consistirá en una cantidad a tanto alzado.

2. La prestación económica correspondiente a la incapacidad permanente total consistirá en una pensión vitalicia, que podrá excepcionalmente ser sustituida por una indemnización a tanto alzado cuando el beneficiario fuese menor de sesenta años.

Los declarados afectos de incapacidad permanente total para la profesión habitual percibirán la pensión prevista en el párrafo anterior incrementada en el porcentaje que reglamentariamente se determine, cuando por su edad, falta de preparación general o especializada y circunstancias sociales y laborales del lugar de residencia, se presuma la dificultad de obtener empleo en actividad distinta de la habitual anterior.

La cuantía de la pensión de incapacidad permanente total derivada de enfermedad común no podrá resultar inferior al 55 por ciento de la base mínima de cotización para mayores de dieciocho años, en términos anuales, vigente en cada momento.

3. La prestación económica correspondiente a la incapacidad permanente absoluta consistirá en una pensión vitalicia.

4. Si el trabajador fuese calificado de gran inválido, tendrá derecho a una pensión vitalicia según lo establecido en los apartados anteriores, incrementándose su cuantía con un complemento, destinado a que el inválido pueda remu-



Halako kasuetan, galdatu beharreko gutxieneko kotizazio-aldia hamabost urtekoa izango da, eta denbora hori banatzeko modua artikuluko honen 2. zenbakiko 2.b) letrako azken paragrafoan adierazitakoa izango da.

4. Araubide Orokorreko eta araubide berezietariko bateko pentsioa aldi be-  
rean sortzeko, aurreko zenbakian adierazitako kasuetan, ezinbestekoa izango da  
bieten batera hamabost urtez kotizatzea, gutxienez.

5. Gobernuak esku izango du errege-dekretu bidez aldatzeko, Lan eta Gi-  
zarte Gaietako ministroak proposaturik, ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor  
partzialerako artikuluko honen 2. zenbakian galdatzen den kotizazio-aldia.

### **139. artikulua. Prestazioak**

1. Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partzialari dagokion diru-presta-  
zioa oroharreko zenbateko bat izango da.

2. Erabateko ezintasun iraunkorrari dagokion diru-prestazioa bizi arteko  
pentsio bat izango da; salbuespenez, oroharreko kalte-ordain bat eman ahal  
izango da haren ordean, onuraduna hirurogei urtetik beherakoa denean.

Ohiko lanbiderako erabateko ezintasun iraunkorduntzat jotakoei erre-  
gelamenduz ezartzen den ehunekoa gehituko zaie aurreko paragrafoan adie-  
razitako pentsioan, baldin eta adinagatik, prestakuntza orokor edo berezirik  
ezagatik eta bizitokiko gizarte- eta lan-inguruabarrengatik uste izatekoa bada  
zaila izango dutela aurretik zutenaz bestelako jarduera batean enplegua aurki-  
tzea.

Gaixotasun arruntaren ondoriozko erabateko ezintasun iraunkorragatiko  
pentsioaren zenbatekoa, gutxienez, une horretan indarrean den hemezortzi ur-  
tetik gorakoentzako gutxieneko kotizazio-oinarriaren ehuneko 55 izango da,  
urteko kopuruan.

3. Ezintasun iraunkor absolutuari dagokion diru-prestazioa bizi arteko  
pentsio bat izango da.

4. Baliaezintasun handiaren kalifikazioa ematen bazaio langileari, au-  
rreko zenbakietan ezarritakoaren araberrako bizi arteko pentsio baterako es-  
kubidea izango du, eta gehigarri batekin osatuko da haren zenbatekoa, zain-

nerar a la persona que le atienda. El importe de dicho complemento será equivalente al resultado de sumar el 45 por ciento de la base mínima de cotización vigente en el momento del hecho causante y el 30 por ciento de la última base de cotización del trabajador correspondiente a la contingencia de la que derive la situación de incapacidad permanente. En ningún caso el complemento señalado podrá tener un importe inferior al 45 por ciento de la pensión percibida, sin el complemento, por el trabajador.

5. En los casos en que el trabajador, con sesenta y cinco o más años, acceda a la pensión de incapacidad permanente derivada de contingencias comunes, por no reunir los requisitos para el reconocimiento del derecho a pensión de jubilación, la cuantía de la pensión de incapacidad permanente será equivalente al resultado de aplicar a la correspondiente base reguladora el porcentaje que corresponda al período mínimo de cotización que esté establecido, en cada momento, para el acceso a la pensión de jubilación. Cuando la incapacidad permanente derive de enfermedad común, se considerará como base reguladora el resultado de aplicar únicamente lo establecido en la norma a) del apartado 1 del artículo 140.

6. Las prestaciones a que se refiere el presente artículo se harán efectivas en la cuantía y condiciones que se determinen en los Reglamentos generales de la presente Ley.

#### **Artículo 140. Base reguladora de las pensiones de incapacidad permanente derivada de contingencias comunes**

1. La base reguladora de las pensiones de incapacidad permanente derivada de enfermedad común se determinará de conformidad con las siguientes normas:

a) Se hallará el cociente que resulte de dividir por 112 las bases de cotización del interesado durante los 96 meses inmediatamente anteriores a aquél en que se produzca el hecho causante.

El cómputo de dichas bases se realizará conforme a las siguientes reglas, de las que es expresión matemática la fórmula que figura al final de las mismas.

1.ª) Las bases correspondientes a los veinticuatro meses anteriores a aquél en que se produzca el hecho causante se computarán en su valor nominal.

2.ª) Las restantes bases de cotización se actualizarán de acuerdo con la evolución que haya experimentado el índice de precios al consumo desde los meses a que aquéllas correspondan hasta el mes inmediato anterior a aquél en que se inicie el período de bases no actualizables a que se refiere la regla anterior.

duko duen norbaiti ordaindu diezaion baliaezintasuna duen pertsonak. Osagarri horren zenbatekoa bi hauen batura izango da: egitate sorrarazlea gertatutako unean indarrean den gutxieneko kotizazio-oinarriaren ehuneko 45, eta ezintasun iraunkorra ekarri duen gertagarriari dagokion langilearen azken kotizazio-oinarriaren ehuneko 30. Osagarri horren zenbatekoa ezein kasutan ez da izango langileak osagarria gabe jasotako pentsioaren ehuneko 45 baino gutxiago.

5. Hirurogeita bost urte edo gehiago dituen langile batek gertagarri arrunten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pentsiorako irispidea izaten bada, ez dituelako betetzen erretiro-pentsiorako eskubidea aitortzeko betekizunak, ezintasun iraunkorragatiko pentsioaren zenbatekoa hau izango da: dagokion pentsio-oinarria, une horretan erretiro-pentsiorako irispidea izateko ezarrita dagoen gutxieneko kotizazio-aldiari dagokion ehunekoa aplikatuta. Ezintasun iraunkorra gaixotasun arrunt baten ondorio bada, pentsio-oinarria 140. artikuluko 1. zenbakiko a) letran ezarritakoa aplikatzearen emaitza izango da.

6. Lege honen erregelamendu orokorretan ezarritako zenbatekoan eta baldintzetan ordainduko dira artikuluko honetako prestazioak.

#### **140. artikulua. Gertagarri arrunten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pentsioen oinarria**

1. Gaixotasun arruntaren ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pentsioen oinarria arau hauen arabera erabakiko da:

a) Egitate sorrarazlea gertatu aurreko 96 hilabeteetan interesdunak kotizazio-oinarrien batura 112z zatitzearen emaitza kalkulatu da.

Oinarri horien konputua honako erregela hauen arabera egingo da, amaieran ageri den formula matematikoan adierazitako gisan.

1) Egitate sorrarazlea gertatu denaren aurreko hogeita lau hilabetei dagozkien oinarriak balio nominalean hartuko dira.

2) Gainerako kotizazio-oinarriak eguneratu egingo dira, dagokien hilabete-tik hasi eta aurreko erregelaren arabera eguneratu ez diren oinarrien aldia has-ten denaren aurreko hila bitarte kontsumo-prezioen indizeak izan duen bila-kaeraren arabera.

$$B_r = \frac{\sum_{i=1}^{24} B_i + \sum_{i=25}^{96} B_i \frac{I_{25}}{I_i}}{112}$$

Siendo: Br = Base reguladora. Bi = Base de cotización del mes i-ésimo anterior al del hecho causante. Ii = Índice General de Precios al Consumo del mes i-ésimo anterior al del hecho causante. Siendo i = 1, 2, ...96.

b) Al resultado obtenido en razón a lo establecido en la norma anterior se le aplicará el porcentaje que corresponda en función de los años de cotización, según la escala prevista en el apartado 1 del artículo 163, considerándose a tal efecto como cotizados los años que le resten al interesado, en la fecha del hecho causante, para cumplir la edad de 65 años. En el caso de no alcanzarse 15 años de cotización, el porcentaje aplicable será del 50 por ciento.

El importe resultante constituirá la base reguladora a la que, para obtener la cuantía de la pensión que corresponda, habrá de aplicarse el porcentaje previsto para el grado de incapacidad reconocido.

2. En los supuestos en que se exija un período mínimo de cotización inferior a ocho años, la base reguladora se obtendrá de forma análoga a la establecida en el número anterior, pero computando bases mensuales de cotización en número igual al de meses de que conste el período mínimo exigible, sin tener en cuenta las fracciones de mes, y excluyendo, en todo caso, de la actualización las bases correspondientes a los veinticuatro meses inmediatamente anteriores a aquél en que se produzca el hecho causante.

3. Respecto a las pensiones de incapacidad absoluta o gran invalidez derivadas de accidente no laboral a que se refiere el apartado 3 del artículo 138, para el cómputo de su base reguladora, se aplicarán las reglas previstas en la norma a) del apartado 1 del presente artículo.

4. Si en el período que haya de tomarse para el cálculo de la base reguladora aparecieran meses durante los cuales no hubiese existido obligación de cotizar, dichas lagunas se integrarán con la base mínima de entre todas las existentes en cada momento para trabajadores mayores de dieciocho años.

En los supuestos en que en alguno de los meses a tener en cuenta para la determinación de la base reguladora, la obligación de cotizar exista sólo durante una parte del mismo, procederá la integración señalada en el párrafo anterior, por la parte del mes en que no exista obligación de cotizar, siempre que la base de cotización corres-

$$O = \frac{\sum_{i=1}^{24} O_i + \sum_{i=25}^{96} O_i \frac{I_{25}}{I_i}}{112}$$

Izanik: O = Oinarria. Oi = Egitate sorrarazlearen aurreko i-garren hileko kotizazio-oinarria. Ii = Egitate sorrarazlearen aurreko i-garren hileko kontsumo-prezioen indize orokorra. Izanik i = 1, 2... 96.

b) Aurreko erregelaren arabera lortutako emaitzari kotizazio-urteen arabera dagokion ehunekoa aplikatuko zaio, 163. artikuluko 1. zenbakian adierazitako eskalaren arabera; ondorio horietarako, kotizatutzat hartuko dira egitate sorrarazlearen datan interesdunari 65 urte betetzeko falta zaizkion urteak. Interesduna ez bada 15 urtez kotizatzerira iritsi, ehuneko 50 aplikatuko zaio.

Ateratzen den zenbatekoa hartuko da pentsio-oinarriztat, eta aitorturiko ezintasun-graduarentzat ezarrita dagoen ehunekoa aplikatuko zaio dagokion pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko.

2. Zortzi urtez beherako gutxieneko kotizazio-aldia eskatzen den kasuetan, aurreko zenbakian ezarritako modu berean kalkulatu da pentsio-oinarria, baina galda daitekeen gutxieneko aldiko hilabeteak hartuko dira hileko kotizazio-oinarrien kopurutzat, hilabete-zatiak kontuan izan gabe eta betiere egitate sorrarazlea gertatu aurreko hogeita lau hilabetei dagozkien oinarriak eguneratu gabe.

3. Lanez kanpoko istripuen ondoriozko ezintasun absolutuagatik edo baliarezintasun larriagatik pentsioei dagokienez —138. artikuluko 3. zenbakian azalduak—, artikuluko honen 1. zenbakiko a) letran adierazitako erregelak aplikatu dira haien oinarria kalkulatzeko.

4. Pentsio-oinarria kalkulatzeko hartu behar den epean hilabeteren bat baldin bada kotizatze betebeharrik gabea, hemezortzi urtetik gorako langileentzat une bakoitzean dauden oinarrietatik txikienarekin osatuko dira halako hutsarteak.

Pentsio-oinarria zehazteko kontuan hartu beharreko hilabeteren batean parte baterako bakarrik baldin badago kotizatze betebeharra, aurreko paragrafoan adierazitako osatze-irizpideari jarraituko zaio kotizatze betebeharrik ez den hilabete-parteari dagokionez, baldin eta lehenbiziko epeari dagokion

pondiente al primer período no alcance la cuantía de la base mínima mensual señalada. En tal supuesto, la integración alcanzará hasta esta última cuantía.

#### **Artículo 141. Compatibilidades en el percibo de prestaciones económicas por invalidez permanente**

1. En caso de incapacidad permanente total para la profesión habitual, la pensión vitalicia correspondiente será compatible con el salario que pueda percibir el trabajador en la misma empresa o en otra distinta, con el alcance y en las condiciones que se determinen reglamentariamente.

De igual forma podrá determinarse la incompatibilidad entre la percepción del incremento previsto en el párrafo segundo del apartado 2 del artículo 139 y la realización de trabajos, por cuenta propia o ajena, incluidos en el campo de aplicación del sistema de la Seguridad Social.

2. Las pensiones vitalicias en caso de incapacidad absoluta o de gran invalidez no impedirán el ejercicio de aquellas actividades, sean o no lucrativas, compatibles con el estado del inválido y que no representen un cambio en su capacidad de trabajo a efectos de revisión.

#### **Artículo 142. Norma especial sobre invalidez derivada de enfermedad profesional**

Los Reglamentos generales de desarrollo de la presente Ley adaptarán, en cuanto a enfermedades profesionales, las normas de esta Sección a las peculiaridades y características especiales de dicha contingencia.

#### **Artículo 143. Calificación y revisión**

1. Corresponde al Instituto Nacional de la Seguridad Social, a través de los órganos que reglamentariamente se establezcan y en todas las fases del procedimiento, declarar la situación de invalidez permanente, a los efectos de reconocimiento de las prestaciones económicas a que se refiere la presente Sección.

2. Toda resolución, inicial o de revisión, por la que se reconozca el derecho a las prestaciones de incapacidad permanente, en cualquiera de sus grados, o se confirme el grado reconocido previamente, hará constar necesariamente el plazo a partir del cual se podrá instar la revisión por agravación o mejoría del estado invalidante profesional, en tanto que el incapacitado no haya cumplido

kotizazio-oinarria ez bada iristen hileko gutxienekora. Kasu horretan, gutxieneko horretaraino osatuko da kotizazio-oinarria.

#### **141. artikulua. Baliaezintasun iraunkorragatiko diru-prestazioak jasotzearekin bateragarri direnak**

1. Ohiko lanbiderako erabateko ezintasun iraunkorraren kasuan, hari dagokion bizi arteko pentsioa bateragarria izango da enpresa berean edo beste batean langileak lor dezakeen soldatarekin; erregelamenduz ezarriko dira horren irismena eta baldintzak.

Orobat erabaki ahal izango da 139. artikuluko 2. zenbakiko bigarren paragrafoan aurreikusitako gehikuntza jasotzea bateraezina dela norberaren edo besteren kontura egindako lanekin, lan horiek Gizarte Segurantzako sistemaren aplikazio-esparrukoak baldin badira.

2. Bizi arteko pentsioak, ezintasun absolutuaren edo baliaezintasun handiaren kasuan, ez du eragotziko jardueraren batean aritzea, izan irabazpidezkoa edo ez, baliaezinaren egoerarekin bateragarria bada jarduera eta haren lan-gaitasunean aldaketarik ez badakar berrikustearen ondorioetarako.

#### **142. artikulua. Laneko gaixotasunen ondoriozko baliaezintasunari buruzko arau berezia**

Lege hau garatzeko erregelamendu orokorrek, laneko gaixotasunei dagokienez, gertagarri horren berezitasun eta ezaugarrietara egokituko dituzte atal honetako arauak.

#### **143. artikulua. Kalifikazioa eta berrikustea**

1. Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari dagokio, erregelamenduz ezartzen diren organoen bitartez eta prozeduraren fase guztietan, baliaezintasun iraunkorraren egoera deklaratzeko, atal honetan aipatzen diren diru-prestazioak aitortzearen ondorioetarako.

2. Edozein ebazpenen bitartez, izan hasierakoa edo izan berrikuspenezkoa, ezintasun iraunkorragatiko prestaziorako eskubidea aitortzen denean, edozein gradutan, edo aurretik deklaraturako gradua berresten denean, ebazpen horretan jaso behar da nahitaez zer datatik aurrera eskatu ahal izango den lanerako ezintzen duen egoera larritzeagatiko edo hobetzeagatiko berrikuspena,

la edad mínima establecida en el artículo 161 de esta Ley, para acceder al derecho a la pensión de jubilación. Este plazo será vinculante para todos los sujetos que puedan promover la revisión.

No obstante lo anterior, si el pensionista por invalidez permanente estuviera ejerciendo cualquier trabajo, por cuenta ajena o propia, el Instituto Nacional de la Seguridad Social podrá, de oficio o a instancia del propio interesado, promover la revisión, con independencia de que haya o no transcurrido el plazo señalado en la resolución.

Las revisiones fundadas en error de diagnóstico podrán llevarse a cabo en cualquier momento, en tanto el interesado no haya cumplido la edad a que se refiere el primer párrafo de este número.

3. Las disposiciones que desarrollen la presente Ley regularán el procedimiento de revisión y la modificación y transformación de las prestaciones económicas que se hubiesen reconocido al trabajador, así como los derechos y obligaciones que a consecuencia de dichos cambios correspondan a las entidades gestoras o colaboradoras y servicios comunes que tengan a su cargo tales prestaciones.

Cuando, como consecuencia de revisiones por mejoría del estado invalidante profesional proceda reintegrar, parcialmente o en su totalidad, la parte no consumida de los capitales coste constituidos por las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales de la Seguridad Social o por las empresas que hubieran sido declaradas responsables de su ingreso, este último no tendrá la consideración de ingreso indebido, a los efectos previstos en los apartados 1 y 3 del artículo 23 de esta Ley, sin perjuicio de la aplicación de lo dispuesto en el artículo 24 de la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, General Presupuestaria.

4. Las pensiones de incapacidad permanente, cuando sus beneficiarios cumplan la edad de sesenta y cinco años, pasarán a denominarse pensiones de jubilación. La nueva denominación no implicará modificación alguna, respecto de las condiciones de la prestación que se viniese percibiendo.

## SECCIÓN TERCERA

### *Invalidez en su modalidad no contributiva*

#### **Artículo 144. Beneficiarios**

1. Tendrán derecho a la pensión de invalidez, en su modalidad no contributiva, las personas que cumplan los siguientes requisitos:



baldin eta ezinduak ez badu betea lege honen 161. artikuluan erretiro-pentsiorako irispidea izateko ezarritako gutxieneko adina. Epe hori loteslea izango da berrikuspena eska dezaketen subjektu guztientzat.

Aurrekoa gorabehera, baliaezintasun iraunkorragatiko pentsioduna edozein lanetan ari baldin bada, bere kontura edo besteren kontura, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak pentsioa berrikusteko eskatu ahal izango du, ofizioz edo interesdunaren eskariz, ebazpenean adierazitako epea igaroa izan edo ez.

Diagnostiko okerretan oinarritutako berrikuspenak edozein unetan egin ahal izango dira, betiere zenbaki honetako lehen paragrafoan adierazitako adina bete gabea baldin bada interesdunak.

3. Lege hau garatzen duten xedapenek arautuko dute langileari aitortuak zaizkion diru-prestazioak berrikusteko prozedura eta prestazioen aldaketa eta eraldaketa, eta orobat aldaketa horien ondorioz zer eskubide eta betebeharrak dagozkien prestazioak beren kargura dituzten entitate kudeatzaile edo laguntzaileei eta zerbitzu erkideei.

Baldin eta, lanerako baliaezintasuna dakarren egoera hobetu dela-eta berrikustearen ondorioz, osorik edo partez itzultzekoa bada Gizarte Segurantzaren lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuek edo ordaintzeko erantzule deklaraturako enpresek eraturako kostu-kapitaletatik kontsumitu ez dena, diru-sarrera hori ez da okerreko sarreratzat hartuko lege honen 23. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan aurreikusitakoaren ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe 2003ko azaroaren 26ko 47/2003 Aurrekontu Lege Orokorraren 24. artikuluko xedatzen duena aplikatzea.

4. Ezintasun iraunkorragatiko pentsioei, haien onuradunek hirurogeita bost urte betetzen dituztenean, erretiro-pentsio esango zaie. Izen berriak ez ditu ezertan aldatuko lehendik jasotzen ari den prestazioaren baldintzak.

## HIRUGARREN ATALA

### *Baliaezintasuna, ekarpenezko ez den aldaeran*

#### **144. artikulua. Onuradunak**

1. Baliaezintasun-pentsiorako eskubidea izango dute, ekarpenezko ez den aldaeran, betekizun hauek betetzen dituzten pertsonak:

a) Ser mayor de dieciocho y menor de sesenta y cinco años de edad.

b) Residir legalmente en territorio español y haberlo hecho durante cinco años, de los cuales dos deberán ser inmediatamente anteriores a la fecha de solicitud de la pensión.

c) Estar afectadas por una discapacidad o por una enfermedad crónica en un grado igual o superior al sesenta y cinco por ciento

d) Carecer de rentas o ingresos suficientes. Se considerará que existen rentas o ingresos insuficientes cuando la suma, en cómputo anual, de los mismos sea inferior al importe, también en cómputo anual, de la prestación a que se refiere el apartado 1 del artículo siguiente.

Aunque el solicitante carezca de rentas o ingresos propios, en los términos señalados en el párrafo anterior, si convive con otras personas en una misma unidad económica, únicamente se entenderá cumplido el requisito de carencia de rentas o ingresos suficientes cuando la suma de los de todos los integrantes de aquélla sea inferior al límite de acumulación de recursos obtenido conforme a lo establecido en los apartados siguientes.

Los beneficiarios de la pensión de invalidez, en su modalidad no contributiva, que sean contratados por cuenta ajena, que se establezcan por cuenta propia o que se acojan a los programas de renta activa de inserción para trabajadores desempleados de larga duración mayores de 45 años, recuperarán automáticamente, en su caso, el derecho a dicha pensión cuando, respectivamente, se les extinga su contrato, dejen de desarrollar su actividad laboral o cesen en el programa de renta activa de inserción, a cuyo efecto, no obstante lo previsto en el apartado 5 de este artículo, no se tendrán en cuenta, en el cómputo anual de sus rentas, las que hubieran percibido en virtud de su actividad laboral por cuenta ajena, propia o por su integración en el programa de renta activa de inserción en el ejercicio económico en que se produzca la extinción del contrato, el cese en la actividad laboral o en el citado programa.

2. Los límites de acumulación de recursos, en el supuesto de unidad económica, serán equivalentes a la cuantía, en cómputo anual, de la pensión, más el resultado de multiplicar el setenta por ciento de dicha cifra por el número de convivientes, menos uno.

3. Cuando la convivencia, dentro de una misma unidad económica, se produzca entre el solicitante y sus descendientes o ascendientes en primer grado, los límites de acumulación de recursos serán equivalentes a dos veces y media de la cuantía que resulte de aplicar lo dispuesto en el apartado 2.

- a) Hemezortzi urtetik gorakoa eta hirurogeita bost urtetik beherakoa izatea.
- b) Legez Espainiako lurraldean izatea egoitza eta bost urtez bizi izatea lurralde horretan; bost urte horietatik bik pentsio-eskaeraren aurre-aurrekoak izan beharko dute.
- c) Desgaitasun bat edo gaixotasun kroniko bat izatea, ehuneko hirurogeita bosteko edo gehiagoko graduan.
- d) Errenta edo diru-sarrera nahikoa ez izatea. Errenta edo diru-sarrera nahikoa ez dagoela joko da baldin eta haien batura, urteko konputuan, txikiagoa baldin bada hurrengo artikuluko 1. zenbakian adierazitako prestazioaren urteko konputua baino.

Eskatzaileak bere errenta edo diru-sarrerarik ez badu ere, aurreko zenbakian adierazitakoaren arabera, ekonomia-unitate berean beste pertsona batzuekin batera bizi bada, kasu honetan bakarrik joko da betetzat errenta edo diru-sarrera nahikorik ezaren betekizuna: unitatea osatzen duten pertsona guztiak hartuta, haien diru-sarreraren batura txikiagoa baldin bada ondorengo zenbaketan adierazitakoaren arabera lortutako baliabide-metatzeen muga baino.

Ekarpenezko ez den aldaerako baliabezintasun-pentsioaren onuradun direnek, besteren kontura kontratatzen badituzte, beren kontura jartzen badira edo 45 urtetik gorako denbora luzeko langabeentzako gizarteratze-errenta aktiboa jasotzeko programetan sartzen badira, automatikoki berreskuratuko dute, hala badagokio, pentsio horretarako eskubidea, kontratua amaitzen zaienean, lan-jarduera uzten dutenean edo gizarteratzeko errenta aktiboko programan egoteari uzten diotenean. Haien urteko errenta konputatzean, ez dira kontuan hartuko, artikuluko honen 5. zenbakian esandakoa gorabehera, kontratua amaitzen, lan-jarduera uzten edo programa uzten den urteko ekitaldi ekonomikoan besteren konturako lan-jardueraren ondorioz, beren konturako lanaren ondorioz edo gizarteratzeko errenta aktiboaren programan sartuta egotearen ondorioz jasotako errentak.

2. Baliabide-metatzearen muga, ekonomia-unitateen kasuan, zenbateko honen baliokidea izango da: pentsioaren urteko konputua, gehi zenbateko horren ehuneko hirurogeita hamar bider bizikide kopurua, ken bat.

3. Bizikidetza, ekonomia-unitate beraren barruan, eskatzailearen eta haren lehen graduko ondorengoan edo aurrekoen artekoa denean, baliabide-metatzearen muga 2. zenbakian xedaturikoa aplikatuta ateratzen den zenbatekoa bider bi eta erdiren baliokidea izango da.

4. Existirá unidad económica en todos los casos de convivencia de un beneficiario con otras personas, sean o no beneficiarias, unidas con aquél por matrimonio o por lazos de parentesco de consanguinidad hasta el segundo grado.

5. A efectos de lo establecido en los apartados anteriores, se considerarán como ingresos o rentas computables, cualesquiera bienes y derechos, derivados tanto del trabajo como del capital, así como los de naturaleza prestacional.

Cuando el solicitante o los miembros de la unidad de convivencia en que esté inserto dispongan de bienes muebles o inmuebles, se tendrán en cuenta sus rendimientos efectivos. Si no existen rendimientos efectivos, se valorarán según las normas establecidas para el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, con la excepción, en todo caso, de la vivienda habitualmente ocupada por el beneficiario. Tampoco se computarán las asignaciones periódicas por hijos a cargo.

6. Las rentas o ingresos propios, así como los ajenos computables, por razón de convivencia en una misma unidad económica, la residencia en territorio español y el grado de discapacidad o de enfermedad crónica condicionan tanto el derecho a pensión como la conservación de la misma y, en su caso, la cuantía de aquélla.

#### **Artículo 145. Cuantía de la pensión**

1. La cuantía de la pensión de invalidez en su modalidad no contributiva se fijará, en su importe anual, en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado.

Cuando en una misma unidad económica concorra más de un beneficiario con derecho a pensión de esta misma naturaleza, la cuantía de cada una de las pensiones vendrá determinada en función de las siguientes reglas:

1.º Al importe referido en el primer párrafo de este apartado se le sumará el setenta por ciento de esa misma cuantía, tantas veces como número de beneficiarios, menos uno, existan en la unidad económica.

2.º La cuantía de la pensión para cada uno de los beneficiarios será igual al cociente de dividir el resultado de la suma prevista en la regla primera por el número de beneficiarios con derecho a pensión.

2. Las cuantías resultantes de lo establecido en el apartado anterior de este artículo, calculadas en cómputo anual, son compatibles con las rentas o ingre-

4. Ekonomia-unitatea dagoela joko da onuradun bat beste pertsona batzuekin bizi denean, pertsona horiek —onuradun izan edo ez— onuradunarekin ezkontzaz edo bigarren gradurainoko odolkidetasunezko ahaidetasunez lotuak direlarik.

5. Aurreko zenbakietan ezarritakoaren ondorioetarako, diru-sarrera edo errenta konputagarritzat hartuko da edozein ondasun edo eskubide, lanaren nahiz kapitalaren ondoriozkoa, eta orobat prestazio-izaerako guztiak.

Eskatzaileak edo hura txertatuta dagoen bizikidetz-unitateko kideek ondasun higigarri edo higiezinak dituztenean, haien benetako etekinak hartuko dira kontuan. Benetako etekinik ez baldin bada, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ezarritako arauen arabera balioetsiko dira ondasunak, alde batera utzirik, kasu guztietan, onuradunak bizileku izan ohi duen etxea. Ez dira konputatuko norberaren kargu dauden seme-alabengatiko aldizkako esleipenak ere.

6. Norberaren errenta eta diru-sarrerek —eta orobat ekonomia-unitate berean bizikide izateagatik konputagarri diren besterenek—, egoitza Espainiako lurraldean izateak eta desgaitasun-gradu bat edo gaixotasun kroniko bat izateak baldintzatzen dute hala pentsiorako eskubidea nola hari eusteko eskubidea eta, hala badagokio, pentsioaren zenbatekoa.

#### 145. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa

1. Baliaezintasun-pentsioari dagokion urteko zenbatekoa, ekarpenezko ez den aldaeran, dagokion Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean zehaztuko da.

Ekonomia-unitate berean onuradun batek baino gehiagok baldin badute izaera horretako pentsioa jasotzeko eskubidea, honako erregelak hauen arabera zehaztuko da pentsioetariko bakoitzaren zenbatekoa:

1) Zenbaki honetako lehenengo paragrafoan aipaturiko zenbatekoari gehitu egingo zaio zenbateko horren beraren ehuneko hirurogeita hamar, honenbeste aldiz: ekonomia-unitatean zenbat onuradun diren, bat gutxiago.

2) Onuradunetarik bakoitzarentzako pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko, lehenengo erregelari aurreikusitako batuketaren emaitza zatitu egingo da pentsiorako eskubidea duten onuradunen kopuruaz.

2. Artikulu honetako aurreko zenbakian ezarritakoaren ondorioz ateratzen diren zenbatekoak, urteko konputuan kalkulatuta, bateragarriak dira onuradu-

tos anuales de que, en su caso, disponga cada beneficiario, siempre que los mismos no excedan del 25 por 100 del importe, en cómputo anual, de la pensión no contributiva. En caso contrario, se deducirá del importe de la pensión no contributiva la cuantía de las rentas o ingresos que excedan de dicho porcentaje, salvo lo dispuesto en el artículo 147.

3. En los casos de convivencia del beneficiario o beneficiarios con personas no beneficiarias, si la suma de los ingresos o rentas anuales de la unidad económica más la pensión o pensiones no contributivas, calculadas conforme a lo dispuesto en los dos apartados anteriores, superara el límite de acumulación de recursos establecidos en los apartados 2 y 3 del artículo anterior, la pensión o pensiones se reducirán, para no sobrepasar el mencionado límite, disminuyendo, en igual cuantía, cada una de las pensiones.

4. No obstante lo establecido en los apartados 2 y 3 anteriores, la cuantía de la pensión reconocida será, como mínimo, del veinticinco por ciento del importe de la pensión a que se refiere el apartado 1 de este artículo.

5. A efectos de lo dispuesto en los apartados anteriores, son rentas o ingresos computables los que se determinan como tales en el apartado 5 del artículo anterior.

6. Las personas que, cumpliendo los requisitos señalados en el apartado 1.a), b) y d) del artículo anterior, estén afectadas por una discapacidad o enfermedad crónica en un grado igual o superior al setenta y cinco por ciento y que, como consecuencia de pérdidas anatómicas o funcionales, necesiten el concurso de otra persona para realizar los actos más esenciales de la vida, tales como vestirse, desplazarse, comer o análogos, tendrán derecho a un complemento equivalente al cincuenta por ciento del importe de la pensión a que se refiere el primer párrafo del apartado 1 del presente artículo.

#### **Artículo 146. Efectos económicos de las pensiones**

Los efectos económicos del reconocimiento del derecho a las pensiones de invalidez en su modalidad no contributiva se producirán a partir del día primero del mes siguiente a aquél en que se presente la solicitud.

#### **Artículo 147. Compatibilidad de las pensiones**

Las pensiones de invalidez en su modalidad no contributiva no impedirán el ejercicio de aquellas actividades, sean o no lucrativas, compatibles con el estado del inválido, y que no representen un cambio en su capacidad de trabajo.

nak izan ditzakeen urteko beste errenta edo diru-sarrerekin, baldin eta azken horiek ez badute gainditzen ekarpenezko ez den pentsioaren urteko zenbatekoaren % 25. Gainditzen badute, ekarpenezko ez den pentsioaren zenbatekoari kendu egingo zaio ehuneko horretatik gorako errenta edo diru-sarreraren zenbatekoa, 147. artikuluan xedaturikoa salbu.

3. Onuraduna edo onuradunak hala ez diren beste pertsona batzuekin batera bizi direnean, ekonomia-unitateko urteko diru-sarrera edo errenten baturari aurreko bi zenbakietan xedaturikoaren arabera kalkulaturiko pentsio ez ekarpenezkoak gehituta gainditu egiten bada aurreko artikuluko 2. eta 3. zenbakietan ezarritako baliabide-metatzearen muga, pentsioa edo pentsioak murriztu egingo dira muga hori ez gainditzeko, haietako bakoitzari zenbateko bera gutxituz.

4. Aurreko 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoa gorabehera, aitorturiko pentsioaren zenbatekoa, gutxienez, artikuluko honetako 1. zenbakian aipatzen den pentsioaren zenbatekoaren % 25a izango da.

5. Aurreko zenbakietan xedaturikoaren ondorioetarako, errenta edo sarrera konputagarriak dira aurreko artikuluko 5. zenbakian halakotzat jasota daudenak.

6. Aurreko artikuluko 1.a), b) eta c) puntuetako betekizunak betetzen dituzten pertsonak, desgaitasun edo gaixotasun kronikoren batek erasanda baldin badaude ehuneko hirurogeita hamabost edo gehiagoko graduan eta galera anatomiko edo funtzionalen ondorioz beste norbaiten beharra badute bizi-zako egintzarik arruntenak egiteko —jantzi, mugitu, jan eta halakoak—, eskubidea izango dute osagarri bat jasotzeko, artikuluko honetako 1. zenbakiko lehenbiziko paragrafoan aipatzen den pentsioaren ehuneko berrogeita hamarren baliokidea.

#### **146. artikulua. Pentsioen efektu ekonomikoak**

Ekarpenezko ez den aldaerako baliaezintasun-pentsiorako eskubidea aitortzearen efektu ekonomikoak eskaera aurkezten denaren ondorengo hilaren lehen egunetik hasiko dira.

#### **147. artikulua. Pentsioen bateragarritasuna**

Ekarpenezko ez den aldaerako baliaezintasun-pentsioek ez dute eragotziko jardueraren bat egitea, irabazpidezkoa edo ez, baliaezinaren egoerarekin bateragarria bada eta haren lan-gaitasuna aldatzen ez badu.

En el caso de personas que con anterioridad al inicio de una actividad lucrativa vinieran percibiendo pensión de invalidez en su modalidad no contributiva, durante los cuatro años siguientes al inicio de la actividad, la suma de la cuantía de la pensión de invalidez y de los ingresos obtenidos por la actividad desarrollada no podrán ser superiores, en cómputo anual, al importe, también en cómputo anual, del indicador público de renta de efectos múltiples (IPREM) vigente en cada momento. En caso de exceder de dicha cuantía, se minorará el importe de la pensión en el 50 por 100 del exceso sin que, en ningún caso, la suma de la pensión y de los ingresos pueda superar 1,5 veces el indicador público de renta de efectos múltiples (IPREM). Esta reducción no afectará al complemento previsto en el apartado 6 del artículo 145 de esta Ley.

### **Artículo 148. Calificación**

1. El grado de discapacidad o de la enfermedad crónica padecida, a efectos del reconocimiento de la pensión en su modalidad no contributiva, se determinará mediante la aplicación de un baremo, en el que serán objeto de valoración tanto los factores físicos, psíquicos o sensoriales del presunto discapacitado, como los factores sociales complementarios, y que será aprobado por el Gobierno.

2. Asimismo, la situación de dependencia y la necesidad del concurso de una tercera persona a que se refiere el apartado 6 del artículo 145, se determinará mediante la aplicación de un baremo que será aprobado por el Gobierno.

3. Las pensiones de invalidez no contributivas, cuando sus beneficiarios cumplan la edad de sesenta y cinco años, pasarán a denominarse pensiones de jubilación. La nueva denominación no implicará modificación alguna respecto de las condiciones de la prestación que viniesen percibiendo.

### **Artículo 149. Obligaciones de los beneficiarios**

Los perceptores de las pensiones de invalidez en su modalidad no contributiva estarán obligados a comunicar a la entidad que les abone la prestación cualquier variación de su situación de convivencia, estado civil, residencia y cuantas puedan tener incidencia en la conservación o la cuantía de aquéllas. En todo caso, el beneficiario deberá presentar, en el primer trimestre de cada año, una declaración de los ingresos de la respectiva unidad económica de la que forma parte, referida al año inmediato precedente.



Irabazpidezko jarduera batean hasi baino lehen ekarpenezko ez den aldaerako baliaezintasun-pentsioa jasotzen ari ziren pertsonen kasuan, jarduera hasi ondorengo lehen lau urteetan, baliaezintasun-pentsioaren eta jardueragatik lorturiko diru-sarrereren batura ezin izango da handiagoa, urteko konputuan, une bakoitzean indarrean den ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino, hori ere urteko konputuan harturik. Zenbateko hori gaindituz gero, soberakinaren ehuneko berrogeita hamar gutxituko da pentsioa; betiere, pentsioaren eta diru-sarrereren baturak ezein kasutan ezin izango du gainditu ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) 1,5ez biderkatuta ateratzen den kopurua. Murrizketa horrek ez dio eragingo lege honen 145. artikuluko 6. zenbakian aurreikusitako osagarriari.

#### **148. artikulua. Kalifikazioa**

1. Desgaitasunaren edo gaixotasun kronikoaren gradua, ekarpenezko ez den aldaerako pentsioa aitortzearen ondorioetarako, baremo bat aplikatuz kalkulatu da; baremo horrek ustezko desgaituaren faktore fisiko, psikiko edo zentzumenezkoak eta faktore sozial osagarriak balioetsiko ditu, eta Gobernuak onetsiko du.

2. Era berean, mendekotasun-egoera eta hirugarren pertsona baten beharra, 145. artikuluko 6. zenbakian azaldua, Gobernuak onetsiriko baremo bat aplikatuz zehaztuko da.

3. Ekarpenezko ez diren baliaezintasun-pentsioei, haien onuradunek hirurogeita bost urte betetzen dituztenean, erretiro-pentsio esango zaie. Izen berriak ez ditu ezertan aldatuko lehendik jasotzen ari den prestazioaren baldintzak.

#### **149. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

Ekarpenezko ez den aldaerako baliaezintasun-pentsioa jasotzen dutenak beharturik daude prestazioa ordaintzen dien entitateari jakinaraztera honako hauei dagokien edozein aldaketa: bizikidetzeta, egoera zibila, egoitza, eta pentsioari eusteari dagokionez edo haren zenbatekoari dagokionez eragina izan dezakeen edozein. Betiere, onuradunak aurkeztu beharra dauka, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, partaide den ekonomia-unitatearen diru-sarrereren aitortpena, aurreko urteari dagokiona.

## SECCIÓN CUARTA

### *Lesiones permanentes no invalidantes*

#### **Artículo 150. Indemnizaciones por baremo**

Las lesiones, mutilaciones y deformidades de carácter definitivo, causadas por accidentes de trabajo o enfermedades profesionales que, sin llegar a constituir una incapacidad permanente conforme a lo establecido en la sección 2.<sup>a</sup> del presente capítulo, supongan una disminución o alteración de la integridad física del trabajador y aparezcan recogidas en el baremo anejo a las disposiciones de desarrollo de esta Ley, serán indemnizadas, por una sola vez, con las cantidades alzadas que en el mismo se determinen, por la entidad que estuviera obligada al pago de las prestaciones de incapacidad permanente, todo ello sin perjuicio del derecho del trabajador a continuar al servicio de la empresa.

#### **Artículo 151. Beneficiarios**

Serán beneficiarios de las indemnizaciones a que se refiere el artículo anterior los trabajadores integrados en este Régimen General que reúnan la condición general exigida en el apartado 1 del artículo 124 y hayan sido dados de alta médica.

#### **Artículo 152. Incompatibilidad con las prestaciones por incapacidad permanente**

Las indemnizaciones a tanto alzado que procedan por las lesiones, mutilaciones y deformidades que se regulan en la presente sección serán incompatibles con las prestaciones económicas establecidas para la incapacidad permanente, salvo en el caso de que dichas lesiones, mutilaciones y deformidades sean totalmente independientes de las que hayan sido tomadas en consideración para declarar tal incapacidad y el grado de incapacidad de la misma.

## CAPÍTULO VI

### **Recuperación**

**Artículos 153 a 159. [Derogados]**

**150. artikulua. Kalte-ordainak baremoaren arabera**

Lan-istripuek edo laneko gaixotasunek eragindako lesio, mutilazio eta behin betiko deformazioen kasuan, kapitulu honen 2. atalean xedaturikoaren arabera ezintasun iraunkorra izatera iritsi ez arren langilearen osotasun fisikoa gutxitzen edo aldatzen badute eta lege hau garatzeko xedapenei erantsitako baremoan jasota badaude, ezintasun iraunkorraren prestazioa ordaintzera behartua legokeen entitateak kalte-ordaina emango die, aldi bakar batean, baremo horretan zehazten den oroharreko zenbatekoko, eta horrek guztiak ez du eragotziko langileak enpresaren zerbitzuan jarraitzeko eskubi-dea izatea.

**151. artikulua. Onuradunak**

Aurreko artikuluan azaldutako kalte-ordainen onuradun izango dira Araubide Orokor honetan sarturiko langileak, 124. artikuluko 1. zenbakian galdaturiko baldintza orokorra betetzen badute eta alta medikoa emana badute.

**152. artikulua. Ezintasun iraunkorragatiko prestazioekin bateraezin direnak**

Atal honetan arautzen diren lesio, mutilazio eta deformazioengatiko oroharreko kalte-ordainak bateraezinak izango dira ezintasun iraunkorrerako ezarritako diru-prestazioekin, non eta lesio, mutilazio eta deformazio horiek ez diren ezintasuna eta haren gradua deklaratzeko kontuan hartu direnez guztiz bestelakoak.

VI. KAPITULUA

**Berreskuratzea**

**153.etik 159.era bitarteko artikulua [Derogatuak]**

## CAPÍTULO VII

### Jubilación

#### SECCIÓN PRIMERA

##### *Jubilación en su modalidad contributiva*

#### **Artículo 160. Concepto**

La prestación económica por causa de jubilación, en su modalidad contributiva, será única para cada beneficiario y consistirá en una pensión vitalicia que le será reconocida, en las condiciones, cuantía y forma que reglamentariamente se determinen, cuando, alcanzada la edad establecida, cese o haya cesado en el trabajo por cuenta ajena.

#### **Artículo 161. Beneficiarios**

1. Tendrán derecho a la pensión de jubilación, en su modalidad contributiva, las personas incluidas en este Régimen General que, además de la general exigida en el apartado 1 del artículo 124, reúnan las siguientes condiciones:

a) Haber cumplido sesenta y cinco años de edad.

b) Tener cubierto un período mínimo de cotización de quince años, de los cuales al menos dos deberán estar comprendidos dentro de los quince años inmediatamente anteriores al momento de causar el derecho. A efectos del cómputo de los años cotizados no se tendrá en cuenta la parte proporcional correspondiente por pagas extraordinarias.

En los supuestos en que se acceda a la pensión de jubilación desde una situación de alta o asimilada al alta, sin obligación de cotizar, el período de dos años a que se refiere el párrafo anterior deberá estar comprendido dentro de los quince años anteriores a la fecha en que cesó la obligación de cotizar.

En los casos a que se refiere el párrafo anterior, y respecto de la determinación de la base reguladora de la pensión, se aplicará lo establecido en el apartado 1 del artículo 162.

2. También tendrán derecho a la pensión de jubilación, quienes se encuentren en situación de invalidez provisional y reúnan las condiciones que se establecen en el apartado 1 de este artículo.

## VII. KAPITULUA

### Erretiroa

#### LEHEN ATALA

#### *Erretiroa, ekarpenezko aldaeran*

#### 160. artikulua. Kontzeptua

Erretiroagatiko diru-prestazioa, ekarpenezko aldaeran, bakarra izango da onuradun bakoitzarentzat, eta bizi arteko pentsio bat izango da, erregelamenduz ezarritako baldintza, zenbateko eta forman aitortuko zaiona ezarritako adinera iritsi eta besteren konturako lan egiteari uzten edo utzi diotenean.

#### 161. artikulua. Onuradunak

1. Erretiro-pentsiorako eskubidea izango dute, ekarpenezko aldaeran, Araubide Orokor honetan sarturik dauden pertsonak, baldin eta, 124. artikuluko 1. zenbakian galdatzen den betekizun orokorrak gainera, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Hirurogeita bost urte beteak izatea.

b) Gutxienez hamabost urteko kotizazio-aldi bat beteak izatea; hamabost urte horietatik bik, gutxienez, eskubidea sortu aurreko hamabost urteen barrukoak izan beharko dute. Kotizaturiko urteak konputatzean, ez da kontuan hartuko aparteko pagengatik dagokion parte proportzionala.

Kotizatzeko betebeharrak ez dakarren alta-egoera edo harekin parekatutako egoera batetik iritsiz gero erretiro-pentsiora, kotizatzeko betebeharra amaitu zen dataren aurreko hamabost urteen barrukoa izan beharko du aurreko paragrafoan aipatzen den bi urteko epeak.

Aurreko paragrafoan aipaturiko kasuetan, pentsio-oinarria zehazteari dagokionez, 162. artikuluko 1. zenbakian xedaturikoari jarraituko zaio.

2. Orobat izango dute erretiro-pentsiorako eskubidea behin-behineko baliarezintasun-egoeran dauden eta artikuluko honen 1. zenbakian ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

3. No obstante lo dispuesto en el párrafo primero del apartado 1 de este artículo, la pensión de jubilación podrá causarse, aunque los interesados no se encuentren en el momento del hecho causante en alta o situación asimilada a la de alta, siempre que reúnan los requisitos de edad y cotización contemplados en el citado apartado 1.

4. Para causar pensión en el Régimen General y en otro u otros del sistema de la Seguridad Social, en el supuesto previsto en el apartado 4 del presente artículo, será necesario que las cotizaciones acreditadas en cada uno de ellos se superpongan, al menos, durante quince años.

### **Artículo 161 bis. Jubilación anticipada**

1. La edad mínima a que se refiere la letra a) del apartado 1 del artículo anterior podrá ser rebajada por Real Decreto, a propuesta del Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales, en aquellos grupos o actividades profesionales cuyos trabajos sean de naturaleza excepcionalmente penosa, tóxica, peligrosa o insalubre y, acusen elevados índices de morbilidad o mortalidad, siempre que los trabajadores afectados acrediten en la respectiva profesión o trabajo el mínimo de actividad que se establezca.

De igual modo, la edad mínima a que se refiere la letra a) del apartado 1 del artículo anterior podrá ser reducida en el caso de personas con discapacidad en un grado de discapacidad igual o superior al 65 por ciento en los términos contenidos en el correspondiente Real Decreto acordado a propuesta del Ministro de Trabajo y Asuntos Sociales o también en un grado de discapacidad igual o superior al 45 por ciento, siempre que, en este último supuesto, se trate de discapacidades reglamentariamente determinadas en los que concurren evidencias que determinan de forma generalizada y apreciable una reducción de la esperanza de vida de esas personas.

La aplicación de los correspondientes coeficientes reductores de la edad en ningún caso dará ocasión a que el interesado pueda acceder a la pensión de jubilación con una edad inferior a la de 52 años.

Los coeficientes reductores de la edad de jubilación no serán tenidos en cuenta, en ningún caso, a efectos de acreditar la exigida para acceder a la jubilación parcial, a los beneficios establecidos en el apartado 2 del artículo 163, a la jubilación regulada en la norma 2.<sup>a</sup> del apartado 1 de la disposición transitoria tercera y a cualquier otra modalidad de jubilación anticipada.

3. Artikulu honen 1. zenbakiko lehen paragrafoan xedaturikoa gorabehera, egitate sorrarazlearen unean alta-egoeran edo harekin parekatutako egoera batean ez dauden interesdunentzat ere sorraraz daiteke erretiro-pentsioa, betiere 1. zenbaki horretan adinari eta kotizazioari buruz ezarritako betekizunak betezen badira.

4. Gizarte Segurantzaren sistemako Araubide Orokorreko eta beste bateko edo batzuetako pentsioa aldi berean sorrarazteko, artikulu honen 4. zenbakian adierazitako kasuan, ezinbestekoa izango da bietan batera hamabost urtez kotizatu izatea, gutxienez.

### **161 bis artikulua. Erretiro aurreratua**

1. Aurreko artikulua 1. zenbakiko a) letran aipatzen den gutxieneko adina jaitsi ahal izango da errege-dekretuz, Lan eta Gizarte Gaietako ministroaren proposamenez, lan bereziki neketsu, toxiko, arriskutsu edo osasungaitzetan aritzen diren eta gaixotze- edo heriotza-indize handiak dituzten talde edo lanbide-jarduerentzat, betiere eskatzen den gutxieneko jarduera-denbora egin badute langile horiek dagokien lanbidean.

Era berean, aurreko artikulua 1. zenbakiko a) letran aipatzen den gutxieneko adina jaitsi ahal izango da, ehuneko 65 edo gehiagoko desgaitasun-gradua duten pertsonen kasuan, Lan eta Gizarte Gaietako ministroak proposaturik errege-dekretuz erabakitako moduan, edo ehuneko 45 edo gehiagoko desgaitasun-gradua duten pertsonen kasuan, baldin eta, azken kasu horretan, desgaitasuna erregelamenduz zehaztua baldin badago eta pertsona horien bizi-itzaropena orokorrean eta modu nabarmenean gutxitzen duelako ebidentziak baldin badaude.

Adina murrizteko dagokion koefizientea aplikatzeak ezein kasutan ez du bide emango interesdunak 52 urte baino gutxiagorekin erretiro-pentsioa jasotzeko.

Erretiro-adina gutxitzeko koefizienteak ez dira kontuan hartuko, ezein kasutan, honako hauetarako galdatzen den adina egiaztatzeari dagokionez: erretiro partziala, 163. artikulua 2. zenbakian azaldutako onurak, hirugarren xedapen iragankorraren 1. zenbakiko 2. arauan araututako erretiroa, eta erretiro aurreratuaren beste edozein aldaera.

2. Podrán acceder a la jubilación anticipada, los trabajadores que reúnan los siguientes requisitos:

a) Tener cumplidos los sesenta y un años de edad, sin que a estos efectos resulten de aplicación los coeficientes reductores a que se refiere el apartado anterior.

b) Encontrarse inscritos en las oficinas de empleo como demandantes de empleo durante un plazo de, al menos, seis meses inmediatamente anteriores a la fecha de solicitud de la jubilación.

c) Acreditar un período mínimo de cotización efectiva de treinta años, sin que, a tales efectos, se tenga en cuenta la parte proporcional por pagas extraordinarias. A estos exclusivos efectos, se computará como cotizado a la Seguridad Social, el período de prestación del servicio militar obligatorio o de la prestación social sustitutoria, con el límite máximo de un año.

d) Que el cese en el trabajo, como consecuencia de la extinción del contrato de trabajo, no se haya producido por causa imputable a la libre voluntad del trabajador. A tales efectos, se entenderá por libre voluntad del trabajador la inequívoca manifestación de voluntad de quien, pudiendo continuar su relación laboral y no existiendo razón objetiva que la impida, decide poner fin a la misma. Se considerará, en todo caso, que el cese en la relación laboral se produjo de forma involuntaria cuando la extinción se haya producido por alguna de las causas previstas en el artículo 208.1.1.

Los requisitos exigidos en los apartados b) y d) no serán exigibles en aquellos supuestos en los que el empresario, en virtud de obligación adquirida mediante acuerdo colectivo o contrato individual de prejubilación, haya abonado al trabajador tras la extinción del contrato de trabajo, y en los dos años inmediatamente anteriores a la solicitud de jubilación anticipada, una cantidad que, en cómputo global, represente un importe mensual no inferior al resultado de sumar la cantidad que le hubiera correspondido en concepto de prestación por desempleo y la cuota que hubiera abonado o, en su caso, la cuota de mayor cuantía que hubiera podido abonar en concepto de convenio especial con la Seguridad Social.

En los casos de acceso a la jubilación anticipada a que se refiere este apartado, la pensión será objeto de reducción mediante la aplicación, por cada año o fracción de año que, en el momento del hecho causante, le falte al trabajador para cumplir los sesenta y cinco años, de los siguientes coeficientes:



2. Erretiro aurreratua hartu ahal izango dute honako betekizun hauek betetzen dituzten langileek:

a) Hirurogeita bat urte beteak izatea; horretarako, ez dira aplikagarriak aurreko zenbakian azaldutako gutxitze-koefizienteak.

b) Enplegu-bulegoetan enplegu-eskatzailer moduan izena emanda egotea erretiroa eskatu aurreko sei hilabeteetan, gutxienez.

c) Gutxienez hogeita hamar urtean egiazki kotizatu izana egiaztatzea; ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko aparteko orduetako dagokien parte proportzionala. Ondorio horietarako eta ez bestetarako, Gizarte Segurantzaren kotizatutakotzat hartuko da derrigorrezko soldadutzaren edo ordezkotzat gizarte zerbitzuaren denbora, urtebete harturik gehienezko mugatzat.

d) Lan-kontratua amaitu eta lan egiteari uzteko arrazoia ez izatea langilearen borondate libreak egotz dakioketena. Ondorio horietarako, langilearen borondate libretzat hartuko da langileak irmo adieraztea, bere lan-harremanean jarraitzeko aukera duelarik eta hori eragozten dion arrazoi objektiborik ez delarik, harremana amaitzea erabaki duela. Kasu guztietan, lan-harremana uztea norberaren gogoz kontra gertatu dela joko da 208.1.1 artikuluan aurreikusitako arrazoietakoren batengatik gertatu bada kontratu-azkentzea.

Aurreko b) eta d) letretan galdaturiko betekizunak ezin eskatuko dira baldin eta enpresaburuak, erretiro aurreraturako itun kolektibo baten bidez edo kontratu indibidual baten bidez hartutako betebeharraren ondorioz, langileari ordaindu badio, lan-kontratua amaitu ondoren eta erretiro aurreratua eskatu aurreko bi urteetan, diru-zenbateko bat, guztira hartu eta hileko hainbeste eginda bi hauek batzaren emaitza baino gutxiago ez dena: alde batetik, langabezia-prestazioaren kontzeptuan egokituko litzaioketena, eta, bestetik, ordaindu duen kuota edo, hala bada kasua, Gizarte Segurantzarekiko hitzarmen berezia dela medio ordaindu lezakeen kuotarik handiena.

Zenbaki honetan aipatzen den erretiro aurreraturako irispidearen kasuetan, pentsioa gutxitu egingo da, honako koefiziente hauek aplikatuz egitate sorrazleza gertatu den unean langileari hirurogeita bost urte betetzeko falta zaion urte edo frakzio bakoitzeko:

1.º Entre treinta y treinta y cuatro años de cotización acreditados: 7,5 por 100.

2.º Entre treinta y cinco y treinta y siete años de cotización acreditados: 7 por ciento.

3.º Entre treinta y ocho y treinta y nueve años de cotización acreditados: 6,5 por ciento.

4.º Con cuarenta o más años de cotización acreditados: 6 por ciento.

Para el cómputo de los años de cotización se tomarán años completos, sin que se equipare a un año la fracción del mismo.

### Artículo 162. Base reguladora de la pensión de jubilación

1. La base reguladora de la pensión de jubilación, en su modalidad contributiva, será el cociente que resulte de dividir por 210, las bases de cotización del interesado durante los 180 meses inmediatamente anteriores al mes previo al del hecho causante.

1. 1. El cómputo de las bases a que se refiere el párrafo anterior se realizará conforme a las siguientes reglas, de las que es expresión matemática la fórmula que figura al final del presente apartado.

1.<sup>a</sup> Las bases correspondientes a los 24 meses anteriores a aquél en que se produzca el hecho causante se computarán en su valor nominal.

2.<sup>a</sup> Las restantes bases de cotización se actualizarán de acuerdo con la evolución que haya experimentado el índice de precios al consumo desde el mes a que aquéllas correspondan, hasta el mes inmediato anterior a aquél en que se inicie el período a que se refiere la regla anterior.

$$B_r = \frac{\sum_{i=1}^{24} B_i + \sum_{i=25}^{180} B_i \frac{I_{25}}{I_i}}{210}$$

Siendo:

Br = Base reguladora. Bi = Base de cotización del mes i-ésimo anterior al hecho causante. Ii = Índice general de precios al consumo del mes i-ésimo anterior al del hecho causante.

Siendo i = 1, 2, ..., 180

1. Hogeita hamarretik hogeita hamalau urtera bitarteko kotizazio-aldi egiaztatua: 100eko 7,5.

2. Hogeita hamabostetik hogeita hamazazpi urtera bitarteko kotizazio-aldi egiaztatua: ehuneko 7.

3. Hogeita hemezortzitik hogeita hemeretzi urtera bitarteko kotizazio-aldi egiaztatua: ehuneko 6,5.

4. Berrogei urte edo gehiagoko kotizazio-aldi egiaztatua: ehuneko 6.

Kotizazio-urteak kontatzeko, urte osoak hartuko dira, eta urte-zatirik ez da osoaren parekotzat hartuko.

## 162. artikulua. Erretiro-pentsioaren oinarria

1. Erretiro-pentsioaren oinarria, ekarpenezko aldaeran, zatiketa honen emaitza izango da: egitate sorrarazlearen aurreko hilabetearen aurreko 180 hila-beteetan interesdunak izandako kotizazio-oinarriak zati 210.

1.1. Aurreko paragrafoan aipaturiko oinarrien konputua erregela hauen arabera egingo da, zenbaki honen amaieran ageri den formula delarik horren adierazpen matematikoa.

1) Egitate sorrarazlea gertatu aurreko 24 hilabetei dagozkien oinarriak bario nominalean konputatuko dira.

2) Gainerako kotizazio-oinarriak eguneratu egingo dira, dagokien hilabeteetik hasi eta aurreko erregelan aipatzen den oinarrien aldia hasten den hilaren aurrekoa bitarte kontsumo-prezioen indizeak izan duen bilakaeraren arabera.

$$O = \frac{\sum_{i=1}^{24} O_i + \sum_{i=25}^{180} O_i \frac{I_{25}}{I_i}}{210}$$

Izanik:

O = Oinarria.  $O_i$  = Egitate sorrarazlearen aurreko  $i$ -garren hileko kotizazio-oinarria.  $I_i$  = Egitate sorrarazlearen aurreko  $i$ -garren hileko kontsumo-prezioen indize orokorra.

Izanik  $i = 1, 2, \dots, 180$ .

1. 2. Si en el período que haya de tomarse para el cálculo de la base reguladora aparecieran meses durante los cuales no hubiese existido obligación de cotizar, dichas lagunas se integrarán con la base mínima de entre todas las existentes en cada momento para trabajadores mayores de dieciocho años.

En los supuestos en que en alguno de los meses a tener en cuenta para la determinación de la base reguladora, la obligación de cotizar exista sólo durante una parte del mismo, procederá la integración señalada en el párrafo anterior, por la parte del mes en que no exista obligación de cotizar, siempre que la base de cotización correspondiente al primer período no alcance la cuantía de la base mínima mensual señalada. En tal supuesto, la integración alcanzará hasta esta última cuantía.

2. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 2 del artículo 120, para la determinación de la base reguladora de la pensión de jubilación, en su modalidad contributiva, no se podrán computar los incrementos de las bases de cotización, producidos en los dos últimos años, que sean consecuencia de aumentos salariales superiores al incremento medio interanual experimentado en el convenio colectivo aplicable o, en su defecto, en el correspondiente sector.

3. Se exceptúan de la norma general establecida en el apartado anterior los incrementos salariales que sean consecuencia de la aplicación estricta de las normas contenidas en disposiciones legales y convenios colectivos sobre antigüedad y ascensos reglamentarios de categoría profesional.

No obstante, la referida norma general será de aplicación cuando dichos incrementos salariales se produzcan exclusivamente por decisión unilateral de la empresa en virtud de sus facultades organizativas.

Quedarán asimismo exceptuados, en los términos contenidos en el párrafo anterior, aquellos incrementos salariales que deriven de cualquier otro concepto retributivo establecido con carácter general y regulado en las citadas disposiciones legales o convenios colectivos.

4. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, en ningún caso se computarán aquellos incrementos salariales que excedan del límite establecido en el apartado 2 del presente artículo y que hayan sido pactados exclusiva o fundamentalmente en función del cumplimiento de una determinada edad próxima a la jubilación.

5. A efectos del cálculo de la base reguladora de la pensión de jubilación en las situaciones de pluriempleo, las bases por las que se haya cotizado a las di-

1.2. Oinarria kalkulatzeko hartu behar den epean zenbait hilabete baldin badira kotizatzeke betebeharrrik gabeak, hemezortzi urtetik gorako langileen-tzat une bakoitzean dauden oinarrietatik txikienarekin osatuko dira hutsarte horiek.

Oinarria zehazteko kontuan hartu beharreko hilabeteetarikoren batean parte baterako bakarrik baldin badago kotizatzeke betebeharra, aurreko paragrafoan adierazitako osatze-irizpideari jarraituko zaio kotizatzeke betebeharrrik ez den hilabete-parteari dagokionez, baldin eta lehenbiziko epeari dagokion kotizazio-oinarria ez bada iristen adierazitako hilabeteko gutxienekoaren zenbatekora; iristen ez den kasu horretan, zenbateko horretaraino osatuko da.

2. Lege honen 120. artikuluko 2. zerbakian ezarritakoaren kalterik gabe, ekarpenezko aldaeran erretiro-pentsioaren oinarria zehazteko, ezin konputatuko dira kotizazio-oinarrietan azken bi urteetan izandako gehikuntza hauek: aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan edo halakorik ezean dagokion sektorean izandako urte arteko batez besteko gehikuntzatik gorako soldata-igoerei dagozkienak.

3. Aurreko zerbakian ezarritako arau orokorretik salbuetsita daude antzinatek sunari eta lanbide-kategoriaren erregelamenduzko igoerei buruzko lege-xedapen eta hitzarmen kolektiboetan jasoriko arauak zehatz-mehatz aplikatzearen ondorio diren soldata-igoerak.

Hala ere, aipaturiko arau orokorra aplikatzekoa izango da baldin eta soldata-igoera enpresak bakarrik bere aldetik erabakia baldin bada, bere antolamendu-ahalmenen arabera.

Salbuetsita egongo dira, orobat, aurreko paragrafoan adierazitako modu berean, izaera orokorrek ezarri eta aipaturiko lege-xedapen edo hitzarmen kolektiboetan araututako beste edozein ordain-kontzepturen ondorio diren soldata-igoerak.

4. Aurreko zerbakian xedaturikoa gorabehera, ezein kasutan ez dira konputatuko artikuluko honen 2. zerbakian ezarritako muga gainditzen duten eta erabat edo nagusiki erretirotik gertuko adin jakin bat betetzearen baitan hitzartu diren soldata-igoerak.

5. Enplegu-aniztasuneko egoeretan erretiro-pentsioaren oinarria kalkulatzeko, enpresetako bakoitzean kotizaturiko oinarriak osotara konputatuko

versas empresas se computarán en su totalidad, sin que la suma de dichas bases pueda exceder del límite máximo de cotización vigente en cada momento.

6. Por los períodos de actividad en los que no se hayan efectuado cotizaciones por contingencias comunes, en los términos previstos en el artículo 112 bis, a efectos de determinar la base reguladora de las prestaciones excluidas de cotización, las bases de cotización correspondientes a las mensualidades de cada ejercicio económico exentas de cotización, no podrán ser superiores al resultado de incrementar el promedio de las bases de cotización del año natural inmediatamente anterior en el porcentaje de variación media conocida del IPC en el último año indicado más dos puntos porcentuales.

### **Artículo 163. Cuantía de la pensión**

1. La cuantía de la pensión de jubilación, en su modalidad contributiva, se determinará aplicando a la base reguladora, calculada conforme a lo dispuesto en el artículo precedente, los porcentajes siguientes:

1.º Por los primeros quince años cotizados: el 50 por 100.

2.º Por cada año adicional de cotización, comprendido entre el decimosexto y el vigésimo quinto, ambos incluidos: el 3 por 100.

3.º Por cada año adicional de cotización, a partir del vigésimo sexto: el 2 por 100, sin que el porcentaje aplicable a la base reguladora supere el 100 por 100, salvo en el supuesto a que se refiere el apartado siguiente.

2. Cuando se acceda a la pensión de jubilación a una edad superior a los 65 años, siempre que al cumplir esta edad se hubiera reunido el período mínimo de cotización establecido en el artículo 161.1.b), se reconocerá al interesado un porcentaje adicional consistente en un 2 por ciento por cada año completo transcurrido entre la fecha en que cumplió dicha edad y la del hecho causante de la pensión. Dicho porcentaje se elevará al 3 por ciento cuando el interesado hubiera acreditado al menos cuarenta años de cotización al cumplir 65 años.

El porcentaje adicional obtenido según lo establecido en el párrafo anterior se sumará al que con carácter general corresponda al interesado de acuerdo con el apartado 1, aplicándose el porcentaje resultante a la respectiva base reguladora a efectos de determinar la cuantía de la pensión, que no podrá ser superior en ningún caso al límite establecido en el artículo 47.

dira, baina oinarriion baturak ezin gaitutuko du une bakoitzean indarrean den gehienezko kotizazio-muga.

6. 112 bis artikuluan aurreikusitako moduan gertagarri arruntengatik kotizaziorik egin ez den jarduera-aldiei dagokienez, kotizatetik salbuetsitako prestazioen oinarria zehazteko, ekitaldi ekonomiko bakoitzean kotizatetik salbuetsita dauden hilabeteetako kotizazio-oinarriak ezin izango dira handiagoak honako eragiketa honen emaitza baino: aurreko urte naturaleko kotizazio-oinarrien batez bestekoa bider azken urte horretako KPIaren batez besteko aldakuntza-ehuneko ezaguna eta bi ehuneko gehiago.

### **163. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa**

1. Erretiro-pentsioaren zenbatekoa, ekarpenezko aldaeran, aurreko artikuluan xedaturikoaren arabera kalkulaturiko oinarriari honako ehuneko hauek aplikatuz zehaztuko da:

- 1) Kotizaturiko lehenengo hamabost urteengatik: ehuneko 50.
- 2) Hamaseigarrena eta hogeita bosgarrena bitarteko kotizazio-urte gehigarri bakoitzeko (bi urte horiek barne): ehuneko 3.
- 3) Hogeita seigarrenetik aurrerako kotizazio-urte gehigarri bakoitzeko: ehuneko 2, oinarriari aplikatu dakiokkeen ehunekoak 100 gaitutu gabe, ez bada ondorengo zenbakian azaldutako kasuan.

2. Erretiro-pentsioa jasotzen 65 urte baino gehiagorekin hasiz gero, betiere adin hori betetzerako batua bazen 161.1.b) artikuluan ezarritako gutxieneko kotizazio-aldia, interesdunari ehuneko gehigarri bat aitortuko zaio: ehuneko 2, adina bete zuenetik pensioa sorrarazten duen egitatea bitartean igaro den urte oso bakoitzeko. Ehuneko hori % 3ra igoko da interesdunak berrogei urtez edo gehiagoz kotizatu izana egiaztatzen badu 65 urte betetzean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera lorturiko ehuneko gehigarria batu egingo zaio interesdunak 1. zenbakiaren arabera duenari, eta biok batuta ateratzen den ehunekoa aplikatuko zaio dagokion oinarriari, pensioaren zenbatekoa zehazteko; pensioak ezin gaitutuko du, ezein kasutan, 47. artikuluan ezarritako muga.

En el supuesto de que la cuantía de la pensión reconocida alcance el indicado límite sin aplicar el porcentaje adicional o aplicándolo sólo parcialmente, el interesado tendrá derecho, además, a percibir anualmente una cantidad cuyo importe se obtendrá aplicando al importe de dicho límite veinte en cada momento el porcentaje adicional no utilizado para determinar la cuantía de la pensión, redondeado a la unidad más próxima por exceso. La citada cantidad se devengará por meses vencidos y se abonará en catorce pagas, sin que la suma de su importe y el de la pensión o pensiones que tuviera reconocidas el interesado, en cómputo anual, pueda superar la cuantía del tope máximo de la base de cotización vigente en cada momento, también en cómputo anual.

El beneficio establecido en este apartado no será de aplicación en los supuestos de jubilación parcial ni de la jubilación flexible a que se refiere el párrafo segundo del apartado 1 del artículo 165.

#### **Artículo 164. Imprescriptibilidad**

El derecho al reconocimiento de la pensión de jubilación, en su modalidad contributiva, es imprescriptible, sin perjuicio de que los efectos de tal reconocimiento se produzcan a partir de los tres meses anteriores a la fecha en que se presente la correspondiente solicitud, en los supuestos de jubilación en situación de alta.

#### **Artículo 165. Incompatibilidades**

1. El disfrute de la pensión de jubilación, en su modalidad contributiva, será incompatible con el trabajo del pensionista, con las salvedades y en los términos que legal o reglamentariamente se determinen.

No obstante lo anterior, las personas que accedan a la jubilación podrán compatibilizar el percibo de la pensión con un trabajo a tiempo parcial en los términos que reglamentariamente se establezcan. Durante dicha situación, se minorará el percibo de la pensión en proporción inversa a la reducción aplicable a la jornada de trabajo del pensionista en relación a la de un trabajador a tiempo completo comparable.

2. El desempeño de un puesto de trabajo en el sector público delimitado en el párrafo segundo del apartado 1 del artículo primero de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Ad-



Aitorturiko pentsioa muga horretara iristen bada ehuneko gehigarria aplikatu gabe edo partez soilik aplikatuta, interesdunak eskubidea izango du, gainera, urtean diru-kopuru bat jasotzeko, honela kalkulatua: une bakoitzean indarrean den mugaren zenbatekoari pentsioaren zenbatekoa zehaztean aplikatu ez zaion ehuneko gehigarria aplikatu, eta goragoko hurrengo unitatera biribildu. Kopuru hori hilabete burututan sorraraziko da, hamalau alditan ordainduko; haren zenbatekoa eta interesdunak aitortua duen pentsioa edo pentsioak batuta ez da gainditu behar, urteko konputuan, une bakoitzean indarrean den kotizazio-oinarriaren gehienezkoa, hori ere urteko konputuan.

Zenbaki honetan ezarritako onura ez da aplikatzekoa izango erretiro partzialaren kasuan, ez 165. artikuluko 1. zenbakiko bigarren paragrafoan azalduko erretiro malguaren kasuan.

#### **164. artikulua. Preskribaezintasuna**

Erretiro-pentsioa aitortzeko eskubidea, ekarpeneko aldaeran, preskribaezina da; nolana ere, dagokion eskaera aurkezten den data baino hiru hilabete lehenagotik izango ditu efektuak aitorten horrek, erretiroa alta-egoeratik hartzen den kasuetan.

#### **165. artikulua. Bateriaezintasunak**

1. Erretiro-pentsioa jasotzea, ekarpeneko aldaeran, bateraezina izango da pentsiodunak lan egitearekin, legez edo erregelamenduz ezarritako salbuespetan eta moduan izan ezik.

Hala ere, erretiroa jasotzen hasten diren pertsonen bateragarri izango dituzte pentsio hori jasotzea eta denbora partzialeko lan bat egitea, erregelamenduz ezartzen den moduan. Egoera horrek irauten duen bitartean, pentsioa gutxitu egingo da, pentsiodunaren lanaldiari harekin parekagarria den lanaldi osoko langile batenarekiko aplikatu dakiokkeen murrizketarekiko alderantzizkoa den proportzioan.

2. Sektore publikoko lanpostu batean aritzea, Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Enplegatuen Bateriaezintasunei buruzko 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen lehenengo artikuluko 1. zenbakiko bigarren paragra-

ministraciones Públicas, es incompatible con la percepción de pensión de jubilación, en su modalidad contributiva.

La percepción de la pensión indicada quedará en suspenso por el tiempo que dure el desempeño de dicho puesto, sin que ello afecte a sus revalorizaciones.

3. También será incompatible el percibo de la pensión de jubilación, en su modalidad contributiva, con el desempeño de los altos cargos a los que se refiere el artículo primero de la Ley 25/1983, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades de Altos Cargos.

### **Artículo 166. Jubilación parcial**

1. Los trabajadores que hayan cumplido 65 años de edad y reúnan los requisitos para causar derecho a la pensión de jubilación, siempre que se produzca una reducción de su jornada de trabajo comprendida entre un mínimo de un 25 por ciento y un máximo de un 75 por ciento, podrán acceder a la jubilación parcial sin necesidad de la celebración simultánea de un contrato de relevo. Los porcentajes indicados se entenderán referidos a la jornada de un trabajador a tiempo completo comparable.

2. Asimismo, siempre que con carácter simultáneo se celebre un contrato de relevo en los términos previstos en el artículo 12.7 del Estatuto de los Trabajadores, los trabajadores a tiempo completo podrán acceder a la jubilación parcial cuando reúnan los siguientes requisitos:

a) Haber cumplido la edad de 61 años, o de 60 si se trata de los trabajadores a que se refiere la norma 2.ª del apartado 1 de la disposición transitoria tercera, sin que, a tales efectos, se tengan en cuenta las bonificaciones o anticipaciones de la edad de jubilación que pudieran ser de aplicación al interesado.

b) Acreditar un período de antigüedad en la empresa de, al menos, 6 años inmediatamente anteriores a la fecha de la jubilación parcial. A tal efecto se computará la antigüedad acreditada en la empresa anterior si ha mediado una sucesión de empresa en los términos previstos en el artículo 44 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, o en empresas pertenecientes al mismo grupo.

c) Que la reducción de su jornada de trabajo se halle comprendida entre un mínimo de un 25 por ciento y un máximo del 75 por ciento, o del 85 por ciento para los supuestos en que el trabajador relevista sea contratado a jornada completa mediante un contrato de duración indefinida y se acrediten, en el momento del hecho causante, seis años de antigüedad en la empresa y 30 años

foan jasoa, bateraezina da ekarpenezko aldaerako erretiro-pentsioa jasotzearekin.

Pentsioa geldieran utziko da lanpostu horretan jarduten den denboran; horrek ez du eraginik izango balioberritzeetan.

3. Ekarpenezko aldaerako erretiro-pentsioa jasotzea bateraezina izango da, orobat, Goi Karguen Bateraezintasunei buruzko 1983ko abenduaren 26ko 25/1983 Legearen lehen artikuluan adierazitako goi-karguetan jardutearekin.

## **166. artikulua. Erretiro partziala**

1. Hirurogeita bost urte bete dituzten eta erretiro-pentsiorako eskubidea izateko betekizunak betetzen dituzten langileek, lanaldia murrizten badute ehuneko 25etik ehuneko 75era bitarteko parte batean, erretiro partziala jaso ahal izango dute aldi berean errelebu-kontratu bat egin beharrik gabe. Ehuneko horiek parekagarria den lanaldi osoko langile baten lanaldiari dagozkion neurrian ulertuko dira.

2. Orobat, aldi berean errelebu-kontratu bat egiten bada Langileen Estatutuaren 12.7 artikuluan aurreikusitako moduan, denbora osoko langileek erretiro partziala jaso ahal izango dute betekizun hauek betetzen dituztenean:

a) Beteak izatea 61 urte, edo —hirugarren xedapen gehigarriko 1. zenbakiko 2. arauan aipatzen diren langileen kasuan— 60 urte; ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko interesdunari aplikatzekoak izan litezkeen erretiro-adi-naren hobariak edo aurreratzeak.

b) Enpresan, gutxienez, erretiro partziala hartu aurreko 6 urteen antzinasuna duela egiaztatzea. Ondorio horietarako, aurreko enpresan egiaztatutako antzinasuna ere konputatuko da baldin eta enpresa-ondorengotza gertatu bada, Langileen Estatutuari buruzko Legearen 44. artikuluan aurreikusitako moduan, edo talde bereko enpresak baldin badira.

c) Lanaldiaren murrizketa ehuneko 25eko gutxieneakoaren eta ehuneko 75eko gehienezkoaren artekoa izatea; gehienezko hori ehuneko 85 izango da, baldin eta errelebu-langilea lanaldi osoko kontratu mugagabez kontratatzen bada eta egiaztatzen bada, egitate sorrarazlearen unean, enpresan sei urteko antzinasuna izatea eta Gizarte Segurantzian 30 urtez kotizatu izatea, bi epeak ere

de cotización a la Seguridad Social, computados ambos en los términos previstos en las letras b) y d). Dichos porcentajes se entenderán referidos a la jornada de un trabajador a tiempo completo comparable.

d) Acreditar un período previo de cotización de 30 años, sin que, a estos efectos, se tenga en cuenta la parte proporcional correspondiente por pagas extraordinarias.

e) Que, en los supuestos en que, debido a los requerimientos específicos del trabajo realizado por el jubilado parcial, el puesto de trabajo de éste no pueda ser el mismo o uno similar que el que vaya a desarrollar el trabajador relevista, exista una correspondencia entre las bases de cotización de ambos, de modo que la correspondiente al trabajador relevista no podrá ser inferior al 65 por ciento de la base por la que venía cotizando el trabajador que accede a la jubilación parcial. Reglamentariamente se desarrollarán los requerimientos específicos del trabajo para considerar que el puesto de trabajo del trabajador relevista no pueda ser el mismo o uno similar al que venía desarrollando el jubilado parcial.

f) Los contratos de relevo que se establezcan como consecuencia de una jubilación parcial tendrán, como mínimo, una duración igual al tiempo que le falte al trabajador sustituido para alcanzar la edad de sesenta y cinco años.

3. El disfrute de la pensión de jubilación parcial en ambos supuestos será compatible con un puesto de trabajo a tiempo parcial.

4. El régimen jurídico de la jubilación parcial a que se refieren los apartados anteriores será el que reglamentariamente se establezca.

## SECCIÓN SEGUNDA

### *Jubilación en su modalidad no contributiva*

#### **Artículo 167. Beneficiarios**

1. Tendrán derecho a la pensión de jubilación, en su modalidad no contributiva, las personas que, habiendo cumplido sesenta y cinco años de edad, carezcan de rentas o ingresos en cuantía superior a los límites establecidos en el artículo 144, residan legalmente en territorio español y lo hayan hecho durante diez años entre la edad de dieciséis años y la edad de devengo de la pensión, de los cuales dos deberán ser consecutivos e inmediatamente anteriores a la solicitud de la prestación.

b) eta d) letretan aurreikusitako moduan kontaturik. Ehuneko horiek parekagarria den lanaldi osoko langile baten lanaldiari dagozkion neurrian ulertuko dira.

d) Gutxienez hogeita hamar urteko epe batean kotizatu duela egiaztatzea; ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko aparteko ordainsariei dagokien parte proportzionala.

e) Erretiro partziala duenaren lanaren berariazko betekizunengatik haren postua errelebu-kontratudunak egin beharreko bera edo antzekoa ezin izan den kasuetan, erlazio bat izatea bien kotizazio-oinarrien artean: errelebu-langileari dagokiona ez dadila izan erretiro partziala hartu duen langilea kotizatzen ari zenaren ehuneko 65 baino gutxiago. Erregelamenduz zehaztuko da lanaren zer betekizun zehatzen arabera joko den errelebu-langilearen lanpostua ezin dela izan erretiro partziala hartu duenak egiten zuen bera edo antzekoa.

f) Erretiro partzial baten ondorioz ezartzen diren errelebu-kontratuek, gutxienez, ordeztutako langileari hirurogeita bost urte betetzeko falta zaion denbora bera iraungo dute.

3. Bi kasuetan ere, erretiro partzialeko pentsioa jasotzea bateragarria izango da lanaldi partzialeko lanpostu bat izatearekin.

4. Aurreko zenbakietan azaldutako erretiro partzialaren araubide juridikoa erregelamenduz ezarriko da.

## BIGARREN ATALA

### *Erretiroa, ekarpenezko ez den aldaeran*

#### **167. artikulua. Onuradunak**

1. Erretiro-pentsiorako eskubidea izango dute, ekarpenezko ez den aldaeran, hirurogeita bost urte beteak dituzten eta 144. artikuluan ezarritako mugaz gorako errenta edo diru-sarrerarik ez duten pertsonak, Espainiako lurraldean badute legezko egoitza eta hamar urtez han bizi izan badira hamasei urtetik pentsioa sortzeko adina bitarteko denboran; beharrezkoa da hamar horietatik bi jarraikoak eta prestazio-eskaera egin aurrekoak izatea.

2. Las rentas e ingresos propios, así como los ajenos computables por razón de convivencia en una misma unidad económica, y la residencia en territorio español, condicionan tanto el derecho a pensión como la conservación de la misma y, en su caso, la cuantía de aquélla.

#### **Artículo 168. Cuantía de la pensión**

Para la determinación de la cuantía de la pensión de jubilación, en su modalidad no contributiva, se estará a lo dispuesto para la pensión de invalidez en el artículo 145 de la presente Ley.

#### **Artículo 169. Efectos económicos del reconocimiento del derecho**

Los efectos económicos del reconocimiento del derecho a la pensión de jubilación, en su modalidad no contributiva, se producirán a partir del día primero del mes siguiente a aquél en que se presente la solicitud.

#### **Artículo 170. Obligaciones de los beneficiarios**

Los perceptores de la pensión de jubilación, en su modalidad no contributiva, estarán obligados al cumplimiento de lo establecido, para la pensión de invalidez, en el artículo 149 de la presente Ley.

### **CAPÍTULO VIII**

#### **Muerte y supervivencia**

#### **Artículo 171. Prestaciones**

1. En caso de muerte, cualquiera que fuera su causa, se otorgarán, según los supuestos, alguna o algunas de las prestaciones siguientes:

- a) Un auxilio por defunción.
- b) Una pensión vitalicia de viudedad.
- c) Una prestación temporal de viudedad.
- d) Una pensión de orfandad.
- e) Una pensión vitalicia o, en su caso, subsidio temporal en favor de familiares.

2. Norberaren errenta eta diru-sarrerek —eta orobat ekonomia-unitate berean bizikide izateagatik konputagarri diren besterenek— eta egoitza Espainiako lurraldean izateak baldintzatzen dute hala pentsiorako eskubidea nola hari eusteko eskubidea eta, hala badagokio, haren zenbatekoa.

#### **168. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa**

Ekarpenezko ez den aldaerako erretiro-pentsioaren zenbatekoa zehazteko, lege honen 145. artikuluan baliaezintasun-pentsiorako xedaturikoari jarraituko zaio.

#### **169. artikulua. Eskubidea aitortzearen efektu ekonomikoak**

Ekarpenezko ez den aldaerako erretiro-pentsiorako eskubidea aitortzearen efektu ekonomikoak eskaera aurkeztu ondorengo hilaren lehen egunetik hasiko dira.

#### **170. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

Ekarpenezko ez den aldaerako erretiro-pentsioa jasotzen dutenak beharturik daude lege honen 149. artikuluan baliaezintasun-pentsiorako ezarritakoa betetzera.

### VIII. KAPITULUA

#### **Heriotza eta biziraupena**

#### **171. artikulua. Prestazioak**

1. Heriotza-kasuan, edozein dela ere haren kausa, honako prestazio hauekiko bat edo batzuk emango dira, kasuaren arabera:

- a) Heriotza-sorospena.
- b) Bizi arteko alargun-pentsioa.
- c) Aldi baterako alargun-prestazioa.
- d) Umezurtz-pentsioa.

e) Senitartekoen aldeko bizi arteko pentsioa edo, hala badagokio, aldi baterako subsidioa.

2. En caso de muerte causada por accidente de trabajo o enfermedad profesional se concederá, además, una indemnización a tanto alzado.

### **Artículo 172. Sujetos causantes**

1. Podrán causar derecho a las prestaciones enumeradas en el artículo anterior:

a) Las personas integradas en el Régimen General que cumplan la condición general exigida en el artículo 124.

b) Los perceptores de los subsidios de incapacidad temporal, riesgo durante el embarazo, maternidad, paternidad o riesgo durante la lactancia natural, que cumplan el período de cotización que, en su caso, esté establecido.

c) Los pensionistas por incapacidad permanente y jubilación, ambos en su modalidad contributiva.

2. Se reputarán de derecho muertos a consecuencia de accidente de trabajo o de enfermedad profesional quienes tengan reconocida por tales contingencias una incapacidad permanente absoluta para todo trabajo o la condición de gran inválido.

Si no se da el supuesto previsto en el párrafo anterior, deberá probarse que la muerte ha sido debida al accidente de trabajo o la enfermedad profesional, siempre que el fallecimiento haya ocurrido dentro de los cinco años siguientes a la fecha del accidente; en caso de enfermedad profesional se admitirá tal prueba, cualquiera que sea el tiempo transcurrido.

3. Los trabajadores que hubieran desaparecido con ocasión de un accidente, sea o no de trabajo, en circunstancias que hagan presumible su muerte y sin que se hayan tenido noticias suyas durante los noventa días naturales siguientes al del accidente, podrán causar las prestaciones por muerte y supervivencia, excepción hecha del auxilio por defunción. Los efectos económicos de las prestaciones se retrotraerán a la fecha del accidente, en las condiciones que reglamentariamente se determinen.

### **Artículo 173. Auxilio por defunción**

El fallecimiento del causante dará derecho a la percepción inmediata de un auxilio por defunción para hacer frente a los gastos de sepelio a quien los haya



2. Lan-istripuaren edo laneko gaixotasunaren ondoriozko heriotzaren kasuan, kalte-ordain bat ere emango da, oroharreko zenbatekokoa.

## **172. artikulua. Subjektu eskubide-sorrarazleak**

1. Aurreko artikuluan zerrendaturiko prestazioetarako eskubidearen sorrazle izan daitezke:

a) Araubide Orokorrean sarturik egon eta 124. artikuluan galdaturiko baldintza orokorra betetzen duten pertsonak.

b) Aldi baterako ezintasunari, haurdunaldiko arriskuari, amatasunari, aitasunari edo eradoskitze-aldiko arriskuari dagozkion subsidioak jasotzen dituztenak, ezarritako kotizazio-aldia betetzen badute, ezarrita dagoen kasuetan.

c) Ezintasun iraunkorragatiko eta erretiroagatiko pentsiodunak, biak ere ekarpenezko aldaeran

2. Lan-istripuaren edo laneko gaixotasunaren ondorioz hildakotzat joko dira, zuzenbidean, gertakizun horietakoren batengatik lan mota guztietarako ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia aitortua dutenek.

Aurreko paragrafoan adierazitako betekizuna betetzen ez bada, frogatu egin behar da heriotza lan-istripu edo laneko gaixotasun baten ondorio izan dela, betiere istripuaren ondorengo bost urteen barruan gertatu bada heriotza; laneko gaixotasunen kasuan, froga onartu egingo da iragandako denbora edozein dela ere.

3. Istripu baten ondorioz —lanekoa izan edo ez— desagertu diren langileen kasuan, hilak direla pentsarazten badute inguruabarrek, eta haien berririk ez bada istripuaren ondorengo laurogeita hamar egunetan, heriotza eta bizirau-penagatiko prestazioak sorrarazi ahal izango dira, heriotza-sorospena izan ezik. Prestazioen efektu ekonomikoak istripuaren datatik aurrera hasiko dira, errege-lamenduz zehazten diren baldintzetan.

## **173. artikulua. Heriotza-sorospena**

Eskubide-sorrarazlearen heriotzak berehala heriotza-sorospen bat jasotzeko eskubidea ekarriko du, hileta-gastuak jasan dituenak haiei aurre egiteko. Kon-

soportado. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que dichos gastos han sido satisfechos por este orden: por el cónyuge superviviente, el sobreviviente de una pareja de hecho en los términos regulados en el apartado 3 del artículo 174, hijos y parientes del fallecido que conviviesen con él habitualmente.

#### **Artículo 174. Pensión de viudedad**

1. Tendrá derecho a la pensión de viudedad, con carácter vitalicio, salvo que se produzca alguna de las causas de extinción que legal o reglamentariamente se establezcan, el cónyuge superviviente cuando, al fallecimiento de su cónyuge, éste, si al fallecer se encontrase en alta o en situación asimilada a la de alta, hubiera completado un período de cotización de quinientos días, dentro de un período ininterrumpido de cinco años inmediatamente anteriores a la fecha del hecho causante de la pensión. En los supuestos en que se cause aquélla desde una situación de alta o de asimilada al alta, sin obligación de cotizar, el período de cotización de quinientos días deberá estar comprendido dentro de un período ininterrumpido de cinco años inmediatamente anteriores a la fecha en que cesó la obligación de cotizar. En cualquier caso, si la causa de la muerte fuera un accidente, sea o no de trabajo, o una enfermedad profesional, no se exigirá ningún período previo de cotización.

También tendrá derecho a la pensión de viudedad el cónyuge superviviente aunque el causante, a la fecha de fallecimiento, no se encontrase en alta o en situación asimilada a la de alta, siempre que el mismo hubiera completado un período mínimo de cotización de quince años.

En los supuestos excepcionales en que el fallecimiento del causante derivara de enfermedad común, no sobrevenida tras el vínculo conyugal, se requerirá, además, que el matrimonio se hubiera celebrado con un año de antelación como mínimo a la fecha del fallecimiento o, alternativamente, la existencia de hijos comunes. No se exigirá dicha duración del vínculo matrimonial cuando en la fecha de celebración del mismo se acreditara un período de convivencia con el causante, en los términos establecidos en el párrafo cuarto del apartado 3, que, sumado al de duración del matrimonio, hubiera superado los dos años.

2. En los casos de separación o divorcio, el derecho a la pensión de viudedad corresponderá a quien, reuniendo los requisitos en cada caso exigidos en el apartado anterior, sea o haya sido cónyuge legítimo, en este último caso siempre que no hubiese contraído nuevas nupcias o hubiera constituido una pareja de hecho en los términos a que se refiere el apartado siguiente. Asimismo, se

trakoa frogatu ezean, honako hauek joko dira gastu horien ordaintzailatzat, hurrenkeran: bizi den ezkontidea, bizi den izatezko bikoteko kidea —174. artikuluko 3. zenbakian arauturiko moduan—, eta hildakoarekin bizi ohi ziren seme-alaba eta senitartekoak.

#### 174. artikulua. Alargun-pentsioa

1. Alargun-pentsiorako eskubidea izango du, bizi artean —non eta ez den gertatzen legez edo erregelamenduz hartatik salbuesteko ezarritako kausetakoren bat—, bizi den ezkontideak, baldin eta hildakoak, alta-egoeran edo harekin parekatutako egoera batean egonik hil zenean, betea bazuen bostehun eguneko kotizazio-aldi bat pentsioa sortu duen egitatearen aurreko bost urteetan. Alta-egoera batetik edo harekin parekatutako egoera batetik, kotizatzeko betebeharrik gabe, sortzen bada pentsioa, kotizatzeko betebeharra amaitu zen dataren aurreko bost urteen barruko aldi etengabe batean kotizatuak izan beharko dute bostehun egunek. Nolanahi ere, heriotzaren kausa istripu bat izan bada, lanekoa izan zen ez, edo laneko gaixotasun bat, ez da galdatuko kotizatu izatea.

Ezkontideak alargun-pentsiorako eskubidea izango du nahiz eta sorrarazlea ez alta-egoeran edo harekin parekatutako egoera batean egon hil zenean, baldin eta gutxienez hamabost urteko kotizazio-aldi bat osatua bazuen.

Sorrarazlea ezkontza baino lehenagoko gaixotasun arrunt baten ondorioz hiltzen den kasu berezietan, beharrezkoa izango da, gainera, heriotza baino gutxienez urtebete lehenago egina izatea ezkontza, edo, bestela, elkarrekin seme-alabak izatea. Ez da galdatuko ezkontza-loturak gutxieneko iraupen hori izatea baldin eta, ezkontzaren datan, sorrarazlearekiko bizikidetzaren aldi bat egiaztatzen bada, 3. zenbakiko laugarren paragrafoan ezarritako moduan, ezkondata egindako denborarekin batuta bi urte gainditzen dituen.

2. Bereizketa- edo dibortzio-kasuan, aurreko zenbakian kasu bakoitzearako galdaturiko betekizunak betetzen dituztenetik, ezkontide legitimo denari edo izan denari dagokio alargun-pentsiorako eskubidea; betiere, ezkontide izandakoaren kasuan, ez bada berriz ezkondu edo ez badu ondorengo zenbakian adierazitako moduan izatezko bikoterik eratu. Orobat, eskatuko

requerirá que las personas divorciadas o separadas judicialmente sean acreedoras de la pensión compensatoria a que se refiere el artículo 97 del Código Civil y ésta quedara extinguida a la muerte del causante. En el supuesto de que la cuantía de la pensión de viudedad fuera superior a la pensión compensatoria, aquélla se disminuirá hasta alcanzar la cuantía de esta última. En todo caso, tendrán derecho a la pensión de viudedad las mujeres que, aun no siendo acreedoras de pensión compensatoria, pudieran acreditar que eran víctimas de violencia de género en el momento de la separación judicial o el divorcio mediante sentencia firme, o archivo de la causa por extinción de la responsabilidad penal por fallecimiento; en defecto de sentencia, a través de la orden de protección dictada a su favor o informe del Ministerio Fiscal que indique la existencia de indicios de violencia de género, así como por cualquier otro medio de prueba admitido en Derecho.

Si, habiendo mediado divorcio, se produjera una concurrencia de beneficiarios con derecho a pensión, ésta será reconocida en cuantía proporcional al tiempo vivido por cada uno de ellos con el causante, garantizándose, en todo caso, el 40 por ciento a favor del cónyuge superviviente o, en su caso, del que, sin ser cónyuge, conviviera con el causante en el momento del fallecimiento y resultara beneficiario de la pensión de viudedad en los términos a que se refiere el apartado siguiente.

En caso de nulidad matrimonial, el derecho a la pensión de viudedad corresponderá al superviviente al que se le haya reconocido el derecho a la indemnización a que se refiere el artículo 98 del Código Civil, siempre que no hubiera contraído nuevas nupcias o hubiera constituido una pareja de hecho en los términos a que se refiere el apartado siguiente. Dicha pensión será reconocida en cuantía proporcional al tiempo vivido con el causante, sin perjuicio de los límites que puedan resultar por la aplicación de lo previsto en el párrafo anterior en el supuesto de concurrencia de varios beneficiarios.

3. Cumplidos los requisitos de alta y cotización establecidos en el apartado 1 de este artículo, tendrá asimismo derecho a la pensión de viudedad quien se encontrase unido al causante en el momento de su fallecimiento, formando una pareja de hecho, y acreditara que sus ingresos durante el año natural anterior no alcanzaron el 50 por ciento de la suma de los propios y de los del causante habidos en el mismo período. Dicho porcentaje será del 25 por ciento en el caso de inexistencia de hijos comunes con derecho a pensión de orfandad.

No obstante, también se reconocerá derecho a pensión de viudedad cuando los ingresos del sobreviviente resulten inferiores a 1,5 veces el importe

da dibortziatuta edo judizialki bereizita dauden pertsonak Kode Zibilaren 97. artikulua adierazten duen konpentsazio-pentsioaren hartzekodun izatea eta pentsio hori azkenduta gelditzea sorrazlea hiltzean. Alargun-pentsioaren zenbatekoa, handiago baldin bada konpentsazio-pentsioa baino, jaitsi egingo da haren zenbatekoraino. Betiere, alargun-pentsiorako eskubidea izango dute emakumeek baldin eta, konpentsazio-pentsioaren hartzekodun ez izanik ere, egiazta badezakete genero-bortizkeriaren biktima zirela bereizketa judiziala edo dibortzioa gertatu zen unean, epai irmo baten bidez edo heriotzagatik erantzukizun penala azkentzearen ondorioz auzia artxibatzearen bidez; epairik ezean, baliozkoa izango da emakumearen alde emandako babes-agindu bat, edo Fiskaltzaren txosten bat genero-bortizkeriaren zantzuak badirela erakusten duena, eta orobat zuzenbidean onarturiko beste zeinahi frogabide.

Dibortzioa izan bada, eta pentsiorako eskubidea duen onuradun bat baino gehiago baldin bada, haietako bakoitza eskubide-sorrazlearekin bizi izandako denboraren araberrako zenbatekoan aitortuko da pentsioa, modu proportzionalan; ehuneko 40 bermatuko zaio beti bizi den ezkontideari edo, ezkontide izan gabe ere, sorrazlea hiltzean harekin bizi zen eta ondorengo zenbakian azaldutako moduan alargun-pentsioaren onuradun den pertsonari.

Ezkontza-deuseztasunaren kasuan, Kode Zibilaren 98. artikuluan aipatzen den kalte-ordainerako eskubidea aitortu zaion bizirauleak izango du alargun-pentsiorako eskubidea, baldin eta ez bada berriz ezkondu edo ez badu izatezko bikotea eratu ondorengo zenbakian azaldutako moduan. Eskubide-sorrazlearekin bizi izandako denboraren proportzioan aitortuko da pentsio hori; aurreko paragrafoan xedaturikoa aplikatzearen ondorioz izan daitezkeen mugekin, onuradun bat baino gehiago dagoen kasuan.

3. Artikulu honen 1. zenbakian altari eta kotizazioari dagokienez ezarritako betekizunak beterik, alargun-pentsiorako eskubidea izango du, orobat, eskubide-sorrazlea hiltzean harekin izatezko bikotea osatzen zuen pertsonak, egiaztatzen badu aurreko urte naturalean izandako diru-sarrerak ez direla iristen epe horretan bereak eta eskubide-sorrazlearenak batuta ateratzen den emaitzaren ehuneko 50era. Ehuneko hori % 25 izango da umezurtz-pentsiorako eskubidea duen bion seme-alabarik ez izanez gero.

Hala ere, alargun-pentsiorako eskubidea aitortuko da baldin eta biziraulearen diru-sarrerak gutxiago badira egitate sorrazlea gertatutako unean in-

del salario mínimo interprofesional vigente en el momento del hecho causante, requisito que deberá concurrir tanto en el momento del hecho causante de la prestación, como durante el período de su percepción. El límite indicado se incrementará en 0,5 veces la cuantía del salario mínimo interprofesional vigente por cada hijo común, con derecho a la pensión de orfandad que conviva con el sobreviviente.

Se considerarán como ingresos los rendimientos de trabajo y de capital así como los de carácter patrimonial, en los términos en que son computados para el reconocimiento de los complementos para mínimos de pensiones.

A efectos de lo establecido en este apartado, se considerará pareja de hecho la constituida, con análoga relación de afectividad a la conyugal, por quienes, no hallándose impedidos para contraer matrimonio, no tengan vínculo matrimonial con otra persona y acrediten, mediante el correspondiente certificado de empadronamiento, una convivencia estable y notoria con carácter inmediato al fallecimiento del causante y con una duración ininterrumpida no inferior a cinco años. La existencia de pareja de hecho se acreditará mediante certificación de la inscripción en alguno de los registros específicos existentes en las comunidades autónomas o ayuntamientos del lugar de residencia o mediante documento público en el que conste la constitución de dicha pareja. Tanto la mencionada inscripción como la formalización del correspondiente documento público deberán haberse producido con una antelación mínima de dos años con respecto a la fecha del fallecimiento del causante.

En las comunidades autónomas con Derecho Civil propio, cumpliéndose el requisito de convivencia a que se refiere el párrafo anterior, la consideración de pareja de hecho y su acreditación se llevará a cabo conforme a lo que establezca su legislación específica.

4. En todos los supuestos a los que se refiere el presente artículo, el derecho a pensión de viudedad se extinguirá cuando el beneficiario contraiga matrimonio o constituya una pareja de hecho en los términos regulados en el apartado anterior, sin perjuicio de las excepciones establecidas reglamentariamente.

#### **Artículo 174 bis. Prestación temporal de viudedad**

Cuando el cónyuge superviviente no pueda acceder al derecho a pensión de viudedad por no acreditar que su matrimonio con el causante ha tenido una duración de un año o, alternativamente, por la inexistencia de hijos comunes y

darrean zen lanbide arteko gutxieneko soldata 1,5 bider baino; betekizun hori bete beharrekoa izango da hala prestazioa sorrarazten duen egitatearen uanean nola prestazioa jasotzen den denbora guztian. Adierazitako muga horri indarrean den lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoaren erdia gehituko zaio biziraulearekin batera bizi den eta umezurtz-pentsiorako eskubidea duen bion seme-alaba bakoitzeko.

Diru-sarreratzat hartuko dira lanaren eta kapitalaren etekinak eta ondarezko etekinak, pentsioen gutxienezko osagarriak aitortzeko konputatzen diren modu berean.

Zenbaki honetan ezarritakoaren ondorioetarako, izatezko bikotetzat hartuko da ezkontzakoaren gisako afektu-harremanean eraturikoa, hura eratzen dutenek, ezkondu ezinik ez dutelarik, ez badute beste inorekiko ezkontza-loturarik eta dagokion errola-agiriarekin egiaztatzen badute bizikidetzaren egonkor eta agerikoa zutela eskubide-sorrarazlea hil aurreko bost urteko epe batean, gutxienez, etengabe. Izatezko bikotea osatu izana egiaztatzeko, egoitza duen lekuko autonomia-erkidego edo udalen batean hartarako berariaz diren erregistroetakoren batean inskribatu izanaren egiaztapena eman beharko da, edo bikotea eratu izana jasotzen duen agiri publiko bat aurkeztu. Bai inskripzioak, bai agiri publikoak, eskubide-sorrarazlea hil baino bi urte lehenago eginak izan beharko dute, gutxienez.

Zuzenbide zibil berezia duten autonomia-erkidegoetan, aurreko paragrafoan adierazitako bizikidetzari dagokiona betetik, izatezko bikote izateari eta hori egiaztatzeari dagokiona erkidegoko legeria bereziak ezartzen duenaren arabera gauzatu da.

4. Artikulu honetan aipatzen diren kasu guztietan, alargun-pentsiorako eskubidea azkendu egingo da onuraduna ezkontzen bada edo aurreko zenbakian araututako moduan izatezko bikotea eratzen badu, erregelamenduz ezartzen diren salbuespenekin.

## **174 bis artikulua. Aldi baterako alargun-prestazioa**

Bizi den ezkontideak ezin badu alargun-pentsiorako eskubiderik izan, ez duelako egiaztatu eskubide-sorrarazlearekin ezkonduarik egon dela urtebetean edo bestela ez dutelako elkarrekin umerik izan, eta betetzen baditu 174. artiku-

reúna el resto de requisitos enumerados en el apartado 1 del artículo 174, tendrá derecho a una prestación temporal en cuantía igual a la de la pensión de viudedad que le hubiera correspondido y con una duración de dos años.

### **Artículo 175. Pensión de orfandad**

1. Tendrán derecho a la pensión de orfandad, en régimen de igualdad, cada uno de los hijos del causante, cualquiera que sea la naturaleza de su filiación, siempre que, al fallecer el causante, sean menores de dieciocho años o estén incapacitados para el trabajo, y que aquél se encontrase en alta o en situación asimilada al alta. Será de aplicación, asimismo, a las pensiones de orfandad lo previsto en el segundo párrafo del apartado 1 del artículo 174 de esta Ley.

2. En los casos en que el hijo del causante no efectúe un trabajo lucrativo por cuenta propia o ajena o, cuando realizándolo, los ingresos que obtenga resulten inferiores en cómputo anual a la cuantía vigente para el salario mínimo interprofesional, también en cómputo anual, podrá ser beneficiario de la pensión de orfandad, siempre que en la fecha del fallecimiento del causante, aquél fuera menor de 22 años, o de 24 si no sobreviviera ninguno de los dos padres o el huérfano presentara una discapacidad en un grado igual o superior al 33 por ciento.

En el caso de orfandad absoluta, si el huérfano estuviera cursando estudios y cumpliera los 24 años durante el transcurso del curso escolar, la percepción de la pensión de orfandad se mantendrá hasta el día primero del mes inmediatamente posterior al de inicio del siguiente curso académico.

3. La pensión de orfandad se abonará a quien tenga a su cargo a los beneficiarios, según determinación reglamentaria.

### **Artículo 176. Prestaciones en favor de familiares**

1. En los Reglamentos generales de desarrollo de esta Ley se determinarán aquellos otros familiares o asimilados que, reuniendo las condiciones que para cada uno de ellos se establezcan y previa prueba de su dependencia económica del causante, tendrán derecho a pensión o subsidio por muerte de éste, en la cuantía que respectivamente se fije.

Será de aplicación a las prestaciones en favor de familiares lo establecido en el párrafo segundo del artículo 174.1 de esta Ley.



luko 1. zenbakian zerrendaturiko gainerako betekizunak, eskubidea izango du aldi baterako prestazioa jasotzeko, legokiokoen alargun-pentsioaren zenbateko berekoa, bi urtez.

### **175. artikulua. Umezurtz-pentsioa**

1. Umezurtz-pentsiorako eskubidea izango dute, berdintasunean, eskubide-sorrazlearen seme-alaba guztiek, edozein dela ere seme-alabatasun horren izaera, baldin eta, eskubide-sorrazlea hiltzean, hemezortzi urte bete gabeak badituzte edo lanerako ezgaiturik badaude, eta eskubide-sorrazlea alta-egoean edo harekin parekaturiko egoera batean bazegoen. Umezurtz-pentsioei aplikatzekoa izango da, orobat, lege honen 174. artikuluko 1. zenbakiko bigarren paragrafoan aurreikusitakoa.

2. Eskubide-sorrazlearen seme edo alabak bere konturako edo besteren konturako irabazpidezko lanik egiten ez duen kasuan, edo, lan eginik ere, urtean lortzen dituen diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldatarako indarrean den urteko zenbatekoa baino gutxiagokoak diren kasuan, umezurtz-pentsioaren onuradun izan ahalko da seme edo alaba hori, baldin eta 22 urte bete gabea bazen eskubide-sorrazlea hiltzean, edo 24 urte bete gabea gurasoetako bat ere bizi ez denean, edo umezurtzak ehuneko 33 edo gehiagoko desgaitasun-gradua baldin badu.

Erabateko umezurztasunaren kasuan, umezurtza ikasketak egiten ari bada eta ikasturtean betetzen baditu 24 urteak, umezurtz-pentsioari eutsi egingo zaio hurrengo ikasturtea hasi ondorengo hilaren lehen eguna bitarte.

3. Onuradunak bere kargu dituenari ordainduko zaio umezurtz-pentsioa, erregelamenduz zehaztutako moduan.

### **176. artikulua. Senitartekoen aldeko prestazioak**

1. Lege hau garatzeko erregelamendu orokorretan zehaztuko da zer beste senitartekok edo haiekin parekatutakok izango duten eskubidea hura hiltzean pentsioa edo subsidioa jasotzeko, ezartzen den kopurukoa, betiere haietako bakoitzarentzat jarritako baldintzak betetzen badituzte eta aurrez frogatzen badute eskubide-sorrazlearen mende direla ekonomiaren aldetik.

Senitartekoentzako prestazioei aplikatzekoa da lege honen 174.1 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoa.

2. En todo caso, se reconocerá derecho a pensión a los hijos o hermanos de beneficiarios de pensiones contributivas de jubilación e incapacidad permanente, en quienes se den, en los términos que se establezcan en los Reglamentos generales, las siguientes circunstancias:

- a) Haber convivido con el causante y a su cargo.
- b) Ser mayores de cuarenta y cinco años y solteros, divorciados o viudos.
- c) Acreditar dedicación prolongada al cuidado del causante.
- d) Carecer de medios propios de vida.

3. La duración de los subsidios temporales por muerte y supervivencia será objeto de determinación en los Reglamentos generales de desarrollo de esta Ley.

4. A efectos de estas prestaciones, quienes se encuentren en situación legal de separación tendrán, respecto de sus ascendientes o descendientes, los mismos derechos que los que les corresponderían de estar disuelto su matrimonio.

#### **Artículo 177. Indemnización especial a tanto alzado**

1. En el caso de muerte por accidente de trabajo o enfermedad profesional, el cónyuge superviviente, el sobreviviente de una pareja de hecho en los términos regulados en el apartado 3 del artículo 174 y los huérfanos tendrán derecho a una indemnización a tanto alzado, cuya cuantía uniforme se determinará en los Reglamentos generales de esta Ley.

En los supuestos de separación, divorcio o nulidad será de aplicación, en su caso, lo previsto en el apartado 2 del artículo 174.

Cuando no existieran otros familiares con derecho a pensión por muerte y supervivencia, el padre o la madre que vivieran a expensas del trabajador fallecido, siempre que no tengan, con motivo de la muerte de éste, derecho a las prestaciones a que se refiere el artículo anterior, percibirán la indemnización que se establece en el apartado 1 del presente artículo.

#### **Artículo 178. Imprescriptibilidad**

El derecho al reconocimiento de las prestaciones por muerte y supervivencia, con excepción del auxilio por defunción, será imprescriptible, sin perjuicio

2. Kasu guztietan, pentsiorako eskubidea aitortuko zaie erretiroko edo ezintasun iraunkorragatiko pentsio ekarpenezkoen onuradunen seme-alaba edo anai-arrebei, erregelamendu orokorretan ezarritako moduan, honako inguruabar hauetan gertatzen direnean:

a) Eskubide-sorrarazlearekin batera eta haren kargu bizi izatea.

b) Berrogeita bost urtetik gorakoa izatea, eta ezkongabea, dibortziatua edo alarguna.

c) Denbora luzean eskubide-sorrarazlea zaindu duela egiaztatzea.

d) Bere bizibiderik ez izatea.

3. Lege hau garatzeko erregelamendu orokorretan zehaztuko da zer iraupen izango duten heriotza eta biziraupenagatiko aldi baterako subsidioek.

4. Prestazio hauen ondorioetarako, legez bereizirik daudenek, beren aurrekoei edo ondorengoei dagokienez, ezkontza deseginik egonez gero izango lituzketen eskubide berak izango dituzte.

#### **177. artikulua. Oroharreko kalte-ordain berezia**

1. Lan-istripuagatiko edo laneko gaixotasunagatiko heriotzen kasuan, bizi den ezkontideak, izatezko bikotetik bizi denak (174. artikuluko 3. zenbakiak araututakoaren arabera) eta umezurtzek eskubidea izango dute oroharreko kalte-ordain bat jasotzeko; lege honen erregelamendu orokorretan zehaztuko da nola ezarri haren zenbateko uniformea.

Bereizketa-, dibortzio- edo deuseztasun-kasuetan, aplikatzekoa izango da 174. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitakoa, hala badagokio.

2. Beste senitartekorik ez bada heriotza eta biziraupenagatiko pentsioa jasotzeko eskubidea duenik, hildako langilearen kargu bizi zen aitak edo amak artikuluko honen 1. zenbakian ezarritako kalte-ordaina jasoko du, baldin eta aurreko artikuluko prestazioak jasotzeko eskubiderik ez badu langilearen heriotza dela eta.

#### **178. artikulua. Preskribaezintasuna**

Heriotzagatiko prestazioak aitortzeko eskubidea preskribaezina izango da, heriotza-sorospenen kasuan izan ezik, hargatik eragotzi gabe aitorten

de que los efectos de tal reconocimiento se produzcan a partir de los tres meses anteriores a la fecha en que se presente la correspondiente solicitud.

### **Artículo 179. Compatibilidad y límite de las prestaciones**

1. La pensión de viudedad será compatible con cualesquiera rentas de trabajo.

La pensión de viudedad, en los términos del segundo párrafo del apartado 1 del artículo 174, será incompatible con el reconocimiento de otra pensión de viudedad, en cualquiera de los regímenes de la Seguridad Social, salvo que las cotizaciones acreditadas en cada uno de los regímenes se superpongan, al menos, durante 15 años.

2. La pensión de orfandad será compatible con cualquier renta de trabajo de quien sea o haya sido cónyuge del causante, o del propio huérfano, así como, en su caso, con la pensión de viudedad que aquél perciba.

Será de aplicación a las pensiones de orfandad lo previsto, respecto de las pensiones de viudedad, en el segundo párrafo del apartado 1.

3. Los huérfanos incapacitados para el trabajo con derecho a pensión de orfandad, cuando perciban otra pensión de la Seguridad Social en razón a la misma incapacidad, podrán optar entre una y otra. Cuando el huérfano haya sido declarado incapacitado para el trabajo con anterioridad al cumplimiento de la edad de 18 años, la pensión de orfandad que viniera percibiendo será compatible con la de incapacidad permanente que pudiera causar, después de los 18 años, como consecuencia de unas lesiones distintas a las que dieron lugar a la pensión de orfandad, o en su caso, con la pensión de jubilación que pudiera causar en virtud del trabajo que realice por cuenta propia o ajena.

4. La suma de las cuantías de las pensiones por muerte y supervivencia no podrá exceder del importe de la base reguladora que corresponda, conforme a lo previsto en el apartado 2 del artículo 120, en función de las cotizaciones efectuadas por el causante. Esta limitación se aplicará a la determinación inicial de las expresadas cuantías, pero no afectará a las revalorizaciones periódicas de las pensiones que procedan en lo sucesivo, conforme a lo previsto en el artículo 48 de esta Ley.

horren efektuak dagokion eskaera egin baino hiru hilabete lehenago has-  
tea.

## **179. artikulua. Prestazioen bateragarritasuna eta muga**

1. Alargun-pentsioa bateragarri izango da lanaren errenta ororekin.

Alargun-pentsioa, 174. artikuluaaren 1. zenbakiko bigarren paragrafoaren arabera, bateraezina izango da Gizarte Segurantzaren edozein araubidetan beste alargun-pentsio bat aitortzearekin, non eta ez den bi araubidetan batera kotizatu 15 urtez, gutxienez.

2. Umezurtz-pentsioa bateragarri izango da eskubide-sorrarazlearen ezkontide denaren edo izan denaren lan-errenta ororekin, edo umezurtzaren beraren lan-errentekin, eta orobat ezkontideak jasotzen duen alargun-pentsioarekin, hori bada kasua.

Umezurtz-pentsioei aplikatzekoa izango da 1. zenbakiko bigarren paragrafoan alargun-pentsioetarako aurreikusitakoa.

3. Lanerako ezindua dauden eta umezurtz-pentsiorako eskubidea duten umezurtzek, ezintasun horregatik Gizarte Segurantzako beste pentsio bat jasotzen dutenean, aukera izango dute bata edo bestea hartzeko. Umezurtza lanerako ezgaitutzat joa baldin bada 18 urte bete baino lehen, jasotzen ari den umezurtz-pentsioa bateragarria izango da 18 urte betetakoan —umezurtz-pentsioa eragin zutenez bestelako lesio batzuen ondorioz— eskubidez sorraraz dezakeen ezintasun iraunkorragatiko pentsioarekin, edo, hori bada kasua, bere kontura edo besteren kontura egiten duen lanarengatik sorraraz dezakeen erretiro-pentsioarekin.

4. Heriotza eta biziraupenagatiko pentsioen zenbatekoen batura ezin izango da handiagoa eskubide-sorrarazleak egindako kotizazioen ondorioz 120. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitakoaren arabera dagokion oinarriaren zenbatekoa baino. Zenbatekoak lehen aldiz kalkulatzean aplikatuko da muga hori, baina ez du eraginik izango gerora aldizka pentsioak balioberritzea dagokionean, lege honen 48. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

A los efectos de la limitación establecida en este apartado, las pensiones de orfandad tendrán preferencia sobre las pensiones a favor de otros familiares. Asimismo, y por lo que respecta a estas últimas prestaciones, se establece el siguiente orden de preferencia:

1.º Nietos y hermanos, menores de 18 años o mayores incapacitados, del causante.

2.º Padre y madre del causante.

3.º Abuelos y abuelas del causante.

4.º Hijos y hermanos del pensionista de jubilación o incapacidad permanente, en su modalidad contributiva, mayores de 45 años y que reúnan los demás requisitos establecidos.

Sin perjuicio de lo previsto con carácter general en este apartado, el límite establecido podrá ser rebasado en caso de concurrencia de varias pensiones de orfandad con una pensión de viudedad cuando el porcentaje a aplicar a la correspondiente base reguladora para el cálculo de ésta última sea del 70 por ciento, si bien, en ningún caso, la suma de las pensiones de orfandad podrá superar el 48 por ciento de la base reguladora que corresponda.

5. Reglamentariamente se determinarán los efectos de la concurrencia en los mismos beneficiarios de pensiones de orfandad causadas por el padre y la madre.

6. Será de aplicación a las pensiones en favor de familiares lo previsto para las pensiones de viudedad en el segundo párrafo del apartado 1.

#### **Artículo 179 bis. Base reguladora de las prestaciones derivadas de contingencias comunes**

Para el cálculo de la base reguladora en los supuestos de prestaciones derivadas de contingencias comunes se computará la totalidad de las bases por las que se haya efectuado la cotización durante el período establecido reglamentariamente anterior al mes previo al del hecho causante.

Zenbaki honetan ezarritako mugaren ondorioetarako, umezurtz-pentsioek lehenetasuna izango dute beste senitarteko batzuen aldeko pentsioen aurretik. Orobat, azken prestazio horiei dagokienez, honako lehenetasun-hurrenkera hau ezartzen da:

1) Eskubide-sorrazlearen biloba eta anai-arrebak, 18 urtez azpikoak edo adin horretatik gorako ezinduak.

2) Eskubide-sorrazlearen aita eta ama.

3) Eskubide-sorrazlearen aitonak eta amonak.

4) Ekarpenezko aldaeran erretiroagatiko edo ezintasun iraunkorragatiko pentsioa jasotzen duenaren seme-alaba eta anaia-arrebak, 45 urtetik gorakoak eta ezarritako gainerako betekizunak betetzen dituztenak.

Hargatik eragotzi gabe zenbaki honetan oro har aurreikusitakoa, aipatutako muga gainditu ahal izango da batera gertatzen badira umezurtz-pentsio batzuk alargun-pentsio batekin, azken hori kalkulatzeko dagokion oinarriari aplikatu beharreko ehunekoa % 70 denean, baina umezurtz-pentsioen baturak ezein kasutan ezin gaindituko du dagokion oinarriaren % 48.

5. Erregelamenduz ezarriko da zer ondorio izango dituen onuradun berei aitarengatik eta amarengatik sorrazitako umezurtz-pentsioak batera egokitzekoak.

6. Senitartekoen aldeko pentsioei aplikatzekoa izango da 1. zenbakiko bigarren paragrafoan alargun-pentsioetarako aurreikusitakoa.

## **179 bis artikulua. Gertagarri arrunten ondoriozko prestazioen oinarria**

Gertagarri arrunten ondoriozko prestazioen kasuan oinarria kalkulatzeko, egitate sorrazlearen aurreko hilaren aurretik erregelamenduz ezarritako epean kotizaziorako erabili diren oinarri guztien batura konputatuko da.

CAPÍTULO IX  
Prestaciones familiares

SECCIÓN PRIMERA  
*Modalidad contributiva*

**Artículo 180. Prestaciones**

1. Los dos primeros años del período de excedencia que los trabajadores, de acuerdo con el artículo 46.3 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, disfruten en razón del cuidado de cada hijo o menor acogido, en los supuestos de acogimiento familiar permanente o preadoptivo, aunque éstos sean provisionales, tendrán la consideración de período de cotización efectiva a efectos de las correspondientes prestaciones de la Seguridad Social por jubilación, incapacidad permanente, muerte y supervivencia, maternidad y paternidad.

El período de cotización efectiva a que se refiere el párrafo anterior tendrá una duración de 30 meses si la unidad familiar de la que forma parte el menor en razón de cuyo cuidado se solicita la excedencia, tiene la consideración de familia numerosa de categoría general, o de 36 meses, si tiene la de categoría especial.

2. De igual modo, se considerará efectivamente cotizado a los efectos de las prestaciones indicadas en el apartado anterior, el primer año del período de excedencia que los trabajadores disfruten, de acuerdo con el artículo 46.3 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, en razón del cuidado de otros familiares, hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad, que, por razones de edad, accidente, enfermedad o discapacidad, no puedan valerse por sí mismos, y no desempeñen una actividad retribuida.

3. Las cotizaciones realizadas durante los dos primeros años del período de reducción de jornada por cuidado de menor previsto en el artículo 37.5 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, se computarán incrementadas hasta el 100 por 100 de la cuantía que hubiera correspondido si se hubiera mantenido sin dicha reducción la jornada de trabajo, a efectos de las prestaciones señaladas en el apartado 1. Dicho incremento vendrá exclusivamente referido al primer año en el resto de supuestos de reducción de jornada contemplados en el mencionado artículo.

4. Cuando las situaciones de excedencia señaladas en los apartados 1 y 2 hubieran estado precedidas por una reducción de jornada en los términos previstos en el artículo 37.5 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, a efectos de la consideración como cotizados de los períodos de excedencia que correspon-



## IX. KAPITULUA

### Familia-prestazioak

#### LEHEN ATALA

#### *Ekarpenezko aldaera*

#### 180. artikulua. Prestazioak

1. Langileek eszedentzia hartzen dutenean, Langileen Estatutuari buruzko Legearen 46.3 artikulua araberaren seme-alaba bat zaintzeko edo, familia-harrera iraunkorraren edo adopzio-aurrekoaren kasuan, adingabe bat zaintzeko, eszedentzia-aldi horretako lehen bi urteak egiazki kotizaturiko alditzat hartuko dira Gizarte Segurantzak erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik, heriotza eta biziraupenagatik, amatasunagatik eta aitatasunagatik ematen dituen prestazioen ondorioetarako.

Aurreko zenbakian azaldutako kotizazio-aldia 30 egunekoa izango da baldin eta eszedentzia eskatzeko zio den adingabea kategoria orokorreko familia ugari batean bizi bada, eta 36 hilabetekoa, berriz, kategoria bereziko familia ugari batean bizi bada.

2. Era berean, aurreko zenbakian adierazitako prestazioen ondorioetarako, egiazki kotizaturiko alditzat hartuko da Langileen Estatutuari buruzko Legearen 46.3 artikulua araberaren langileek senitartekoak zaintzeko hartutako eszedentziaren lehen urtea; eszedentzia hori bigarren gradurainoko odolkidetasun edo kidetasuneko senitartekoak zaintzeko da, adinagatik, gaixotasunagatik edo desgaitasunagatik beren kabuz baliatu ezin direnak eta beste lan ordaindurik ez dutenak.

3. Langileen Estatutuari buruzko Legearen 37.5 artikuluan adingabeak zaintzeko aurreikusitako lanaldi-murrizketaren lehenbiziko bi urteetan egindako kotizazioak konputatzean, 1. zenbakian adierazitako prestazioen ondorioetarako, murrizketa hori izan ezean egokituko litzaiokeen zenbatekoaren 100eko 100era igoko dira kotizazioak. Gehikuntza hori lehenbiziko urteari dagokionez bakarrik egingo da aipatutako artikuluan adierazitako gainerako kasuetan.

4. Artikulu honen 1. eta 2. zenbakietan adierazitako eszedentzia-egoeren aurretik lanaldi-murrizketako aldi bat izan bada, Langileen Estatutuari buruzko Legearen 37.5 artikuluan aurreikusitako modukoa, dagozkion eszedentzia-aldiak kotizaturiko alditzat hartzearen ondorioetarako, lanaldi-murrizke-

dan, las cotizaciones realizadas durante la reducción de jornada se computarán incrementadas hasta el 100 por 100 de la cuantía que hubiera correspondido si se hubiera mantenido sin dicha reducción la jornada de trabajo.

## SECCIÓN SEGUNDA

### *Modalidad no contributiva*

#### **Artículo 181. Prestaciones**

Las prestaciones familiares de la Seguridad Social, en su modalidad no contributiva, consistirán en:

a) Una asignación económica por cada hijo, menor de 18 años o, cuando siendo mayor de dicha edad, esté afectado por una discapacidad, en un grado igual o superior al 65 por 100, a cargo del beneficiario, cualquiera que sea la naturaleza legal de la filiación de aquellos, así como por los menores acogidos, en acogimiento familiar, permanente o preadoptivo.

El causante no perderá la condición de hijo o de menor acogido a cargo por el mero hecho de realizar un trabajo lucrativo por cuenta propia o ajena siempre que continúe viviendo con el beneficiario de la prestación y que los ingresos anuales del causante, en concepto de rendimientos del trabajo, no superen el 100 por ciento del salario mínimo interprofesional, también en cómputo anual.

Tal condición se mantendrá aunque la afiliación del causante como trabajador suponga su encuadramiento en un régimen de Seguridad Social distinto a aquél en el que esté afiliado el beneficiario de la prestación.

b) Una prestación económica de pago único a tanto alzado por nacimiento o adopción de hijo, en supuestos de familias numerosas, monoparentales y en los casos de madres discapacitadas.

c) Una prestación económica de pago único por parto o adopción múltiples.

#### Subsección 1.<sup>a</sup> Asignación económica por hijo o menor acogido a cargo

#### **Artículo 182. Beneficiarios**

1. Tendrán derecho a la asignación económica por hijo o menor acogido a cargo quienes:

tarik gabe egokituko litzaiokeen zenbatekoaren 100eko 100era igoko dira aldi horretan egindako kotizazioak.

## BIGARREN ATALA

### *Ekarpenezko ez den aldaera*

#### **181. artikulua. Prestazioak**

Gizarte Segurantzako familia-prestazioak, ekarpenezko ez den aldaeran, hauek izango dira:

a) Diru-esleipen bat onuradunak bere kargu duen hemezortzi urtetik behe-rako seme-alaba bakoitzeko, adin horretatik gorakoa izanik % 65 edo gehiagoko desgaitasunen bat duen seme-alaba bakoitzeko —edozein dela ere haien seme-alabatasunaren legezko izaera—, eta familia-harrera iraunkor nahiz adopzio-aurrekoan hartua duen adingabe bakoitzeko.

Eskubide-sorrarazleak ez du galduko besteren kargura hartutako seme-alaba edo adingabearen izaera bere konturako edo besteren konturako lan ordaindua egite hutsagatik, baldin eta prestazioaren onuradunarekin batera bizi baldin bada eta eskubide-sorrarazlearen urteko diru-sarrerak, lan-etekinen kontzeptuan, ez bada lanbide arteko gutxieneko soldataren urteko konputua baino handiagoak.

Izaera horri eutsi egingo zaio nahiz eta horren ondorioz eskubide-sorrarazlea, langile gisa afiliatzean, prestazioaren onuraduna dagoen Gizarte Segurantzako araubideaz bestelako batean sartu behar izan.

b) Ordainaldi bakarreko oroharreko diru-prestazio bat seme-alabaren bat jaio edo adoptatu den aldiko, familia ugarien, guraso bakarreko familien eta ama desgaituen kasuan.

c) Ordainaldi bakarreko diru-prestazio bat erditze edo adopzio anizkoitzagatik.

1. azpiatala. Norberaren kargu den seme-alaba edo norberaren kargu harturiko adingabearengatik diru-esleipena

#### **182. artikulua. Onuradunak**

1. Norberaren kargu den seme-alaba edo norberaren kargu harturiko adingabeagatik diru-esleipen bat izateko eskubidea izango dute betekizun hauek betetzen dituztenek:

a) Residan legalmente en territorio español.

b) Tengan a su cargo hijos o menores acogidos en quienes concurren las circunstancias señaladas en el párrafo a) del artículo anterior, y que residan en territorio español.

En los casos de separación judicial o divorcio, el derecho al percibo de la asignación se conservará para el padre o la madre por los hijos o menores acogidos que tenga a su cargo.

c) No perciban ingresos anuales, de cualquier naturaleza, superiores a 11.264,01 euros. La cuantía anterior se incrementará en un 15 por 100 por cada hijo o menor acogido a cargo, a partir del segundo, éste incluido.

No obstante, si se trata de personas que forman parte de familias numerosas de acuerdo con lo establecido en la Ley de Protección a las Familias Numerosas, también tendrán derecho a la indicada asignación económica por hijo a cargo si sus ingresos anuales no son superiores a 16.953,05 euros, en los supuestos en que concurren tres hijos a cargo, incrementándose en 2.745,93 euros por cada hijo a cargo a partir del cuarto, éste incluido.

En el supuesto de convivencia del padre y de la madre, si la suma de los ingresos de ambos superase los límites de ingresos establecidos en los párrafos anteriores, no se reconocerá la condición de beneficiario a ninguno de ellos. Igual regla se aplicará en los supuestos en que el acogimiento familiar, permanente o preadoptivo, se haya constituido por dos personas que formen una misma unidad familiar.

Los límites de ingresos anuales a que se refieren los dos primeros párrafos se actualizarán anualmente en la Ley de Presupuestos Generales del Estado, respecto de la cuantía establecida en el ejercicio anterior, al menos, en el mismo porcentaje que en dicha Ley se establezca como incremento general de las pensiones contributivas de la Seguridad Social.

No obstante, también podrán ser beneficiarios de las asignaciones económicas por hijo o menor acogido a cargo, quienes perciban ingresos anuales, por cualquier naturaleza, que, superando la cifra indicada en los párrafos anteriores, sean inferiores a la cuantía que resulte de sumar a dicha cifra el producto de multiplicar el importe anual de la asignación por hijo o menor acogido por el número de hijos o menores acogidos a cargo de los beneficiarios.

a) Espainiako lurraldean bizi izatea legez.

b) Beren ardurapean izatea seme-alabaren bat edo harrerako adingaberen bat, aurreko artikuluko a) letran adierazitako inguruabarretan dagoena, eta Espainiako lurraldean bizi dena.

Bereizketa judizialaren edo dibortzioaren kasuan, esleipena jasotzeko eskubidea gorde egingo zaio aitari edo amari, bere kargu dituen seme-alaba edo adingabeengatik.

c) Urtean 11.264,01 euro baino gehiagoko diru-sarrerarik ez jasotzea, edozein izaeratakoak direla ere. Zenbateko hori ehuneko 15ez gehituko da norberaren kargu hartutako seme-alaba edo adingabe bakoitzagatik, bigarrenetik aurrera, bigarrena barne.

Hala ere, pertsona horiek familia ugari batekoak badira, Familia Ugariak Babesteko Legean ezarritakoaren arabera, eskubidea izango dute beren kargurako seme-alabarengatik diru-esleipen hori jasotzeko baldin eta diru-sarrerak ez badituzte 16.953,05 euro baino gehiagokoak, hiru seme-alaba dituztenean; kopuru horri 2.745,93 gehituko zaizkio laugarrenetik aurrerako seme-alaba bakoitzeko, laugarrena barne.

Aita eta ama elkarrekin bizi diren kasuan, bien diru-sarreraren baturak aurreko paragrafoetan ezarritako muga gainditzen badu, ez zaio onuradun-izaera aitortuko ez batari eta ez besteari. Erregela bera aplikatuko da familia-unitate bat osatzen duten bi pertsonak eratu badute familia-harrera, iraunkorra nahiz adopzio-aurrekoa.

Lehenbiziko bi paragrafoek aipatzen dituzten urteko sarreraren mugak urtez urte eguneratuko dira Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean; horretarako, aurreko ekitaldiari dagokionari gehitu egingo zaio, gutxienez, lege horrek Gizarte Segurantzako ekarpenezko pentsioen igoera orokorrerako ezartzen duen ehunekoa.

Hala ere, norberaren kargu den seme-alaba edo norberaren kargu harturiko adingabeagatik diru-esleipenen onuradun izan daitezke urteko edozein izaeratako diru-sarrerak aurreko paragrafoetan adierazi baino handiagoak izanik ere honako kopuru honen azpikoak dituztenak: muga-kopuru hori gehi norberaren kargu dagoen seme-alaba edo norberaren kargu harturiko adingabe bakoitzeko urteko esleipenaren eta onuradunek beren kargu duten seme-alaba edo hartutako adingabe kopuruaren arteko biderkadura.

En tales casos, la cuantía anual de la asignación será igual a la diferencia entre los ingresos percibidos por el beneficiario y la cifra resultante de aplicar lo dispuesto en el párrafo anterior. Dicha cuantía será distribuida entre los hijos o menores acogidos a cargo del beneficiario y las mensualidades a que, dentro de cada ejercicio económico, se tenga derecho a la asignación.

No se reconocerá asignación económica por hijo o menor acogido a cargo, cuando la diferencia a que se refiere el párrafo anterior sea inferior al importe mensual de la asignación, por cada hijo o menor acogido a cargo no minusválido, establecida en el apartado 1 del artículo 182 bis.

d) No tengan derecho, ni el padre ni la madre, a prestaciones de esta misma naturaleza en cualquier otro régimen público de protección social.

2. Serán, asimismo, beneficiarios de la asignación que, en su caso y en razón de ellos, hubiera correspondido a sus padres, aquellos huérfanos de padre y madre, menores de 18 años o minusválidos en un grado igual o superior al 65 por 100.

Igual criterio se seguirá en el supuesto de quienes no sean huérfanos y hayan sido abandonados por sus padres, siempre que no se encuentren en régimen de acogimiento familiar, permanente o preadoptivo.

También serán beneficiarios de las asignaciones que en razón de ellos corresponderían a sus padres, los hijos minusválidos mayores de dieciocho años que no hayan sido incapacitados judicialmente y conserven su capacidad de obrar.

Cuando se trate de menores no minusválidos, será requisito indispensable que sus ingresos anuales, incluida, en su caso, la pensión de orfandad, no superen el límite establecido en el párrafo c) del apartado 1.

3. A efectos del reconocimiento de la condición de beneficiario, en los supuestos de hijos o menores acogidos a cargo minusválidos, no se exigirá límite de recursos económicos.

### **Artículo 182 bis. Cuantía de las asignaciones**

1. La cuantía de la asignación económica a que se refiere el párrafo a) del artículo 181 será, en cómputo anual, de 291 euros, salvo en los supuestos especiales que se contienen en el apartado siguiente.

Halako kasuetan, onuradunak jasotako sarreraren eta aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen arteko diferentzia izango da esleipenaren urteko kopurua. Zenbateko hori banatu egingo da onuradunaren seme-alaba edo ardurapeko adingabeen artean eta ekonomia-ekitaldi bakoitzaren barruan jasotzeko eskubidea dagoen hilen artean.

Ez da diru-esleipenik aitortuko norberaren kargu den seme-alaba edo norberaren kargu harturiko adingabeagatik baldin eta aurreko paragrafoan aipaturiko diferentzia txikiagoa baldin bada 182 bis artikuluko 1. zerbakian minusbaliatua ez den seme-alaba edo ardurapeko adingabe bakoitzeko ezarritako esleipenaren zenbatekoa baino.

d) Ez aitak eta ez amak eskubiderik ez izatea izaera bereko prestaziorik jasotzeko gizarte-babeseko beste ezein araubide publikotatik.

2. Orobat izango dira berengatik gurasoei egokituko litzaiekeen esleipenaren onuradun aita- eta ama-zurtzak, 18 urtetik beherakoak badira edo ehuneko 65 edo gehiagoko graduan minusbaliaturik badaude.

Irizpide berari jarraituko zaio umezurtz izan gabe gurasoek abandonatu dituztenen kasuan, baldin eta ez badaude familia-harrera iraunkorren edo adopzio-aurrekoan hartuak.

Orobat izango dira berengatik gurasoei legozkiekeen esleipenen onuradun judizialki ezgaitu ez diren eta jarduteko gaitasuna gordetzen duten hemezortzi urtetik gorako seme-alaba minusbaliatuak.

Minusbaliatuak ez diren adingabeen kasuan, ezinbesteko betekizuna izango da haien diru-sarrek —umezurtz-pentsioa barne, hala badagokio— ez gainditzea 1. zerbakiko c) letran ezarritako muga.

3. Onuradun-izaera aitortzeari begira, seme-alaba edo harrerako adingabe minusbaliatuen kasuan, ez da diru-baliabideen mugarik galdatuko.

## **182 bis artikulua. Esleipenen zenbatekoa**

1. Lege honen 181. artikuluko a) paragrafoan adierazitako diru-esleipenaren zenbatekoa, urteko konputuan, 291 euro izango da, hurrengo artikuluan adierazitako kasu berezietan izan ezik.

2. En los casos en que el hijo o menor acogido a cargo tenga la condición de discapacitado, el importe de la asignación económica será, en cómputo anual, el siguiente:

a) 1.000 euros cuando el hijo o menor acogido a cargo tenga un grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento.

b) 4.076,40 euros, cuando el hijo a cargo sea mayor de 18 años y esté afectado por una discapacidad en un grado igual o superior al 65 por 100.

c) 6.115,20 euros, cuando el hijo a cargo, sea mayor de 18 años, esté afectado por una discapacidad en un grado igual o superior al 75 por 100 y, como consecuencia de pérdidas anatómicas o funcionales, necesite el concurso de otra persona para realizar los actos más esenciales de la vida, tales como vestirse, desplazarse, comer o análogos.

#### **Artículo 182 ter. Determinación del grado de discapacidad y de la necesidad del concurso de otra persona**

El grado de minusvalía, a efectos del reconocimiento de las asignaciones por hijo o menor acogido minusválido a cargo, así como la situación de dependencia y la necesidad del concurso de otra persona a que se refiere el apartado 2.c), del artículo anterior, se determinarán mediante la aplicación del baremo aprobado por el Gobierno mediante real decreto.

#### **Artículo 183. Declaración y efectos de las variaciones familiares**

1. Todo beneficiario estará obligado a declarar cuantas variaciones se produzcan en su familia, siempre que éstas deban ser tenidas en cuenta a efectos del nacimiento, modificación o extinción del derecho.

En ningún caso será necesario acreditar documentalmente aquellos hechos o circunstancias, tales como el importe de las pensiones y subsidios, que la Administración de la Seguridad Social deba conocer por sí directamente.

Todo beneficiario estará obligado a presentar, dentro del primer trimestre de cada año, una declaración expresiva de los ingresos habidos durante el año anterior.

2. Cuando se produzcan las variaciones a que se refiere el apartado anterior, surtirán efecto, en caso de nacimiento del derecho, a partir del día primero del trimestre natural inmediatamente siguiente a la fecha en que se haya solicitado



2. Seme-alaba edo ardurapeko adingabea desgaitua den kasuetan, diru-esleipenaren zenbatekoa, urteko konputuan, hau izango da:

a) 1.000 euro, seme-alabak edo ardurapeko adingabeak ehuneko 33 edo gehiagoko desgaitasuna badu.

b) 4.076,40 euro, seme-alaba 18 urtetik gorakoa bada eta ehuneko 65 edo gehiagoko desgaitasuna badu.

c) 6.115,20 euro, seme-alaba 18 urtetik gorakoa bada, ehuneko 75 edo gehiagoko desgaitasuna badu eta, galera anatomiko edo funtzionalen ondorioz, beste pertsona baten beharra badu bizitzako egintzarik funtsezkoenak egiteko, hala nola jantzi, mugitu, jan eta gisakoak.

### **182 ter artikulua. Desgaitasun-graduaren eta besteren beharraren zehaztapena**

Gobernuak errege-dekretu bidez onetsitako baremoa aplikatuz zehaztuko da zenbatekoa den minusbaliotasun-gradua, norberaren kargu den seme-alaba edo norberaren kargu harturiko adingabe minusbaliatuagatik esleipenak aitortzearen ondorioetarako, eta orobat aurreko artikuluko 2.c zerbakian adierazitako besteren mendekotasuna.

### **183. artikulua. Familiako aldaketen adierazpena eta efektuak**

1. Onuradun oro beharturik dago bere familian gertatzen diren aldaketa guztien berri ematera, aldaketok kontuan hartu beharrekoak badira eskubidearen sorrera, aldaketa edo azkentzearen ondorioetarako.

Ezein kasutan ez da beharrezko izango agiri bidez egiaztatzea Gizarte Segurantzak berez jakin beharreko egitate edo inguruabarrak, hala nola pentsio eta subsidioen zenbatekoa.

Onuradun orok nahitaez aurkeztu beharko du, urteko lehen hiruhilekoaren barruan, aurreko ekitaldian izandako diru-sarreraren aitortzea.

2. Aurreko zerbakian adierazitako aldaketak gertatzen direnean, eskubidea aitortzeko eskatu den dataren ondorengo hilaren lehen egunetik aurrera hasiko dira haien efektuak, eskubidea sortu den kasuan; eskubidea azkentzearen ka-

el reconocimiento del mismo y, en caso de extinción del derecho, tales variaciones no producirán efecto hasta el último día del trimestre natural dentro del cual se haya producido la variación de que se trate.

#### **Artículo 184. Devengo y abono**

1. Las asignaciones económicas por hijo o menor acogido a cargo se devengarán en función de las mensualidades a que, dentro de cada ejercicio económico, tenga derecho el beneficiario.

2. El abono de las asignaciones económicas por hijo o menor acogido a cargo se efectuará con la periodicidad que se establezca en las normas de desarrollo de esta Ley.

Subsección 2.<sup>a</sup> Prestación económica de pago único a tanto alzado por nacimiento o adopción de hijo en supuestos de familias numerosas, monoparentales y en los casos de madres discapacitadas

#### **Artículo 185. Beneficiarios**

1. En los casos de nacimiento o adopción de hijo en España en una familia numerosa o que, con tal motivo, adquiera dicha condición, en una familia monoparental o en los supuestos de madres que padezcan una discapacidad igual o superior al 65 por ciento, se tendrá derecho a una prestación económica del sistema de la Seguridad Social, en la cuantía y en las condiciones que se establecen en los siguientes apartados.

A los efectos de la consideración de la familia numerosa, se estará a lo dispuesto en la Ley 40/2003, de 18 de noviembre, de Protección a las Familias Numerosas.

Se entenderá por familia monoparental la constituida por un solo progenitor con el que convive el hijo nacido o adoptado y que constituye el sustentador único de la familia.

2. A efectos de la consideración de beneficiario de la prestación será necesario que el padre, la madre o, en su defecto, la persona que reglamentariamente se establezca, reúna los requisitos establecidos en los párrafos a), c) y d) del apartado 1 del artículo 182.

En el supuesto de convivencia del padre y de la madre si la suma de los ingresos percibidos por ambos superase los límites establecidos en el párrafo c), apartado 1, del artículo 182, no se reconocerá la condición de beneficiario a ninguno de ellos.

suan, berriz, aldaketek ez dute efekturik izango gertatu diren hiruhileko naturalaren azken egunera arte.

#### **184. artikulua. Sorrazpena eta ordainketa**

1. Onuradunak zenbat hilabete-saritarako eskubidea duen ekitaldi ekonomiko bakoitzean, horren arabera sorrazaziko dira norberaren kargu den seme-alaba edo norberaren kargu harturiko adingabeagatiko diru-esleipenak.

2. Lege hau garatzeko arauetan ezartzen den aldizkakotasunez ordainduko dira norberaren kargu den seme-alaba edo norberaren kargu harturiko adingabeagatiko diru-esleipenak.

2. azpiatala. Familia ugarien, guraso bakarreko familien eta ama desgaituen kasuan seme-alaba bat jaio edo adoptatzeagatik ordainaldi bakarrean ematen den oroharreko diru-prestazioa

#### **185. artikulua. Onuradunak**

1. Espainian seme-alabaren bat izaten edo adoptatzen duen familia ugaria bada edo hori egitean ugari bihurtzen bada, guraso bakarrekoa bada edo amak ehuneko 65 edo gehiagoko desgaitasuna badu, familia horrek eskubidea izango du Gizarte Segurantzako sistemaren diru-prestazio bat jasotzeko, ondorengo zenbakietan ezarritako zenbatekoan eta haietan ezarritako baldintzen arabera.

Familia ugaria izateari dagozkionetan, Familia Ugarien Babeserako 2003ko azaroaren 18ko 40/2003 Legeak xedatutakoari jarraituko zaio.

Familia gurasobakartzat hartuko da guraso batek osatutakoa, jaiotako edo adoptatutako umea harekin bizi bada eta bera bada familiari eusten dion bakarra.

2. Prestazioaren onuradun aitortzearen ondorioetarako, beharrezko izango da aitak, amak edo halakorik ezean erregelamenduz ezartzen den pertsonak 182. artikuluko 1. zenbakiko a), c) eta d) letretan ezarritako betekizunak betezea.

Aita eta ama elkarrekin bizi diren kasuan, bien diru-sarreraren baturak 182. artikuluko 1. zenbakiaren c) letretan ezarritako mugak gainditzen baditu, ez zaio onuradun-izaera aitortuko ez batari eta ez besteari.

## Artículo 186. Cuantía de la prestación

1. La prestación por nacimiento o adopción de hijo, regulada en la presente Subsección, consistirá en un pago único de 1.000 euros.

2. En los casos en que los ingresos anuales percibidos, por cualquier naturaleza, superando el límite establecido en el párrafo c), apartado 1, del artículo 182, sean inferiores al importe conjunto que resulte de sumar a dicho límite el importe de la prestación, la cuantía de esta última será igual a la diferencia entre los ingresos percibidos por el beneficiario y el indicado importe conjunto.

No se reconocerá la prestación en los supuestos en que la diferencia a que se refiere el párrafo anterior sea inferior al importe mensual de la asignación, por cada hijo o acogido no discapacitado, establecida en el apartado 1 del artículo 182 bis.

### Subsección 3.<sup>a</sup> Prestación por parto o adopción múltiples

## Artículo 187. Beneficiarios

Serán beneficiarios de la prestación económica por parto o adopción múltiples producidos en España las personas, padre o madre o, en su defecto, la persona que reglamentariamente se establezca, que reúna los requisitos establecidos en los párrafos a) y d) del apartado 1 del artículo 182.

Se entenderá que existe parto o adopción múltiple cuando el número de nacidos o adoptados sea igual o superior a dos.

## Artículo 188. Cuantía

La cuantía de la prestación económica por parto o adopción múltiples será la siguiente:

Número de hijos nacidos o adoptados	Número de veces el salario mínimo interprofesional
2	4
3	8
4 y más	12

## 186. artikulua. Prestazioen zenbatekoa

1. Seme-alaba bat jaio edo adoptatzeagatiko prestazioa, azpiatal honetan arautua, 1.000 euroren ordainketa bakar batean emango da.

2. Baldin eta urtean jasotako edozein izaeratako diru-sarrerak, 182. artikuluko 1. zenbakiko c) letran ezarritako muga gainditurik ere, gutxiago baldin badira muga horri prestazioaren zenbatekoa gehituta ateratzen den kopuru bateratua baino, kopuru bateratu horri onuradunaren diru-sarrerak kenduta gelditzen den diferentzia izango da prestazioaren zenbatekoa.

Ez da prestaziorako eskubiderik aitortuko aurreko paragrafoan adierazitako diferentzia txikiagoa baldin bada 182 bis artikuluko 1. zenbakian desgaitua ez den seme edo adingabe bakoitzeko ezarritako hilabeteko esleipena baino.

3. azpiatala. Erditze edo adopzio anizkoitzeko prestazioa

## 187. artikulua. Onuradunak

Espanian gertatutako erditze edo adopzio anizkoitzeko diru-prestazioaren onuradun izango da aita, ama edo halakorik ezean erregelamenduz ezartzen den pertsona, betiere 182. artikuluko 1. zenbakiko a) eta d) letretan ezarritako betekizunak betetzen dituena.

Jaiotakoak edo adoptatutakoak bi edo gehiago direnean da anizkoitza erditzea edo adopzioa.

## 188. artikulua. Zenbatekoa

Hau izango da erditze edo adopzio anizkoitzeko diru-prestazioaren zenbatekoa:

Jaiotako edo adoptatutako haurrak	Zenbat bider lanbide arteko gutxieneko soldata
2	4
3	8
4 edo gehiago	12

Subsección 4.<sup>a</sup> Prestación económica por nacimiento o adopción de hijo  
[Derogada]

Subsección 5.<sup>a</sup> Disposiciones comunes

**Artículo 189. Incompatibilidades**

1. En el supuesto de que en el padre y la madre concurran las circunstancias necesarias para tener la condición de beneficiarios de las prestaciones reguladas en la presente sección, el derecho a percibirla sólo podrá ser reconocido en favor de uno de ellos.

2. Las prestaciones reguladas en la presente sección serán incompatibles con la percepción, por parte del padre o la madre, de cualquier otra prestación análoga establecida en los restantes regímenes públicos de protección social.

En los supuestos en que uno de los padres esté incluido, en razón de la actividad desempeñada o por su condición de pensionista en un régimen público de Seguridad Social, la prestación correspondiente será reconocida por dicho régimen.

3. La percepción de las asignaciones económicas por hijo discapacitado a cargo, establecidas en el apartado 2, párrafos b) y c), del artículo 182 bis, será incompatible con la condición, por parte del hijo, de pensionista de invalidez o jubilación en la modalidad no contributiva.

**Artículo 190. [Derogado]**

CAPÍTULO X

**Disposiciones comunes del Régimen General**

SECCIÓN PRIMERA

*Mejoras voluntarias de la acción protectora del Régimen General*

**Artículo 191. Mejoras de la acción protectora**

1. Las mejoras voluntarias de la acción protectora de este Régimen General podrán efectuarse a través de:

- a) Mejora directa de las prestaciones.
- b) Establecimiento de tipos de cotización adicionales.

4. azpiatala. Seme-alaba bat jaio edo adoptatzeagatiko diru-prestazioa  
[Derogatua]

5. azpiatala. Xedapen erkideak

### 189. artikulua. Bateriaezintasanak

1. Aitak eta amak, biek, biltzen badituzte atal honetan araututako prestazioen onuradun izateko behar diren inguruabarrak, haietako bakar bati aitortu ahal izango zaio prestazioa jasotzeko eskubidea.

2. Atal honetan araututako prestazioekin bateraezina izango da gizarte-babeseko gainerako araubide publikoetan ezarritako antzeko beste edozein prestazio jasotzea aitak edo amak.

Gurasoetako bat Gizarte Segurantzaren araubide publiko batean sarturik badago, egiten duen jardueragatik edo pentsiodun izateagatik, araubide horrek aitortuko dio dagokion prestazioa.

3. Seme edo alaba desgaitu bat norberaren ardurapean izateagatik dagokion diru-esleipena jasotzea, 182 bis artikuluko 2. zenbakiko b) eta c) paragrafoetan ezarria, bateraezina izango da seme edo alaba hori ekarpenezko ez den alderako baliaezintasun-pentsioduna edo erretiro-pentsioduna izatearekin.

### 190. artikulua. [Derogatua]

## X. KAPITULUA

### Araubide Orokorren xedapen erkideak

#### LEHEN ATALA

#### *Araubide Orokorren babes-jarduna borondatez hobetzea*

### 191. artikulua. Babes-jardunaren hobekuntzak

1. Araubide Orokorren babes-jardunaren borondatezko hobekuntzak honela egin ahal izango dira:

- a) Prestazioak zuzenean hobetuz.
- b) Kotizazio-tasa gehigarriak ezarriz.

2. La concesión de mejoras voluntarias por las empresas deberá ajustarse a lo establecido en esta sección y en las normas dictadas para su aplicación y desarrollo.

### **Artículo 192. Mejora directa de las prestaciones**

Las empresas podrán mejorar directamente las prestaciones de este Régimen General, costeándolas a su exclusivo cargo. Por excepción, y previa aprobación del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, podrá establecerse una aportación económica a cargo de los trabajadores, siempre que se les faculte para acogerse o no, individual y voluntariamente, a las mejoras concedidas por los empresarios con tal condición.

No obstante el carácter voluntario, para los empresarios, de la implantación de las mejoras a que este artículo se refiere, cuando al amparo de las mismas un trabajador haya causado el derecho a la mejora de una prestación periódica, ese derecho no podrá ser anulado o disminuido, si no es de acuerdo con las normas que regulan su reconocimiento.

### **Artículo 193. Modos de gestión de la mejora directa**

1. Las empresas, en las condiciones que reglamentariamente se determinen, podrán realizar la mejora de prestaciones a que se refiere el artículo anterior, por sí mismas o a través de la Administración de la Seguridad Social, Fundaciones Laborales, Montepíos y Mutualidades de Previsión Social o Entidades aseguradoras de cualquier clase.

2. Las Fundaciones Laborales legalmente constituidas para el cumplimiento de los fines que les sean propios gozarán del trato fiscal y de las demás exenciones concedidas, en los términos que las normas aplicables establezcan.

### **Artículo 194. Mejora por establecimiento de tipos de cotización adicionales**

El Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, a instancia de los interesados, podrá aprobar cotizaciones adicionales efectuadas mediante el aumento del tipo de cotización al que se refiere el artículo 107, con destino a la revalorización de las pensiones u otras prestaciones periódicas ya causadas y financiadas con cargo al mismo o para mejorar las futuras.



2. Enpresek borondatezko hobekuntzak ematekotan, atal honetan eta berau aplikatu eta garatzeko arauetan ezarritakoari atxikiko zaizkio hobekuntza horiek.

## **192. artikulua. Prestazioak zuzenean hobetzea**

Enpresek aukera izango dute Araubide Orokorreko prestazioak zuzenean hobetzeko, haien kostu osoa beren gain hartuz. Salbuespenez, eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak aurrez onespena emanik, langileen konturako diru-ekarpen bat ezarri ahal izango da, betiere langileoi aukera ematen bazaie enpresaburuek baldintza horrekin emandako hobekuntza hartzeko edo ez hartzeko, banaka eta beren borondatez.

Enpresaburuentzat borondatezkoa izanik ere artikulua honen gai diren hobekuntzak ezartzea, hobekuntza horien ondorioz langileren batek aldizkako prestazio bat hobetzeko eskubidea bereganatu badu, eskubide hori ezin izango da inoiz ezeztatu edo murriztu, ez bada eskubide hori aitortzea arautzen duten arauekin bat etorritz.

## **193. artikulua. Zuzeneko hobekuntza kudeatzeko moduak**

1. Enpresek aukera izango dute, erregelamenduz ezartzen den moduan, aurreko artikuluairen gai diren prestazio-hobekuntzak egiteko, beren kabuz edo Gizarte Segurantzaren Administrazioaren bitartez, montepio eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen bitartez edo edozein eratako aseguru-entitateen bitartez.

2. Beren eginkizunetarako legez eraturako lan-fundazioek, aplikatzekoak zaizkien arauetan ezarritako moduan, ematen zaien zerga-tratamendua eta gainerako salbuespenak izango dituzte.

## **194. artikulua. Kotizazio-tasa gehigarriak ezartzearen bidezko hobekuntza**

Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, interesdunen eskariz, kotizazio gehigarriak onetsi ahal izango ditu, 107. artikuluan adierazitako kotizazio-tasa handituz, sortuta eta finantzatuta dauden pentsioak edo bestelako aldizkako prestazioak haren kontura balioberritzearen edo etorkizunekoak hobetzearen.

## SECCIÓN SEGUNDA

### *Disposiciones sobre Seguridad e Higiene en el Trabajo en el Régimen General*

#### **Artículo 195. Incumplimientos en materia de accidentes de trabajo**

El incumplimiento por parte de las empresas de las decisiones de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y de las resoluciones de la Autoridad laboral en materia de paralización de trabajos que no cumplan las normas de seguridad e higiene se equiparára, respecto de los accidentes de trabajo que en tal caso pudieran producirse, a falta de formalización de la protección por dicha contingencia de los trabajadores afectados, con independencia de cualquier otra responsabilidad o sanción a que hubiera lugar.

#### **Artículo 196. Normas específicas para enfermedades profesionales**

1. Todas las empresas que hayan de cubrir puestos de trabajo con riesgo de enfermedades profesionales están obligadas a practicar un reconocimiento médico previo a la admisión de los trabajadores que hayan de ocupar aquellos y a realizar los reconocimientos periódicos que para cada tipo de enfermedad se establezcan en las normas que, al efecto, dictará el Ministerio de Trabajo y Seguridad Social.

2. Los reconocimientos serán a cargo de la empresa y tendrán el carácter de obligatorios para el trabajador, a quien abonará aquélla, si a ello hubiera lugar, los gastos de desplazamiento y la totalidad del salario que por tal causa pueda dejar de percibir.

3. Las indicadas empresas no podrán contratar trabajadores que en el reconocimiento médico no hayan sido calificados como aptos para desempeñar los puestos de trabajo de las mismas de que se trate. Igual prohibición se establece respecto a la continuación del trabajador en su puesto de trabajo cuando no se mantenga la declaración de aptitud en los reconocimientos sucesivos.

4. Las disposiciones de aplicación y desarrollo determinarán los casos excepcionales en los que, por exigencias de hecho de la contratación laboral, se pueda conceder un plazo para efectuar los reconocimientos inmediatamente después de la iniciación del trabajo.

#### **Artículo 197. Responsabilidades por falta de reconocimientos médicos**

1. Las Entidades gestoras y las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social están obligadas, antes de tomar

**195. artikulua. Lan-istripuen arloko ez-betetzeak**

Enpresek ez badituzte betetzen segurtasun- eta higiene-arauak betetzen ez dituzten lanak geldiarazteko Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak hartutako erabakiak eta lan-agintaritzak emandako ebazpenak, ez-betetze hori, halakoetan gerta litezkeen lan-istripuei dagokienez, eraginpeko langileek gertagarri horretarako babesa formalizatu gabe izatearen pareko izango da, hargatik eragotzi gabe izan litekeen beste edozein erantzukizun edo zehapen.

**196. artikulua. Laneko gaixotasunetarako berariazko arauak**

1. Laneko gaixotasunen arriskua duten lanpostuak bete beharra daukaten enpresa guztiak beharturik daude postu horietan ari behar duten langileak hartu aurretik langileoi mediku-azterketa egitera, eta orobat aldi behingo azterketak egitera, gaixotasun mota bakoitzerako Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak emango dituen arauetan ezarritakoaren arabera.

2. Mediku-azterketak enpresaren kontura izango dira, eta nahitaezkoak izango dira langilearentzat; hala badagokio, azterketa egiteak dakartzkion bidaia-gastuak eta azterketa horretara joateagatik jaso gabe gelditu den soldata osotara ordaindu beharko dizkio enpresak langileari.

3. Mediku-azterketan delako lanpostua betetzeko egokitzen jo ez den langilerik ezin kontratatuko dute enpresek. Debeku bera ezartzen da langileak bere lanpostuan jarraitzeari dagokionez, aldi aldiko mediku-azterketetan lanposturako egokitasunaren deklarazioari eusten ez bazaio.

4. Lege hau aplikatzeko eta garatzeko xedapenetan ezarriko da salbuespe-nezko zer kasutan eman ahal izango den epe bat, langile-kontratazioaren izatezko beharkizunak direla medio, mediku-azterketak lanean hasi ondoren egiteko, berehala.

**197. artikulua. Mediku-azterketarik ezagatik erantzukizunak**

1. Entitate kudeatzaileak eta lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuek aurreko artikuluan adierazitako aurretiazko mediku-azterketaren emai-

a su cargo la protección por accidente de trabajo y enfermedad profesional del personal empleado en industrias con riesgo específico de esta última contingencia, a conocer el certificado del reconocimiento médico previo a que se refiere el artículo anterior, haciendo constar en la documentación correspondiente que tal obligación ha sido cumplida. De igual forma deberán conocer las entidades mencionadas los resultados de los reconocimientos médicos periódicos.

2. El incumplimiento por parte de la empresa de la obligación de efectuar los reconocimientos médicos previos o periódicos la constituirá en responsable directa de todas las prestaciones que puedan derivarse, en tales casos, de enfermedad profesional, tanto si la empresa estuviera asociada a una Mutua de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales, como si tuviera cubierta la protección de dicha contingencia en una entidad gestora.

3. El incumplimiento por las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de lo dispuesto en el apartado 1 de este artículo les hará incurrir en las siguientes responsabilidades:

a) Obligación de ingresar a favor de los fines generales de prevención y rehabilitación, a que se refiere el artículo 73 de la presente Ley, el importe de las primas percibidas, con un recargo que podrá llegar al 100 por 100 de dicho importe.

b) Obligación de ingresar, con el destino antes fijado, una cantidad igual a la que equivalgan las responsabilidades a cargo de la empresa, en los supuestos a que se refiere el apartado anterior de este artículo, incluyéndose entre tales responsabilidades las que procedan de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 123 de esta Ley.

c) Anulación, en caso de reincidencia, de la autorización para colaborar en la gestión.

d) Cualesquiera otras responsabilidades que procedan de acuerdo con lo dispuesto en esta Ley y en sus disposiciones de aplicación y desarrollo.

## CAPÍTULO XI

### Gestión

#### Artículo 198. Gestión y colaboración en la gestión

La gestión del Régimen General de la Seguridad Social, así como la colaboración en la gestión por parte de las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social y empresas, se regirá por lo dispuesto en el capítulo VII del Título I de la presente Ley.

tzaren berri izan beharra daukate, nahitaez, laneko gaixotasunak izateko berriarriazko arriskua duten industrietan enplegatutako langileen lan-istripu eta laneko gaixotasunengatik babesa bere gain hartu aurretik, eta dagozkion agirietan agerrarazi behar dute betekizun hori bete dutela. Orobat, aipatutako entitateek jakin beharra daukate aldizkako mediku-azterketen emaitzen berri.

2. Aurretiazko edo aldizkako mediku-azterketak egitera beharturik dagoen enpresak betebeharrak hori betetzen ez badu, bera izango da halako kasuetan laneko gaixotasunetik erator litezkeen prestazio guztien erantzule zuzen, izan enpresa lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutua batean elkartua, edo izan gertagarri horren babesa entitate kudeatzaile batekin estalia.

3. Lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuek, artikuluko honen 1. zenbakian xedaturikoa betetzen ez badute, honako erantzukizun hauek izango dituzte:

a) Lege honen 73. artikuluan azaldutako prebentzio- eta birgaitze-xede orokorretarako ordaintzea jasotako primen zenbatekoa eta haren errekarua —inoiz ez zenbateko horren ehuneko 100 baino handiagoa—.

b) Aurreko letran adierazitako xede berarekin, enpresaren gain doazen erantzukizunen baliokide den kopuru bat ordaintzea, artikuluko honen aurreko zenbakian adierazitako kasuetan, erantzukizun horien artean direla lege honen 123. artikuluan xedatutakoaren arabera dagozkionak.

c) Berrerortzea gertatzen den kasuan, kudeaketan laguntzeko baimena kentzea.

d) Lege honetan eta berau aplikatzeko eta garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera dagozkion beste erantzukizun guztiak.

## XI. KAPITULUA

### Kudeaketa

#### 198. artikulua. Kudeaketa eta kudeaketan laguntzea

Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorraren kudeaketa, eta orobat lan-istripu eta laneko gaixotasunen mutuek eta enpresek hartan laguntzeari dagokiona, lege honen I. tituluko VII. kapituluan xedaturikoak eraenduko du.

### **Artículo 199. Conciertos para la prestación de servicios administrativos y sanitarios**

Para el mejor desempeño de sus funciones, los organismos de la Administración de la Seguridad Social, de acuerdo con sus respectivas competencias, podrán concertar con entidades públicas o privadas, la mera prestación de servicios administrativos, sanitarios o de recuperación profesional. Los conciertos que al efecto se establezcan serán aprobados por los Departamentos ministeriales competentes y la compensación económica que en los mismos se estipule no podrá consistir en la entrega de un porcentaje de las cuotas de este Régimen General ni entrañar, en forma alguna, sustitución en la función gestora encomendada a aquellos organismos.

## **CAPÍTULO XII**

### **Régimen financiero**

### **Artículo 200. Sistema financiero**

El sistema financiero del Régimen General de la Seguridad Social será el previsto en el artículo 87 de la presente Ley, con las particularidades que, en materia de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales, se establecen en el artículo siguiente.

### **Artículo 201. Normas específicas en materia de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales**

1. Las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social y, en su caso, las empresas responsables constituirán en la Tesorería General de la Seguridad Social, hasta el límite de su respectiva responsabilidad, el valor actual del capital coste de las pensiones que, con arreglo a esta Ley, se causen por incapacidad permanente o muerte debidas a accidente de trabajo o enfermedad profesional. El Ministerio de Trabajo e Inmigración aprobará las tablas de mortalidad y la tasa de interés aplicables para la determinación de los valores aludidos.

2. En relación con la protección de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales a que se refiere el presente artículo, el Ministerio de Trabajo e Inmigración podrá establecer la obligación de las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de reasegurar en la Tesorería General de la Seguridad Social el porcentaje de los riesgos asumidos que se determine, sin que, en

## **199. artikulua. Administrazio- eta osasun-zerbitzuak emateko hitzarmenak**

Beren eginkizunak hobeto betetzearren, Gizarte Segurantzaren Administrazio-organismoei, bakoitzak bere eskumenen arabera, hitzarmenak egin ahal izango dituzte entitate publiko edo pribatuekin, administrazio-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak eta lanerako birgaitzeko zerbitzuak emateko eta ez bestetarako. Horretarako egiten diren hitzarmenak ministerio eskumendunek onetsi beharko dituzte, eta haietan jartzen den diru-konpentsazioa ezin izango da Araubide orokor honetako kuoten ehuneko bat ematea, ez eta organismo horiei gomendatutako kudeaketa-funtzioa ordeztzea eragin ere, inolaz.

## XII. KAPITULUA

### **Finantza-araubidea**

#### **200. artikulua. Finantza-sistema**

Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorren finantza-sistema lege honen 87. artikuluan aurreikusirikoa izango da, hurrengo artikuluan lan-istripuen eta laneko gaixotasunen gairako ezartzen diren berezitasunekin.

#### **201. artikulua. Lan-istripuei eta laneko gaixotasunei dagozkien berariazko arauak**

1. Gizarte Segurantzako lan-istripu eta laneko gaixotasunen mutuek eta, hala badagokio, enpresa erantzuleek, bakoitzak bere erantzukizunaren mugaraino, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian eratuko dute lege honen arabera lan-istripu edo laneko gaixotasunaren ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko edo heriotzagatiko pentsioen kostuari dagozkion kapitalaren unean uneko balioa. Lan eta Immigrazio Ministerioak onetsiko ditu aipaturiko balioak zehazteko aplikatu behar diren hilkortasun-taulak eta interes-tasa.

2. Artikulu honen gai den lan-istripuen eta laneko gaixotasunen babesari dagozkionez, Lan eta Immigrazio Ministerioak betebehartzat ezarri ahal izango die lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuei Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian berraseguratzea beren gain harturiko arriskuen ehuneko bat —erabakitzen dena; ezein kasutan ez ehuneko 10 baino handiagoa, ez ehu-

ningún caso, sea inferior al 10 por 100 ni superior al 30 por 100. A tales efectos, se incluirán en la protección por reaseguro obligatorio exclusivamente las prestaciones de carácter periódico derivadas de los riesgos de incapacidad permanente, muerte y supervivencia que asuman respecto de sus trabajadores protegidos, correspondiendo, como compensación, a dicho Servicio Común el porcentaje de las cuotas satisfechas por las empresas asociadas por tales contingencias y que se determine por el Ministerio de Trabajo e Inmigración. Dicho reaseguro no se extenderá a prestaciones que fueren anticipadas por las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales, sin perjuicio de sus derechos tanto a repetir frente al empresario responsable de tales prestaciones como, en caso de declaración de insolvencia del empresario, a ser reintegradas en su totalidad por las Entidades de la Seguridad Social en funciones de garantía.

En relación con el exceso de pérdidas, no reaseguradas de conformidad con el párrafo anterior, las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales constituirán los oportunos depósitos o concertarán, facultativamente, reaseguros complementarios de los anteriores en las condiciones que se establezcan.

El Ministerio de Trabajo e Inmigración podrá disponer la sustitución de las obligaciones que se establecen en el presente apartado por la aplicación de otro sistema de compensación de resultados de la gestión de la protección por accidentes de trabajo y enfermedades profesionales.

3. Las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales o, en su caso, las empresas responsables de las prestaciones deberán ingresar en la Tesorería General de la Seguridad Social los capitales en la cuantía necesaria para constituir una renta cierta temporal durante veinticinco años, del 30 por 100 del salario de los trabajadores que mueran por consecuencia mediata o inmediata de accidente de trabajo o enfermedad profesional sin dejar ningún familiar con derecho a pensión.

## CAPÍTULO XIII

### Aplicación de las normas generales del Sistema

#### Artículo 202. Derecho supletorio

En lo no previsto expresamente en el presente Título se estará a lo dispuesto en el Título I de esta Ley, así como en las disposiciones que se dicten para su aplicación y desarrollo.



neko 30 baino txikiagoa—. Ondorio horietarako, nahitaezko berrasegurua-  
ren babesean sartuko dira, soil-soilik: ezintasun iraunkorreko eta heriotza eta  
biziraupeneko arriskuetatik eratorritako aldizkako prestazioak, mutuek be-  
ren langile babestuei dagokienez beren gain hartzen dituztenak; konpentsazio  
gisa, zerbitzu erkide horri dagokio enpresa elkartuek gertagarri horiengatik or-  
daindutako kuoten ehuneko bat, Lan Immigrazio Ministerioak erabakia. Ber-  
raseguru hori ez da hedatuko lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuek  
aurreratzen dituzten prestazioletara; hala ere, mutuek eskubidea izango dute,  
bai prestazio horien erantzule den enpresaburuaren aurrean berreskatzeko, bai,  
3. Cuando el trabajador esté percibiendo la prestación de desempleo total y pase a la situación de incapacidad temporal que constituya recaída de un proceso anterior iniciado durante la vigencia de un contrato de trabajo, percibirá la prestación por esta contingencia en cuantía igual a la prestación por desempleo. En este caso, y en el supuesto de que el trabajador continuase en situación de incapacidad temporal una vez finalizado el período de duración establecido inicialmente para la prestación por desempleo, seguirá percibiendo la prestación por incapacidad temporal en la misma cuantía en la que la venía percibiendo.

Cuando el trabajador esté percibiendo la prestación de desempleo total y pase a la situación de incapacidad temporal que no constituya recaída de un proceso anterior iniciado durante la vigencia de un contrato de trabajo, percibirá la prestación por esta contingencia en cuantía igual a la prestación por desempleo. En este caso, y en el supuesto de que el trabajador continuase en situación de incapacidad temporal una vez finalizado el período de duración establecido inicialmente para la prestación por desempleo, seguirá percibiendo la prestación por incapacidad temporal en cuantía igual al 80 por 100 del indicador público de rentas de efectos múltiples mensual, excluida la parte proporcional de las pagas extras.

Cuando el trabajador esté percibiendo la prestación por desempleo total y pase a la situación de maternidad o de paternidad, percibirá la prestación por estas últimas contingencias en la cuantía que corresponda.

El período de percepción de la prestación por desempleo no se ampliará por la circunstancia de que el trabajador pase a la situación de incapacidad temporal. Durante dicha situación, la Entidad Gestora de las prestaciones por



hasiko da, kasu horretan deskontatu behar ez duela lan-kontratua amaituz geroztik aldi baterako ezintasun-egoeran emandako denborari dagokiona, edo langabezia-subsidioa.

2. Langilea amatasun- edo aitatasun-egoeran dagoen bitartean azkentzen bada lan-kontratua, 208. artikuluko 1. zenbakian aurreikusitako kausetakoren batengatik, amatasun- edo aitatasun-prestazioa jasotzen jarraituko du egoera horiek amaitu arte; amaitzean, legezko langabezia-egoerara pasatuko da eta, betekizunak betetzen baditu, dagokion prestazioa jasotzen hasiko da. Kasu horretan, ekarpenezko langabezia-prestazioa jasotzeko alditik ez da deskontatuko amatasun- edo aitatasun-egoeran emandako denbora.

3. Langilea erabateko langabeziaren prestazioa jasotzen ari bada eta aldi baterako ezintasun-egoerara pasatzen bada, eta egoera hori lan-kontratua indarrean zen bitartean hasitako prozesu baten berrerortzea baldin bada, gertagarri horrengatik dagokion prestazioa jasoko du, langabezia-prestazioaren kopuru berekoa. Kasu horretan, eta langabezia-prestaziorako hasiera batean ezarritako epea amaitutakoan langileak aldi baterako ezintasun-egoeran jarraitzen badu, aldi baterako ezintasunagatik prestazioa jasotzen jarraituko du, jasotzen ari zeneren kopuru berekoa.

Langilea erabateko langabeziaren prestazioa jasotzen ari bada eta aldi baterako ezintasun-egoerara pasatzen bada, eta egoera hori lan-kontratua indarrean zen bitartean hasitako prozesu baten berrerortzea ez baldin bada, gertagarri horrengatik dagokion prestazioa jasoko du, langabezia-prestazioaren kopuru berekoa. Halakoetan, eta langileak langabezia-prestaziorako hasiera batean ezarritako aldia amaitutakoan aldi baterako ezintasun-egoeran badirau, aldi baterako ezintasunaren prestazioa jasotzen jarraituko du, eta hileko ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren % 80 izango da jasotzeko kopurua, aparteko ordainsarien parte proportzionala kenduta.

Erabateko langabeziagatik prestazioa jasotzen ari bada langilea eta amatasun- edo aitatasun-egoerara pasatzen bada, azken gertagarri horien prestazioa jasoko du, dagokion zenbatekoan.

Langabezia-prestazioa jasotzeko aldia ez da luzatuko langilea aldi baterako ezintasun-egoerara pasatzen delako. Egoera horretan, langabezia-prestazioak kudeatzen dituen erakundeak Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzen

desempleo continuará satisfaciendo las cotizaciones a la Seguridad Social conforme a lo previsto en el párrafo b) del apartado 1 del artículo 206.

Si el trabajador pasa a la situación de maternidad o de paternidad, se le suspenderá la prestación por desempleo y la cotización a la Seguridad Social antes indicada y pasará a percibir la prestación por maternidad o por paternidad, gestionada directamente por su Entidad Gestora. Una vez extinguida la prestación por maternidad o por paternidad, se reanudará la prestación por desempleo, en los términos recogidos en el artículo 212.3.b), por la duración que restaba por percibir y la cuantía que correspondía en el momento de la suspensión.

## CAPÍTULO V

### Régimen financiero y gestión de las prestaciones

#### SECCIÓN PRIMERA

#### *Régimen financiero*

#### **Artículo 223. Financiación**

1. La acción protectora regulada en el artículo 206 de la presente Ley se financiará mediante la cotización de empresarios y trabajadores y la aportación del Estado.

2. La cuantía de la aportación del Estado será cada año la fijada en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado.

#### **Artículo 224. Base y tipo de cotización**

La base de cotización para la contingencia de desempleo, en todos los Regímenes de la Seguridad Social que tengan cubierta la misma, será la correspondiente a las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales. El tipo aplicable a dicha base será el que se establezca, para cada año, en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado.

#### **Artículo 225. Recaudación**

Las cuotas de desempleo, mientras se recauden conjuntamente con las cuotas de Seguridad Social, se liquidarán e ingresarán en la forma, términos y condiciones establecidos para esta últimas.

jarraituko du, 206. artikuluko 1. zenbakiko b) letran aurreikusitakoaren araber.

Langilea amatasun- edo aitatasun-egoerara pasatzen bada, geldieran utziko zaio langabezia-prestazioa eta aipatutako Gizarte Segurantzako kotizazioa, eta amatasun- edo aitatasun-prestazioa jasotzen hasiko da, beraren entitate kudeatzaileak zuzenean kudeaturik. Amatasun- edo aitatasun-prestazioa azkendu-takoan, langabezia-prestazioari berrekingo zaio, 212.3.b) artikuluan jasotako moduan, jasotzeke gelditzen zitzaion denboran eta geldieran utzi zenean zegoen zenbatekoarekin.

## V. KAPITULUA

### Finantza-araubidea eta prestazioen kudeaketa

#### LEHEN ATALA

##### *Finantza-araubidea*

#### **223. artikulua. Finantzaketa**

1. Lege honen 206. artikuluan araututako babes-jarduna enpresaburu eta langileen kotizazioaren eta Estatuaren ekarpenaren bidez finantzatuko da.

2. Estatuaren ekarpenaren zenbatekoa, urtez urte, dagozkion Estatuaren Aurrekontu Orokorretan zehaztuko da.

#### **224. artikulua. Kotizazio-oinarria eta kotizazio-tasa**

Langabeziarako kotizazio-oinarria, gertagarri hori babestuta daukaten Gizarte Segurantzaren araubide guztietan, lan-istripu eta laneko gaixotasunei dago-kiena izango da. Oinarri horri aplikatzekoa zaion tasa, urte bakoitzerako, dagozkion Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean ezarriko da.

#### **225. artikulua. Diru-bilketa**

Langabezia-kuotak, Gizarte Segurantzako kuotekin batera biltzen diren birtartean, azken horientzako ezarritako modu eta baldintzetan likidatuko eta ordainduko dira.

## SECCIÓN SEGUNDA

### *Gestión de las prestaciones*

#### **Artículo 226. Entidad gestora**

1. Corresponde al Instituto Nacional de Empleo gestionar las funciones y servicios derivados de las prestaciones de protección por desempleo y declarar el reconocimiento, suspensión, extinción y reanudación de las prestaciones, sin perjuicio de las atribuciones reconocidas a los órganos competentes de la Administración laboral en materia de sanciones.

2. Las empresas colaborarán con la entidad gestora, asumiendo el pago delegado de la prestación por desempleo en los supuestos y en las condiciones que reglamentariamente se determinen.

#### **Artículo 227. Reintegro de pagos indebidos**

1. Corresponde a la entidad gestora competente, tanto en período voluntario como en vía ejecutiva, exigir la devolución de las prestaciones indebidamente percibidas por los trabajadores y el reintegro de las prestaciones de cuyo pago sea directamente responsable el empresario.

Transcurrido el respectivo plazo fijado para el reintegro de las prestaciones indebidamente percibidas o de responsabilidad empresarial, sin haberse efectuado el mismo, se devengarán por el sujeto responsable de su pago el recargo correspondiente y el interés de demora, en los términos y condiciones que se establecen en el apartado 2 del artículo 27 y en el artículo 28 de esta Ley, respectivamente.

2. A tal efecto, la entidad gestora podrá concertar los servicios que considere convenientes con la Tesorería General de la Seguridad Social o con cualquiera de las Administraciones Públicas.

#### **Artículo 228. Pago de las prestaciones**

1. La entidad gestora deberá dictar resolución motivada, reconociendo o denegando el derecho a las prestaciones por desempleo, en el plazo de los quince días siguientes a la fecha en que se hubiera formulado la solicitud en tiempo y forma.

2. El pago de la prestación será efectuado por la entidad gestora o por la propia empresa, en los supuestos y en las condiciones que reglamentariamente se determinen.

**226. artikulua. Entitate kudeatzailea**

1. Enplegu Institutu Nazionalari dagokio langabezia-babesaren prestaziotik eratorritako funtzio eta zerbitzuak kudeatzea eta prestazioen aitortpena, geldiera, azkentzea eta berrekitea deklaratzeko, hargatik eragotzi gabe zehapenei dagokienez lan-administrazioko organo eskudunek aitortuak dituzten eskudantziak.

2. Enpresek lagundu egingo diote entitate kudeatzaileari, langabezia-prestazioaren ordainketa eskuordetua beren gain hartuz, erregelamenduz ezartzen diren kasu eta baldintzetan.

**227. artikulua. Okerreko ordainketak itzultzea**

1. Entitate kudeatzaile eskumendunari dagokio, hala borondatezko epean nola exekuzio-bidean, langileek oker jasotako prestazioak itzul ditzaten galdatzea, eta ordaintzeko erantzukizuna zuzenean enpresaburuak duen prestazioak itzultzeko galdatzea.

Oker jasotako prestazioak nahiz enpresaburuaren erantzukizun direnak itzultzeko dagokion epea iragan bada itzulketa egin gabe, dagozkion errekargua eta berandutza-interesak sorraraziko zaizkio ordaintzeko erantzukizuna duen subjektuari, lege honen 27. artikuluko 2. zenbakian eta 28. artikuluan ezarritako terminoetan eta baldintzetan.

2. Ondorio horretarako, entitate kudeatzaileak egoki deritzon zerbitzuak hitzartu ahal izango ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza nagusiarekin edo edozein administrazio publikorekin.

**228. artikulua. Prestazioen ordainketa**

1. Entitate kudeatzaileak ebazpen zioduna eman beharko du, langabezia-prestaziorako eskubidea aitortzekoa edo ukatzekoa, behar den epe eta moduan eskaera aurkeztu ondorengo hamabost egunen barruan.

2. Entitate kudeatzaileak edo enpresak berak ordainduko du prestazioa, erregelamenduz ezartzen diren kasu eta baldintzetan.

3. Cuando así lo establezca algún programa de fomento del empleo la Entidad Gestora podrá abonar de una sola vez el valor actual del importe, total o parcial, de la prestación por desempleo de nivel contributivo a que tenga derecho el trabajador y que esté pendiente por percibir.

Asimismo, podrá abonar a través de pagos parciales el importe de la prestación por desempleo de nivel contributivo a que tenga derecho el trabajador para subvencionar la cotización del mismo a la Seguridad Social.

4. Cuando así lo establezca algún programa de fomento al empleo destinado a colectivos con mayor dificultad de inserción en el mercado de trabajo, se podrá compatibilizar la percepción de la prestación por desempleo o del subsidio por desempleo pendientes de percibir con el trabajo por cuenta ajena, en cuyo caso la Entidad Gestora podrá abonar al trabajador el importe mensual de las prestaciones en la cuantía y duración que se determinen, sin incluir la cotización a la Seguridad Social.

En el supuesto previsto en el párrafo anterior, durante el período de percepción de las prestaciones el empresario deberá abonar al trabajador la diferencia entre la prestación o subsidio por desempleo y el salario que le corresponda, siendo, asimismo, responsable de cotizar a la Seguridad Social por el total del salario indicado, incluido el importe de la prestación o subsidio.

Asimismo, con el fin de hacer efectivo el derecho a la formación de trabajadores ocupados, así como de incrementar las posibilidades de empleo de los trabajadores desempleados, se determinarán programas que permitan a las empresas sustituir a los trabajadores en formación por otros trabajadores desempleados beneficiarios de prestaciones por desempleo. En este caso, los trabajadores podrán compatibilizar las prestaciones con el trabajo a que se refiere este apartado.

5. Cuando así lo establezca algún programa de fomento de empleo para facilitar la movilidad geográfica, la Entidad Gestora podrá abonar el importe de un mes de la duración de las prestaciones por desempleo o de tres meses de la duración del subsidio por desempleo, pendientes por percibir, a los beneficiarios de las mismas para ocupar un empleo que implique cambio de la localidad de residencia.

## **Artículo 229. Control de las prestaciones**

Sin perjuicio de las facultades de los servicios competentes en cuanto a inspección y control en orden a la sanción de las infracciones que pudieran come-

3. Enplegua sustatzeko programaren batek hala ezartzen duenean, entitate kudeatzaileak aldi bakar batez ordaindu ahal izango du langileak jasotzeko eskubidea duen eta jasotzeke duen ekarpenezko langabezia-prestazioaren zenbatekoa, guztizkoa edo partziala.

Orobat, ordainketa partzialen bidez ordaindu ahal izango du ekarpenezko langabezia-prestazioaren zenbatekoa, langileak bere Gizarte Segurantzako kotizazioa diruz laguntzeko eskubidea duenean.

4. Lan-merkatuan sartzeko zailtasunik handiena duten taldeei zuzendutako enplegua sustatzeko programaren batek hala eskatzen badu, jasotzeko dagoen langabezia-prestazioa edo langabezia-subsidioa jasotzea bateragarri izango da besteren kontura lan egitearekin; kasu horretan, entitate kudeatzaileak langileari ordaindu ahal izango dizkio hileko prestazioak, erabakitzen den zenbateko eta iraupenez, Gizarte Segurantzako kotizazioa barne hartu gabe.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuan, prestazioak jasotzen diren al-dian, langabezia-prestazio edo -subsidioaren eta dagokion soldataren arteko diferentzia ordaindu beharko dio enpresaburuak langileari; orobat, aipatutako soldata osoari dagokion kotizazioa Gizarte Segurantzari ordaintzeko erantzukizuna izango du, prestazio edo subsidioaren zenbatekoa barne.

Orobat, langile landunen prestakuntza-eskubidea gauzatzeko, eta langabeen enplegu-aukerak handitzeko, zenbait programa jarriko dira enpresek aukera izan dezaten prestakuntzan ari diren langileen ordez lanik gabe dauden eta langabezia-prestazioen onuradun diren beste batzuk hartzeko. Kasu horretan, langileek bateragarri izango dute prestazioak jasotzea eta zenbaki honetan aipatutako lana egitea.

5. Enplegua sustatzeko programaren batek mugigarritasun geografikoa laguntzeko hala ezartzen duenean, entitate kudeatzaileak langabezia-prestazioen hilabete bateko zenbatekoa edo langabezia-subsidioaren hiru hilabeteko zenbatekoa ordaindu ahal izango dizkie oraindik jaso gabe dituzten onuradunei, egoitza duten herritik aldatzea eskatzen duen lan bat hartzeko.

## **229. artikulua. Prestazioen kontrola**

Langabezia-prestazioak jasotzean egin litezkeen arau-hausteak zehatzeko ikuskaritzari eta kontrolari dagokionez zerbitzu eskudunek dituzten ahalmenak

terse en la percepción de las prestaciones por desempleo, corresponde a la entidad gestora controlar el cumplimiento de lo establecido en el presente título y comprobar las situaciones de fraude que puedan cometerse.

## CAPÍTULO VI

### Régimen de obligaciones, infracciones y sanciones

#### Artículo 230. Obligaciones de los empresarios

Son obligaciones de los empresarios:

- a) Cotizar por la aportación empresarial a la contingencia de desempleo.
- b) Ingresar las aportaciones propias y las de sus trabajadores en su totalidad, siendo responsables del cumplimiento de la obligación de cotización.
- c) Proporcionar la documentación e información que reglamentariamente se determinen a efectos del reconocimiento, suspensión, extinción o reanudación del derecho a las prestaciones.
- d) Entregar al trabajador el certificado de empresa, en el tiempo y forma que reglamentariamente se determinen.
- e) Abonar a la entidad gestora competente las prestaciones satisfechas por ésta a los trabajadores cuando la Empresa hubiese sido declarada responsable de la prestación por haber incumplido sus obligaciones en materia de afiliación, alta o cotización.
- f) Proceder, en su caso, al pago delegado de las prestaciones por desempleo.
- g) Comunicar la readmisión del trabajador despedido en el plazo de cinco días desde que se produzca e ingresar en la Entidad Gestora competente las prestaciones satisfechas por ésta a los trabajadores en los supuestos regulados en el apartado 5 del artículo 209 de esta Ley.

#### Artículo 231. Obligaciones de los trabajadores

1. Son obligaciones de los trabajadores y de los solicitantes y beneficiarios de prestaciones por desempleo:

- a) Cotizar por la aportación correspondiente a la contingencia de desempleo.



hargatik eragotzi gabe, entitate kudeatzaileari dagokio titulu honetan ezarritakoa betetzen dela kontrolatzea eta iruzurrik gertatzen bada egoera horiek egiaztatzea.

## VI. KAPITULUA

### Betebeharren, arau-hausteen eta zehapenen araubidea

#### 230. artikulua. Enpresaburuen betebeharrak

Betebehar hauek dituzte enpresaburuek:

- a) Enpresari langabezia-gertagarriatik dagokion partea kotizatzea.
- b) Berari eta langileei dagozkien ekarpenen batura ordaintzea, bera izanik kotizatzeke betebeharra betetzearen erantzule.
- c) Prestazioetarako eskubideak aitortzearen, geldieran uztearen, azkentzearen edo hari berrekitearen ondorioetarako erregelamenduz ezartzen diren agiriak eta informazioa ematea.
- d) Langileari enpresa-ziurtagiria ematea, erregelamenduz ezartzen den epe eta moduan.
- e) Eskumena duen entitate kudeatzaileari ordaintzea hark langileei ordaindutako prestazioak, enpresa deklaratu badute prestazioaren erantzule, ez dituelako bete afiliatioari, altari edo kotizazioari dagozkion betebeharrak.
- f) Hala badagokio, langabezia-prestazioak eskuordetzaz ordaintzea.
- g) Langile kaleratuari jakinaraztea berrartu dutela, hori gertatu eta bost egunen epean, eta entitate kudeatzaile eskudunari ordaintzea hark langileei ordaindutako prestazioak, lege honen 209. artikuluko 5. zenbakian arauturiko kasuetan.

#### 231. artikulua. Langileen betebeharrak

1. Betebehar hauek dituzte langileek eta langabezia-prestazioen eskatzaile eta onuradunek:

- a) Langabezia-gertagarriatik dagokion partea kotizatzea.

b) Proporcionar la documentación e información que reglamentariamente se determinen a efectos del reconocimiento, suspensión, extinción o reanudación del derecho a las prestaciones.

c) Participar en los trabajos de colaboración social, programas de empleo, o en acciones de promoción, formación o reconversión profesionales, que determinen los servicios públicos de empleo, o las agencias de colocación cuando desarrollen actividades en el ámbito de colaboración con aquellos y aceptar la colocación adecuada que le sea ofrecida por los servicios públicos de empleo o por dichas agencias.

d) Renovar la demanda de empleo en la forma y fechas en que se determinen por la Entidad Gestora en el documento de renovación de la demanda; y comparecer, cuando haya sido previamente requerido, ante la Entidad Gestora, los servicios públicos de empleo o las agencias de colocación cuando desarrollen actividades en el ámbito de colaboración con aquellos.

e) Solicitar la baja en las prestaciones por desempleo cuando se produzcan situaciones de suspensión o extinción del derecho o se dejen de reunir los requisitos exigidos para su percepción, en el momento de la producción de dichas situaciones.

f) Reintegrar las prestaciones indebidamente percibidas.

g) Devolver a los servicios públicos de empleo, o, en su caso, a las agencias de colocación cuando desarrollen actividades en el ámbito de colaboración con aquellos, en el plazo de cinco días, el correspondiente justificante de haber comparecido en el lugar y fecha indicados para cubrir las ofertas de empleo facilitadas por los mismos.

h) Suscribir y cumplir las exigencias del compromiso de actividad.

i) Buscar activamente empleo, participar en acciones de mejora de la ocupabilidad, que se determinen por los servicios públicos de empleo competentes, en su caso, dentro de un itinerario de inserción.

Sin perjuicio de la obligación de acreditar la búsqueda activa de empleo, la participación en las acciones de mejora de la ocupabilidad será voluntaria para los beneficiarios de prestaciones contributivas durante los cien primeros días de percepción, y la no participación en las mismas no conllevará efectos sancionadores.

2. A los efectos previstos en este título, se entenderá por compromiso de actividad el que adquiera el solicitante o beneficiario de las prestaciones de bus-

b) Prestazioetarako eskubideak aitortzearen, geldieran uztearen, azkentzearen edo hari berrekitearen ondorioetarako erregelamenduz ezartzen diren agiriak eta informazioa ematea.

c) Parte hartzea enplegu-zerbitzu publikoek edo haiekiko lankidetzan ari diren enplegatze-agentziek erabakitako gizarte-lankidetzako lanetan, enplegu-programetan edo lanbide-sustapen, -prestakuntza edo -birmoldaketarako ekin-tzetan; eta enplegu-bulegoak edo enplegatze-agentziak eskainitako lanpostu egokia onartzea.

d) Enplegu-eskaera berritzea, eskaera berritzeko agirian entitate kudeatzaileak zehazten duen modu eta datan; eta, aurrez hartarako errekerimendua egiten zaionean, agerraldia egitea entitate kudeatzailearen aurrean, enplegu-zerbitzu publikoen aurrean edo haiekiko lankidetzan ari diren enplegatze-agentzien aurrean.

e) Langabezia-prestazioetan baja eskatzea eskubidea geldieran uzteko edo azkentzeko egoerak gertatzen direnean edo prestazioa jasotzeko betekizunak betetzeari uzten zaionean, halako egoerak gertatzen diren unean be-rean.

f) Oker jasotako prestazioak itzultzea.

g) Enplegu-zerbitzu publikoei edo, hala badagokio, haiekiko lankidetzan ari diren enplegatze-agentziei itzultzea, bost egunen epean, haiek bideraturiko enplegu-eskaintzetara aurkezteko esandako tokian eta egunean agertu izanaren egiaztatzea.

h) Jarduera-konpromisoaren eskakizunak izenpetzea eta betetzea.

i) Enplegu bila aritzea modu aktiboan, eta enplegua aurkitzeko aukerak hobetzearren enplegu-zerbitzu publiko eskudunek erabakitako jardueretan parte hartzea; hala badagokio, laneratze-ibilbide baten barruan.

Hargatik eragotzi gabe aktiboki enplegu bila ari dela egiaztatzeko betebeharra, enplegua aurkitzeko aukerak hobetzeko jardueretan parte hartzea aukerakoa izango dute ekarpeneko prestazioen onuradunek, prestazioa jasotzen duten lehenbiziko ehun egunetan, eta ez parte hartzeak ez du zehapenik ekarriko.

2. Titulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, jarduera-konpromisoa da prestazioen eskatzaile edo onuradunak konpromisoa hartzea enplegua modu

car activamente empleo, aceptar una colocación adecuada y participar en acciones específicas de motivación, información, orientación, formación, reconversión o inserción profesional para incrementar su ocupabilidad, así como de cumplir las restantes obligaciones previstas en este artículo.

Para la aplicación de lo establecido en el párrafo anterior el Servicio Público de Empleo competente tendrá en cuenta la condición de víctima de violencia de género, a efectos de atemperar, en caso necesario, el cumplimiento de las obligaciones que se deriven del compromiso suscrito.

3. A los efectos previstos en este Título, se entenderá por colocación adecuada la profesión demandada por el trabajador y también aquella que se corresponda con su profesión habitual o cualquier otra que se ajuste a sus aptitudes físicas y formativas. En todo caso, se entenderá por colocación adecuada la coincidente con la última actividad laboral desempeñada siempre que su duración hubiese sido igual o superior a tres meses.

Transcurrido un año de percepción ininterrumpida de las prestaciones, además de las profesiones anteriores, también podrán ser consideradas adecuadas otras colocaciones que a juicio del Servicio Público de Empleo puedan ser ejercidas por el trabajador.

La colocación se entenderá adecuada cuando se ofrezca en la localidad de residencia habitual del trabajador o en otra localidad situada en un radio inferior a 30 kilómetros desde la localidad de la residencia habitual, salvo que el trabajador acredite que el tiempo mínimo para el desplazamiento, de ida y vuelta, supera el 25 por 100 de la duración de la jornada diaria de trabajo, o que el coste del desplazamiento supone un gasto superior al 20 por 100 del salario mensual, o cuando el trabajador tenga posibilidad de alojamiento apropiado en el lugar de nuevo empleo.

La colocación que se ofrezca al trabajador se entenderá adecuada teniendo en cuenta la duración del trabajo, indefinida o temporal, o de la jornada de trabajo, a tiempo completo o parcial. Además dicha colocación para entenderse adecuada deberá implicar un salario equivalente al aplicable al puesto de trabajo que se ofrezca, con independencia de la cuantía de la prestación a que tenga derecho el trabajador, o aunque se trate de trabajos de colaboración social.

Para la aplicación de lo previsto en los párrafos anteriores el Servicio Público de Empleo competente tendrá en cuenta las circunstancias profesionales y personales del desempleado, así como la conciliación de su vida familiar y laboral, el itinerario de inserción fijado, las características del puesto de tra-

aktiboan bilatzeko, lanpostu egoki bat onartzeko eta motibazio-, informazio-, orientazio, prestakuntza, birmoldatze- edo laneratze-jarduera berariazkoetan parte hartzeko, enplegua aurkitzeko aukerak hobetzearren, eta orobat artikulua honetan aurreikusitako gainerako betebeharrak betetzeko.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, enplegu-zerbitzu publiko eskudunak kontuan hartuko du genero-indarkeriaren biktima izatea, behar izanez gero izenpetutako konpromisoaren ondoriozko betebeharrak leuntzeko.

3. Titulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, lanpostu egokitzat hartuko da langileak eskatutako lanbidekoa, eta orobat haren ohiko jarduerarekin bat datorrena edo haren ezaugarri fisiko eta prestakuntzazkoen araberakoa den beste edozein. Betiere, lanpostu egokitzat joko da egindako azken lan-jarduerarekin bat datorrena, hiru hilabetez edo gehiagoz aritu baldin bada horretan.

Urtebetez prestazioa etengabe jasotakoan, orobat jo ahal izango dira egokitzat, langilearen aurreko lanbideez gainera, enplegu-zerbitzu publikoaren iritziz hark bete ditzakeen beste kolokazio batzuk.

Kolokazioa egokitzat joko da langilearen ohiko egoitza den herrian edo hartatik 30 kilometro baino gutxiagoko inguruan dagoen batean eskaintzen bada —non eta langileak ez duen egiaztatzen joan-etorrirako gutxieneko denborak gainditu egiten duela eguneroko lanaldiaren % 25, edo joan-etorriaren gastua hileko soldataren % 20 baino handiagoa dela—, edo enplegu berria eskaintzen zaion tokian alojamendu egokia aurkitzeko aukera badu langileak.

Langileari eskaintzen zaion kolokazioa egokitzat jotzeko, kontuan hartuko da lanaren iraupena —mugagabea edo aldi baterakoa— edo lanaldia — osoa edo partziala—. Horretaz gainera, kolokazio hori egokitzat jotzeko, eskaintzen zaion soldatak lan horretan aplikatzekoa denaren baliokidea izan beharko du, edozein dela ere langileak jasotzeko eskubidea duen prestazioaren zenbatekoa, edo gizarte-lankidetzako lanak izanda ere.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoa aplikatzeko, enplegu-zerbitzu publiko eskudunak kontuan izango ditu langabetuaren inguruabar profesional eta pertsonalak, eta orobat haren familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeko aukera, ezarritako laneratze-ibilbidea, eskaintako lanpostuaren ezaugarriak, lanerako

bajo ofertado, la existencia de medios de transporte para el desplazamiento, así como las características de los mercados locales de empleo.

El salario correspondiente a la colocación para que ésta sea considerada adecuada no podrá, en ningún caso, ser inferior al salario mínimo interprofesional una vez descontados de aquél los gastos de desplazamiento.

### **Artículo 232. Infracciones y sanciones**

En materia de infracciones y sanciones se estará a lo dispuesto en el presente Título y en el Texto Refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.

### **Artículo 233. Recursos**

Las decisiones de la Entidad Gestora competente, relativas al reconocimiento, denegación, suspensión o extinción de cualquiera de las prestaciones por desempleo, serán recurribles ante los órganos jurisdiccionales del orden social, previa reclamación ante dicha Entidad Gestora en la forma prevista en el artículo 71 del Texto Refundido de la Ley de Procedimiento Laboral, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/1995, de 7 de abril.

También serán recurribles ante los órganos jurisdiccionales del orden social, previa reclamación ante la Entidad Gestora competente en la forma prevista en el artículo 71 del Texto Refundido de la Ley de Procedimiento Laboral, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/1995, de 7 de abril, las resoluciones siguientes de la Entidad Gestora:

a) Las relativas a la exigencia de devolución de las prestaciones indebidamente percibidas y al reintegro de las prestaciones de cuyo pago sea directamente responsable el empresario, establecidas en el artículo 227.1 de esta Ley, a excepción de las actuaciones en materia de gestión recaudatoria conforme a lo establecido en el artículo 3.b) del Texto Refundido de la Ley de Procedimiento Laboral, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/1995, de 7 de abril.

b) Las relativas al abono de la prestación por desempleo en su modalidad de pago único, establecido en el artículo 228.3 de esta Ley.

Las relativas a la imposición de sanciones a los trabajadores por infracciones leves y graves conforme a lo establecido en el artículo 47 de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.

joan-etorrietarako garraibideak izatea, eta tokiko enplegu-merkatuen ezaugarriak.

Lanpostua egokitzen jotzeko, hari dagokion soldata ezin izango da, joan-etorrien gastuak kenduta, lanbide arteko gutxieneko soldata baino apalagoa.

### **232. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak**

Arau-hauste eta zehapenen kontuan, titulu honetan eta Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean —2004ko abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia— xedatutakoari jarraituko zaio.

### **233. artikulua. Errekurtsoak**

Entitate kudeatzaile eskudunaren erabakiak, langabeziagatik prestazioetarako edozein aitortzeari, ukatzeari, geldieran uzteari edo azkentzeari buruzkoak, errekurritu ahal izango dira gizarte-arloko jurisdikzio-organoen aurrean, aurrez entitate kudeatzaile horretan erreklamazioa eginda, 1995eko apirilaren 7ko 2/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bateginaren 71. artikuluan aurreikusitako moduan.

Orobat errekurritu ahal izango dira gizarte-arloko jurisdikzio-organoen aurrean, aurrez dagokion entitate kudeatzaileari erreklamazioa eginda, 1995eko apirilaren 7ko 2/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bateginaren 71. artikuluan aurreikusitako moduan, entitate kudeatzailearen honako ebazpen hauek:

a) Oker jasotako prestazioak itzultzeko eskakizunari dagozkionak eta ordaintzeko erantzukizuna zuzenean enpresaburuak duen prestazioak itzultzeari dagozkionak —lege honen 227.1 artikuluan ezarriak—, alde batera utzita diru-bilketaren arloko jarduketak, 1995eko apirilaren 7ko 2/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bateginaren 3.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

b) Lege honen 228.3 artikuluan xedaturiko ordainaldi bakarrek langabezia-prestazioa ordaintzeari dagozkionak.

c) Arau-hauste arin eta larriak direla eta langileei, Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 47. artikuluen arabera, ezarritako zehapenei dagozkienak.

## CAPÍTULO VII

### Derecho supletorio

#### Artículo 234. Derecho supletorio

En lo no previsto expresamente en el presente título se estará a lo dispuesto en los dos títulos precedentes de esta Ley.

### DISPOSICIONES ADICIONALES

#### Primera. Protección de los trabajadores emigrantes

1. El Gobierno adoptará las medidas necesarias para que la acción protectora de la Seguridad Social se extienda a los españoles que se trasladen a un país extranjero por causas de trabajo y a los familiares que tengan a su cargo o bajo su dependencia.

A tal fin, el Gobierno proveerá cuanto fuese necesario para garantizar a los emigrantes la igualdad o asimilación con los nacionales del país de recepción en materia de Seguridad Social, directamente o a través de los organismos intergubernamentales competentes, así como mediante la ratificación de Convenios internacionales de trabajo, la adhesión a Convenios multilaterales y la celebración de Tratados y Acuerdos con los Estados receptores.

En los casos en que no existan Convenios o, por cualquier causa o circunstancia, éstos no cubran determinadas prestaciones de la Seguridad Social, el Gobierno, mediante las disposiciones correspondientes, extenderá su acción protectora en la materia tanto a los emigrantes como a sus familiares residentes en España.

2. Los accidentes que se produzcan durante el viaje de salida o de regreso de los emigrantes en las operaciones realizadas por la Dirección General de Migraciones, o con su intervención, tendrán la consideración de accidentes de trabajo, siempre que concurran las condiciones que reglamentariamente se determinen, a cuyo efecto dicho centro directivo establecerá con la Administración de la Seguridad Social los correspondientes conciertos para la protección de esta contingencia. Las prestaciones económicas que correspondan por el accidente, conforme a lo dispuesto en el presente apartado, serán compatibles con cualesquiera otras indemnizaciones o prestaciones a que el mismo pudiera dar derecho.



## VII. KAPITULUA

### Zuzenbide ordeztaila

#### 234. artikulua. Zuzenbide ordeztaila

Titulu honetan berariaz aurreikusi ez den guztian, lege honen aurreko bi tituluetan ezarritakoari jarraituko zaio.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehena. Langile emigraenteen babes

1. Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu Gizarte Segurantzaren babes-jarduna heda dakien lan-arrazoiengatik atzerrira joandako espainiarrei eta haiek beren kargu edo mende dituzten senitartekoei.

Horretarako, Gobernuak behar den guztia jarriko du emigraentei ziurtatzeko harrera-herrialdeko herritarrekin berdinduta edo parekatuta egongo direla Gizarte Segurantzako gaietan, zuzenean edo gobernuarteko erakunde eskudunen bitartez, eta orobat nazioarteko lan-hitzarmenak berrestearen, alde anitzeko hitzarmenei atxikitzearen eta harrera-herrialdeekin tratatuak eta akordioak egitearen bitartez.

Hitzarmenik ez dagoen kasuetan, edo, edozein arrazoi dela medio, hitzarmen horiek Gizarte Segurantzako zenbait prestazio hartzen ez dituzten kasuan, Gobernuak, dagozkion xedapenen bidez, zabaldu egingo die alor horretako babes-jarduna hala emigraentei nola haiek Espainian dituzten senitartekoei.

2. Emigraenteen joaneko edo itzulerako bidaian gertatzen diren istripuak, bidaiaren zuzemenak Migrazio Zuzendaritza Nagusiak egin dituen edo hura partaide dela egin direnean, lan-istripuztat hartuko dira, baldin eta erregelamenduz erabakitzen diren baldintzak gertatzen badira; horretarako, Emigrazioko Zuzendaritza Nagusiak gertagarri hori babesteko hitzarmenak egingo ditu Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin. Istripuari dagozkion prestazioak, zenbaki honetan xedaturikoarekin ados, bateragarriak izango dira istripuari eskubidez dagokion beste edozein kalte-ordain edo prestaziorekin.

Igual consideración tendrán las enfermedades que tengan su causa directa en el viaje de ida o de regreso.

### **Segunda. Protección de los trabajadores minusválidos**

Los trabajadores minusválidos empleados en los centros especiales de empleo quedarán incluidos en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social. Por el Gobierno se dictarán las normas específicas de sus condiciones de trabajo y de Seguridad Social, en atención a las peculiares características de su actividad laboral.

### **Tercera. Inclusión en la Seguridad Social de los deportistas de alto nivel**

El Gobierno, como medida para facilitar la plena integración social y profesional de los deportistas de alto nivel, podrá establecer la inclusión de los mismos en el sistema de la Seguridad Social.

### **Cuarta. Modalidades de integración de los socios trabajadores y de los socios de trabajo de las cooperativas**

1. Los socios trabajadores de las Cooperativas de trabajo asociado disfrutará de los beneficios de la Seguridad Social, pudiendo optar la cooperativa entre las modalidades siguientes:

a) Como asimilados a trabajadores por cuenta ajena. Dichas cooperativas quedarán integradas en el Régimen General o en alguno de los Regímenes Especiales de la Seguridad Social, según proceda, de acuerdo con su actividad.

b) Como trabajadores autónomos en el Régimen Especial correspondiente.

Las cooperativas ejercerán la opción en los Estatutos, y sólo podrán modificar la opción en los supuestos y condiciones que el Gobierno establezca.

2. Los socios trabajadores de las cooperativas de explotación comunitaria de la tierra y los socios de trabajo a los que se refiere el artículo 13.4 de la Ley 27/1999, de 16 de julio, de Cooperativas, a efectos de Seguridad Social, serán asimilados a trabajadores por cuenta ajena, sin perjuicio de lo previsto en los párrafos siguientes.

Las cooperativas que, al amparo de la disposición transitoria séptima de la Ley 3/1987, de 2 de abril, General de Cooperativas, optaron por mantener

Gauza bera gertatuko da joaneko edo itzuliko bidaiaren kausa zuzenez sortutako gaixotasunekin.

### **Bigarrena. Langile minusbaliatuen babesa**

Enplegu-zentro berezietan enplegatutako langile minusbaliatuak dagokien araubidean sarturik egongo dira Gizarte Segurantzaren. Gobernuak emango ditu haien lan-baldintzei eta Gizarte Segurantzako egoerari buruzko berariazko arauak, haien lan-jardueraren berezitasunak kontuan hartuta.

### **Hirugarrena. Goi-mailako kirolariak Gizarte Segurantzaren sartzea**

Gobernuak, goi-mailako kirolarien gizarte- eta lanbide-integrazio osoa errazteko neurri gisa, Gizarte Segurantzako sisteman sartu ahal izango ditu kirolariok.

### **Laugarrena. Kooperatibetako bazkide langileak eta lan-bazkideak sartzeko aldaerak**

1. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek Gizarte Segurantzaren onurak izango dituzte, eta kooperatibek aukeran izango dituzte aldaera hauek:

a) Besteren konturako langileekin parekatu. Halako kooperatibak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean edo Gizarte Segurantzako araubide berezietakoren batean sarturik geldituko dira, jardueraren arabera zer dagokion.

b) Langile autonomo gisa, dagokien araubide berezian.

Kooperatibek beren estatutuetan egingo dute aukera, eta ezin izango dute gerora aldatu ez bada Gobernuak ezarritako kasu eta baldintzetan.

2. Lurraren ustiakuntza komunitarioko kooperatibetako bazkide langileak, eta orobat 1999ko uztailaren 16ko 27/1999 Kooperatiben Legearen 13.4 artikuluan aipatzen diren lan-bazkideak, Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, besteren konturako langileekin parekatu geldituko dira, ondorengo paragrafoetan aurreikusitakoa kontuan harturik.

1987ko apirilaren 2ko 3/1987 Legearen —Kooperatiben Lege Orokorra— zazpigarren xedapen iragankorraren babesean beren lan-bazkideek langile auto-

la asimilación de sus socios de trabajo a trabajadores autónomos, a efectos de Seguridad Social, conservarán ese derecho de opción en los términos establecidos en el apartado 1 de esta disposición.

No obstante, si con posterioridad a la fecha de entrada en vigor de esta ley, la cooperativa modificara el régimen de encuadramiento de sus socios de trabajo, para su incorporación como trabajadores por cuenta ajena, en el régimen que corresponda, no podrá volver a ejercitar el derecho de opción.

3. En todo caso, no serán de aplicación a las Cooperativas de Trabajo Asociado, ni a las Cooperativas de Explotación Comunitaria de la Tierra ni a los socios trabajadores que las integran, las normas sobre cotización y prestaciones del Fondo de Garantía Salarial.

4. Hasta tanto no se produzca la inclusión del colectivo profesional de los Colegios o Asociaciones Profesionales de Médicos en el sistema de la Seguridad Social, conforme a las previsiones del Real Decreto 2504/1980, de 24 de octubre, lo dispuesto en el apartado 1 de la presente disposición adicional no será de aplicación a los profesionales integrados en tales colegios o asociaciones que sean socios trabajadores de las cooperativas sanitarias a que se refiere el número 3 del artículo 144 de la Ley 3/1987, de 2 de abril, General de Cooperativas.

5. Se autoriza al Gobierno para regular el alcance, términos y condiciones de la opción prevista en la presente disposición, así como para, en su caso, adaptar las normas de los Regímenes de la Seguridad Social a las peculiaridades de la actividad cooperativa.

#### **Quinta. Régimen de Seguridad Social de los asegurados que presten servicios en la Administración de las Comunidades Europeas**

El asegurado que hubiera estado comprendido en el ámbito personal de cobertura del Sistema de la Seguridad Social que pase a prestar servicios en la Administración de la Unión Europea y que opte por ejercer el derecho que le concede el artículo 11, apartado 2, del Anexo VIII del Estatuto de los Funcionarios de la Unión Europea, aprobado por el Reglamento (CEE, EURATOM, CECA) número 259/1968, del Consejo, de 29 de febrero de 1968, en la redacción dada a dicho artículo por el Reglamento (CEE, EURATOM, CECA) número 571/1992, del Consejo, de 2 de marzo de 1992, causará baja automática, si no se hubiera producido con anterioridad, en el citado sistema y se extinguiera la obligación de cotizar al mismo una vez se haya realizado la transferencia a la Unión Europea a que se refiere el citado Estatuto.

nomoekin parekaturiko egoeran jarraitzea erabaki zuten kooperatibek, Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, gorde egingo dute eskubide hori, xedapen honen 1. zerbakiaren ezarritako moduan.

Hala ere, lege hau indarrean sartu ondoren kooperatibak bere lan-bazkideen araubidea aldatzen badu, besteren konturako langile moduan dagokien araubidean sartzeko, ezin baliatuko du berriz aukera hori.

3. Ez dira lan elkartuko kooperatibei ez lurraren ustiakuntza komunitarioko kooperatibei eta haiek osatzen dituzten bazkide langileei aplikatzekoak izango, ezein kasutan, Soldatak Bermatzeko Funtsaren kotizazio eta prestazioei buruzko arauak.

4. Medikuen elkargo edo elkarte profesionaletako lanbide-kolektiboa —1980ko urriaren 24ko 2504/1980 Errege Dekretuaren aurreikuspenen arabera— Gizarte Segurantzako sistemari sartzen ez den artean, xedapen gehigarri honen 1. zerbakiaren xedaturikoa ez zaie aplikatuko halako elkargo eta elkarreetan bildutako profesionalei, baldin eta 1987ko apirilaren 2ko Kooperatiben Lege Orokorreko 144. artikulua 3. zerbakiak aipaturiko osasun-kooperatibetako bazkide langile badira.

5. Gobernuari ahalmena ematen zaio xedapen honetan aurreikusitako aukeraren irismena, terminoak eta baldintzak arautzeko, eta orobat, hala badagokio, Gizarte Segurantzako araubideen arauak kooperatibetako jardunaren berezitasunetara egokitzeko.

### **Bosgarrena. Europako Erkidegoen Administrazioaren zerbitzuan ari diren asegurudunen Gizarte Segurantzako araubidea**

Gizarte Segurantzako sistemaren estaldura-esparru pertsonalean sarturik egon den asegurudun bat Europar Batasunaren Administrazioan lanean hasten bada eta Europar Batasuneko Funtzionarioen Estatutuaren VIII. Eranskinetik 2. ataleko 11. artikulua aitortzen dion eskubidea baliatzen badu —estatutu hori 1968ko otsailaren 29ko 259/1968 Erregelamenduak (EEE, EURATOM, IAEE) onetsi zuen—, artikulua horri 1992ko martxoaren 2ko 571/1992 Erregelamenduak (EEE, EURATOM, IAEE) emandako idazketaren arabera, berehala baja emango zaio, lehenago egin ez bada, Gizarte Segurantzaren, eta hartan kotizatzeke betebeharrak amaitu egingo da estatutu horrek dioen bezala Europar Batasunerako eskualdatzean.

Sin perjuicio de lo establecido en el párrafo anterior, el interesado podrá, no obstante, continuar protegido por el sistema español de Seguridad Social si hubiera suscrito con anterioridad, o suscribiese posteriormente y en los plazos reglamentarios, el correspondiente convenio especial, de cuya acción protectora quedarán excluidas en todo caso la pensión de jubilación y las prestaciones por muerte y supervivencia.

No obstante lo señalado en los párrafos anteriores, si cesando su prestación de servicios en la Administración de la Unión Europea el interesado retornara a España, realizara una actividad laboral por cuenta ajena o propia que diera ocasión a su nueva inclusión en el Sistema de la Seguridad Social y ejercitara el derecho que le confiere el artículo 11, apartado 1, del Anexo VIII del citado Estatuto de los Funcionarios de la Unión Europea, una vez producido el correspondiente ingreso en la Tesorería General de la Seguridad Social, al momento de causar derecho a la pensión de jubilación o a las prestaciones por muerte y supervivencia en dicho Sistema se le computará el tiempo que hubiera permanecido al servicio de la Unión Europea.

#### **Sexta. Protección de los trabajadores contratados para la formación**

La acción protectora de la Seguridad Social del trabajador contratado para la formación comprenderá todas las contingencias, situaciones protegibles y prestaciones de aquella, incluido el desempleo.

#### **Séptima. Normas aplicables a los trabajadores contratados a tiempo parcial**

1. La protección social derivada de los contratos de trabajo a tiempo parcial se regirá por el principio de asimilación del trabajador a tiempo parcial al trabajador a tiempo completo y específicamente por las siguientes reglas:

Primera. Cotización.

a) La base de cotización a la Seguridad Social y de las aportaciones que se recaudan conjuntamente con las cuotas de aquélla será siempre mensual y estará constituida por las retribuciones efectivamente percibidas en función de las horas trabajadas, tanto ordinarias como complementarias.

b) La base de cotización así determinada no podrá ser inferior a las cantidades que reglamentariamente se determinan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, interesdunak aukera izango du, hala ere, Espainiako Gizarte Segurantzako sistemaren babesean jarraitzeko, lehendik sinatua badu edo gerora erregelamenduzko epeetan sinatzen badu dagokion hitzarmen berezia; hitzarmen horren babes-jardunetik kanpo geldituko dira, betiere, erretiro-pentsioa eta heriotza- eta biziraupen-prestazioak.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, Europar Batasunaren Administrazioa lana amaitzean Espainiara itzuli eta besteren konturako edo bere konturako lan-jardueraren bat egiten badu Gizarte Segurantzako sisteman sartzea dakarrena, eta Europar Batasuneko Funtzionarioen Estatutuaren VIII. eranskineko 11. artikulua 1. zenbakian aitortzen zaion eskubidea baliatzen badu, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian dagokion sarrera egin ondoren, sistema horretan erretiro-pentsiorako eskubidea edo heriotza- eta biziraupen-prestazioak jasotzeko eskubidea sortzean kontaktu egingo zaio Europar Batasunaren zerbitzuan aritutako denbora.

### **Seigarrena. Prestatzeko kontratatutako langileen babesa**

Gizarte Segurantzaren babes-jardunak, prestakuntzarako kontrataturiko langilearen kasuan, hark jasotzen dituen gertagarri, egoera babesgarri eta prestazio guztiak hartuko ditu bere barruan, langabezia barne.

### **Zazpigarrena. Denbora partzialez kontrataturiko langileei aplikatu beharreko arauak**

1. Lanaldi partzialeko kontratuetan, gizarte-babesari dagokionez, lanaldi osoko langilearekin parekatutzat joko da lanaldi partzialeko langilea, eta zehazki erregela hauei jarraituko zaie:

Lehen. Kotizazioa.

a) Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria eta Gizarte Segurantzako kuotekin batera biltzeko ekarpenen kotizazio-oinarria hilabetekoa izango da beti, eta lan egindako ordu arrunt eta osagarrien arabera egiazki jasotako ordainsariek osatuko dute.

b) Horrela zehaztutako kotizazio-oinarria ezin izango da erregelamenduz erabakitzen diren kopuruak baino apalagoa.

c) Las horas complementarias cotizarán a la Seguridad Social sobre las mismas bases y tipos que las horas ordinarias.

#### Segunda. Períodos de cotización.

a) Para acreditar los períodos de cotización necesarios para causar derecho a las prestaciones de jubilación, incapacidad permanente, muerte y supervivencia, incapacidad temporal, maternidad y paternidad, se computarán exclusivamente las cotizaciones efectuadas en función de las horas trabajadas, tanto ordinarias como complementarias, calculando su equivalencia en días teóricos de cotización. A tal fin, el número de horas efectivamente trabajadas se dividirá por cinco, equivalente diario del cómputo de mil ochocientos veintiséis horas anuales.

A tal fin, mediante resolución del Director General del Servicio Público de Empleo Estatal, se establecerá previamente el procedimiento o procedimientos de que se trate, el órgano u órganos competentes, según los casos, para la definición de las especificaciones, programación, mantenimiento, supervisión y control de calidad y, en su caso, auditoría del sistema de información y de su código fuente. Asimismo, se indicará el órgano que debe ser considerado responsable a efectos de impugnación.

112 kotizazio-egun oso konputatuko zaizkio pentsioa eskatzen duen emakume langileari ume batez erditzen den bakoitzeko, eta 14 egun gehiago, berriz, erditze anizkoitzaren kasuan, bigarren umeagatik eta hortik aurrerakoengatik, non eta ez duen, erditzearen unean langilea edo funtzionarioa izateagatik, hamasei aste osoetan kotizatu edo, ume batez baino gehiagoz erditzearen kasuan, dagokion denboran kotizatu.

### **Berrogeita bosgarrena. Erretiro-adina murrizteko koefizienteak**

Lege honen 161 bis artikuluko 1. zenbakiko lehen paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, erregelamenduz ezarriko da erretiro-adina gutxitzeko bete beharreko prozedura orokorra. Prozedura horretan, aurreikusiko da azterketak egitea aurrez sektoreko ezbehar-tasari buruz, lan-baldintzen nekagarritasunari, arriskuari eta toxikotasunari buruz, langileei eragiten dizkien lanerako ezintasuneko prozesuetan duten eraginari buruz, eta jarduera jakin hori egiteko behar diren ezaugarri fisikoei buruz.

Lan-baldintzak aldatzea ezinezkoa denean baizik ez dira ezarriko erretiro-adina gutxitzeko koefizienteak, eta finantza-oreka bermatzeko kotizazioan egin beharrekoak diren doikuntzak ere egingo dira orduan.

### **Berrogeita seigarrena. Langabezia-babeseko prozeduren izapideak bitarteko elektronikoz egitea**

Herritarrek zerbitzu publikoetara bide elektronikoz irispidea izateari buruzko 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 38. eta 39. artikuluetan xedaturikoarekin ados, modu automatizatuan eman eta jakinarazi ahal izango dira ebazpenak lege honen III. tituluari aurreikusitako langabezia-babesaren kudeaketako prozeduretan.

Horretarako, Estatuako Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bitartez, aurrez ezarriko da zein den edo diren prozedura edo prozedurak, eta zer organo den edo diren eskudun, kasuaren arabera, informazio-sistemaren eta haren iturri-kodearen espezifikazioak, programazioa, mantentze-lana, gainbegiratzea eta kalitate-kontrola eta, hala badagokio, auditoretza definitzeko. Era berean, adieraziko da zer organo hartu behar den erantzuletzat aurkarapenen ondorioetarako.

## Cuadragésima séptima. Coeficientes reductores de la edad de jubilación de los miembros del Cuerpo de la Ertzaintza

1. La edad ordinaria de 65 años exigida para el acceso a la pensión de jubilación se reducirá en un período equivalente al que resulte de aplicar el coeficiente reductor del 0,20 a los años completos efectivamente trabajados como miembros del Cuerpo de la Ertzaintza o como integrantes de los colectivos que quedaron incluidos en el mismo.

La aplicación de la reducción de la edad de jubilación prevista en el párrafo anterior en ningún caso dará ocasión a que el interesado pueda acceder a la pensión de jubilación con una edad inferior a los 60 años, o a la de 59 años en los supuestos en que se acrediten 35 o más años de actividad efectiva y cotización en el Cuerpo de la Ertzaintza, o en los colectivos que quedaron incluidos en el mismo, sin cómputo de la parte proporcional correspondiente por pagas extraordinarias, por el ejercicio de la actividad a que se refiere el párrafo anterior.

2. El período de tiempo en que resulte reducida la edad de jubilación del trabajador, de acuerdo con lo establecido en el apartado anterior, se computará como cotizado al exclusivo efecto de determinar el porcentaje aplicable a la correspondiente base reguladora para calcular el importe de la pensión de jubilación.

Tanto la reducción de la edad como el cómputo, a efectos de cotización, del tiempo en que resulte reducida aquélla, que se establecen en el apartado anterior, serán de aplicación a los miembros del Cuerpo de la Ertzaintza que hayan permanecido en situación de alta por dicha actividad hasta la fecha en que se produzca el hecho causante de la pensión de jubilación.

Asimismo, mantendrán el derecho a estos mismos beneficios quienes habiendo alcanzado la edad de acceso a la jubilación que en cada caso resulte de la aplicación de lo establecido en el apartado 1 de esta Disposición adicional cesen en su actividad como miembro de dicho Cuerpo pero permanezcan en alta por razón del desempeño de una actividad laboral diferente, cualquiera que sea el régimen de la Seguridad Social en el que por razón de ésta queden encuadrados.

3. En relación con el colectivo al que se refiere esta disposición procederá aplicar un tipo de cotización adicional sobre la base de cotización por contingencias comunes, tanto para la empresa como para el trabajador. Durante el año 2010 dicho tipo de cotización adicional será del 4,00 por 100, del que el 3,34 por 100 será a cargo de la empresa y el 0,66 por 100 a cargo del trabajador. Estos tipos de cotización se ajustarán en los años siguientes a la situación del colectivo de activos y pasivos.

## Berrogeita zazpigarrena. Ertzaintzako kideen erretiro-adina gutxitzeko koefizienteak

1. Erretiro-pentsiorako irispidea izateko galdatzen den 65 urteko adin arrunta gutxitu egingo da Ertzaintzako kide gisa edo hartan integratuta gelditu ziren taldeetako kide gisa egiazki lan egindako urte osoei 0,20 murrizketa-koefizientea aplikatuta ateratzen den denboraz.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako erretiro-adinaren murrizketa aplikatzeak ezin kasutan ez du aukerarik emango interesdunak, aurreko paragrafoan aipatzen den jardueran aritu izateagatik, erretiro-pentsiorako irispidea izateko 60 urte baino gutxiagorekin, edo 59 urte baino gutxiagorekin, Ertzaintzan edo hartan integratuta gelditu ziren taldeetan 35 urtez edo gehiagoz egiazki jardun eta kotizatu izana —aparteko pagei dagokien parte proportzionala kontatu gabe— egiaztatzen duten kasuetan.

2. Langilearen erretiro-adina aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera murrizten den denbora kotizaturiko alditzat hartuko da ondorio honetarako eta ez bestetarako: dagokion oinarriari erretiro-pentsioaren zenbatekoa kalkulatzear zer ehuneko aplikatu behar zaion erabakitzeko.

Hala adin-murrizketa nola adina kotizazio-ondorioetarako murrizten den denboraren konputua, aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera, aplikagarriak izango dira erretiro-pentsioa sorrarazi duen egitea gertatu den data bitartean jarduera horregatik alta-egoeran izan diren Ertzaintzako kideen kasuan.

Onura horietarako eskubidea izango dute, orobat, xedapen gehigarri honen 1. zenbakian ezarritakoa aplikatuta kasu bakoitzean ateratzen den erretiro-adinera iristean kidego horretako kide gisa egiten duten jarduera eten arren bestelako lan-jarduera bat egiteagatik alta-egoeran jarraitzen dutenek, jarduera horregatik Gizarte Segurantzaz sartuta dauden araubidea edozein dela ere.

3. Xedapen honetan aipatzen den kolektiboari dagokionez, kotizazio-tasa gehigarri bat aplikatuko da gertagarri arruntengatik kotizazio-oinarriaren gainean, hala enpresarentzat nola langilearentzat. 2010ean, kotizazio-tasa gehigarri hori 100eko 4,00 izango da: 100eko 3,34, enpresaren kontura, eta 100eko 0,66 langilearen kontura. Kotizazio-tasa horiek, ondorengo urteetan, egokitu egingo zaizkio aktiboan eta pasiboan egoerari.

4. El sistema establecido en la presente Disposición adicional será de aplicación después de que en la Comisión Mixta de Cupo se haga efectivo un acuerdo de financiación por parte del Estado de la cuantía anual correspondiente a las cotizaciones recargadas que se deban implantar como consecuencia de la pérdida de cotizaciones por el adelanto de la edad de jubilación y por el incremento en las prestaciones en los años en que se anticipe la edad de jubilación, en cuantía equiparable a la que la Administración del Estado abona en los casos de jubilación anticipada de los miembros de los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado en el Régimen de Clases Pasivas.

#### **Cuadragésima octava. Prestación económica de pago único por nacimiento o adopción de hijo producido en 2010**

Los nacimientos que se hubieran producido en 2010 y las adopciones que se hubieran constituido en dicho año, darán derecho a prestación económica por nacimiento o adopción regulada en la Subsección IV de la Sección II del Capítulo IX del Título II de esta Ley, siempre que la inscripción en el Registro Civil se efectúe antes de 31 de enero de 2011, debiendo, en este último caso, solicitar antes de la citada fecha la percepción de la indicada prestación.

#### **Cuadragésima novena. Cotización por desempleo en el contrato para la formación y cuantía de la prestación**

La cotización por la contingencia de desempleo en el contrato para la formación se efectuará por la cuota fija resultante de aplicar a la base mínima correspondiente a las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales el mismo tipo de cotización y distribución entre empresario y trabajador establecidos para el contrato en prácticas.

Para determinar la base reguladora y la cuantía de la prestación por desempleo se aplicará lo establecido en el artículo 211 de esta Ley.

#### **Quincuagésima. Notificaciones de actos administrativos por medios electrónicos, informáticos o telemáticos**

1. Las notificaciones por medios electrónicos, informáticos o telemáticos de actos administrativos en el ámbito de la Seguridad Social se efectuarán en la sede electrónica de la Seguridad Social, respecto a los sujetos obligados que se determinen por el Ministro de Trabajo e Inmigración así como respecto a quienes, sin estar obligados, hubiesen optado por dicha clase de notificación.



4. Xedapen gehigarri honetan ezarritako sistema aplikatu aurretik, Kupo Batzorde Mistoan finantzaketa-akordio bat egingo da Estatuak finantza dezan urtean dagokion kopuru bat erretiro-pentsioa aurreratzeagatik galdutako kotizazioen ondorioz ezarri behar diren kotizazio errekaratuengatik eta erretiro-adina aurreratzen den urteetan prestazioa gehitzeagatik; horretarako zenbatekoa parekoa izango da Estatuaren Administrazioak Estatuko Seguratasun Kidego eta Indarretako kideen klase pasiboen araubideko erretiro aurreratuaren kasuan ordaintzen duenarekin.

#### **Berrogeita zortzigarrena. 2010ean jaio edo adoptaturiko seme-alabagatiko ordainaldi bakarreko diru-prestazioa**

2010ean izandako jaiotzek eta urte horretan eraturiko adopzioek eskubidea emango dute lege honen II. tituluko IX. kapituluaren II. ataleko IV. azpitalean arauturiko jaiotza edo adopzioagatiko diru-prestazioa jasotzeko, baldin eta Erregistro Zibilean inskripzioa egiten bada 2011ko urtarrilaren 31 baino lehen eta data hori baino lehen egin baldin bada prestazioa jasotzeko eskaera.

#### **Berrogeita bederatzigarrena. Langabezia-kotizazioa prestakuntza-kontratuan eta prestazioaren zenbatekoa**

Langabezia-gertagarriagatiko kotizazioa, prestakuntza-kontratuan, kuota finko baten arabera egingo da: lan-istripuen eta laneko gaixotasunen gertagarrii dagokien gutxieneko oinarriari, praktikako kontratuagatik ezarritako kotizazio-tasa bera eta enpresaburuaren eta langilearen arteko banaketa bera aplikatuko zaio.

Oinarria eta langabezia-prestazioaren zenbatekoa zehazteko, lege honen 211. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

#### **Berrogeita hamargarrena. Administrazio-egintzak bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoz jakinaraztea**

1. Gizarte Segurantzaren esparruan bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoz egiten diren jakinarazpenak, Lan eta Immigrazio ministroak erabakitako subjektu behartuei dagozkienak nahiz behartuta egon gabe jakinarazpen mota hori hautatu dutenei dagozkienak, Gizarte Segurantzaren egoitza elektrokoroan egingo dira.

Los sujetos no obligados a ser notificados en forma telemática en la sede electrónica de la Seguridad Social que no hubiesen optado por dicha forma de notificación, serán notificados en el domicilio que expresamente hubiesen indicado para cada procedimiento y, en su defecto, en el que figure en los Registros de la Administración de la Seguridad Social.

2. Las notificaciones de los actos administrativos que traigan causa de los datos transmitidos electrónicamente a través del Sistema RED, realizadas a los autorizados para dicha transmisión, se efectuarán obligatoriamente por medios electrónicos, informáticos o telemáticos en la sede electrónica de la Seguridad Social, siendo válidas y vinculantes a todos los efectos legales para las empresas y sujetos obligados a los que se refieran dichos datos, salvo que estos últimos hubiesen manifestado su preferencia por que dicha notificación en sede electrónica se les efectúe directamente a ellos o a un tercero.

3. A los efectos previstos en el artículo 59.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, las notificaciones realizadas en la sede electrónica de la Seguridad Social se entenderán rechazadas cuando, existiendo constancia de la puesta a disposición del interesado del acto objeto de notificación, transcurran diez días naturales sin que se acceda a su contenido.

4. En los supuestos previstos en el artículo 59.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, y al amparo de lo dispuesto en el artículo 12 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos, las notificaciones que no hayan podido realizarse en la sede electrónica de la Seguridad Social o en el domicilio del interesado, conforme a lo indicado en los apartados anteriores, se practicarán exclusivamente en el Tablón Edictal de la Seguridad Social situado en dicha sede electrónica.

Transcurridos 20 días naturales desde que la notificación se hubiese publicado en el Tablón Edictal de la Seguridad Social, se entenderá que la misma ha sido practicada, dándose por cumplido dicho trámite y continuándose con el procedimiento.

El Tablón Edictal de la Seguridad Social será gestionado por la Secretaría de Estado de la Seguridad Social. La práctica de la notificación en el mismo se efectuará en los términos que se determinen por orden del Ministerio de Trabajo e Inmigración.

Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa modu telematikoan jakinaraztera behartuta ez dauden subjektuei, prozedura bakoitzean berariaz adierazi duten egoitzan egingo zaie jakinarazpena eta, halakorik ezean, Gizarte Segurantzaren Administrazioaren erregistroetan ageri den hartan.

2. RED sistemaren bidez elektronikoki transmitituriko datuen berri ematen duten administrazio-egintzen jakinarazpenak, transmisio horretarako baimenduta dauden pertsoneri eginak, bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa egin beharko dira nahitaez, Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa. Jakinarazpenak baliozkoak eta lotura-indarrekoak izango dira, legezko ondorio guztietarako, datu horiek dagozkien enpresa eta subjektu behartuentzako, non eta ez duten adierazi nahiago dutela egoitza elektronikoko jakinarazpena zuzenean berei edo hirugarren bati egitea.

3. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan adierazitako ondorioetarako, Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa egindako jakinarazpenak gaitzetsiak izan direla joko da baldin eta, jakinik interesdunaren esku jarri dela jakinarazpenaren objektu den egintza, hamar egun natural igaro eta haren edukia eskuratu ez bada.

4. 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta herritarrek zerbitzu publikoetara irispide elektronikoa izateari buruzko 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 12. artikuluan xedaturikoaren babesean, Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa edo interesdunaren egoitzan ezin egin izan diren jakinarazpenak, aurreko zenbakietan adierazitakoaren arabera, aipaturiko egoitza elektronikoa dagoen Gizarte Segurantzaren Ediktu Oholean eta han bakarrik egingo dira.

Jakinarazpena Gizarte Segurantzaren Ediktu Oholean argitaratu eta 20 egun natural iraganda, jakinarazpena egin dela joko da; izapide hori betetzat emango da, eta prozedurarekin jarraituko da.

Gizarte Segurantzaren Ediktu Ohola kudeatzea Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzari dagokio. Hartan jakinarazpena egiteko modua Lan eta Immigrazio Ministerioaren aginduz zehaztuko da.

### **Quincuagésima primera. Gastos por la anticipación de la readaptación de los trabajadores en incapacidad temporal por contingencias comunes**

La Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social asumirán a su cargo, sin perjuicio del posible resarcimiento posterior por los Servicios de Salud o por las Entidades Gestoras de la Seguridad Social el coste originado por la realización de pruebas diagnósticas, tratamientos y procesos de recuperación funcional dirigidos a evitar la prolongación innecesaria de los procesos de baja laboral por contingencias comunes de los trabajadores del sistema de la Seguridad Social, y que deriven de los acuerdos o convenios a que se refieren los artículos 12.4 y 83 del Reglamento General sobre colaboración en la gestión de las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales de la Seguridad Social, aprobado por Real Decreto 1993/1995, de 7 de diciembre.

### **Quincuagésima segunda. Competencias sobre los procesos de Incapacidad Temporal**

Hasta el cumplimiento de la duración máxima de trescientos sesenta y cinco días de los procesos de incapacidad temporal del Sistema de la Seguridad Social, el Instituto Nacional de la Seguridad Social, y, en su caso, el Instituto Social de la Marina, a través de los Inspectores Médicos adscritos a dichas entidades, ejercerán las mismas competencias que la Inspección de Servicios Sanitarios de la Seguridad Social u órgano equivalente del respectivo Servicio Público de Salud, para emitir un alta médica a todos los efectos. Cuando el alta haya sido expedida por el Instituto Nacional de la Seguridad Social o el Instituto Social de la Marina, éstos serán los únicos competentes, a través de sus propios médicos, para emitir una nueva baja médica en la situación de incapacidad temporal si aquélla se produce en un plazo de ciento ochenta días siguientes a la citada alta médica por la misma o similar patología.

La Secretaría de Estado de la Seguridad Social, a propuesta del Instituto Nacional de la Seguridad Social, y mediante resolución publicada en el Boletín Oficial del Estado, determinará la fecha a partir de la cual se asumirán las funciones atribuidas en el párrafo anterior.

**Berrogeita hamaikagarrena. Gertagarri arrunten ondorioz aldi baterako ezintasunean dauden langileen berregokitzea aurreratzeagatiko gastuak**

Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuek beren gain hartuko dituzte —hargatik eragotzi gabe gerora osasun-zerbitzuek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek dirua itzultzeko aukera— Gizarte Segurantzako sistemako langileen gertagarri arrunten ondoriozko laneko batak alferrik luza daitezten saihestearren egindako diagnostiko-proben, tratamenduen eta berreskuratze funtzionalerako prozesuen kostuak, baldin eta proba, tratamendu eta prozesu horiek lotuak badaude Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta laneko gaixotasunen mutuek kudeaketan laguntzeari buruzko Erregelamendu Orokorreko 12.4 eta 83. artikuluek aipatzen dituzten akordio edo hitzarmenekin —1995eko abenduaren 7ko 1993/1995 Errege Dekretuak onetsi zuten erregelamendu hori—.

**Berrogeita hamabigarrena. Aldi baterako ezintasuneko prozesuei buruzko eskumenak**

Gizarte Segurantzako sistemako aldi baterako ezintasuneko hirurehun eta hirurogeita bost eguneko gehieneko iraupena bete arte, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak eta, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak, entitate horiei atxikiriko ikuskatzaile medikoen bitartez, Gizarte Segurantzako Osasun Zerbitzuen Ikuskaritzaren edo dagokion osasun-zerbitzuko organo baliokidearen eskumen berak baliatuko dituzte, ondorio guztietarako alta mediko bat emateko. Alta hori Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak edo Itsasoko Gizarte Institutuak emana denean, erakunde bat edo bestea izango da eskumendun bakarra bere medikuen bitartez beste baja mediko bat emateko aldi baterako ezintasunaren egoeran, baldin eta aipatutako alta medikoaren ondorengo ehun eta laurogei egunen epean gertatzen bada, patologia beragatik edo antzeko batengatik.

Aurreko paragrafoan esleituriko funtzioak zer datatik aurrera hartuko diren, Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzak zehaztuko du, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren proposamenez, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako ebazpen baten bidez.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

### **Primera. Derechos transitorios derivados de la legislación anterior a 1967**

1. Las prestaciones del Régimen General causadas con anterioridad a 1 de enero de 1967 continuarán rigiéndose por la legislación anterior. Igual norma se aplicará respecto a las prestaciones de los Regímenes Especiales que se causen con anterioridad a la fecha en que se inicien los efectos de cada uno de ellos, lo cual tendrá lugar en la forma que se preveía en el apartado 3 de la disposición final primera de la Ley de la Seguridad Social de 21 de abril de 1966.

Se entenderá por prestación causada aquella a la que tenga derecho el beneficiario por haberse producido las contingencias o situaciones objeto de protección y hallarse en posesión de todos los requisitos que condicionan su derecho, aunque aún no lo hubiera ejercitado.

2. También continuarán rigiéndose por la legislación anterior las revisiones y conversiones de las pensiones ya causadas que procedan en virtud de lo previsto en aquella legislación.

3. Subsistirán las mejoras voluntarias de prestaciones de la Seguridad Social establecidas por las empresas de acuerdo con la legislación anterior, sin perjuicio de las variaciones que sean necesarias para adaptarlas a las normas de la presente Ley.

4. Quienes, de acuerdo con lo establecido en el artículo 21 del Reglamento General del Mutualismo Laboral, de 10 de septiembre de 1954, tuvieran la condición de mutualistas, la conservarán y seguirán rigiéndose a todos los efectos, por el citado Reglamento General, sin alteración de los derechos y obligaciones dimanantes de su respectivo contrato.

### **Segunda. Cotizaciones efectuadas en anteriores regímenes**

1. Las cotizaciones efectuadas en los anteriores regímenes de Seguros Sociales Unificados, Desempleo y Mutualismo Laboral se computarán para el disfrute de las prestaciones del Régimen General de la Seguridad Social.

2. Los datos sobre cotización que obren en la Administración de la Seguridad Social podrán ser impugnados ante la misma y, en su caso, ante los órganos jurisdiccionales del orden social. Los documentos oficiales de cotización que hayan sido diligenciados, en su día, por las oficinas recaudadoras constituirán el único medio de prueba admisible a tales efectos.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### **Lehena. 1967 baino lehenagoko legeriatik eratorritako eskubide iragankorrak**

1. 1967ko urtarrilaren 1a baino lehen sorturiko Araubide Orokorreko prestazioak aurreko legeriaren arabera eraenduko dira gerora ere. Arau bera aplikatuko da araubide berezietako prestazioetan, prestazioaren efektuak hasi baino lehenagoko data batean sortuak direnean, eta 1966ko apirilaren 21eko Gizarte Segurantzaren Legearen amaierako lehen xedapeneko 3. zenbakian aurreikusitako moduan gauzatuko da hori.

Prestazio sortutzat hartuko da onuradunak hartarako eskubide duenean babestekoak diren gertagarri edo egoerak jazo direlako eta eskubidea izateko behar diren betekizun guztiak betetzen dituelako, nahiz eta artean eskubidea baliatu ez.

2. Aurreko legeriaren arabera eraenduko dira, orobat, lege horietan aurreikusitakoaren arabera dagokion pentsio sortuen berrikuste eta bihurketak.

3. Enpresek aurreko legeriaren arabera ezarritako Gizarte Segurantzako prestazioen borondatzeko hobekuntzek irauin egingo dute, eta lege honen arabera egin beharrekoak diren aldaketak egingo zaizkie.

4. 1954ko irailaren 10eko Lan Mutualismoaren Erregelamendu Orokorren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera mutualista direnek gorde egingo dute mutualista-izaera hori, eta erregelamendu orokor horren arabera eraentzen jarraituko dute ondorio guztietarako, hargatik aldatu gabe dagokien kontratua-ren ondoriozko betebeharrak eta eskubideak.

### **Bigarrena. Aurreko araubideetan egindako kotizazioak**

1. Gizarte Aseguru Bateratuen, Langabeziaren eta Lan Mutualismoaren aurreko araubideetan egindako kotizazioak konputatu egingo dira Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko prestazioak jasotzearen ondorioetarako.

2. Gizarte Segurantzaren Administrazioak bere esku dituen kotizazio-datuak haren aurrean aurkaratzeko aukera izango da; orobat izango da aukera, hala badagokio, gizarte-arloko jurisdikzio-ordenaren aurrean aurkaratzeko. Onargarri diren frogabide bakarrak, ondorio horietarako, diru-bilketako bulegoek bere gairan bideratutako kotizazio-agiri ofizialak izango dira.

3. Las disposiciones de aplicación y desarrollo de esta Ley fijarán las normas específicas para computar las cotizaciones efectuadas en los anteriores regímenes de Seguro de Vejez e Invalidez y de Mutualismo Laboral, a fin de determinar el número de años de cotización del que depende la cuantía de la pensión de jubilación establecida en la presente Ley.

Dichas normas determinarán un sistema de cómputo que deberá ajustarse a los principios siguientes:

a) Tomar como base las cotizaciones realmente realizadas durante los siete años inmediatamente anteriores al 1 de enero de 1967.

b) Inducir, con criterio general y partiendo del número de días cotizados en el indicado período, el de años de cotización, anteriores a la fecha mencionada en el apartado a), imputables a cada trabajador.

c) Ponderar las fechas en que se implantaron los regímenes de pensiones de vejez y jubilación ya derogados y las edades de los trabajadores en 1 de enero de 1967.

d) Permitir que los trabajadores, que en la fecha mencionada en el apartado a) tengan edades más avanzadas, puedan acceder, en su caso, al cumplir los sesenta y cinco años de edad, a niveles de pensiones que no podrían alcanzar dados los años de existencia de los regímenes derogados.

### **Tercera. Aplicación de legislaciones anteriores para causar derecho a pensión de jubilación**

1. El derecho a las pensiones de jubilación se regulará en el Régimen General de acuerdo con las siguientes normas:

1.<sup>a</sup> Las disposiciones de aplicación y desarrollo de la presente Ley regularán las posibilidades de opción, así como los derechos que, en su caso, puedan reconocerse en el Régimen General a aquellos trabajadores que, con anterioridad a 1 de enero de 1967, estuvieran comprendidos en el campo de aplicación del Seguro de Vejez e Invalidez, pero no en el Mutualismo Laboral, o viceversa.

2.<sup>a</sup> Quienes tuvieran la condición de mutualista el 1 de enero de 1967 podrán causar el derecho a la pensión de jubilación a partir de los sesenta años. En tal caso, la cuantía de la pensión se reducirá en un 8 por 100 por cada año o fracción de año que, en el momento del hecho causante, le falte al trabajador para cumplir la edad que se fija en el apartado 1.a) del artículo 161.



3. Lehenago izan ziren Zahartzaro eta Baliaezintasun Aseguruko eta Lan Mutualismoko araubideetan egindako kotizazioak konputatzeko arau zehatzak ezarriko dira lege hau aplikatzeko eta garatzeko xedapenetan; haietan erabakiko da zenbat kotizazio-urte izatearen baitan dagoen lege honetan ezarritako erretiro-pentsioaren zenbatekoa.

Arau horiek ezarritako konputu-sistemak honako printzipio hauei jarraitu beharko die:

a) 1967ko urtarrilaren 1aren aurreko zazpi urteetan egiazki egindako kotizazioak hartu beharko ditu oinarri.

b) Irizpide orokorrez eta aipaturiko aldiak kotizaturiko egun-kopururik abiatuta, adierazi beharko ditu zenbat kotizazio-urte dagozkion langile bakoitzari a) letran aipaturiko data baino lehenagokoak.

c) Haztatu beharko ditu lehendik derogaturik dauden zahartzaro- eta erretiro-pentsioak ezarri ziren datak eta langileek 1967ko urtarrilaren 1ean zuten adina.

d) Aukera eman beharko die, a) letran aipaturiko datan adin handiagoa duten langileei, hirurogeita bost urte betetzean, hala badagokio, irispidea izan dezaten iraugintako araubideek zituzten urteak zituztelako ezin iritsiko lituzketen pensio-mailetara.

### **Hirugarrena. Erretiro-pentsiorako eskubidea sorrarazteko aurreko legeriak aplikatzea**

1. Erretiro-pentsioetarako eskubidea arau hauei jarraituz arautuko da Araubide Orokorrean:

1) Lege hau aplikatzeko eta garatzeko xedapenek arautuko dute Araubide Orokorrean zer aukera duten, eta orobat zer eskubide dagozkien, hori bada kasua, 1967ko urtarrilaren 1a baino lehen Zahartzaro eta Baliaezintasun Aseguruaren aplikazio-esparruan sarturik baina Lan Mutualismoan sartu gabe edo alderantziz zeuden langileei.

2) 1967ko urtarrilaren 1ean mutualista zirenek erretiro-pentsiorako eskubidea sortu ahal izango dute hirurogei urtetik aurrera. Kasu horretan, pensioaren zenbatekoa 100eko 8 murriztuko da langileari egitate sorrarazlea gertatzean 161.artikuluko 1.a) letran ezartzen den adina betetzeko falta zaion urte edo urte-zati bakoitzeko.

En los supuestos de trabajadores que, cumpliendo los requisitos señalados en el apartado anterior, y acreditando treinta o más años de cotización, soliciten la jubilación anticipada derivada del cese en el trabajo como consecuencia de la extinción del contrato de trabajo, en virtud de causa no imputable a la libre voluntad del trabajador, el porcentaje de reducción de la cuantía de la pensión a que se refiere el párrafo anterior será, en función de los años de cotización acreditados, el siguiente:

1.º Entre treinta y treinta y cuatro años acreditados de cotización: 7,5 por 100.

2.º Entre treinta y cinco y treinta y siete años acreditados de cotización: 7 por 100.

3.º Entre treinta y ocho y treinta y nueve años acreditados de cotización: 6,5 por 100.

4.º Con cuarenta o más años acreditados de cotización: 6 por 100.

A tales efectos, se entenderá por libre voluntad del trabajador la inequívoca manifestación de voluntad de quien, pudiendo continuar su relación laboral y no existiendo razón objetiva que la impida, decida poner fin a la misma. Se considerará, en todo caso, que el cese en la relación laboral se produjo de forma involuntaria cuando la extinción se haya producido por alguna de las causas previstas en el artículo 208.1.1.

Asimismo, para el cómputo de los años de cotización se tomarán años completos, sin que se equipare a un año la fracción del mismo.

Se faculta al Gobierno para el desarrollo reglamentario de los supuestos previstos en los párrafos anteriores de la presente regla 2.ª, quien podrá en razón del carácter voluntario o forzoso del acceso a la jubilación adecuar las condiciones señaladas para los mismos

2. Los trabajadores que, reuniendo todos los requisitos para obtener el reconocimiento del derecho a pensión de jubilación en la fecha de entrada en vigor de la Ley 26/1985, de 31 de julio, no lo hubieran ejercitado, podrán acogerse a la legislación anterior para obtener la pensión en las condiciones y cuantía a que hubieren tenido derecho el día anterior al de entrada en vigor de dicha Ley.

3. Asimismo, podrán acogerse a la legislación anterior aquellos trabajadores que tuvieran reconocidas, antes de la entrada en vigor de la Ley 26/1985, de 31 de julio, ayudas equivalentes a jubilación anticipada, determinadas en

Aurreko zenbakian adierazitako betekizunak betetzen dituzten eta hogeita hamar urtez edo gehiagoz kotizatu izana egiaztatzen duten langileen kasuan, langilearen borondate libreari ezin egotz dakiokkeen kausa batengatik lan-kontratu amaiztearen ondorioz lan egiteari utzi diotela-eta erretiro aurreratua eskatzen badute, honako hau izango da aurreko paragrafoan aipatzen den pentsio-zenbatekoaren murrizketa, egiaztatutako kotizazio-urteen arabera:

1. Hogeita hamar urtetik hogeita hamalau urtera bitarteko kotizazio-aldia egiaztaturik: 100eko 7,5.

2. Hogeita hamabost urtetik hogeita hamazazpi urtera bitarteko kotizazio-aldia egiaztaturik: 100eko 7.

3. Hogeita hemezortzi urtetik hogeita hemeretzi urtera bitarteko kotizazio-aldia egiaztaturik: 100eko 6,5.

4. Berrogei urte edo gehiagoko kotizazio-aldia egiaztaturik: 100eko 6.

Ondorio horietarako, langilearen borondate libre esatean, esan nahi da norbaitek, aukera izanik bere lan-harremanean jarraitzeko, eta hori eragozten dion arrazoi objektiborik ez izanik, argi eta garbi adierazi duela harremana amaizteko erabakia. Kasu guztietan, lan-harremana uztea norberak nahi izan gabe gertatu dela joko da 208.1.1 artikuluan aurreikusitako arrazoietakoren batengatik gertatu bada kontratu-azkentzea.

Kotizazio-urteak konputatzeko, urte osoak hartuko dira, eta urte-zatia ez da osoaren parekotzat hartuko.

Gobernuari ahalmena ematen zaio 2. erregela honetako aurreko paragrafoetan aurreikusitako kasuak erregelamenduz garatzeko; aukera izango du, erretirorako irispidea borondatezkoa edo behartua izatearen arabera, haietan adierazitako baldintzak egokitzeko.

2. 1985eko uztailaren 31ko 26/1985 Legea indarrean sartzeko datan erretiro-pentsioa aitortzeko betekizun guztiak bildurik ere eskubide hori baliatu ez zutenak aurreko legeriari atxiki ahal izango zaizkio pentsioa lortzeko, 26/1985 Legea indarrean sartu aurreko egunean eskubide izango zuten kondizio eta zenbateko beretan.

3. Orobat, aurreko legeriari atxiki ahal izango zaizkio langileak baldin eta 1985eko uztailaren 31ko 26/1985 Legea indarrean sartu aurretik aitortuak bazituzten erretiro aurreratua baliokide diren laguntzak, gerora Gizarte Segu-

función de su futura pensión de jubilación del sistema de la Seguridad Social, bien al amparo de planes de reconversión de empresas, aprobados conforme a las Leyes 27/1984, de 26 de julio, y 21/1982, de 9 de junio, bien al amparo de la correspondiente autorización del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, dentro de las previsiones de los correspondientes programas que venía desarrollando la extinguida Unidad Administradora del Fondo Nacional de Protección al Trabajo, o de los programas de apoyo al empleo aprobados por Orden de dicho Ministerio, de 12 de marzo de 1985.

El derecho establecido en el párrafo anterior también alcanzará a aquellos trabajadores comprendidos en planes de reconversión ya aprobados a la entrada en vigor de la Ley 26/1985, de 31 de julio, de acuerdo con las normas citadas en dicho párrafo, aunque aún no tengan solicitada individualmente la ayuda equivalente a jubilación anticipada.

4. Los trabajadores que, reuniendo todos los requisitos para obtener el reconocimiento del derecho a la pensión de jubilación en la fecha de entrada en vigor de la Ley de Consolidación y Racionalización del Sistema de Seguridad Social no lo hubieran ejercitado, podrán optar por acogerse a la legislación anterior para obtener la pensión en las condiciones y cuantía a que hubiesen tenido derecho el día anterior al de entrada en vigor de dicha Ley.

#### **Cuarta. Aplicación paulatina del período mínimo de cotización para el acceso a la pensión de jubilación**

El período mínimo de cotización establecido en la letra b) del apartado 1 del artículo 161 se aplicará de forma gradual, por períodos de seis meses, a partir de la entrada en vigor de la Ley de Medidas en materia de Seguridad Social, del siguiente modo:

- Durante los seis primeros meses se exigirán 4.700 días.
- Durante el segundo semestre se exigirán 4.777 días.
- Durante el tercer semestre se exigirán 4.854 días.
- Durante el cuarto semestre se exigirán 4.931 días.
- Durante el quinto semestre se exigirán 5.008 días.
- Durante el sexto semestre se exigirán 5.085 días.
- Durante el séptimo semestre se exigirán 5.162 días.
- Durante el octavo semestre se exigirán 5.239 días.
- Durante el noveno semestre se exigirán 5.316 días.
- Durante el décimo semestre se exigirán 5.393 días.
- A partir del sexto año se exigirán 5.475 días.

rantzako sisteman izango zuten erretiro-pentsioaren arabera zehaztuak, dela enpresetako birmoldaketa-planen babesean —1984ko uztailaren 26ko 27/1984 Legearen eta 1982ko ekainaren 9ko 21/1982 Legearen arabera onetsirik planok—, dela Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak dagokion baimena emanda, Lana Babesteko Nazio Funtsaren Administrazio Unitate zenekoa garatzen ari zen programetan egindako aurreikuspenen barruan, edo ministerio horren 1985eko martxoaren 12ko aginduz onetsirik enplegua sustatzeko programen barruan.

Aurreko paragrafoan ezarritako eskubideak orobat eragingo die 1985eko uztailaren 31ko 26/1985 Legea indarrean sartzean onetsita zeuden birmoldaketa-planetan sarturiko langileei, paragrafo horretan aipaturiko arauekin ados, nahiz eta artean langileek modu indibidualean eskatu gabea izan erretiro aurreratuaren baliokide den laguntza.

4. Gizarte Segurantzako Sistema Sendotzeko eta Arrazionalizatzeko Legea indarrean sartzeko datan erretiro-pentsioa aitortzeko betekizun guztiak bildurik ere eskubide hori baliatu ez zuten langileak aurreko legeriari atxiki ahal izango zaizkio pensioa lortzeko, lege hori indarrean sartu aurreko egunean eskubide izango zuten baldintza eta zenbateko beretan.

#### **Laugarrena. Erretiro-pentsiorako irispidea izateko gutxieneko kotizazio-aldia gutxika aplikatzea**

Lege honen 161. artikuluko 1. zenbakiko b) letran ezarritako gutxieneko kotizazio-aldia gutxika aplikatuko da, sei hilabeteko epeka, Gizarte Segurantzako Gaietako Neurrien Legea indarrean sartzan den datatik aurrera, era honetan:

Lehenbiziko sei hilabeteetan 4.700 egun galdatuko dira.  
Bigarren seihilekoan 4.777 egun galdatuko dira.  
Hirugarren seihilekoan 4.854 egun galdatuko dira.  
Laugarren seihilekoan 4.931 egun galdatuko dira.  
Bosgarren seihilekoan 5.008 egun galdatuko dira.  
Seigarren seihilekoan 5.085 egun galdatuko dira.  
Zazpigarren seihilekoan 5.162 egun galdatuko dira.  
Zortzigarren seihilekoan 5.239 egun galdatuko dira.  
Bederatzigarren seihilekoan 5.316 egun galdatuko dira.  
Hamargarren seihilekoan 5.393 egun galdatuko dira.  
Seigarren urtetik aurrera 5.475 egun galdatuko dira.

No obstante, en el supuesto de los trabajadores que durante todo el año inmediatamente anterior a la fecha del hecho causante hubieran estado contratados a tiempo parcial, el período transitorio previsto en el párrafo anterior se incrementará en proporción inversa al porcentaje de jornada realizada en dicho período. A estos efectos, el número de días en que ha de incrementarse, en cada caso, el período mínimo de cotización exigido en la fecha de entrada en vigor de la Ley de Medidas en materia de Seguridad Social, se reajustará por períodos semestrales en función de la ampliación del período transitorio.

#### **Quinta. Normas transitorias sobre base reguladora de la pensión de jubilación**

1. Lo previsto en el apartado 1 del artículo 162 de la presente Ley, se aplicará de forma gradual del modo siguiente:

A partir de la entrada en vigor de la Ley de Consolidación y Racionalización del Sistema de Seguridad Social, la base reguladora de la pensión de jubilación será el resultado de dividir por 126 las bases de cotización de los 108 meses inmediatamente anteriores al hecho causante.

A partir de 1 de enero de 1998, la base reguladora de la pensión de jubilación será el resultado de dividir por 140 las bases de cotización de los 120 meses inmediatamente anteriores al hecho causante.

A partir de 1 de enero de 1999, la base reguladora de la pensión de jubilación será el resultado de dividir por 154 las bases de cotización de los 132 meses inmediatamente anteriores al hecho causante.

A partir de 1 de enero de 2000, la base reguladora de la pensión de jubilación será el resultado de dividir por 168 las bases de cotización de los 144 meses inmediatamente anteriores al hecho causante.

A partir de 1 de enero de 2001 y hasta el 31 de diciembre de 2001, la base reguladora de la pensión de jubilación será el resultado de dividir por 182 las bases de cotización de los 156 meses inmediatamente anteriores al hecho causante.

A partir de 1 de enero del año 2002, la base reguladora de la pensión de jubilación se calculará aplicando, en su integridad, lo establecido en el apartado 1 del artículo 162 de la Ley citada.

2. Lo previsto en los apartados 2, 3, 4 y 5 del artículo 162 de la presente Ley, no será aplicable a las pensiones causadas antes del 1 de septiembre de 1981.

Hala ere, egitate sorrarazlearen dataren aurreko urte osoan lanaldi partzialean kontraturik egon diren langileen kasuan, aurreko paragrafoan aurreikusitako iragapen-aldia luzatu egingo da, aldi horretan egindako lanaldi-ehunekoaren alderantzizko proportzioan. Ondorio horietarako, Gizarte Segurantzako Gaietako Neurrien Legea indarrean sartzen den datan galdaturiko gutxieneko kotizazio-aldiari kasu bakoitzean gehitu beharreko egun-kopurua doitu egingo da, sei hilekoka, iragapen-aldiaren luzapenaren arabera.

### **Bosgarrena. Erretiro-pentsioaren oinarriari buruzko arau iragankorrak**

1. Lege honen 162. artikuluko 1. zenbakian aurreikusitakoa gutxika aplikatuko da, era honetan:

Gizarte Segurantzako Sistema Sendotzeko eta Arrazionalizatzeko Legea indarrean sartzen denetik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarria kalkulatzeko, 126z zatituko dira egitate sorrarazlearen aurreko 108 hilabeteetako kotizazio-oinarriak.

1998ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarria kalkulatzeko, 140z zatituko dira egitate sorrarazlearen aurreko 120 hilabeteetako kotizazio-oinarriak.

1999ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarria kalkulatzeko, 154z zatituko dira egitate sorrarazlearen aurreko 132 hilabeteetako kotizazio-oinarriak.

2000ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarria kalkulatzeko, 168z zatituko dira egitate sorrarazlearen aurreko 144 hilabeteetako kotizazio-oinarriak.

2001eko urtarrilaren 1etik 2001eko abenduaren 31ra bitarte, erretiro-pentsioaren oinarria kalkulatzeko, 154z zatituko dira egitate sorrarazlearen aurreko 156 hilabeteetako kotizazio-oinarriak.

2002ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarria kalkulatzeko, osotara aplikatuko da aipaturiko legearen 162. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoa.

2. Lege honen 162. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. zenbakietan aurreikusitakoa ez da aplikatzekoa izango 1981eko irailaren 1a baino lehen sorrarazitako pentsioen kasuan.

### **Quinta bis. Calificación de la incapacidad permanente**

Lo dispuesto en el artículo 137 de esta Ley únicamente será de aplicación a partir de la fecha en que entren en vigor las disposiciones reglamentarias, a que se refiere el apartado 3 del mencionado artículo 137, que deberán dictarse en el plazo máximo de un año. Entre tanto, se seguirá aplicando la legislación anterior.

### **Sexta. Incompatibilidades de las prestaciones no contributivas**

1. La condición de beneficiario de la modalidad no contributiva de las pensiones de la Seguridad Social será incompatible con la percepción de las pensiones asistenciales, reguladas en la Ley de 21 de julio de 1960 y suprimidas por la Ley 28/1992, de 24 de noviembre, así como de los subsidios a que se refiere la disposición transitoria undécima de la presente Ley.

2. La percepción de las asignaciones económicas por hijo minusválido a cargo, establecidas en los apartados 2. b) y c), del artículo 185 de esta Ley, será incompatible con la condición, por parte del hijo minusválido, de beneficiario de las pensiones asistenciales, reguladas en la Ley de 21 de julio de 1960 y suprimidas por la Ley 28/1992, de 24 de noviembre, o de los subsidios a que se refiere la disposición transitoria undécima de la presente Ley.

### **Sexta bis. Aplicación paulatina del límite de edad a efectos de las pensiones de orfandad**

Los límites de edad determinantes de la condición de beneficiario de la pensión de orfandad, previstos en el número 2 del artículo 175, serán aplicables a partir de 1 de enero de 1999.

Hasta alcanzar dicha fecha, los indicados límites serán los siguientes:

a) Durante el año 1997, de diecinueve años, salvo en los supuestos de inexistencia de ambos padres, en cuyo caso dicho límite será de veinte años.

b) Durante el año 1998, de veinte años, salvo en los supuestos de inexistencia de ambos padres, en cuyo caso dicho límite será de veintiún años.

### **Séptima. Prestaciones del extinguido Seguro Obligatorio de Vejez e Invalidez**

Quienes en 1 de enero de 1967, cualquiera que fuese su edad en dicha fecha, tuviesen cubierto el período de cotización exigido por el extinguido Seguro



### **Bost bis. Ezintasun iraunkorraren kalifikazioa**

Lege honen 137. artikuluan xedaturikoa aplikagarri izateko, indarrean sarturik egon beharko dute artikuluko horren 3. zenbakian aipaturiko erregelamenduzko xedapenek, eta urtebeteko epea izango da, gehienez, xedapen horiek emateko. Bitartean, aurreko legeria aplikatzen jarraituko da.

### **Seigarrena. Ekarpenezko ez diren prestazioen bateraezintasunak**

1. Gizarte Segurantzako ekarpenezko ez den aldaerako pentsioen onuradun izatea bateraezina izango da asistentziazko pentsioak jasotzearekin —1960ko uztailaren 21eko Legeak arautu eta 1992ko azaroaren 24ko 28/1992 Legeak ezeztatutako pentsioak— eta orobat lege honen hamaikagarren xedapen iragankorrean aipaturiko subsidioekin.

2. Lege honen 185 artikuluko 2.b) eta 2.c) letretan norberaren kargurako ume minusbaliatua izateagatik ezarritako diru-esleipenak jasotzea bateraezina izango da seme-alaba minusbaliatua asistentziazko pentsioen onuradun izatearekin —1960ko uztailaren 21eko legean arautu eta 1992ko azaroaren 24ko 28/1992 Legeak ezeztatutako pentsioak— edo lege honen hamaikagarren xedapen iragankorrak aipatzen dituen subsidioen onuradun izatearekin.

### **Sei bis. Adin-muga gutxika aplikatzea umezurtz-pentsioen ondorioetarako**

Lege honen 175. artikuluko 2. zenbakian jasoriko umezurtz-pentsioaren onuradun izateko aukera erabakitzen duten adin-mugak 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira aplikatzekoak.

Data horretara bitartean, hauek izango dira adin-mugak:

a) 1997an, hemeretzi urte; bi gurasoak hilak badira, berriz, hogeitau urte.

b) 1998an, hogeitau urte; bi gurasoak hilak badira, berriz, hogeitau bat urte.

### **Zazpigarrena. Zahartasun eta Baliaezintasun Aseguru Nahitaezko zenekoaren prestazioak**

Egun hartan edozein adin izanik ere 1967ko urtarrilaren 1ean Zahartzaro eta Baliaezintasun Aseguru zenekoan galdaturiko kotizazio-aldia betea

de Vejez e Invalidez o que, en su defecto, hubiesen figurado afiliados al extinguido Régimen de Retiro Obrero Obligatorio, conservarán el derecho a causar las prestaciones del primero de dichos seguros, con arreglo a las condiciones exigidas por la legislación del mismo, y siempre que los interesados no tengan derecho a ninguna pensión a cargo de los regímenes que integran el Sistema de la Seguridad Social, con excepción de las pensiones de viudedad de las que puedan ser beneficiarios; entre tales pensiones se entenderán incluidas las correspondientes a las entidades sustitutorias que han de integrarse en dicho sistema, de acuerdo con lo previsto en la disposición transitoria octava de la presente Ley.

Cuando concurren la pensión de viudedad y la del Seguro Obligatorio de Vejez e Invalidez, su suma no podrá ser superior al doble del importe de la pensión mínima de viudedad para beneficiarios con 65 o más años que esté establecido en cada momento. Caso de superarse dicho límite, se procederá a la minoración de la cuantía de la pensión del Seguro Obligatorio de Vejez e Invalidez, en el importe necesario para no exceder del límite indicado.

#### **Octava. Integración de entidades sustitutorias**

El Gobierno, a propuesta del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, determinará la forma y condiciones en que se integrarán en el Régimen General de la Seguridad Social, o en alguno de sus Regímenes Especiales, aquellos colectivos asegurados en entidades sustitutorias aún no integrados que, de acuerdo con lo dispuesto en la presente Ley, se encuentren comprendidos en el campo de aplicación del sistema de la Seguridad Social. Las normas que se establezcan contendrán las disposiciones de carácter económico que compensen, en cada caso, la integración dispuesta.

#### **Novena [Derogada]**

#### **Décima. Situación asimilada a la de alta en los procesos de reconversión**

1. Durante el período de percepción de la ayuda equivalente a la jubilación anticipada prevista en la Ley 27/1984, de 26 de julio, sobre Reconversión y Reindustrialización, el beneficiario será considerado en situación asimilada a la de alta en el correspondiente Régimen de la Seguridad Social, y continuará cotizándose por él según el tipo establecido para las contingencias generales del Régimen de que se trate. A tal efecto, se tomará como base de cotización la remuneración media que haya servido para la determinación de la cuantía de la ayuda equivalente a la jubilación anticipada, con el coeficiente de actualización anual que establezca el

zutenek edo, bestela, Nahitaezko Langile Erretiroko Araubide zenekoan afiliatuta egon zirenek, eskubidea gordeko dute bi aseguru horietatik lehenaren prestazioak sortzeko, haren legerian galdatzen diren baldintzen arabera, eta betiere interesdunek ez badute eskubiderik Gizarte Segurantzako sistema osatzen duten araubideen konturako ezein pentsio jasotzeko, salbu eta alargun-pentsioa, hartarako eskubidea badute; pentsio horietakotzat hartu behar dira sistema horren barruan sartu beharrekoak diren entitate ordeztaleei dagozkienak, lege honen zortzigarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoaren arabera.

